

Koldo Eleizalde

Idoia **A**riznabarreta
Patxi **O**rcasitas
Gregorio **A**rrien
José Javier **G**ranja
Elías **A**mézaga



8

colección
Lankidetzan
bilduma

Luis de Eleizalde:

El hombre, el vascólogo

Saludo	269
Prólogo	271

Idoia ARIZNABARRETA AURTENETXE

Luis de Eleizalde y su entorno familiar	275
--	-----

1. Luis de Eleizalde y Breñosa: Cuatro pinceladas de interés sobre su figura	278
2. Familia Eleizalde-Breñosa: los progenitores y las raíces culturales de 'Axe'	281
3. Familia Eleizalde-Urrutia: la descendencia y los frutos de 'Axe'	285
4. A modo de epílogo	287

Patxi ORCASITAS GARCÍA

Aspectos lingüísticos en la obra de Luis de Eleizalde	289
--	-----

1. Introducción	291
2. Conceptos fundamentales que Eleizalde relaciona con la lengua: nación, raza, cultura, escuelas	292
2.1. El idioma propio signo exterior principal de la nacionalidad	292
2.2. Vinculación del idioma con el "alma" (ideas, sentimientos, cultura) de un pueblo	293
2.3. Enseñanza y lengua materna	294
3. Aspectos generales de lingüística	295
3.1. Idiomas y dialectos	295
3.2. Componentes materiales y formales de las lenguas. Acerca de una clasificación científica de las lenguas.....	296
4. El idioma vasco en el conjunto de las lenguas	296
4.1. Características peculiares.....	296
4.2. Situación actual.....	297

5. Estudios morfológicos	298
5.1. Punto de partida y autores precursores a su obra	298
5.2. Principales aportaciones en este terreno, especialmente en lo referente a la conjunción sintética del verbo	299
5.3. Polemistas y críticos (Vinson, Urquijo,...)	302
6. Algunas cuestiones lexicales y etimológicas. La importancia de la filología comparada	303
7. Estudio de campo: el euskera de Bergara	305
8. Necesidades y urgencias del euskera.....	305
8.1. Restauración social (la importancia de las clases intelectuales y de las escuelas euskéricas)	305
8.2. Restauración literaria y científica. (Unidad fonética, ortográfica y dialectal)	306
9. Propuesta para una futura academia de la lengua y vinculación de Eleizalde a su creación y desarrollo.....	307
10. Conclusiones.....	308
Resumen	310
Bibliografía	311

Gregorio ARRIEN BERROJAECHERRIA

Ideología y educación en Luis de Eleizalde	319
---	------------

I. El nacionalismo posibilista y la acción cultural	321
1. Introducción	321
2. Del carlismo al nacionalismo	322
3. El programa y organización del partido	324
3.1. La revista "Euzkadi" y Juventud Vasca de Bilbao	327
4. La cuestión religiosa	329
5. La defensa del mundo rural	333
5.1. La promoción de la agricultura y la ganadería	336
6. El movimiento nacionalista entre 1914 y 1923	338
6.1. El periodo de 1919 a 1923: La escisión del partido	342
7. La prioridad de la acción cultural	344
II. La problemática de la enseñanza elemental y los intentos renovadores	347
1. Algunos factores del analfabetismo	347
2. La situación de la enseñanza oficial: Los maestros	348
2.1. La reclamación de la facultad de nombrar maestros	350
2.2. Dos ejemplos diferentes: El maestro en "Blancos y negros" y el maestro en "Landibar"	354
3. El euskera y escuela: Los colegios privados	357
4. A favor de reformas radicales	360
4.1. La Nueva Escuela Vasca	361
4.2. La creación de escuelas vascas	363

III. La política nacionalista en la diputación de Bizkaia: Las innovaciones educativas	365
1. La autonomía docente	365
2. La creación de la Junta de Instrucción Pública	367
3. Las escuelas euskéricas	370
3.1. Los centros de enseñanza superior y la Normal Libre de maestros	372
3.2. La Escuela de Náutica de Bilbao y la Universidad Vasca	374
3.2.1. La cuestión de la Universidad Vasca	376
4. Luis de Eleizalde, inspector de los establecimientos docentes de-pendientes de la Diputación de Bizkaia	379
IV. Las escuelas de Barriada de Bizkaia	381
1. La Moción Gallano	381
2. La creación y desarrollo de las Escuelas de barriada (1920-1923)	383
3. La modificación de la primera orientación bilingüe	386
4. El apoyo popular a las escuelas. Los costes de construcción y conservación	390
5. La organización escolar y programas	392
6. El mobiliario y el material escolar: Los textos euskéricos	394
6.1. La cuestión de los textos euskéricos	396
6.2. La inspección médica y las cantinas. Otras actividades complementarias	398
7. El personal docente	400
8. Los alumnos y la asistencia escolar: Las clases para adultos	402
8.1. La organización de clases para adultos	403
9. La evolución posterior de las escuelas	404
Album fotográfico	409

José Javier GRANJA PASCUAL

Luis de Eleizalde, periodista	423
--------------------------------------	-----

1. Contexto nacionalista	425
2. La enseñanza en euskera	426
3. Las propuestas lingüísticas	429
4. La defensa del nacionalismo	430
5. Los nacionalismos europeos	434
6. La crítica literaria	438
7. Música y arte popular	440
8. Otros temas	442

José Javier GRANJA PASCUAL

La obra literaria de Luis de Eleizalde y su relación con Eusko Ikaskuntza	443
--	-----

1. Los antecedentes	445
1.1. Biográficos	445
1.2. Políticos	448
1.3. Religiosos	451

1.4. Literarios	452
1.5. Académicos	453
1.6. El euskera	455
1.6.1. La unificación	457
1.6.2. La morfología verbal	458
1.6.3. Los estudios de toponomía	459
1.6.4. El vascoiberismo	460
1.6.5. La Escuela Euskaldun	460
1.6.5.1. Los textos escolares	461
1.6.5.2. Las escuelas de barriada	462
2. La obra literaria de Luis de Eleizalde	463
2.1. La recepción de Landibar	464
2.2. La trama	467
2.3. El tiempo de la obra	469
2.4. Las descripciones	470
2.4.1. Los montes y el mar	470
2.4.2. La historia, la leyenda y el paisaje	471
2.4.2.1. Historia	471
2.4.2.2. Leyendas	471
2.4.3. El ruralismo	472
2.4.3.1. La ciudad de Landibar	473
2.4.3.2. La ciudad de Madrid	474
2.4.3.3. El baile	475
2.5. Los retratos	475
2.5.1. Miguel Gaztanbide	476
2.5.2. Los agrupamientos de personajes	477
2.5.2.1. Personajes vasquistas	478
2.5.2.2. Personajes antivascos	480
2.5.2.2.1. De origen español	480
2.5.2.2.2. De origen vasco	482
2.5.2.2.3. El capitalista	482
2.5.2.2.4. El predicador	483
2.6. La lucha política partidaria	484
2.6.1. La corrupción electoral	484
2.6.2. Los liberales-conservadores	485
2.6.3. Los nacionalistas	486
2.6.4. El carlismo	486
2.6.5. Los inmigrantes	487
2.7. Otros recursos literarios	487
3. Luis de Eleizalde y la Sociedad de Estudios Vascos	490
Elías AMEZAGA URLEZAGA	
Luis de Eleizalde: aproximación bio-bibliográfica	501

Koldo Eleizalde: gizona, euskaltzalea

Agurra	17
Hitzaurrea	19

Idoia ARIZNABARRETA AURTENETXE

Koldo Eleizalde eta bere famili ingurunea	23
--	-----------

1. Koldo Eleizalde eta Breñosa: Lau xehetasun interesgarri haren irudiaz.....	26
2. Eleizalde-Breñosa familia: "Axe"ren gurasoak eta kultur erroak	29
3. Eleizalde-Urrutia familia: "Axe"ren ondorengoak eta fruituak	33
4. Hitzatze gisara	34

Patxi ORCASITAS GARCIA

Hizkuntz aspektuak Koldo Eleizalderen obran	37
--	-----------

1. Sarrera	39
2. Eleizaldek hizkuntzarekin harremanetan jartzen dituen oinarritzko kontzeptuak: Nazioa, Arraza, Kultura, Eskolak	40
2.1. Hizkuntza propioa, naziotasunaren kanpoko zeinu nagusia	40
2.2. Hizkuntzaren eta herriaren "arima"ren arteko lotura (ideiak, sentimenduak, kultura...)	41
2.3. Irakaskuntza eta ama-hizkuntza	42
3. Hizkuntzalaritzaren alderdi orokorrak	43
3.1. Hizkuntzak eta dialektoak	43
3.2. Hizkuntzen osagai material eta formalak. Hizkuntzen sailkapen zientifikoaz	44
4. Euskal hizkuntza beste hizkuntzen artean	44
4.1. Ezaugarri bereziak	44
4.2. Gaurko egoera	45
5. Azterketa morfologikoak	45
5.1. Bere obraren abiagunea eta autore aintzindariak (Arana-Goiri, Lardizabal Van Eys...)	45

5.2. Alor honetako ekarpen nagusiak, batez ere aditzaren jokaera sintetikoari dagozkionak	46
5.3. Polemistak eta kritikariak. (Vinson, Urkixo)	50
6. Auzi lexiko eta etimologiko batzuk. Filologia konparatuaren garrantzia	51
7. Eremu-azterketa: Bergarako euskara	53
8. Euskararen premiak eta larritasunak.	53
8.1. Gizarte-berrezarpena (Klase intelektualen eta euskarazko ikastetxeen garrantzia)	53
8.2. Berrezarpen literario eta zientifikoa. (Batasun fonetiko, ortografiko eta dialektala)	54
9. Etorkizuneko hizkuntz akademia baterako proposamenak eta Eleizalde hura sortu eta garatzean izandako zerikusia	55
10. Azken ondorioak	56
Laburbilduma	58
Bibliografia	58

Gregorio ARRIEN BERROJAECHVARRIA

Ideologia eta hezkuntza Koldo Eleizalderen baitan	65
--	-----------

I. Nazionalismo posibilista eta kultur egintza	67
1. Sarrera	67
2. Karlismotik nazionalismora	68
3. Egitaraua eta alderdiaren antolakuntza	70
3.1. "Euzkadi" aldizkaria eta "Juventud vasca de Bilbao"	73
4. Erljio-azua	75
5. Baserri-munduaren defentsa	79
5.1. Nekazaritza eta abeltzaintzaren sustapena	82
6. Mugimendu nazionalista 1914 eta 1923 bitartean	83
6.1. 1919tik 1922ra bitarteko epea: Alderdiaren zatiketa	87
7. Kultur ekintzaren lehentasuna	89
II. Lehen hezkuntzaren arazoak eta berriztatze-ahaleginak	92
1. Analfabetismoaren zenbait faktore	92
2. Irakaskuntza ofizialaren egoera: Maisu-maistrak	93
2.1. Maisu-maistrak izendatzeko ahalmenaren erreklamazioa	95
2.2. Bi adibide desberdin: Maisua "Blancos y Negros"en eta maisua "Landibar"en	99
3. Euskara eta eskola: Ikastetxe pribatuak.	102
4. Errotiko eraberrikuntzen alde	104
4.1. Euskal Eskola Berria	105
4.2. Euskal eskolen sorrera	107

III. Politika nazionalista Bizkaiko Aldundian: Hezkuntzako berrikuntzak	108
1. Irakas-autonomia	108
2. Instrukzio Publikoko Batzordearen sorrera	111
3. Euskarazko eskolak	114
3.1. Goi mailako ikastetxeak eta maisuen normal askea	115
3.2. Bilboko Nautika Eskola eta Euskal Unibertsitatea	117
3.2.1. Euskal Unibertsitatearen auzia	119
4. Luis Eleizalde, Bizkaiko Aldundiaren menpeko ikastetxeen ikuskari	121
IV. Bizkaiko auzo ikastolak	124
1. Gallano Mozioa	124
2. Auzo ikastolak sortu eta garatzea (1920-1923)	126
3. Lehen orientazio elebidunaren aldaketa	129
4. Eskolen laguntza herritarra. Eraikuntza eta kontserbazio kostuak	132
5. Eskola-antolakuntza eta egitarauak	134
6. Altzariak eta eskola-materiala: Euskarazko testuak	137
6.1. Euskarazko testuen auzia	138
6.2. Ikuskaritza medikoa eta kantineak. Beste jarduera osagarri batzuk	140
7. Irakasleak	142
8. Ikasleak eta eskola-asistentzia: helduentzako eskolak	144
8.1. Helduentzako eskolen antolakuntza	145
9. Eskolen geroko bilakaera	146
Argazki bilduma	149

José Javier GRANJA PASCUAL

Koldo Eleizalde kazetari	163
1. Testuinguru nazionalista.	165
2. Euskarazko irakaskuntza.	166
3. Proposamen linguistikoak.	169
4. Nazionalismoaren defentsa.	170
5. Europako nazionalismoak.	174
6. Literatur kritika.	178
7. Musika eta arte herritarra.	180
8. Beste gai batzuk.	182

José Javier GRANJA PASCUAL

Koldo Eleizalderen literatur obra eta Eusko Ikaskuntzarekiko bere harremana ...	183
1. Aurrekariak	185
1.1. Biografikoak	185
1.2. Politikoak	188
1.3. Erlizkoak	191
1.4. Literarioak	192

1.5. Akademikoak	193
1.6. Euskara	195
1.6.1. Bateratzea	197
1.6.2. Aditz morfologia	198
1.6.3. Toponimiako azterketak	199
1.6.4. Euskaliberismoa	199
1.6.5. Eskola euskalduna	200
1.6.5.1. Eskola testuak	201
1.6.5.2. Auzo ikastolak	202
2. Koldo Eleizalderen literatur obra	203
2.1. “Landibar-i buruzko iritziak”	204
2.2. Bilbea	206
2.3. Obrako denbora	209
2.4. Deskribapenak	209
2.4.1. Mendiak eta itsasoa	209
2.4.2. Historia, elezaharra eta paisajea	211
2.4.2.1. Historia	211
2.4.2.2. Elezaharrak	211
2.4.3. Ruralismoa	212
2.4.3.1. Landibar hiria	213
2.4.3.2. Madril hiria	213
2.4.3.3. Dantza	214
2.5. Erretratuak	215
2.5.1. Miguel de Gaztanbide	215
2.5.2. Pertsonaien taldekatzeak	217
2.5.2.1. Pertsonaia euskaltzaleak	217
2.5.2.2. Pertsonaia antieuskaldunak	219
2.5.2.2.1. Jatorri espainiarrekoak	220
2.5.2.2.2. Euskaldun jatorrizkoak	221
2.5.2.2.3. Kapitalista	221
2.5.2.2.4. Predikaria	222
2.6. Borroka politiko alderditarra	223
2.6.1. Hauteskundeetako ustelkeria	224
2.6.2. Liberal-kontserbadoreak	224
2.6.3. Nazionalistak	225
2.6.4. Karlismoa	225
2.6.5. Etorkinak	226
2.7. Beste literatur baliabide batzuk	227
3. Koldo Eleizalde eta Eusko Ikaskuntza	229
Elías AMEZAGA URLEZAGA	
Koldo Eleizalde: gerturatze bio-bibliografikoa	239

Poz handiz aurkezten dut azken mende eta laurdenean Bergarak eman duen gizonik gailenetako baten bizitza eta lanak jorratzen dituen liburu hau.

Liburuak berak agertzen duenez, gaitasun eta ekimen ikaragarritzko gizona izan zen Eleizalde: politikan, hizkuntzalaritzan, literaturan, pedagogia gaietan... eta beste hainbat arlotan jardun zuen. Baina, bereziki azpimarratzekoa da euskara biziberritu eta gizarteratzeko egin zuen lan handia: Euskaltzaindiaren sortzaileetarikoa izan zen, euskara eskolan sartzeko lan ikaragarria egin zuen, euskararen batasunaren defendatzaile sutsua izan zen...

Euskal Herriaren eraikuntzarekin zuen konpromiso sakonak eraman zuen hainbeste egin-kizuni heltzera eta, zoritxarrez behar baino bizitza laburragoa izan bazuen ere, bere lanak utzi zuen fruturik.

Ez dago dudarik, Eleizalderen eta bere garaiko Euskal Herriaren bizitza inguratu zuten hainbat aspektuk, garai hartako helburuek, garai hartako eztabaidagaiak, garai hartako erronkek... badutela loturarik gure herriak gaur bizi dituenekin. Iraganaren berri jakitea laguntza handia izango zaigu etorkizuna hobeto bideratzeko. Liburu honek aukera ederra eskaintzen digu horretarako.

Eleizalde hil zela 75 urte bete diren honetan, Udalaren izenean nire eskerrik beroenak azaldu nahi dizkiet bereziki egileei eta baita hartan edo honetan liburu honek argia ikus dezan lagundu duten guztiei.

Victoriano Gallastegi
Alkateak

HITZAURREA

Eusko ikaskuntzaren Hezkuntza sailak talde lan batzuk burutzea lortu du azken urteotan. Horren ondorioz, Euskal Herrian hezkuntzaren gertakaria egoki ulertzeko funtsezkoak diren zenbait autore edo gairi buruzko monografiak egiteko gai den ikerketa-gune bat sendoturik geratu da. Ildo horretatik, aipatzekoak dira Julene Azpeitia (1988) eta Federiko Belaustegigoitia (1989) ikertzen dituzten monografikoak. Koldo Eleizalderi eskainitakoa aurrekoen jarraipen gisa dator: bergarar hau irakaskuntza munduaren berezko ordezkaria da —Matematika katedraduna eta Auzo Ikastolen Hezkuntza ikuskatzailea izan zenez—, baina baita pertsonaia giltzarria ere XX. mendeko lehen hogeitau urteetan hezkuntza, hizkuntza, politika eta kazetagintza alorretan eta 1900-1923 bitartean euskaltzaleek antolatu jarduera guztietan, azkeneko data hori haren heriotz goiztarrarena delarik.

Euskal Herriko kultura, hizkuntzalaritza eta pedagogia eremuetako berrikuntza abiatu zuten pertsonaia handi haietariko batek buruturiko lana agertarazi nahiko luke orain aurkezten dugun lan honek. Lehen garaiko joera abertzalearen baitan kokaturik, Eleizalderen mailak izaera hori gainditzen du, 1936a aurretik onduriko hizkuntza eta hezkuntza berreraikitze haren lehen planoan agertzeraino.

Beste azterlanetan azpimarratu denez, gure iritziz, gaur egungo hezkuntza eta hizkuntza alorretako Euskal Herriaren arartegabeko aitzinekoak diren pertsonaia historiko hauek berreskuratzea ezinbestekoa dugu, azken mende erdian 1936az geroko hondamenaren ondorioz ahaztuegiak izan dira eta. Ahazte hori konpondu eta susturriak berreskuratzea da gure asmoa eta bide horri ekiten diogu, lan honekin jarraituko duten ikerlari gehiago hurbilduko delakoan eta euskal hezkuntzaren arloan dauden aukera ugariak konponduz joango direlakoan.

Ondoren bost azterlan aurkezten dira.

Lehenengoan, Idoia Ariznabarretak Koldo Eleizalderen familiarteko ingurune hurbilena ikertu du, gure autorearen kultura erroak azaldu nahian, haren gurasoengandik ondorengoganaino, berauek segida eman baitiote Eleizalde familiaren kezka intelektualari.

Azterlan hauetariko bigarrena Koldo Eleizalderen obraren hizkuntza alderdiei eskainia da. Eleizalde, nazionalitateen teoriarin oinarriturik, gure hizkuntzaren azterketari buruzko ideia orokorrak lantzeagatik eta, aditz trinkoaren sistematizazio eta zabalkunde lanagatik nabarmendu zen. Azken lan horretan erabilitako metodoa induktiboa da. Ohiko formetan oinarritu-

rik, beraiek argitzen dituzten legeak ateratzen zituen eta horiek beste adizki batzuk sortarazteko bide ematen digute. Haren helburua praktikoa zen teorikoa baino areago, hau da, euskarak kultura hizkuntza gisa iraupena lortzeko bidea aurkitzea.

Hezkuntzaren ideologia eta ikusmoldearen gaia, batez ere Bizkaiko Auzo Ikastolen ikuskatzaile lanari dagokionez, aztertzen duen lan zabal-dokumentatuak Eleizalderen nortasun apartekoa erakusten digu. Eduardo Landetarekin batera, Eleizalde euskal eskolaren eta, oro har, euskal kulturaren berpizkundearen bultzatzaile gailenatariko bat izan zen. Irakaskuntza autonomiaren eta berrikuntza pedagogikoaren aldeko jarduera, gehienbat, XX. mendeko bigarren hamarraldian gertatu zen. Nazionalismoak euskal eskolaren obrari modu erabakiorrez ekin behar ziolako uste osoa zuen, gainerako arazoak hezkuntz arazoaren adarrak besterik ez zirelakoan.

Halaber, haren partaidetza politikoa nazionalismoaren bilakaeran aztertzen da hemen; hartara karlismoaren bidez iritsia zen. Bestalde, Eleizaldek parte hartu zuen kultura, erlijio eta moralitate testuingurua ikertzen da, haustura nazionalistan esku hartu baitzuen, baina testuinguru hurbilena gainditu eta Europako erdialdeko nazionalitateen existentzia eta aurrerapenen berri ematen zuela.

Oinarrizko irakaskuntzan zeuden arazoak eta Eleizaldek maila hori berritzeko eta euskal eskolak sortzeko egindako ekarpena zehazki aztertu ondoren, hainbat alderdi aurkezten dira, hala nola 1917.az geroztik Bizkaian gertatu hezkuntz berrikuntzen azterketa, Junta de Instrucción Pública delakoaren sorrera, goi ikasketen egoera eta Eleizaldek Auzo Ikastolen ikuskatzaile gisa egindako lana.

Azterlanaren azken atala Bizkaiko Auzo Ikastolei eskainia da eta bertan sakon aztertzen dira beraien sorreratik, Gallano mozioaren onespina dela bide, izandako arazoak eta lorpenak, harik eta Eskola Nazional bihurtu ziren arte. Herriaren laguntza eskolak eraikitzeko, euskal testuak ontzeko zailtasunak (garai hartan ez baitzen halakorik), eskolen antolaketa eta programak, irakaslearen kontratazioari emandako garrantzia, etab. dira Eleizaldek landu zituen alderdiatariko batzuk, bereziki euskal testuen sorrerari dagozkionak, haien autoreen artean izan baitzen bergararra.

Atal berezia merezi du helburu horiekin berekin prentsa bidez egindako lan zabalak, Euzkadi egunkarian gehienbat, zeinetan Eleizalde analista politikoa fina izan baitzen, ideia nazionalisten zerbitzuan beti.

Koldo Eleizalderen bizitza labur baina bizi-biziaren ezaugarri nabarmenenak azaltzen dituen sarrera gisako biografia labur baten ondoren, haren literatura eta kazetaritza obraren azterketari ekiten dio lan honek eta Eusko Ikaskuntzaren lehen urteetan, —sorreratik beretik partaide izan baitzen—, izan zuen lankidetzaz aztertzen da zehaztasun bereziz, Hizkuntza saileko partaide eta eusko ikaskuntzen lehenengo kongresuetan lankide izan zelako. Ikerketa hau egiteko Eusko Ikaskuntzaren artxiboez baliatu gara.

Euskaltzaindia jaioberriarekiko lankidetzaz aztertzea zen gure nahia, baina, zoritxarrez, Idoia Estornesek egindako lanari esker Eusko Ikaskuntzaren dokumentazioa oso ongi gorde bada, ez da gauza bera gertatzen Euskaltzaindiaren lehen urteetako dokumentazioari dagokionez, eta Eleizalderi buruzkoa desagertu egin da.

Eleizalderen literatur obra, oso zabala ez bada ere, XX. mendeko lehen hamarraldietako nazionalismoaren zerbitzuan zegoen intelektual organikoaren zereginaren ildotik doa eta ikus-

pegi nazionalistatik euskaltasunaren izatea bera mehatxatzen zuten arazoak biltzen ditu. I. Mundu Gerrak faboraturiko goraldi ekonomikoaren ondorioz nazionalistek 1917an Bizkaiko Diputaziora iritsi izanak argitzen du haren eleberri bakarra, Landibar izenburukoa. Nazionalismoaren berpizkundearen eta haren aurkako etsaien tesiari erantzuten dion eleberria da, beranduko erregionalismoaren erara idatzia.

Elías Amézagak, ohi duen legez, datu bibliografikoen bilketa sakon horietariko bat burutzen du gure autorearekin ere, hainbat lekutan Eleizalde argitaraturiko idazkiak jasoz: liburuak, liburuskak, askoren arteko lanak, astekariak, Euzkadi egunkaria, Hermes, La Tarde, RIEV, etab. Halaber, beste autoreengan bilduriko Eleizalderen bizitza eta obrari buruzko erreferentziak dakartza.

Azkenik, Koldo Eleizalderen familiari, Itziar alabari bereziki, eskerrak eman behar dizkiogu Eleizalderen nortasun eta obraren alderdi ezkutuena aztertzeko emandako erraztasunengatik, politiko eta idazlearen artxibo pertsonala jarri baitzuten gure esku, eta horrek, zalantzarik gabe, Koldo Eleizalde politikari, kazetari, literaturgile, hizkuntzalari eta pedagogor mailan zuen garrantzia goratzen duten datu berriak eskaintzeko balio izan du.

Liburu honen edukia Esteban Antxustegiren *Luis de Eleizalde. Un vasco polifacético* izenburuko obra egiteko erreferentzia gisa erabili da. Sabino Arana Kultur Elkargoak argitaratu du liburu hori.

Koldo Eleizalde eta bere famili ingurunea



Idoia **A**riznabarreta **A**urtenetxe

Iraganeko pertsonaia askorekin gertatzen denez, Koldo Eleizalderengan ingurune familiar eta pertsonala isiltasun zuhurraren pean ezkutaturik daude; kapitulu honetan zehar ikusiko denez, isiltasun horrek hutsunetxoak sorrarazi zituen bere irudiaren eta obraren inguruan. Berak zuzenean emandako datu biografikorik ia ez dago, Zientzietako bere ikasketei buruz emandako eta Hermes¹ aldizkariko “Gure hogeitun urteak” idatzian mamitutako zertzelada banaka batzuk izan ezik:

“Laster izango dira beste hainbeste geure hogeitun urte berdeak izan genituenetik. Madrilen ari ginen karrerako geure azken urteak ikasten: batzuk doktore-borlak jasotzeko ia prest geunden. Batzuek, Filosofi Fakultatean, don Nicolás Salmerónen eskolak entzuten zituzten, (...) Banaka batzuek, azkenik, Zientzia Fakultatean, Astronomia eta Fisika matematikoko ikasketekin genbiltzan, zeinen proba akademikoak borla urdin turkiarra erabiltzeko eskubidea ematen baitzigun eta izenaren aurretik ‘Dr.’ laburdura prestigiotsu eta irrikatua. Jakina da gero ez dugula hainbestetan erabili. Baina aitortu beharra dago orduan ilusio handi samarra egiten zigula”.

Gertakaria ez litzateke anekdota besterik izango baldin eta intimitate-keinu horrek, inbidia-garria, zalantzarik gabe, bere borondate onarekin giza esentzia aipagarritzko bazar oso bat esalik ez balu. Eta esango dut zergatik. Izen handiko aditu euskaldun hau –pertsona nekaezinararen adierazpen goren– gizendu zuen hazkuntza-salda, ez zen sorgin-edabe bat izan, familiaren osagaia baizik, hau da, iragan emankor batean iratzartu zen ehun pertsonal eta profesionala, eta zorionez gaur egun jarraitu egiten du bere ondorengotza ugarian, Eleizalde beraren izate eta jakiteak elikaturik. Adimenaz, kulturaz, sentsibiltateaz, iragazkortasunaz, iraupenaz, doitasunaz, konpromezuaz ari naiz eta, guztiaren gainetik, Koldo Eleizalde Breñosarekin, bere herrialdeko kultura jasotzeko hainbeste egin zuen abertzale aldeanitz horrekin zerikusia izan zutenei zerien eta oraindik darien maitakortasunaz ari naiz. Begibistan dago, orduan, Itziar Eleizalde Urrutiaren oroimen bikainera jotzea beste irtenbiderik ez dudala izan, izan ere berak onginahiz eta abegikor, bere burua eskaini baitit ingurune liluragarri horretan sar nañin. Eleizalderen alaba txikiak, maitakortasun eta sotiltasunez, behin eta berriz hartu nau Bermeoko etxean eta bertan aztertu ahal izan dugu, oroitzapen eta hizketaldiekin, famili albuma hasieratik. Bi urte besterik ez zituela aita galdu zuen baten lekukotasun paregabea, gaur egun, Miren Begoña (Miren) ahizparekin, Eleizalde-Urrutia zortzi neba-arreben ordezkaritza bizia osatzen duenarena.

¹ ELEIZALDE, Koldo: Nuestros veinte años, Hermes. Revista del País Vasco, Idatz Ekintza, S.A. Bilbo, 1917ko ekaina, 6. zbkia., 360-366 orr.

1. KOLDO ELEIZALDE BREÑOSA: LAU XEHETASUN INTERESGARRI HAREN IRUDIAZ

Axe, Iturraín, Azkain edo Aitzerreka izenez ere ezaguna. 1878ko ekainaren 10ean bataiatu zuten Bergarako San Pedro Ariznoako parrokiari Luis Maria Inazio Jose Roman izenekin. Gipuzkoako herri horretan bertan jaioa zen urte bereko ekainaren 9an. Eta 1923ko uztailaren 24an Koldo Eleizalde 45 urte zituen Bilboko Iralabari kaleko Gainzuri txaletean hil zenean. Tamalez, azken lau urteak oinazezko infernu bihurtu zitzaizkion minbizi setati baten ondorioz. Izan ere ezer gutxirako balio izan zioten -aldi baterako aringarri baizik ez- 1920 eta 1921 bitartean On Jesus Arrese Otxandioko mediku sonatuak egindako hiru ebakuntzek; eta ezer gutxirako balio izan zioten, halaber, (Alemania) Hanburgeko Ospitalean egin zizkieten radioterapia-saioek, nahiz eta bertatik itxaropen apur batekin itzuli zen. Guztiarekin ere, adeno-karzinomak, bronkoneumonia batekin konplikatzean, adio tristea esanarazi zion azken txanpa egiteko kristau-etsipenez fedeari itsatsi zitzaion gizonari. Zeren Bergarako katedradunak azken hatseraino izan zuen kemena, bere azken biografiarako apaingarri huts ez baizik zutabe izan zuen bere fede katolikoa, konpromezu ideologikoa eta mugarik gabeko maitasuna zurkaizteko. “Ongi ezagutu zituztenek zioten inoiz ez zutela hain senar-emazte zorionsurik ikusi. Munduko bikoterik maiteminduen zela”, aitortzen du Itziarrek elkartasun horren fruitua izatearen harrotasuna ezkutatu ezinik. Baina oraindik baditugu egin beharreko zenbait galdera. Esaterako: Zer bizimodu egin zuten elkar ezagutu aurretik? Non eta zer ikasi zuten? Nola ezagutu zuten elkar? Nola ezkondu ziren eta non bizi izan ziren? Zenbat seme-alaba izan zituzten? Zer egin zuen emazteak hain gazterik alargun gelditzean?

Koldo Eleizalde bere jaioterriko Dominikoetan hasi zuen batxilergoa eta Zaragozako jesuitetan jarraitu zuen ikasten, “begikotasun handia zien euskal ordena batekoak zirelako”, dio Itziarrek. Eleizalde-Breñosatarrak Aragoiko hiriburura aldatu ziren lekuz Filosofiako katedraduna zen aitaren lanbideak horretaraturik -hurrengo sailean ikusiko dugu hori-, nahiz eta zenbait urte geroago, 1899an zehatzago esateko, Madrilen lortu zuen Eleizalde gazteak Natur Zientziatako lizentziatura. Bere prestakuntza akademikoa amaiturik Euskadira itzuli zen -egia esateko ez zuen inoiz utzi, zeren udak Bergarako etxean ematen baitzituen guraso eta anai-arrebekin batera-. Garai horretan lehiaketaz Matematikako katedra atera zuen Gasteizko Institutuan -zegoen bakarrean-, eta bertako katedradun bikain izan zen, behin betiko Bilbora joan zen arte. Hori 1919an gertatu zen eta bere lan pedagogiko, dibulgatzaile, kudeatzaile eta sortzaile gailena gertatu zen, nola Bizkaiko Aldundiaren irakaskuntzaburu gisara, hala Auzo Ikastolen ikuskari bezala, eta Eusko Ikaskuntzaren hizkuntza-saileko partaide gisa eta Euskaltzain lanetan, nahiz Euzkadi argitalpenaren zuzendari gisa eta ezin zenbatuzko hainbat eta hainbat zereginetan, betiere idazketa alde batera utzi gabe. 1918an idatzitako Landibar² eleberririk bikainean gorde eta azalduko ditu, Migel Gaztanbide Esterenalde injineru nafar protagonistak baliatuz, neurri batean autorearen pentsatze eta sentitzearen radiografia izango zenaren keinu ukaezinak: adimena, abertzaletasuna, sentsibilitatea, kezka, erromantizismoa, erlijiozaletasuna, seta, borondatea.... Puntu honetara heldurik eta lehen aipatu dugun argibide-urritasunarengatik, agian uste izan liteke bilaketa bortxatu batean ari izan behar dugula Axeren izanera lantzeko. Bere ahaideen laguntzarengatik izan ez balitz behar bada irudimenarekin trantuan aritu beharko nukeen, baina, sinetsidazue, ez da horrelakorik gertatu. Eta nabarmen da ez dela gertatu, autorearen eta obraren arteko batasuna begibistakoa baita, eta halaxe egiaz-

2 ELEIZALDE, Koldo: Landibar, Cuadros novelescos del País Vasco, Gasteiz, 1918.

tatzen dute Miguel Cortésen, bere burua “adiskide eta aberkide”tzat definitzen duen kritikarieren, hitzek ere, Landibar irakurri eta gero Koldo Eleizalderi helarazitako gutun batean:

“Hasieran, injineru-ikaslearen Madrileko egonaldia deskribatzen ari zinela, uste izan nuen eleberria funts handirik gabekoa izango zela; eta bere helburu ia bakarra hispaniar tipo eta ohiturak egurtzea zela. Ikusten duzunez, ia etsai izanez hasi nintzaizun; ez hain zuzen ere jende hori astintzeagatik (bost axola niri) baizik eta arte-obra batetik eta zugandik zerbait gehiago eta horretaz bestelakorik espero izatekoa zelako. Laster zabaldu zitzaidan barrena. Autorea, bere injineru atseginarekin Euzkadira itzultzean, aberri-lurra zapaldu eta beren bizitza egiten eta beren giroa arnasten hasten direnean, orduan adimenak, bihotzarekin bat eginik, artea sortzen du, egiazko artea, emozioaren txingarrak saltarazten dituena.”³

Egia da umiltasun eta modestiak bahitu egin zutela Eleizalde eta bere banitatea zuhurtziaren ohoretan hertsatu ziotela; hala eta guzti ere, hori bezain egiazkoa da –zilegi bekit gure pertsonaiari errieta maitakorra egitea–, jendearen txaloak merezi dituzten gaitasunak badituela esatea, are gehiago hain bizitza laburrean. Eta Eleizalderena, trinkoa eta bete-betea izan zelarik, behar baino laburragoa izan zen. Emazte alargun gaztea utzi zuen, berarekin “ezkontza benetan erereduzkoa” izan eta gero, azpimarratzen du Itziarrek, hunkiturik eta konbentziturik; seme-alaba txikiak utzi zituen, horietako batzuk, Miren eta Itziar esaterako, lau eta bi urte zituztenak hurrenez hurren, bera ezagutzeko ia astirik gabe; eta hutsune handia utzi zuen lagun eta ezagunen artean, gizartean bertan, esango genuke, zeren bere hileta jendetsuaren irudi hutsa nahiko lekuko bikaina da galeraren balioa zenbaterainokoa zen aditzera emateko. Horrela izanik ere, ezin ditut aipatu gabe utzi Engrazio Aranzadi -Kizkitza- ospetsuak bere adiskideari heriotzeko lehen urteurrenean eskaintzen dizkion hitzak, bidegabekeria eta bekaizkeriaren izurri ezabaezinek eragindakoak; izan ere Eleizaldek bere burua horietatik babestu beharra izan baitzuen, bizirik zen garaian eta ondoren ere:

“Bere intelektual-izaera haziz eta nagusituz joango da denbora igaro ahala eta beraren jeniotasunaren sendotasun eta gorentasuna axaleko begiradetatik ezkutatzen zuten haren modestia, sotiltasun eta xalotasun txundigarria ezagutu zutenen oroitzapena omendu ahala, (-azaltzen du Aranzadik-); haren irudia aurreiritzi guztietatik libre gelditu ahala, Eleizaldek zenbat balio zuen behar bezala preziatu ahal izateko beraren obren proba bakar eta ukaezina kontuan izaten denean” (Euzkadi, 24-VII-1924)⁴.

Hogeita hamabi urterekin alargundurik gelditzean, Lone Urrutiak Bermeoko Ercilla kaleko 18ra itzultzea erabaki zuen. Itziarrek izugarria, “oso handia”, zela dio, eta milimetroz milimetro gogoratzen du, zeren bertan bizi izan baitzen urte luzetan, Arostegi kalean egoitza hartu baino lehen; etxe horren hormek abegitasunez biltzen dituzte gure elkarriketak, orrialde hauek sinesgarritasunez betetzeko. Benetan eder eta zabala izan behar zuen Urrutiatarren etxeak hamar neba-arrebei leku egiteko. Eta xehetasun bitxi bezala aipa genezake –gizarte-estatus jasoak zuten familien artean aski ohikoa zen moduan– kapera propioa zuela etxeak. Horrek guztiak, bada, Urrutia familia ekonomia aldetik eroso bizi zela erakusten du, eta bertan ezinbestekoa da Isaak Urrutiaren, osaba Isaaken, garrantzia azpimarratzea. Loneren neba apaiza “egiazko aita bihurtu zen guretzat -dio Itziarrek– guztiaz arduratu baitzen”, koinatuari heriotza

3 Miguel Cortésen Koldo Eleizalderi egindako gutuna. Bilbo, 1918ko ekainaren 9a.

4 AMEZAGA, Elías: Autores Vascos, III. libkia., 210. orr.

goiztiarrak eragotzi zion guztiaz, noski. Lonek bere izatearen sakonenean sentitu zuen senar-raren gabezia –gogora bedi zeinen elkarturik zeuden senar-emazteak–, eta hala ere bakar-dadeak ez zuen lortu arima menpean hartzerik, neba-arreben laguntzari esker eta, batez ere, artean berarekin gelditzen zen Eleizalderen parte horri esker, lau seme-alabei esker.

Egin dezagun flash back ezkongaietako aldira eta ezkontzara bitarteko urrats haietara. Luiz Eleizalde matematiketako katedradun gisara utzi dugu Gasteizko Institutuan eta badakigu, Itziarren bidez, Lone Urrutiak, ahizpek bezala, bi urte eman zituela Bihotz Sakratuaren ordenak Gasteizen zeukan barnetegian. Kultura Orokorreko prestakuntza ematen zieten. Guztiarekin ere, maitemintzea ez zen Araban gertatu, Bizkaian baizik; Mundakan, zehatzago esateko.

“Kontua da ahizpa batek –hala dio Itziarrek–, mundakar batekin ezkonduzik zegoenak, San Pedro jaiki pasatzera gonbidatu zuela etxera. Halaberbarrez gertatu zen nire aita amaren koinatuaren oso adiskide zela eta hura ere jaietan zebilela. Kontua da elkarri aurkezpenak egin zizkiotela, elkar atsegin izan zuten eta gainerako guztia oso bizkor etorri zen –gehitzen du, halako piper-ukitu batekin–. Izan ere ez ziren hiru hilabetera iritsi ezkongai gisara, eta 1906ko urriaren 6an ezkondu ziren Urkiolan. Erabat maitemindurik zeuden eta hala jarraitu zuten bizitza osoan”.

Aise sinesten zaio Itziarri eta horrela izanik ere, oraingoan badugu aparteko beste lekuo bat ere: ezkontzako argazkia. Paper-zati urtetsu, umel, txibia kolorekoa eta bi aurpegi liluraturari darien ia hada-istorio bat. Koldo Eleizalde, berezko patxada, hazpegi dotore eta lasaiekin eta Herkules Poirotena moduko bibotearekin. Lone Urrutia, adierazpen atseginekoa, tupe moduko batean mimoz bilduriko ilea, idun gorako soinekoa eta medailoi ikustetsu bat guztia nabarmenduz. 1906. urtea zen eta ezkonberriak zorionez gainezka ageri ziren. Hainbestearino, non, ezteiondoko bidaia nora egin zuten alabak gogoan ez badu ere, badakien handik gutxira amak gurasoen etxea utzi eta Gasteiza jo zuela senararekin bizi izaten jartzeko. Eta ondorengoak etortzen hasi ziren. Haurretik haurrera urte pare bateko tartearekin, guztira zortzi izan zituzten. Nahiz eta, tamalez, horietako lau –Iñaki, Maria Lourdes, Jon Andoni eta Ane Miren–, oso gazterik hil ziren, “orduko epidemien biktima, nik uste -aipatzen du Itziarrek–, zeren ezagutu ez banituen ere badakit garai hartan gaitzek gogor erasotzen zietela haurrei”. Paper-gordailutik oroitzapen hunkigarri bat berreskuratu dugu Jon Andoni Eleizalde Urrutiarena, Gasteizen 1913ko maiatzaren 1ean bi urterekin hildakoarena. Bizirik iraun zuten lauretatik, Miren Eulali eta Miren Araban jaio ziren; aldiz, Luis eta Itziar Bermeon eta Bilbon, hurrenez hurren. Familia honetan ezerk bereziki hunkitzekotan, euren arteko loturaren sendoak hunkitzen gaitu. Eta Itziarren testigantzek fede ematen dute: “Aita eta ama aitak lan-arrazoiengatik bidaiaren bat egin behar zuenean aldentzen ziren elkarrengatik, baina ez zuten batere gogoko banaturik egotea”, baieztatzen du. Eta arrazoiz, zeren bai baitago Luisek Bilbotik, auzo Ikas-toletako irakaslegaietaz azterketak egiten ari zen tokitik, igorritako gutun bat eta bertan nahigabea agertzen du aldendurik egoteagatik, eta emaztearekin lehenbailehen berriz elkartzeko irrika⁵. Gauzak horrela, gertakarien logikak –sentimenduenak, areago–, pentsarazten digu alarguntzeak kolpe ikaragarri, lehor eta zakarra eman ziola Lone Urrutiari. Izan ere halaxe izan zen. Baina, bestalde, mirezgarriak izan ziren bere kemen fisiko eta espiritual, eta Bermeora itzuli zenean, neba-arreben eta seme-alaben berotasunean berrindartu eta borrokan jarraitzeko gai izan zen. Ziurraski indar endogeno horren parte bat senar-raren azken nahia

⁵ Emazteari idatziriko gutuna. Bilbo, 1922ko uztailaren 26.

betetzeko ahaleginetik sortzen zen.”Hil baino lehen, gutztoi karrera bana eta aurrera ateratzeko lanbide bana emateko eskatu zion aitak. Bere garairako oso ideia aurreratuak zituen eta oso kezkatuak bizi zen bere familiaren ongizatea zela-eta.” Gaur egun Koldo Eleizalde Breñosari telegrama bat bidaltzerik izango bagenu, nonahi dagoela ere, honelako zerbait idatziko genuke: *Egitekoa beterik*.

Jazoeretatik ateratzen denez, dirua ez zen arazo izan Eleizalde familiarentzat, ez aitaren heriotzaren aurretik eta ez gero ere. Azpimarratu egiten dut gai ekonomikoa zeren agian harri-garri gerta baitaiteke titularra hiltzean ia bat-batean kendu zioten katedradun-soldata erreklamatu izana Lone Urrutiak Bizkaiko Aldundiari. Ziurraski, ez zen larritasunak eraginda izango eta, aldiz, Eleizalderen alargunak bidezkotzat jotzen zuen zerbait eskuratzea izango zen erreklamazioaren asmoa. Itziarren testigantzak sendotu egiten du uste hori: “Ez dut zailtasun ekonomikoak jasan izanaren konstantziarik eta izan baldin baziren –proposatu eta konpontzen du berehalakoan–, amak ez zigan jakinarazi eta ez zigan horrelakoen berri eman.” Ez da inolako sekretua, nolana ere, garai hartan gisa horretako karguak eskuzabalki sarituak zeudela –9.000 bat pezeta urtean–, eta halaber esan beharra dago Gizarte Segurantzari ezak pribilegio hori gabe uzten zuela bizi zen ezkontidea. Eleizalderen alargunak eskatu egin zuen, esan dudanez, baina, alde batetik, ofizialki onartu gabeko izapidea zelako eta, bestetik, Primo de Riveraren diktadura berehala etorri zelako, behin betikoz ukatu zitzaion dirua. Lone ez zen kildu ezezkoaren aurrean eta, beti gogoan zeukan senarraren oroitzapenari atxikirik, kontzientziak landu zuen bere seme-alabak hazteko behar zuen sendotasuna. Lehen uneetan iloben hezkuntzaz oso arduraturik zeuden Isaak neba, ahizpa ezkongabea eta bere koinata erlijiosoan laguntza izan bazuen ere, karrera eta lanbideen aukera egiterakoan Aita Olabide, Eleizalderen adiskide mina, izan zuen aholkularia. Beraren eragina oso positiboa eta familian oso estimatua izan zen. 1953ko abenduaren 10ean Lone Urrutiaren bihotza geratu egin zen eta harrezkero bere senarraren eta seme-alaben ondoan datza Bermeoko hilerrian.

2. ELEIZALDE-BREÑOSA FAMILIA: ‘AXE’REN GURASOAK ETA KULTUR ERROAK

Koldo Eleizalde Breñosa pertsonaia gizatiar eta interesgarriaren barne-muinak ikusteko pribilegioa izan dudala nabarmendu dut sarreran. Irmoki errepikatzen dut. Gogoan izango duzue, era berean, famili katearen marrazki osoa era batera edo bestera taxutuz doazen iraganeko eta etorkizuneko belaunaldiez nola mintzatu naizen. Bada, puntu honetan, ezinbestekoa da gure biografiatuaren aitaren, Luis Maria Eleizalde Izagirre Psikologia, Logika eta Filosofiako katedradun gailena izan zenaren aipamen bat egitea. Orain erraza gertatzen zaigu abiagune aparta dela ulertzen eta bertan hasi zela sortzen bere familiaren etorkizun zabalara hartuko zuen kultur giroa. Bestalde, badakigu, zituen ideien inguruetatik, Eleizalde Izagirre Karlismoaren barruan aritu zela, hurbileko iturriek diotenez Integrismoan buka zitekeen karlismoan; Ramon de Nocedalek XIX. mendearen amaieran, hau da, euskal filosofoaren bizitzako azken urteetan, sorturiko karlista-osagaizko alderdian. Baina ez nuke hemen gelditu nahi zeren, inolako akatsik gabeko bere curriculum vitaearen arabera, Itziarren aitaren alde-tiko aitona jakintzagaiarteko ezagutzaz jantzia baitzegoen: ikertzailea, irakaslea, idazlea...⁶ Bergarako Institutuan hasi zuen batxilergoa. Zaragozako Unibertsitatera pasatu zen eta handik Madrilera Zientzietako ikasketak Filosofia eta Letretakoekin batera eramateko. Bere bi-

⁶ Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Cuerpo A. libkia. X Editorial Auñamendi. Estornés Lasa Hnos. Donostia, 1979, 336 orr.

zitzan zehar gai ugariz arduratu zen, nahiz eta gorputz eta arima Filosofia Eskolastikoa sa-
kontzen ari izan zen, zeren teologiaren gainetik ez baitzuen ezer jartzen. Hain zehatz eta
ezinbestekoa zeritzon zientzia horri, non dena haren menpean jartzen baitzuen; baita Filo-
sopia bera ere. Ikus dezagun, argibide gisara, bere Psikologia, Logika eta Etikaren Laburbil-
dumako zenbait paragrafo:

“Baina sublimea delarik ere Filosofia, Teologia baino beheiago dago. Zientzia hori,
Jainkoak gizakiari azalduko printzipioetan oinarriturik dagoenez, izugarriko nagusitasu-
na du harekiko, bai eduki edo funts doktrinazkoan, eta bai bere ziurtasunean: funts dok-
trinazkoan egia garaiagoak dituelako, ordena naturalekoak baino sublimagoak; ziurta-
sunean, Filosofiak bere ziurtasuna huts egin dezakeen giza arrazoimenaren argi natura-
letik hartzen duelako, baina Teologiak zientzia jainkotiarraren argitik hartzen du eta horre-
tan ezinezkoa da huts egitea.

Honetatik dator Filosofia bere izaeraz, Teologiaren menpean egotea; eta horretan ez
dago ezer arrazoi zuzenaren kontrakorik, zeren horrek eskatzen baitu garaiena eta ziu-
rrena den zientziaren menpe egotea gainerakoak. Historiak frogatzen du Agerkunde jain-
kotiarrak laguntza handia eman diola Filosofiaren aurrerakuntzari”.⁷

Horretatik guztitik ateratzen da, azken finean, Eleizaldetarren jakitun-profilak izen-
deituradun iraganean dituela erroak: Luis Maria Eleizalde Izagirrerengan. Eta xehetasun
aski esanguratsu bat eman nahiko nuke, berriro ere beraren bide politikoari gaingiroki
eutsiz: garai hartan ideologia karlista ez zen gertakari isolatua, zeren bat baino gehiago
baitziren horretan zebiltzan elizgizonak. Ez dezagun ahantz, gainera, –Gregorio Arrienek
egoki oroitarazten du bere kapituluan– Koldo Eleizalde, semeak, zalantzarik gabe asko-
zaz amore-emailleagoa izanik, bere burua gazteria karlistaren tarteko aitortzen duela harik
eta abertzaletasuna eta katolizismoa nazionalismoaren funtsezko gotorleku zirela konturatu
zen arte. Joan anaiarekin eta bere hiru arreba mojekin elkarbanatu zuen nazionalis-
moa, “ulertu eta beti defenditu baitzuten, M^a Angelesek batik bat”, azpimarratzen du
Itziarrek. Eta hizpidean dago. Zeren Luis Mariak –Luisek seme zaharrena eta Itziarren
neba zenak– igorritako gutunean nabari da atxikimendu hori, baita idazlearen heriotza-
rengatik nahigabea eta Eusko Ikaskuntzaren Kongresuan (Gernika, 1922) Alfontso
XIII.ak haren lanen aurrean agertu zuen ezaxolarengatik ia bizitzaren bukaeran sentitu
zuen deslilura ere:

“Duela bi egun jaso dut M^a Angeles izebaren gutun guztiz maitakorra eta bertan be-
rak idatziriko ohar batzuk, gure aitaren heriotzari buruzkoak (g.b.). Gure aita zenduari bu-
ruz (g.b.) ideia bikainak eta bere nebari zion maitasun guztia adierazten ditu.”

Eta aitaren ebakuntza ugarien eta “radium”aren bidez hartu berri zuen tratamenduaren
aipamena egin ondoren, hau gehitzen du:

“Ongi itzuli zen Alemaniatik, erabat osaturik ere bai. 1922an, Eusko Ikaskuntzaren
Gernikako Kongresua zela-eta, itxiera-saioan A[ifontso].XIII.ak gaztelania ikastea gomen-
datu zuen Amerikara emigratzeko. Gero Auzo Ikastolen azalpena berrikusi zuen, aitak
erakutsi zionean eta A[ifontso].XIII.ak jarrera guztiz hotza izan zuen gure aitarekiko.”⁸

7 ELEIZALDE E YZAGUIRRE, Luis Maria: Compendio de Psicología, Lógica y Ética-rako Sarrera, Vergara. Tip.
de el ‘ Santísimo Rosario’, 1911, Laugarren Argitalpena, 2-3 orr.

8 Luis Maria Eleizalde Urrutiak anai-arrebei eta ilobei egindako gutuna. Zaragoza, 1970eko urtarrilaren 16a.

Ondoren, Koldo Eleizaldek nazionalismoa nola urlertzen zuen argitzen duen gertaera bat. 1912ko azaroaren 21eko argitalpenean berari eta amaren aldetik zuen kanpoko jatorriari iseka egiten zion El Correo del Norte egunkari karlistari 'Igorri' erantzuna:

"Benetako euskaldun guztiak aitortuko dute gehiago balio duela hogeii mila bider Breñosa deitura izatea eta euskaldun sentitu eta lan egiteak ostentazio soil eta hutsalez euskal deitura sail amaigabea erakusteak baino, aldi berean Euzkadietik Thibetera bezain urrun dagoen arima baten jabe izanez [...] " ('Igorria', Bizkaitarra, 206. zkia., azaroaren 30, 1912)⁹.

Belaunaldiei buruzko digresio horren ondoren eta une batez gure pertsonaiaren aitaren irudira itzuliz, aipagarriak dira, batetik, bere ezagutza akademikoak eta, bestetik, ezkongai garaiko eta ezkontzari buruzko xehetasunak. Lehendabizikoei dagokienez, badirudi Santiago de Compostelako Unibertsitatean lortu zuela katedradun-postua eta ez Zaragozakoan, baina galiziar hiriburuko giroa ez zuen atsegin eta lekualdaketa eskatu zuen. Ontzat eman zioten. Eta hara joan zen bere familiarekin eta bertan hil zen 1897an Erljiioaren Oinarriei buruz tratatu bat prestatzen ari zen bitartean. Familiak dio 50 urterekin hil zela eta horrela izaki 1847an jaioa zela, baina berriro ere hutsuneak ageri zaizkigu idatzietan (Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco, adibidez) eta kasu honetan jaiotze-datari dagokionez galdera-ikur bat (?) ezartzea erabakitzen dute. Nolanahi ere Itziarren aitona, gero lehen semearekin gertatuko zenez, gazte hil zen; gazteegi. Emazte alargundua, Breñosa deitura izan arren Gipuzkoako lurraldean jaioa izanik, herrimenez zelarik Bergarara itzuli zen. Honela, hemen hasiko litzateke gure bigarren historia –lehena, doitasun kronologikoari begiratuz gero–. Nola iritsi zen Breñosa deitura Gipuzkoara? Egia esan nahi bada, kontakizuna ez zaio atzean gelditzen zinematografi gidoi indartsuenari. Hara: María Belén Breñosaren aita, Rafael Breñosa, Kordobako medikua zen eta bertan bizi zen familiarekin. Egun batean, Sierra Morenan ari zen bandolero-koadrila batek harrapatu zuen arrebetako bat. Ezbeharrak eta nahigabea hainbestekoa izan zen, non familiak oso-osorik Espainiako iparraldera emigratzea erabaki zuen: batzuk Santanderrera, beste batzuk Euskal Herrira. Rafael Breñosa Aretxabaletan kokatu zen eta bertako bainuetxean egin zuen lan mediku gisara. "Gogoan dut nola joan nintzen bertara oso txikia nintzela bronkioetarako urak hartzera", oroitzen du Breñosa doktoarearen birbilobak oroimen-ariketa bikaina eginez. Medikuek Aretxabaletan izan zuen alabarekin –María Belénekin– jarraitzen du historiak. Alaba honek Errezilgo gazte interesgarri bat –Luis Maria–ezagutuko zuen, eta horien ezkontzatik bost seme-alaba jaio ziren: Luis, Juan, María Angeles, Josefina eta María Eleizalde Breñosa.

Hiru ahizpak moja egin ziren –Bi Jesusen Bihotzarenek eta hirugarrena, Maria, Irakaskuntza ordenakoa–; Luis pixkanaka ari gara ezagutzen eta berarekin jarraituko dugu; eta Juan Eleizalde, Bermeoko nautikako irakasle izan zena, bermeotar batekin ezkondu zen eta alaba bat izan zuen, M^a Angeles. Badakigu, halaber, musika-kritikari bikaina izan zela, nahiz eta ilobak esaten duenagatik, bere gaitasun propioak azaltzeko orduan, anaia bezalaxe, apal eta umila zela iruditzen zaidan. "*Osaba Juanek 'Euzkadi' egunkarian musika-kritika xaramel, oso finak idazten ziotuen, baina nominan sartzea proposatu ziotenean ezezkoa eman zuen*". Musika zen, noski, familiak zeukan beste lokarrietako bat, nahiz eta hori gabe ere enpatia eta kidetasun-maila laudagarriaren jabe izan. Pianoa lau eskutara jotzen zuten, melodia bikainez gozatzen zuten eta beren zaletasuna familiako kide gazteengana hedatu zuten. Orrialde batzuk lehenago, *Landibar*

9 CORCUERA ATIENZA, Javier: Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco (1876-1904). Siglo XXI Editores. S.A. Madrid, 1979, 391 orr.

eleberriko protagonista Migel Gaztanbideren eta eleberriarren egilearen nortasunaren arteko antza aipatzen nuenean, zaletasunen arteko antza kasu honetan, musikarako sentsibilitateaz ari nintzen, ñabardurarik nabarmen eta freskoenetako bat. Obrako pasarte bat:

“...Sentsazioen elkartzeko bitxi batengatik, ia estasiskoa den begiespen-une hauetan, Migelen oroimenean beti musika-esaldi bat, poema kuttunen baten zatia, aurrez sentituta zerbait sortzen zen, eta hark uneko inpresioarekiko zuen egokitasunak miresgarririk zekien ezartzen ingeniari gaztearen zentzu estetiko fina. Une horretan, ordu hartan paisaje hari begira egoteari zerion patxada noblezko eta baretasun gorenezko inpresioa Beethovenen andante bat entzutean hartutako inpresioaren antzeko gertatzen zen Migelen espirituan, maiestate gorenez hornitua, espiritu noble eta arrandi baten altzo barrenenentan sortua.”¹⁰

Ondoren, Gure hogei urteak artikuluan atseginez sakonduz, hona hemen Eleizalde beraren aitorten batzuk hiriburuan izandako esperientziak:

“Gu guztiok, euskaldunak azken finean, oso musikazaleak ginen, ez ‘karramarro’ eta ‘lapiko’enarenak, baizik bestearenak, Rhin ibaiaren hegietakoaarenak: ez genuen Kontzertu Elkartearen saiorik galtzen, ezta wagneriar antzezpenerik ere, ezta garai hartan Madrildik igarotzen ziren pianojole ugari eta handien errezitalik ere. Urte haietan Rosenthal, Paderewski, Bauer eta Casals, Planté, Teresa Carreño eta Joaquin Malats artista katalan gazte eta zorigaitzekoa entzun genituen”¹¹.

Baina ez zen musika-sentsibilitatea soilik gailentzen, horrekin batera hizkuntzen ezagutza harrigarria ere –euskara, alemaniera, frantsesa, ingelesa...– txundigarri gertatzen zen, hainbat gehiago, artean hain gaztea izanik. Berak gaztelaniaratu zuen Anna of Geierstein eleberria, Walter Scott idazle eskoziar ezagunarena.

Eta, zalantzarik gabe, hainbeste aztarna eta poz ematen ari zaigun bere artikulutik urrundu gabe, esate baterako, Koldo Eleizalde musika eta hizkuntzarekiko gozamena bateratzeko gai zela egiaztatzen dugu:

“Orkestra handiko musikan, Beethovenen airean jartzen gintuen, gupida gabe estutzen zigun arima, eskularru bat bezala alderantzikatuz. (...) ‘Bederatzigarren Sinfonia’ entzun nuen Teofilo Guiard neure adiskidearekin eta ...” ...Eta pozez gainezka egiten du letra horren aurrean eta –umorez gogoratzen du– Ingeniaritzako eskoletan ere atzetik zerbilkion:

“Freude, Freude!...
Freude, schöner Götterfunken
Tochter aus Elysium!
Wir betreten feuertrunken
Himmlische, dein Heiligtum!”¹²

10 LEIZALDE, Koldo: Opus cit., 18-19 orr.

11 ELEIZALDE, Koldo: Hermes. Opus cit., 365 orr.

12 Poza, jainko-txinpart ederra, Eliseoaren kume! Gu, suz horditurik, sartzen gara, zerutar, zure santutegian!”

3. ELEIZALDE-URRUTIA FAMILIA: 'AXE'REN ONDORENGOAK ETA FRUITUAK

Buruaren birada arin batek emango digu aukera iraganetik –horrelakotzat kapitulu honen lehen puntua hartuz– bizirik iraun zuten lau seme-alaben irudia berreskuratzeko, hau da, Lone Urrutiak hezi eta bizitzaren aurrean jarri zituenak, betiere, bere senarrak –eta berak harekin batera– gogoko zuen ildoari jarraituz. Ibilalditxo bat proposatzen dizuet lau bizitza hauek ezagutzeko. Aurrena, anekdota bat, mende honen erdi aldera emakume batek erakuts zezakeen eta erakusten zuen izaera, ardura eta ama-psikologia argitzeko beste behin –beti esanahiz beterik–: *“Amak ikasturtea hasi baino lehen biltzen gintuen eta azaltzen zigun azken arrakasta geure eskuetan geneukala, geure heldutasunezko arduran. Berak ez gintuela estutuko, eta ezta ikasteko esertzera behartuko ere, baina hori bai, ekainean dena gainditurik nahi zuela.”* la Itziarrek amaitzeko zain egon ezinik, akordioaren emaitzaz galdetu diot: *“Ona –erantzuten du ezbairek gabe–. Beti ekainean ateratzen genuen guztia.”*

Une egokia da hauxe Eleizalderen seme-alabak ezagutzeko:

LUIS MARIA (Bermeo, 1915 - Zaragoza, 1976)

Ez du merezi bere adimen argitasunaz luzatzerik, batez ere familiakoen artean hutsik egiten ez duen ezaugarri bat delako, bai aurrera begiratzen dela, bai atzera begiratzen dela, eta alferrikako derizot hori azpimarratzen aritzea. Luis Mariak badu, berez, bizitza erakargarri bat, zailtasunik falta ez badu ere. Natur Zientziak ikasi zituen eta (Bizkaia) Portugaleten katedradun izan zen. “Instituto berezia -argitzen du arrebak– 1931 edo 1932an sortua, gero Santa Maria Ikastetxea eraikiko zen toki berean. Gerra Zibila iristean itxi egin zen ikastetxea eta Bermeora itzuli ginen amarekin.” Emakumeak itzuli ziren, baina gerra eta gerraondoko gertakari hark ibilbide korapilatsuagoak ekarriko zituen Eleizaldetarren anaia nagusiarentzat. Hasiera batean Eusko Jauriaritzako Nekazaritza Ministerioan sartu zen, Alvaro de Nardizenean, baina une hartako presio eta gorebeherek erbesteatzera behartu zuten. Frantziara eta, gero, Caracasera, bertako Unibertsitate Zentralean irakasle-lana berreskuratu zuelarik. “Especialista zen lurzorutan eta lan handiak egin zituen alor horretan Venezuelako Unibertsitatean egon zen bitartean. Profesionalki oso aintzakotzat harturik zegoen”, aitortzen du Itziarrek. Ordurako Luis Mariak bi alaba eta emaztea zituen; emaztea Bermeokoa, ama eta izeba bezala. Hego Amerikatik etorri gabe hamasei urte eman zituen, harik eta halako maiztasun batekin familiari bisitak egin ahal izan zizkion arte. Ahal zuen guztietan idazten zien. Jubilatzean Zaragozara itzuli zen betiko.

MIREN EULALI (Gasteiz, 1917 – Nafarroa, 1968)

Luis eta Loneren alaba nagusia bereziki argia zen eta, senide eta irakasleek trebeki gidaturik, Luis Maria nebarekin batera, bere gizarte-giroko lehen emakume lizentziatueta-bat bihurtu zen. Gasteizko barnetegiaren ondoren Bilboko Fontecha eta Salazar kaleko Teresianetara igaro zen eta bertan eskuratu zuen Zaragozan, libre gisa, Filosofia eta Letretako lizentziaturako ikasketak egiteko behar besteko ezagutza akademikoa. Sekula ez zen horretan aritu izan, baina aitaren aldetiko aitona ondarea nabarmendu zen berarengan. Ez, ordea, seme-alabengan Ingeniaritza, Matematika, Kimika eta Medikuntza aukeratu baitzuten. Miren Eulali Zaragozan ezagututako Jose Maria Bastero auzategi-medikuarekin ezkondu zen, eta sei seme-alaba izan zituen, guztiak mutilak. Bastero medikuak postua lortu

zuen Gernikan eta orduan denbora baterako Bermeon hartu zuten egoitza, harik eta alde-
rantzizko ibilbidea eginez, Aragoira itzuli ziren arte. Baina bizitzaren aurpegi garratzena
agertu zitzaion Miren Eulaliri ere, eta egun batean senarrarekin eta bere 25 urteko Javier
semearekin Nafarroako Eskolapioetan zegoen beste seme bati bisita egitera bidaiari zihola,
auto-istripu batek kendu zien bizia amari eta semeari. Beste bostak –Jose Maria eta
Juan Luis (bikiak), Antonio, Karlos eta Jesus– gaur egun figura gailenak dira bakoitza bere
sailean; baina Jose Maria da mundu akademikoan ezagunena, Nafarroako Unibertsitateko
errektore-kargua dela-eta. Berau Ingeniaritza Industrial eta Ingeniaritza Nabalean doktorea
da, Bermeon jaio zen duela 55 urte, Zaragozan hazi zen eta Madrilen egin zituen ikaske-
tak, bertan hasiz lanean azkenean Donostiara jo baina lehen. Gipuzkoako hiriburuan
1992ra arte egon zen eta ondoren Nafarroara joan zen eta bertako Unibertsitateko Errekto-
reorde aritu duela urtebete arte; orduan Alejandro Llano Cifuentes errektorearen lekua har-
tu zuen. Beraz, esan dugunez, amaren aldetiko aitonaren ardura intelektuala bizirik eta in-
dartsu ageri da ondorengo ugarien artean.

MIREN BEGOÑA (Gasteiz, 1919)

Eleizalde-Urrutia sagaren azkenaurrekoak ere urteak eman zituen Gasteizko barnetegian,
eta ondoren maistra-titulua eskuratu zuen Berrizen. Hau ere ez da inoiz lanbide horretan aritu
izan. Notario sonatu eta Jabetzaren Erregistratzailea den Rikardo Gomeza Jaunarekin ezkon-
durik dago. Bilbon bizi da eta zortzi seme-alaba ditu.

MIREN ITZIAR (Bilbo, 1921)

Ama hil eta gero osaba Isaakekin bizitzen jarraitu zuen. Beti oso elkarturik egon ziren.
“Gizon miresgarria zen, adoragarria, Jainkoaren gizon bat. Hainbestearino zen hori horrela
–hala dio berak–, non batzuek kanpotik dei egiten baitzioten berarekin bakarrik aitortu nahi
zutelako. Dohain berezia zuen jendearekin.” 1961ean urdaileko minbizi batek eraman zuene-
an, Itziarrek Ercillatik alde egin eta Juan Antonio Urrutia amaren aldetiko aitona 1902an erosi-
tako Arostegiko etxera aldatzea erabaki zuen. Eta hor dago Itziar eta hona nire eskerrona be-
rarentzat, ateak ireki dizkigulako: etxeak eta batez ere bihotzekoak.

4. HITZATZE GISARA

Sinetsirik nago Koldo Eleizalde ez zuela gaizki hartuko berarekin batera, hau da, berak
hain zelati gordeta zeukan bere zati horrekin batera egindako ibilaldi hau. Sinetsirik nago, era
berean, bere biografia lehen bezain hutsik gabea ageri dela orain ere, agian distiratsua go,
besteen parean jarri dugulako. Edonola ere, biografia horrek asko esaten du –dena esaten
du– ikasia, langilea eta pentsamendu, proposamen eta asmoetan aurreratua zen gizon honen
alde; ezin gehiagoraino erlijiozalea, abertzale porrokatua eta hain adiskide eta maitalea zen
gizonaren alde. Beraz gure hipotesia sendotu baizik ez da egin: Koldo Eleizalde Breñosa ka-
temaila ordezkazena da euskal kultura eta bizitzaren euskarriari indarra ematen jakin izan du-
ten gizon eta emakumeen katean. Eta sinetsirik nago barkatuko digula tartean sartu izana –ez
gara damutzen hori egin izanaz– guk geuk ere bere apaltasuna eta umiltasuna barkatzen di-
tugun bezala. Zeren Eleizalde ez baita iraganekoa; iraganean bizi izan zen, baina oraindik as-
ko dauka guri irakasteko. Halakoa zen bera eta hala ikusi zuten adiskideetako batzuek:

“Eleizalderen lehen ideia gidaria fede katoliko sakona zen, espiritu erlijiozalea izaki. Nazionalismoan ari izan diren eta gaur egun ari direnen artean era modernoenean prestatutako espirituetako bat zen. Gure Eleizalde maitatu eta deitoratuaren bihotz jatorreko aberriarenganako maitasuna gure giza izaera ziztrinaren neurrian izan daitekeen garbien, emankorren eta eskuzabalenetakoa zen”. (Barazar, Euzkadi, 1923-VIII-19)¹³.

13 AMEZAGA, Elias, Opus cit.

Hizkuntz aspektuak

Koldo Eleizalderen obran



Patxi **O**rcasitas **G**arcía

1. SARRERA

Metodologia-mailan lan honetan zehar kontuan izan ditugun bi zehaztapen egingo ditugu. Alde batetik, idatzi baten bibliografia eta/edo aipuak Eleizalderen izenarekin egingo ditugu, idatziok bere izenorde ezagunen batekin sinaturik daudenean (Azkain, Axe, L'tar, Iturrain...). Bigarren ohar bat zenbait hitzetan erabilitako grafiari buruzkoa da ("euzkera"...); Eleizalderen grafia aipu eta testu-erreferentzietan soilik errespetatu dugu.

Hizkuntz alorrean bada azterketa honetan jorratuko ez dugun alderdi bat, hau da, Eleizaldek bere bizitzako azken urteetan buruturiko azterketa toponimikoena. Alde batetik, material amaitu gabeak direlako, eta bestetik, zerrenda alfabetiko batzuk birsortzea areago izango litzatekeelako. Nolanahi ere, bibliografian aipatuko ditugu gai horiek ageri diren artikulua (batez ere RIEV, 1922tik aurrerakoak).

Hizkuntz alderdian beretan sartzen hasi baino lehen, interesgarritzat jotzen dugu Eleizalderen obra bere garaiko mugimendu nazionalistaren barruan testuingurutzeari.

Eleizalderen obra, lehen mende-laurdenean idatzia, guztiz loturik dago euskal nazionalismoaren garai horrekin, batetik mugimendu politiko berriaren ahalegin kementsuz arituz eta, bestetik, euskal izatearen ikuspegi agonikoa biziz. Krisi-ikuspegi horren alboan, eraso ideologikoko egoera bat gertatzen da; Eleizaldek dioenez Unamunok, Bilboko Lore Jokoetan, arren hil zedila eskatzen zion Euskal Herriari; halaber, "progresu" rako eragozpen izatea egozten dio euskarari¹. Esandakoaren ondorio gisara euskara bazterturik gelditzen da eskolan, baserriaz haratagoko gizarte-bizitzan eta bizitza ofizialean, eta horrekin batera autonomia politikoaren erabateko gabezia eta euskalduna, "gurea", den guztiaren (arraza, euskara, baserria...) atzeratze nabarmena gertatzen da kanpokoarekiko (emigrazioa, gaztelania, industria,...).

"La Paz" egunkarian idatzitako artikulua sail batean, Kanpion kexu da Nafarroan euskarren heriotza urrats-handika hurbiltzen ari delako.

Eleizaldek (Sabino Aranaren jarraitzaile izaki) errealitateaz duen ikuspegia euskal nazionalismoan kokatzen du eta bere egiten ditu haren planteamendu nazionalak: fuerismoa hizkuntza eta kulturarentz lerratzea ardatz ideologiko gisara, eta "arrazismo herritarra", euskal

¹ Eleizalde, K: Progreso Vasquista. Euzkadi Egunkaria. (1913-04-08).

kultura espainiar kulturari kontrajartzen diona. Hori guztia erlijiotasunez blai eginik eta kanpotik etorritako langile-klase erlijiogabean “bekatua” ikusten duela...

Irlandako esperientziak², txekiar, eslaviar nazioenak³ eta beste nazio batzuenak ere eragina dute berarengan. Borroka nazionalak indarrez azaltzen ari ziren Erteuropan baten aurrean, hizkuntza berreskuratzea bere eskuetan hartzen duen irlandar kleroaren eredia jarraitzen du.

Alemaniar erromantizismoaren aitzindariari begiratzen badiegu ikusten dugu nola Herderren “arima” (zeinen arabera horrek gurasoen pentsatzeko modu guztia bereganatuko baitzuen hizkuntzarekin batera), Volksgeist edo herri-espirtuaren, baserri-mundua birbaliozaren ideiak jasotzen dituen Eleizalde, eta bere egiten dituela Fichteren planteamenduak (“Alemaniar nazioarentzako hitzaldia”n), hau da, hizkuntza naziotasuna determinatzeko irizpide nagusizat hartzea, jatorrizko hizkuntzaren ideia, jatorrizko herria, hezkuntzari ematen dion garrantzi handiarekin batera. Agian Rousseau izan zen kontzeptio horren aitzindaria (“Kontsiderazioak Poloniako gobernuaz eta bere erreforma-egitasmoaz”) berreraikuntza nazionalaren oinarri gisa.

Alemaniar erromantikoen bezala, Eleizalderen ere nazioa organismo bizia da, antzinako garaietatik aurreizatea duena, eta Euskadiren kasuan lokartuta dagoena, eta horregatik beharrezkoa da iratzartzen laguntzea (intelektualen eginkizuna), horrela nazioak autokontzientzian bere burua adieraz dezan.

2. ELEIZALDEK HIZKUNTZAREKIN HARREMANETAN JARTZEN DITUEN OINARRIZKO KONTZEPTUAK: NAZIOA, ARRAZA, KULTURA, ESKOLAK

2.1. HIZKUNTZA PROPIOA, NAZIOTASUNAREN KANPOKO ZEINU NAGUSIA

Hona hemen hizkuntza propioaren definizioa Eleizalderen arabera:

“zeure deituetako hizkuntza hori da, zure herriko izenei esanahia ematen dien hori da,... hizkuntza horretako modismoak oraindik gordetzen dituzu, herentziaz, zerebroari hain gogor atxikirik, hain itsatsirik ezen, batere oharitu gabe, egunero eta orduoro ihes egiten dizuten..., euskarazko substratuaren gainean artifizialki eraikita daukazun gaztelania horretan”⁴.

Norbere hizkuntzaren aldeko borroka nazionalitateen teoriaren argitan jorratuko du; berarentzat ukaezina da giza generoa talde nazionaletan, nazionalitateetan, estatuaz bestelako gizarte-talde naturaletan bereizirik dagoela. Talde horien lokarri nazionala naziokideekiko odol, tradizio, desira, solidaritatezko komunitatea da... beraz hizkuntza desberdinari, nazionalitate desberdina dagokio.

Autorearentzat: “Herri batek hizkuntzari eusten dion bitartean, bere eskuan dauka... bere askatasunerako giltza”⁵. Halaber, dio euskaldunok, geure hutsegiteengatik, arrazaren hizkun-

² Eleizalde, K: Países y razas. Irlanda y su clero I eta II. Euzkadi Egunkaria (1913-05-28) eta (1913-06-01).

³ Eleizalde, K: Países y razas. La raza eslava I eta II. Euzkadi Egunkaria. (1913-04-17) eta (1913-04-20).

⁴ Eleizalde, K: Cuatro conferencias. Editorial Vasca. Bilbo. 1918. 144 orr.

⁵ Eleizalde, K: “El idioma basko” in Los baskos en la nación argentina 1816-1916. J. R. de Uriarte (De). Buenos Aires. 43 orr.

tza izan ezik, legeria, instituzioak, nortasun politikoa, eta abar galdu ditugula. Batzuegan izan ezik, oro har, bada hizkuntzarenganako maitasuna (hori naziotasunaren palladiuma bezalako zerbait da). Nahiz eta euskaldunak ez izan independenteak, hizkuntzari esker nazionalitateen artean gaude. Hizkuntza, beraz, Eleizalderen arabera herri baten Birjaiotza-ahalbidea eta nortasuna erabat berreskuratzeke oinarria da.

Kanpionek kritikatu egiten dio Eleizalderi hizkuntza arrazaren zeinu egiaztatzailea dela uste izatearen funtsezko okerra (Eleizalderen ideia hori Leibnitzek ere adierazi zuen zenbait mende lehenago). Hona hemen Kanpionen hitzak: “Eleiz. jauna pertsona jantziegia da sarritan arraza eta hizkuntzaren artean izaten den dikotomiaren berri ez izateko”⁶. Eleizaldek berak egiten du zehaztapen hau: (irizpide) “linguistikoa, nahiz eta... ez aski izan... hizkuntzen arteko ahaidetasuna arrazek beren artean duten ahaidetasunaren adierazle ukalezina da”⁷.

Arazaren garbitasuna hizkuntzarenaz justifikatzen du Eleizaldek. Kanpionen arabera, arrazaren garbitasuna auzi antropologiko bat da, ez linguistikoa; gainera gehitzen du, “arrazagarbitasuna” terminoa oso erlatiboa dela, zeren Euskal Herriko gune askotan “kutsadura” begibistakoa baita. Kanpionen iritziz, gauza bat da euskal arraza, gens euskariarraren nukleoa, substratua, eta beste gauza bat euskal herria, osagai baskonizatuz eratua.

2.2. HIZKUNTZAREN ETA HERRIAREN “ARIMA”REN ARTEKO LOTURA (IDEIAK, SENTIMENDUAK, KULTURA...)

Eleizaldek honela definitzen du arima nazionala: “arrazateko gizabanako guztiengan ikus daitezkeen elementu psikologiko, kolektibo eta moralak”⁸. Arima kontzientzia baino lehenagokoa da. Kontzientzia nazionalaz mintzo denean herri batek batasun kolektibo desberdindu gisa duen kontzientzia-egoerarekin parekatzen du. Abertzale ororen egitekoa kontzientzia nazionala iratzartzea izango da.

Eleizalderen arabera, hizkuntza propioa ez da produktu hutsa, baizik eta sortzen duten ahalmen enteleguzkoen baitan du eragina: “Ideiak eta sentimenduak hitza sortarazten dute, ... baina... hitzak erreakzionatu egiten du sentimendua eta ideiarene gain; horregatik daude... hitz “itzulezinak”⁹. Horregatik nazio menperatzaileak beren hizkuntza goitik behera ezartzen saiatzen dira, hori baita armarik eraginkorra arimez jabetzeko.

Zalantzarik ez dago hizkuntzak zigilu bat ezartzen duela herri baten ezaugarrietan, zeren arraza konposatu organiko desberdindu baina zerbait gehiago baita; entelegua, nahimena eta sentimendua da.

Halaber, ondorengo baieztaetzen du: “ikuspuntu moraletik, bere hizkuntza galtzen duen herria ezinbestean kondenaturik dago gizarte industrialaren ondoriozko utilitarismoaren eta materialismoaren eraginez bere burua endekatzer”¹⁰.

Berarentzat gertakari behagarria da biraoa eta hizkuntzazko lizunkeria ez direla aurkitzen euskara bakarrik erabiltzen denean; era berean, kriminalitatea ere txikiagoa da euskaldun hutsak diren guneetan eta izaera desberdintzaile hori paisajeraino bereraino darama: Eleizaldek

⁶ Campión, A: Bibliografía. RIEV. 1912. VI. libkia., 253 orr.

⁷ Idem, 254 orr.

⁸ Eleizalde, K: Conciencia Nacional. Euzkadi Egunkaria. (1913-II-15).

⁹ Eleizalde, K: Cuatro conferencias. Editorial Vasca. Bilbo. 1918. 145 orr.

¹⁰ Idem, 161 orr.

dioenez, paisaje euskalduna alderdi erdaldunetakoaz bestelakoa da. (Azken ideia hori garai-ko literaturan ere ageri da, adibidez D. Agirreren “Garoa” eleberrian)¹¹.

Bere artikulu batean, Apuntes de filología comparada. Rev. Euzkadi 1901. 265-266 orr., Eleizalde idazten du desberdina dela herrien garapen intelektuala beren hizkuntzaren arabera; hizkuntza indoeuoparretan proposizio bakoitza formula aljebrazko baten gisakoa da, zientzia garatzeko guztiz egokia; semitikoek, aldiz, egia erlijiosoak gordetzeko dohaina bide dute. Banaketa horretan Probidentziaren eskua ikusten du “Zientzian Jainkoa miresteko era bat bezala Agerkunderan ezagutu eta gero”.

2.3. IRAKASKUNTZA ETA AMA-HIZKUNTZA

Irakaskuntza da Eleizalderen obran oinarritzko beste zutabeetako bat, eta hori behar bezala aztertzeko lan berezi bat burutu beharko litzateke, horregatik izenburuan proposaturiko alderdia lantzerantz soilik mugatuko gara.

Eleizalderentzat beharrezkoa da eraberrikuntzak egitea instituzioak herrialdearen premia bizietara egokitzeko. Horren ondorioz, eta haurrak ezaguna duen hizkuntzan instrukzioa egin behar delako printzipioaren ildotik, Euskal Herriko gune euskaldunetan, irakaskuntza euskaraz egin beharko da (horrela bakarrik izango da probetxuzkoa eta baliagarria); hizkuntzari dagokionez mistoak direnetan, euskara erabiliko da irakasteko bitartekotzat, bi guneetako ezeinetan ere gaztelaniaren irakaskuntza zabartu gabe; azkenik, erdal guneetan gaztelaniaz irakatsiko da, nahiz eta euskara ere ikasiko den norberarena delako eta Erregek aitorturiko esku-bidea: “landu zeuen hizkuntza, euskara, milurtetakoa eta beneragarria”¹².

Euskarak derrigorrezkoa izan beharko luke Euskal Herrian eskubidez, eta ondorioz, ezin bestekoa euskotar guztiek beren hizkuntza erabat eta ezin hobeki ezagutzea.

Bere liburu batean, Cuatro conferencias. Editorial Vasca. Bilbo. 1918. 200 or. eta hh., Eleizalde dio erdal gunean euskara sartzearen arrazoi pedagogikoa dela, batere baztergariak ez diren sentimenduzko kontsiderazioez gain. Era berean baieztatzen du Unibertsitateko zenbait irakasle sustengatzen dutela bi hizkuntza ikasteak analisi eta erkaketaren garapenera laguntzen diola. Halaber, behin eta berriz gainera, argi eta garbi jakinarazten du euskalduntze orok lehen eskola izan behar duela oinarritzat.

Lehen eskola edo hezkuntzarekin batera, institutu eta Unibertsitateak zentzu horretan egin beharreko lana aipatzen du. Unibertsitari eta elite intelektualaren gaiak 8. atalean arituko naiz.

Eleizalde oso kritikoa da eskola “ofizial”etako pedagogiarekin eta adierazten du: “Haurrak amarenaz bestelako hizkuntza batean eskolatzea egintza erruduna da”¹³. Bestalde, arrazoizkoa dirudi irakaskuntza euskaldunek ordaindua eta haur euskaldunentzakoa bada, gutxienez irakurri, idatzi eta zenbatzen euskaraz irakastea. Hala eta guztiz ere, eskoletan garai-ko sistemari eta zigorrengatik, jaiotzatiko hizkuntza mesprezatzen irakasten da. Bere aldetik, badirudi Estatua ez dagoela gune euskaldunetan nahi duten euskarazko Hezkuntza-sistema ezartzeko prest. Egin litekeen gauza bakarra litzateke euskaldunek berek “Matitse Skolska” gisako elkarte baten bitartez, txekiarrek bezala, behar diren euska-

¹¹ Sarasola, I: Historia social de la literatura vasca. Akal. Madril. 1982, 87 orr.

¹² AA.DD: I Congreso de Estudios vascos. Bilbaína de Artes Gráficas. Bilbo. 1919. 22 orr.

¹³ Eleizalde, K: Cuatro conferencias. Editorial Vasca. Bilbo. 1918. 196 orr.

razko eskolak antolatzea. Horiek antolatu bitartean apaizek euskaraz irakurtzen eta idazten irakats lezakete.

Azkenik, eta laburpen gisara, Eleizalderen hitz hauek eskainiko ditugu: “irakaskuntzarik hoberena, berez posible den bakarra, ama-hizkuntzan, ulerkuntzarako ezaguna den tresnan, adimenari eta sentimenduari zuzenean hitz egiten dion hizkuntzan egingo da”¹⁴.

3. HIZKUNTZALARITZAREN ALDERDI OROKORRAK

3.1. HIZKUNTZAK ETA DIALEKTOAK

Eleizalderentzat estatu uniformisten izpirituan (espainiera talde horretan sartuko litzateke) mintzaira eta hizkuntza ofiziala gauza bera da; aldiz dialekto hitzak, esklusioz, ez-ofiziala esan nahiko luke. Sailkapen horrek funtzionalitate politikoa ere badu.

Eleizalderen ustetan, mintzaira nortasun propioa duen hizkuntza bezala ulertu behar da: nola gramatikan (aditzean eta sintaxian, ez hainbeste lexikoan) hala literaturan (modismoak). Bestalde, dialektoa beste baten menpean dagoen hizketa bezala definitzen du, desberdintasun fonetiko eta lexikoak dituena, nahiz eta aditzari eta sintaxiari dagokionik ez izan. Hizkuntza eta dialektoaren artean ezartzen duen harremana zuhaitzaren eta adarren artean dagoenarekin konpara daiteke. Kontuan izan behar da historikoki adar aldatuak (dialektoak) daudela eta gerora zuhaitz (hizkuntza) bihurtzen direla. Horixe litzateke hizkuntza erromantzeen kasua, baita latinarena berarena ere. Aurrez azaldutakoak adierazten digu mintzaira bere era dialektal guztiak baino lehenagokoa dela.

Era berean dio: “Mintzaira’ ideari ‘naziotasun’ kontzeptua dagokio; ‘dialekto’ ideari, ‘erregionalitate’arena”¹⁵. Katalana, galegoa eta gaztelaniaren kasuan ez dago esaterik bata bestearen dialekto direnik garai berean jaiok baitira. Beraz, hiru nazionalitate desberdini dagozkie, nahiz eta elkarren artean ahaidetuak izan. Hala eta guztiz ere, arrazoi historiko edo politikoengatik horietako bat nagusitu zaie besteei eta bere espiritua, arima, hizketa, eta abar ezarri dizkie.

Euskararen dialektoei dagokienez, Eleizalde argi eta garbi mintzo da: auzi hori ebatzi beharra dago, batez ere erabilpen literarioari buruz eta ez hainbeste erabilpen ahozko eta/edo herri-tarrari dagokienez. Dialekto literario bat baino gehiago edukitzeak, Eleizalderen iritziz, kulturarako gaitasun oro ukatuko luke eta hori luxu onartezina litzateke. Era berean, akordioz izendatuko den edozein onartuko du zeren “hizkuntzaren birjaiotze literarioa erabat baldintzatzen baitu dialekto bakar eta bateratua onartzeak idatzirako eta baita ahozko literarioarako ere”¹⁶.

Euskara dialektotan banaturik egoteak iraun badu, besteak beste, idatzitako literatura tradizional ezarengatik izan da; Eleizaldek baieztapen hori “Deun-ixendegi euzkotarra”ren sarrreran egiten du; hala ere, kontua da “literatura klasikoa ez zela ongi ezagutzen, eta, hartaz ezagutzen zen apurratik, hobe zen kontuan ez hartzea”¹⁷.

¹⁴ Eleizalde, K: El problema de la enseñanza en el País Vasco. I Congreso de Estudios Vascos. Bilbaina de Artes Gráficas. Bilbo. 1919. 871 orr.

¹⁵ Eleizalde, K: Cuatro conferencias. Editorial Vasca. Bilbo. 1918. 149 orr.

¹⁶ Idem, 212 orr.

¹⁷ Sarasola, I: Historia social de la literatura vasca. Akal. Madrid. 1982. 77 orr.

3.2. HIZKUNTZEN OSAGAI MATERIAL ETA FORMALAK. HIZKUNTZEN SAILKAPEN ZIENTIFIKOAZ

Eleizaldek hizkuntza ororen baitan bi osagai bereizten ditu: materiala (lexikoa) aldakorra dena eta formala (gramatika) funtsezkoa eta iraunkorra. Hizkuntzen arteko konparaketetan biak izan behar dira kontuan, bestela etimologiak errakuntza-bide gerta litezke.

Hizkuntzak sailkatzeko irizpideak finkatzerakoan, alde batera uzten ditu "ofizialtasun / ez-ofizialtasun" gisakoak (nabarmen alde batera jotzen dutela uste duelako, dagoeneko esan dugunez) eta irizpide zientifiko-linguistikoetan oinarritzen da. Eraikuntza-legeak, aditza, alderdi semantiko, morfologiko eta fonetikoak ezagutzearen garrantzia azpimarratzen du.

Horren arabera, hizkuntza finlandiarra, magiarra eta euskara talde indoeuropar edo indo-aryotik kanpo gelditzen dira. Lehendabiziko biak elkarren artean ahaideturik daude (familia ugro-finlandiarra).

Euskara bakarrik gelditzen da, eta bere eransketa-ahalmen handia nabarmentzen du: "zuzeneko eta zeharkako araubide guztiak biltzen ditu bere aditz-jokaeran, pluralezko ñabardurekin, baita denbora, tokia eta modua adierazteko partikula ugarekin ere..."¹⁸.

Eleizaldek zehazten du euskararen izaera eranskaria ez dela hizkuntzak sailkatzeko balio duen irizpide, horien bilakaeraren barruko egoera bat baizik.

4. EUSKAL HIZKUNTZA BESTE HIZKUNTZEN ARTEAN

4.1. EZAUGARRI BEREZIAK

Bere lehen idatzietan (1901), Eleizaldek dio euskarari hizkuntza semitikoen antz handia aurkitu zaiola eta egunen batean, Humboldtten pentsamenduaren arabera, hizkuntza guztiak beren artean duten ahaidetasuna agertuko dela, horien azterketa pixkanaka hobetu ahala¹⁹.

Iritzi hori aldatu egiten du. 1916an baieztatzen du, hizkuntza baten eta nazionalitate baten nortasuna bere desberdintze-graduaz neurtuz gero, euskararen kasuan begibistakoa dela, enbor indoeuroparraz kanpo dagoelako eta familia uraloaltakoarekin ere ahaide-tasunik ez duelako (aurreko sailean jakinarazi dugunez), ezta enbor semitarekin ere. Hizkuntza polisintetikoen taldekoa litzateke euskara, horien artean leudekeelarik zenbait hizkuntza amerikar ere²⁰.

Nolanahi dela ere, eta euskarak beste hizkuntza batzuekin agian izan dituen harremanekiko bere ikuspegian zenbait gora-behera izan arren, Eleizaldek, batetik, positiboki balioesten du gure hizkuntzaren izaera bereizia, halaber desberdindua den gertakari nazional bati loturik dagoen heinean; bestetik negatiboki, beste hizkuntza batzuen kultur isuria gurera ekartzeko zailtasuna dakarren heinean.

¹⁸ Eleizalde, K : Cuatro conferencias. Editorial Vasca. Bilbo. 1918.155 orr.

¹⁹ Eleizalde, K: Apuntes de filología comparada, Euzkadi aldizk. 1901. 3. 272 orr.

²⁰ Eleizalde, K: "El idioma basko" in Los baskos en la nación argentina 1816-1916. J. R. de Uriarte (De) Buenos Aires. 43 orr.

Eleizalde azpimarratzen duen beste ezaugarrietako bat da "araza kultoagoak du eragina... gutxiago denarengan"²¹. Horregatik euskarak eragin gutxi izan du, edo bat ere ez, latinarengan eta, aldiz, latinak bere eragina izan du euskararengan.

4.2. GAURKO EGOERA

Eleizalde tarteko jarrera dauka euskararen egoera etsipengarria dela uste dutenen eta ona dela irizten diotenen artean; berarentzat asko dago oraindik egiteko, baina egin ere asko egin daiteke. Batez ere, baztertu egiten du euskara ezinbestean desagertzea kondenaturik dagoelako ideia (paradoxa historikoak dira latinaren heriotza, hizkuntza kulta eta urrezko mende bat izan zuenarena eta euskararen erresistentzia). Etorbizuna egintzaren baitan dago; hizkuntzaren bizia herriaren biziari loturik dago (herri honek erakutsi du baduela energia); herrien egitekoa berentzat on derizotenen alde borroka egitea da. "Eginbearra bete, zernahi datorrela ere"²².

Bigarren hitzaldian "norbere hizkuntzaren aldeko borroka" izenekoan (1918ko martxoa) Irlandako eta Euskadiko egoerak erkatzen ditu. Irlandan %13ko populazio elebidunarekin, %0.46 bakarrik dago irlandera (gaelikoa) besterik ez dakiena eta, hala ere, irakasgai gisa ageri da lehen hezkuntzako ikastetxeetan 1878az gerotik eta maisuek sari berezia dute gaelikoa ikasten duen ikasle bakoitzarengatik. Euskal Herrian %32ko populazio elebidunarekin eta %8 elebarkoarekin, oraindik ez dago euskarazko irakaskuntzarik eta lehen hezkuntzako ikastetxeak euskararen kontrakoak dira (ez hainbeste pertsonala, baizik eta antolakuntza eta legezko forma). Eleizalde azterketak euskaraz egiteko baimena ere eskatzen du bigarren hezkuntzako ikastetxeetarako.

Bere obrako beste une batean euskararen aurkako mesprezuaz hitz egiten du, eta hirietan (ez ordea herrietan) euskara erabiltzeak sortzen duen lotsaz ere bai. Autoreak dio baserriar euskaldunari bere baserriak edo auzotik kanpora gauza guztiek gaztelan hitz egiten diotela (errodak, errotuluek, ikasliburuek...); hitz batean, bizitza publikoaren adierazpen oro, gaztelan hitz egiten duen euskarak ez duela ezertarako balio, erabileraz kanpo dagoen hizkuntza dela.

Eleizalderen arabera: "euskararentzako... arrisku larria horretantxe dago: oraindik euskara hizkuntza bizia duen populazio-gunea pixkanaka murriztuz eta desagertuz joatean"²³.

5. AZTERKETA MORFOLOGIKOAK

5.1. BERE OBRAREN ABIAGUNEA ETA AUTORE AITZINDARIAK (ARANA-GOIRI, LARDIZABAL, VAN EYS...)

Kapitulu hau da zalantzarik gabe garrantzitsua Eleizalderen hizkuntzari buruzko obran. Dirudenez aditzaren flexio sinplearen eta formula aljebraiko baten arteko antzekotasuna izan zen hasiera batean Eleizalderen interesa sortu zuena, eta I. López Mendizabalek dioenez²⁴, Eleizalderen prestakuntza zientifikoa izan behar da gogoan esandako hori ulertzeko.

²¹ Eleizalde, K: Notas acerca de la influencia del euzkera sobre el latín y reciprocamente. Euzkadi aldizk. 1906. 3. 3 orr.

²² Eleizalde, K: Cuatro conferencias. Editorial vasca. Bilbo. 1918. 168 orr.

²³ Idem, 172 orr.

²⁴ Villasante, L: Historia de la literatura vasca. Sendoa. Bilbo. 1961. 327 orr.; Euzkadi aldizkaritik hartua. 1913, 392 orr.

Bada autore-sail bat Eleizalde eskuarki erabiltzen duena; berak aipatzen ditu 1908ko RIEVen. II. libkia, 611 orrialdean; besteak beste, Lardizabal, Arana-Goiri, Kanpion eta Van Eys dira.

Lardizabalen kasuan etengabe aipatzen du haren gramatika; gramatika horrek izan zezakeen garrantziaren berri izateko jakin behar da 1855ean Hernanin izandako Batzar Nagusietan gramatika horren aleak herrietan barrena zabaltzea erabaki zela eta, batez ere, lehen hezkuntzako irakasleei ematea euskararen irakaskuntza heda zezaten.

Arana-Goiriren kasuan, harremana askozaz estuagoa da, zeren haren sistema grafiko eta fonetikoak harteaz gainera, "maisu"tzat hartzen baitzuen. Baina horrek ez du esan nahi, zenbait auzitan eta alderditan, Eleizalde Aranagandik saihesten ez zenik eta zuzendu ere egiten ez zuenik.

Kanpion eta Van Eysi buruzko erreferentziak askozaz bakanagoak dira; lehenari dagokionez haren "Gramática de los cuatro dialectos" erabiltzen du, nahiz eta nahiago duen Lardizabalenari hurbilagoak jarraitzea, azalpen argiagoak dituelako.

Bere ondorengo azterketen ardatza izango den oinarritzko ideia, bere metodo eta helburuen adierazgarri dena, honako hau da: "Giza zientzia ororen azterketa gertakarietatik hasten da, zeren eta "a priori"zko kontzepzioek, hasieratik ezarritako gero, desbideratu besterik ez balukete egingo ingurune ezezagun bat arakatzeko ari dena. Baina hainbat gertakari behatu ondoren, ideia orokorren bat, legeren bat, formularen bat erabili eta baliatu beharra dago, ...lege hori, hipotesi hutsa da, eta zenbat eta handiagoa den haren bidez esplikatzen diren gertakarien kopurua orduan eta handiagoa izango da bere balioa; eta ondorengo gertakari guztiek baieztatzen badute, hipotesi hori ziurtasun bihurtzen da"²⁵. Berarentzat begibistakoa da hizkuntza gauza emana dela eta, horregatik, deskribatu den bezala aztertu behar da, hau da, behaketaz eta indukzioz. (Euzkadi aldizkaria. 1901. 261 or.). Esandakoaren ondorioz ez du "a priori" jardungo eta alde batera utziko ditu eta ez ditu aditzera emango nahiko egiaztatuak ez diren hipotesiak: "...hipotesia ez dago nahiko egiaztatua flexio bakarra, eta hura ere ez erabat, esplikatzen badu"²⁶.

Bere azterketaren helburuen artean aditz-jokaera sinplearen ezagutza erraztea eta ohiko bihurtzea dago, eta euskaldunen zabarkeriaz urteetan zehar galduz joan diren adizki horiek "berrezartzea". Eleizalderen interesa beti handiagoa da euskararen arazo praktikoeikiko hizkuntzalaritzarekiko baino:

"Guri... interesatzen zaiguna... euskarak irautea da eta literatura oparora izatera iristea... gure jardun-eremua, beraz, hizkuntzalarientzat zeharo bestelakoa da..."²⁷.

5.2. ALOR HONETAKO EKARPEN NAGUSIAK, BATEZ ERE ADITZAREN JOKAERA SINTETIKOARI DAGOZKIONAK

Bere obra nagusia "Morfología de la conjugación vasca sintética" delarik, liburu horretan ageri diren ideiak prozesu baten emaitza dira, hau da, Euzkadi aldizkarian eta RIEVen alde

²⁵ Eleizalde, K: Morfología de la conjugación vasca sintética. I libkia. Elexpuru Hnos. Bilbo. 1913. 209 orr.

²⁶ Eleizalde, K: Notas acerca de las flexiones del grupo G. RIEV. II. libkia., 350 orr.

²⁷ Urquijo, J: Koldo Eleizalde. RIEV. 1923. XIV. libkia. 695 orr.

aurretik argitara emandako azterketa batzuen emaitza. Beraz, ondoren, eta kronologiaren arabera (argitaratze-ordenan), oinarritzko ideien berri emango dugu.

Eleizalderen ustez²⁸, eta Lardizabal eta, oro har, larramenditar guztien (eredu latindarren peko guztien) aurka euskal aditz simplea ez da irregularra, zeren eta aditz bakoitzetik erro bat atera baitaiteke eta horretatik aditz-jokaera simplea eratortzen da era iraunkor eta arauzkotan. (RIEVen. 1908. II libkia. 341 orrialdean gai hori berori jorratzen da adizkirik zaharrenak zein diren finkatzearen ikuspegitik). Teoria-zirriborro horretatik (flexio orokorretan artizki gisa diharduen errogunea aditz bakoitzetik ateratzea) "egin" aditza eratzen du analogiaz: "Nahiz eta "egin"en forma simple hauek gaurko erabilpenean ez aurkitu, ez dirudi ausartegi behiala erabili zirela suposatzea, eta gaur egun ez erabiltzea gure garaiotara euskara iritsi den egoera negargarriarengatik dela"²⁹. Nabarmendu beharra dago analogia-metodoa etengabe erabiliko duela bere aditz-jokaeraren "berreratze" eta berrezartze lanean.

Urte horretako (1905) argitalpenetan ere nabari dira bere formula aljebraikoaren hasierak, adizki puru eta mistoak lehendabizikora murriztearena aipatzen duenean eta/edo flexio-sail bat antzekotasun eta desberdintasunen prozesuaren bidez aztertzen duenean³⁰. Adizki puru eta mistoen terminologia hori Lardizabalena da.

Flexio horiek literatur euskaran erabiltzea proposatzen du Eleizaldek. (Idea hori bera adieraziko du Oñatiko Kongresuan bere "Euskara berrezartzeko metodologia" lanean.)

Era berean eta alde aurretik aipaturiko autoreengan (Lardizabal,...) ez bezala, aditz-jokaera sinpleak esanahi propio eta berezia du, adizki konposatuenarekin parekatu eta ordezkari ezin daitekeena. Idea hori, jadanik 1905ean azaldu zuen eta, "Morfología de la conjugación vasca sintética" (1913) lanean 82. orrialdean garatuko du. Aurrerago jasotzen ditu lor daitezkeen konbinazio perifrastiko desberdinak; horietako batzuk, nahiz eta morfologikoki posible izan, ez dira hala semantikoki: "...aldi horietako banaka batzuk soilik erabiltzen dira herriaren hizketan eta beste banaka batzuk gehiago bakarrik literarioan; baina ez dago inolako zalan-tzarik horiek guztiak, eta agian beste batzuk gehiago ere bai, erabilgarriak direla"³¹. Flexio sinpleak, Eleizalderen arabera, antzinako garaietan, inondik ere askozaz gehiago erabiltzen ziren bere garaian baino.

Eleizaldek erregulatzaez hitz egiten duenean idealaz, logikoaz, arauaz ari da; eta irregularra, berriz, erabilpenak emango luke, errealak. Idea hori RIEVen ageri da. 1908. II libkia, 344 orrialdean.

Euzkadi aldizkarian, 1906, 206 orrialdean agertzen dira azterketa morfologiko horiek egitera bultzatu zuten zioak. Alde batetik, 'egin' aditzarekin lorturiko arrakasta (Eleizaldek, Van Eysen erretrauak aipatuz -1596-, berak eraturako flexioak beste garai batean erabiliak zirela egiaztatzen du); beste alde batetik, Arana-Goiriren hitzak daude: "...aditz-jokaera sintetiko horren jabetzat aipaturiko aditz horiei beroriei aldi eta pertsona ongi mugatu batzuk soilik emateak ez digu eragozten aditz horien kasu guztietarako garatzea"³².

²⁸ Eleizalde, K: Acerca de una supuesta irregularidad del verbo euzkérico. Euzkadi aldizk. 1905. 162-168 orr.

²⁹ Eleizalde, K: Acerca de una supuesta irregularidad del verbo euzkérico. Euzkadi aldizk. 1905. 308 orr.

³⁰ Eleizalde, K: Nuevos apuntes acerca de las conjugaciones euzkéricas simples. Euzkadi aldizk. 1906. 8. 286 orr.

³¹ Eleizalde, K: Morfología de la conjugación vasca sintética. I. libkia. Elexpuru Hnos. Bilbo. 1913. 256 orr.

³² Eleizalde, K: Nuevos apuntes acerca de las conjugaciones euzkéricas simples. Euzkadi aldizk. 1906. 205 orr.

Aipaturiko azken aldizkari horretan baldintzazko, aginte eta subjuntibo-erako aditz-jokae-
ra simpleak eratu eta esplikatzen ditu. Erabiltzen duen prozedura beti bera da: erabiltzen di-
ren flexio konkretuetatik, forma orokorrak ateratzen ditu. Urte horietako idatzietan oraindik ez
du ezer esaten ahalez; Euzkadi aldizkarian, 1908. 239-245 orrialdeetan emango digu ho-
rren berri. Subjuntiboko adizkiei buruz dio batzuetan esanahia esaldiaren zentzu orokorrak
ematen duela; “dagidan” flexioa jartzen du adibidetzat (batzuetan “nik egin dezadan” eta
beste batzuetan “nik egiten dudan”).

Gai puntualenetan “egoki” aditzaz egiten duen ekarpena dago; Eleizalderen arabera, ez
dago horrelako aditzik eta horren flexioak ‘egon’ aditzarenak dira.

Azkenik, bere “Morfología de la conjugación vasca sintética” liburuan azaldutako ideia
nagusiak laburbilduko ditugu, hori zabaldu edo zuzentzeko, orain arte esandakoarekiko be-
rriak diren heinean.

Liburuaren ezaugarrietako bat azalpen teorikoekin batera analisi eta sintesiko ariketak
izatea da, irakurleak berak ariketak egin ahal izan ditzan.

Gramatika-nozio sail baten ondoren aditz-jokae sintetikoaren modu eta aldi desberdi-
nak aipatzen ditu. Aldietan dio horietako bi direla oinarritzokoak (indikativoko orainaldia eta hi-
potetiko bat), zeren horietatik eratortzen baitira beste guztiak.

Ondoren, formula aljebraikoa garatzen du (jadanik aipatu duguna), indikatiboaren orai-
naldiaren kasuan A B C D E izango litzatekeena, non A araubide zuzena den, B errogunea, C
pluraltasunaren marka, halakorik balego, D zeharkako araubidea (batzuetan baliteke ez iza-
tea) eta E perpausaren subjektua.

Idea original eta berri gisara dio: “Nire uste sakona da edozein aditz, iragankorra zein ira-
gangaizta, sintetikoki jokagarria dela, baldin eta, agian, aditz-boza (indefinitibo deitua) bokalez
edo “j” kontsonantez hasten bada”³³. A. Soloeta-Dimak kontsonantez hasten diren aditzentzat ere
aditz-jokae sintetiko proposatu zuenean, Eleizalde kontra atera zitzaion, antzinako testu baz-
tuz aipatuz eta Euskaralagia arrazoiketa hutsezko zientzia ez dela aditzera emanez.

Formula aljebraikoaren ondorengo azalpen batean dio pluralgilea hirugarren pertsonako
pluraleko araubideetan baino ez dela erabiltzen. Beraz, singularreko bigarrenean eta plurale-
ko lehenean ez da aipaturiko elementu hori agertuko. Hori eztabaidagai eta kritikagai izango
da beste autore batzuen aldetik, aurrerantzean ikusiko dugunez. Eleizaldek berak, ordea, la-
guntzailearen kasuan elementu pluralgilea erabiliko du, hirugarren pertsonan ezezik, baita
pluraleko lehendabizikoan ere: “gaituzu”³⁴.

Perifrasiko geroaldia erabiltzea, Eleizalderen arabera, erderismo hutsa da; forma sinteti-
koak erabili beharko lirake (1596ko Van Eysen erretrauetan dokumentatuak), literatur hiz-
kuntzan gutxienez.

Aldi hipotetikoaren azalpenean (konbentzionalismo hutsez deitzen zaio horrela, ez baitu
inolako zerikusirik esanahiarekin) jadanik deskribatu direnen antzeko bideetatik dabil, nahiz
eta eratze-moduak desberdinak izan.

³³ Eleizalde, K: Morfología de la conjugación vasca sintética. I. libkia. Elexpuru Hnos. Bilbo. 1913. 19 orr.

³⁴ Idem, 85 orr.

Laguntzaile iragankorrari dagokionez eta irregulartasunak ageri dituela kontuan harturik ere, Eleizalde gehiago gidatzen da ohiko adizkietatik logika hutsezkoak direnetatik baino; horrela, bada, flexio garbien gipuzkeraren ohiko koadroa birsortzen du eta honako forma hauek proposatzen ditu: "gaituzu, zaitut...", aldi berean honela dio: "Bigarren pertsonako araubide zuzeneko flexio hertsiki logikoak hauek lirateke: 'zaut, 'zaugu'..., eta Bizkaiko euskalkian, idazle moderno batzuek erabili egiten dituzte, Arana-Goiri'tar Sabinen eredia jarraituz, uste dudanez"³⁵. Kasu honetan Eleizalde bera ere, badirudi "maisua"rengandik aldentu egiten dela.

Baldintzazkoaren kasuan Eleizalde dio U eta ZA erroguneetatik eratorritako flexioek funtzio desberdinak hartzen dituztela, sinonimoen banaketako legearen arabera.

Aditz laguntzaile iragankorraren jokaera sintetikoan azpimarratzeko alderdietako batzuk, dagoeneko aipatu ditugunez gainera hauek dira: hirugarren pertsonako zuzeneko araubidearen itzulpena 'lo / los' partikulen bidez egitea (ez ditu 'la / las' sartzen) eta flexio horien eta gaur eguneko batuzko adizkien artean dagoen antzekotasun handia.

Jokaera sintetiko iragangaitzaren kasuan, erabat logikoak diren formek, uste du ez lukeela eraman behar Z pluraleko marka (zabilz...) singularreko beren bigarren pertsonan. Hala eta guztiz ere, erabilpenak baietz dio. Eleizalderen jarrera, kasu honetan, zalantzazkoa, ziurtasunik gabea da, zeren ahaleraren orainaldiaz hitz egitean esaten baitu: "Kontuan har bedi ez dagoela z pluralgilerik 'zaiteke' bigarren pertsonako flexioan...berez, ez dago inolako premiarik, eta agian alde batera utzi beharko genuke beti, onartzen duen erabilpen arruntaren kontra, eta beti esan eta idatzi 'zator...zabil...zago' eta ez 'zatorz, zabilz, zagode (zaude)'"³⁶.

Laguntzaile iragangaitzaz ari dela, Kanpionen euskalki-bertsioak hartzen ditu behin eta berriz (autore hori da, dagoeneko esan dugunez, Eleizalderen iturrietako bat).

Laburpen gisara esan dezakegu aditz laguntzaile iragangaitzaren jokaera sintetikoan antzekotasun handia dagoela Eleizalde azaldutako flexioen eta gaur egun batuan erabiltzen direnen artean. Gainerakoan kontuan hartzeko moduko aldaketa txikiak daude: gaztelaniatzko "seré" esateko naiteke erabiltzen du (gaur egun naizateke); baldintzazko eran, aldi absolutuan bizkaierazko adizkiak aurkezten ditu, baina ez ditu ninteke formak jasotzen... Azkenik, ahalerari dagokionez eta adizki mistoetan dio bi baldintzazkoekin bat datozela (gaur egun ez).

Hona hemen ideia batzuk puntu honen zatiko ondorio gisara: Eleizalde, bere prestakuntza zientifiko-matematikoarengatik logikari jarraitu nahi izan arren, ohiko formetara makurtzen da halakorik dagoenean (nahiz eta logikaren aurkakoak izan); hau da, logikaren arabera jokutzen du erabilpenik ez dagoenean. Orain arte esandakoa froga daiteke aditz sintetikoa eta laguntzaileak aztertzean: lehen kasuan logikara jotzen du kasurik gehienetan eta bigarrean erabilpena. "Morfología de la conjugación sintética" liburuan, logikari jarraitzen zaio 14, 40, 171, 218 orrialdeetan, besteak beste, eta erabilpenari 15, 17, 86, 88, 170 orrialdeetan. Esandakoaren ondorioz, besterik gabe Eleizalde "purista"tzat jotzea ez litzateke erabat bidezkoa.

³⁵ Idem, 88 orr.

³⁶ Idem, 218 orr.

5.3. POLEMISTAK ETA KRITIKARIAK (VINSON, URKIXO...)

Hona hemen Vinson jaunarekin eztabaidatu zituen ideietako batzuk. Eleizalde uste du Opil hitza ez datorrela latinezko offella-tik, Vinsonek proposatzen zuenez, baizik eta ogi-biletik³⁷. Era berean uste du Emakume hitzarentzako Vinsonek proposatutako etimologia (umek ematen dituen) zentzugabea dela, zeren eta ideia hori adierazteko euskaldunak ume-emale edo antzeko zerbait esango bailuke. Eleizalde ziurragotzat jotzen du honako etimologia hau Emakume (eme-kumea edo emetxo).

Vinson jaunarekin izan zituen “gora-behera” nagusiak, aditzari buruzkoak dira³⁸. Horiek zirela-eta, Eleizalde utzi egin zion RIEVen esku hartzeari, Vinson jaunaren ideiei babes handiagoa ematen zitzaie la uste baitzuen.

Vinsonek zioenez, Eleizalde ez du ondo ezagutzen Bonapartek, Schuchardtek eta Vinsonek berak euskal aditzaz idatzitakoa. Erantzunean Eleizalde bere maisuak aitortzen ditu (Lardizabal, Arana-Goiri, Van Eys...) eta alor horretan dituen mugak ere bai, baina zehazten du esanez bere asmoa: “paradigma horietan Euskararen egungo aditz-flexioak metodizatu eta kondentsatzea dela...”³⁹. Eleizalderen helburua ez da, beraz, zientifikoa, zabalkundekoa baizik eta hastera doazenei jokaera sintetikoaren parametroak eskaintzea.

Vinsonek funtsezko errakuntzatat dauka Eleizalde ‘Zu’ri singularreko bigarren pertsonaren balioa ematea eta ‘Zuek’i pluraleko bigarren pertsonarena. Vinsonentzat ‘Hi’ forma erabili behar da singularrean, ‘zu’ pluralean eta ‘zuek’ berriki sortutako plural bikoiztat.

Eleizalderen arabera (i, ik) eta (zu, zuk) paradigmak erabat desberdinak dira eta trataera desberdinei dagozkie. Polemika hau sortu eta urte batzuk geroago, dagoeneko “Morfología de la conjugación vasca sintética” obra aztertzean ikusi dugunez, Eleizalde, nahiz eta ez dituen pluralgileak singularreko bigarren pertsonan erabiltzen, jadanik aipaturiko zenbait kasu salbuetsirik (aditz laguntzaileak...), Vinsonen hipotesiak aipatzen ditu, hau da, ‘zuek’ flexioek subjektuari dagokionez bi pluralgile-marka dituztela⁴⁰.

Bigarren alderdi horretan, autoreen artean elkar ulertzeko zailtasuna bakoitzak ezartzen dituen helburu desberdinetan datza. Vinsonentzat kontua ez da gaur egun ZU nola erabiltzen den, baizik eta horrek duen lehen esanahi oinarritzkoa; aldiz, Eleizalde gehiago arduratzen da forma hori gaur egun nola erabiltzen den jakiteaz.

Azkenik eta hirugarren azalpen batean, Vinsonek dio lehen aditzak (ez perifrastikoak) bi aldi bakarrik zituela (iragana eta orainaldia) eta modu bakarra (indikatioa).

Eleizalde, bere aldetik, erantzuten dio indikatiboa dela zalantzarik gabe oinarritzko era; aldei dagokienez, eztabaidagarriago ikusten du bi bakarrik izatea. Izan ere, urte batzuk geroago eta bere “Morfología de la conjugación vasca sintética”n oinarritzotzat jotzen ditu orai-

³⁷ Eleizalde, K: Notas al artículo “Les études basques de 1901 a 1906” de M. Vinson. RIEV. 1907. I. libkia, 183-184 orr.

³⁸ Honako hauetan agertzen dira:

Vinson, J: Le verbe basque. RIEV. 1908. II. libkia. 474-475 orr.

Eleizalde, K: Del Verbo Euskérico. Respuesta al Sr. Vinson. RIEV. 1908. II. libkia. 611-613 orr.

Vinson, J: Observations Grammaticales. RIEV. 1908. II. libkia. 795-798 orr.

³⁹ Eleizalde, K: Del verbo Euskérico. Respuesta al señor Vinson. RIEV. 1908. II. libkia, 611 orr.

⁴⁰ Eleizalde, L: Morfología de la conjugación vasca sintética. I. libkia. Elexpuru Hnos. Bilbo. 1913, 170 orr.

naldi eta iraganeko aldiak, baina horietatik eratortzen du geroaldia ere. Halaber, era indikati-boarekin batera, aginte-, subjuntibo-, baldintzako- eta ahal-era ere bereizten ditu Eleizaldeek.

Eleizalde Schuchardtek RIEVen, 2. zenbakia, 154 orrialdean 'Etzan' aditzaren irregulartasunez emandako azalpenen aurka agertzen da⁴¹. Halaber ez du baliozkotzat jotzen autore horrek berorrek senar hitzaz emandako etimologia (RIEV, 4. zkia, 338 orrialdean), gaztelaniazko "señor" hitzetik eratortzen duelarik.

Urkixok, "Morfología de la conjugación vasca sintética"⁴² obrax ari dela, Arana-Goiriren dizipuluek egindakoetan onena dela dio eta baita Eleizaldeek ordurarte egindako lanen gailur ere.

Egiten dizkion erreparoen artean, iturriak behar adina ez aztertu izana aipatzen du, bate-tik, bertakoak (Axular, Etxepare...) eta, bestetik, atzerriko literatura euskaltzaleari dagozkionak (Eleizaldeek egin zezakeen hori, zeren frantsesa eta alemana ulertzen baitzituen).

Azkenik, eta iradokizun gisara, Urkixok azpimarratzen du forma hipotetikoak (Eleizaldeek eratuak) bereizi egin behar direla erabili izan diren edo erabiltzen direnetatik.

6. AUZI LEXIKO ETA ETIMOLOGIKO BATZUK. FILOLOGIA KONPARATUAREN GARRANTZIA

Hauek lirateke hizkuntzen artean ahaidetasun-aztarnak izateko baldintzak⁴³, Eleizalderen arabera:

- Hitzzen antzekotasun materiala eta adierazitako ideien identitatea edo gutxienez harreman ideologiko estua egotea. Arrazoi horrengatik, Larramendiren etimologiek gaur egun ez dute behar den doitasunik.

- Auzitan dauden hitzek sorreratik egon behar dute hizkuntza bakoitzean (ezin dira hizkuntza batek bestetik hartuak izan). Historian zehar euskarak bere egin ditu hitz espainiar eta frantsesak eta euskaralogo nabarmenen ahaleginei esker, nekez aurkitzen da latinezko hitzik. Eleizalderen pentsamenduan, ez dago latina eta grekoaren baliabideetara jotzerik, euskara ez baita hizkuntza erromanikoa; beraz, euskal hitzak (neologismoak) eratu beharra dago.

- Hitz onomatopeikoetan mesfidatu beharra dago hitz horien antzekotasun posibleez.

Halaber esango dugu Eleizaldeek bere egiten dituela Youngen planteamenduak; honek dioenez, bi hizkuntzaren artean kидetasuna dagoela baieztatzeko 20tik 30era hitz komun izan behar dituzte (probabilitate-kalkulua aplikatuz).

Hortik abiatuta, hizkuntza semitikoak indo-europearrekin konparatu zituen. Haiek familia bat osatzen dutela atera zuen ondorio, eta konparaketa ez dela erraza ezberdintasunak hain handiak direnean (lehenak pobreak eta besteak malguak direnean).

⁴¹ Eleizalde, K: Notas acerca de las flexiones del Grupo G. RIEV.1908. II. libkia. 344-345 orr.

⁴² Urquijo, J: Bibliografía. RIEV. 1914-1917. VIII. libkia. 174-175 orr.

⁴³ Eleizalde, K: Apuntes de filología comparada. Euzkadi aldizk. 1901. 262-264 orr.

Hizkuntzek beren artean duten ahaidetasuna nola esplikatzen den galderaren aurrean, uste du ez dagoela uste izaterik lehen hizkuntza bat baino gehiago izan zenik, zeren alderdi gramatikala aldaezina baita eta, bestalde, ez dago kointzidentzia horiek halabeharrezkotzat jotzerik ere (Youngen probabilitate-kalkuluaz). Berarentzat ez da sustengagarria hasierako hizkuntza bakarraren argudioa, zeren hizkuntza batek ezin baitu ezer funtsezko berririk bereganatu. Beraz, "hizkuntza berri bat ez da sortzen... gutxienez beste biren arteko talkaz izan ezik..."⁴⁴. Baieztapen hori planetekiko parekotasun bat ezarriz egiten du. Horregatik, beraz, hizkuntzaren bat-bateko haustura bat gertatu zela pentsatu beharra dago; kristauen kasuan gertakari hori Babel dorrearen kontaezan dago jasota.

Lehen hizkuntzaren batasuna frogatu ondoren, giza espeziearen batasuna da horren derigorrezko ondorioa (fededunen kasuan hori ere begibistakoa litzateke).

Eleizalderentzat, ez da interesgarriega jakitea ea gaurko euskara bi euskararen arteko talkatik datorren.

Beste artikuluko batean⁴⁵ Eleizaldek euskarazko jatorria duten latinezko hitz batzuk esplizitatu ditu: cirrus-kirru, c latindarraren ahoskera zuzena, R. de Miguelek dioenez, k hotsari dagokiola. Eleizaldek bi termino horien egiantzekotasun morfologikoa eta esanahizkoa ezartzen ditu. Esaten du latinak termino hori euskaratik hartu zuela, eta ez alderantziz, lege etimologiko honen arabera: "Hitz bera bi hizkuntzatan dagoenean, horietako batean esanahi konkretuarekin eta esanahi figuratuarekin bestean, segurtasun handiz baieztatu daiteke azken hizkuntza horrek hitz hori bestetik hartu zuela"⁴⁶. Izan ere, latinetik hartu izan balu latinezko terminoak dituen esanahi guztiekin aurkeztuko litzateke gure hizkuntzan.

Era antzekoan azaltzen du Cella = Kela gela. Uste du latinezko erroa euskarazkotik datorrela. Eleizalderen arabera, zori, zorion, zoritxar, zorgin hitzetatik dator latinezko sors hitza.

Hala eta guztiz ere, aipaturiko artikulua bukaeran badirudi atzera egiten duela edo gutxienez honako hau dio: "Hizkuntza guztiek dituzte erro komunak: printzipio hori aski da euskarazko erro horiek eta Lazioko hizkuntzan egon litezkeen beste batzuk justifikatzeko"⁴⁷.

Azkenik, honako euskarazko erro hauek aztertzen ditu grekozko ouranos = ur, euri eta urbs = uri hitzetan.

Eleizaldek A. Mendibururen "Otoitz-gayak" obrari heltzen dio hiztegian duen "garbitasuna" rengatik eta euskara berreraikitze-lanean erabil litekeela adierazten du⁴⁸.

⁴⁴ Idem, 274 orr.

⁴⁵ Eleizalde, K: Notas acerca de la influencia del euzkera sobre el latín y recíprocamente. Euzkadi aldizk. 1906. 2-5 orr.

⁴⁶ Idem, 4. orr.

⁴⁷ Idem, 4 orr.

⁴⁸ Eleizalde, K: Notas acerca del léxico y de las flexiones simples del P. Mendiburu en su obra "Otoitz-gayak". RIEV. 1907. I. libkia. 67-73 orr.

7. EREMU-AZTERKETA: BERGARAKO EUSKARA

Bi arrazoiengatik eskaintzen diogu kapitulua gai honi: alde batetik “eremu-azterketa” bat da, in situ egina eta bertan, Eleizalde material zientifiko batzuk biltzeko ahaleginak egiten ditu fonetika eta gramatika-formei dagokienez; bestalde, hara Urkixok zer dioen: “Nolanahi ere, Eleizalde jaunaren langiletasuna handia da, eta oraindik ekarpen handiagoa egingo luke euskal ikaskuntzen aurrerapenerako, Bergarako bere euskalkiaz monografia bat ematera ausartuko balitz, behinola argitaratu zuen artikulua baino luzeagoa,”⁴⁹.

Azterketa horretan zehar⁵⁰ beste behin agerian jartzen da zein diren berak “erabiltzen” dituen autoreak. Horrela aitortzen du Arana-Goiriren sistema grafikoari darraikiola, Lardizabalengan oinarritzen da, zenbait puntu zuzentzen dizkiolarik (“j” soinuaren ahoskera, besteak beste).

Bergarako agakari dagokionez, Eleizalderen ustez, bizkaiera eta vaskoiera euskalkien partaidetza ondorioztatzen da.

Eratorpen-bukaerei eta atzizkien azterketei dagokienez etengabeko aipamenak egiten ditu eta Kanpionek bere gramatikan ezarritako jarraibideei lotzen zaio, zenbait puntutan zuzendu edo iritzi desberdinak azaltzen baditu ere (TZAT, TZAR eta abar bezalako atzizkiei buruz).

8. EUSKARAREN PREMIAK ETA LARRITASUNAK

8.1. GIZARTE-BERREZARPENA (KLASE INTELEKTUALEEN ETA EUSKARAZKO IKASTETXEEN GARRANTZIA)

Hizkuntza propioa herri baten nortasunaren kanpo-zeinu nagusia dela hartzen du abiapuntu Eleizalde, eta bere iritzi herri batek duen nortasuneko beste ezein ezaugarri ez dago hizkuntzarekin alderatzerik.

Autorearen ustez, deseuskalduntzea goitik behera etorri den heinean, berreuskalduntzeak ere bide beretik etorri beharko luke. Euskararen gizarte-berrezarpena, goiko klaseetatik eta klerotik etorriko da; klase ikasien ereduak egintza horrek, euskarazko ikastetxeen laguntzarekin, soluzioa emango lioke Euskal Herriak duen hizkuntz arazoari.

Elite ikasia abangoardia euskalduntzaile izateari buruz egiten duen planteamendua, argi eta garbi mamiturik ageri da zera dionean: “Erreforma eta barne-birsorkuntzarako espirtu horrek, nahiz eta zerebro argi batzuetan bakarrik jaioa izan, pixkanaka sortuaz joan beharko du gure herriko klase guztietan, eta zabal eta sakon hedatu”⁵¹.

Berreraikuntza nazionalean, euskal nazionalismoaren helburu politikoa horixe denez, euskara berreskuratzearekin guztiz loturik dagoen prozesua izanik, funtsezko zeregina du hezkuntzak: “Oinarritzkoena naziotasuna jagon eta eraberritzea da, arrazaren indar espirtualak hezkuntzaren bitartez berrindartzea”⁵².

⁴⁹ Urquijo, J: Bibliografía. RIEV, VIII. libkia. 175 orr.

⁵⁰ Eleizalde, K: Breves notas acerca del euzkera de Bergara. Euzkadi aldizk. 1905. 64-77 orr.

⁵¹ Idem, 164 orr. Elite ikasia gizarte-abangoardia izatearen ideia hori berori mamitu eta garatuko du in : Metodología para la restauración del euzkera. I Eusko Ikaskuntzaren Kongresua. Bilbaina de Artes Gráficas. Bilbo. 1919. 431 orr.

⁵² Eleizalde, K: Cuatro conferencias. Editorial Vasca. Bilbo. 1918. 164 orr.

Esandakoaren ondorio gisa eta nahi den gizarte-berreskuratze hori lortzeko, beharrezkoa da herriak bere hizkuntza propioan hitz egin dezan, euskal baseritarrak konfiantza izan dezan bere hizkuntzaren balioan. Eleizalde bideetako errotuluak euskaraz ere jartzearen eta euskara sartzearen eginkizuna, hau da, bizitza publikoko agerpen desberdinak euskaraz jartzearen lana, korporazio publiko eta partikularrei dagokiela aldarrikatzen du.

8.2. BERREZARPEN LITERARIO ETA ZIENTIFIKOA. (BATASUN FONETIKO, ORTOGRAFIKO ETA DIALEKTALA)

Euskara bizitza publikoan berreskuratuzeko premiarekin batera, era berean presazkoa da hizkuntza bizitza modernoko premia intelektualetara moldatzearena ere.

Eleizalde dei egiten die euskal idazle gazteei, testuak, liburuak eta irakaspedeak presta- tu eta euskarazko literatura bat sor dezaten. Berak ere ekarpen bat egiten du zentzu horretan bere “Euzkel-Zenbakiztia” obrarekin.

Honela dio Mac Haleri buruz: “Arrazoi handiz esaten zuen, Aberria egiteko modurik era- ginkorrenetako bat aberri-literatura egitea dela, aberkideak harro sentiaraztea beren hizkun- tza nazionalaz, arrazaren benetako hizkuntzaz”⁵³.

Hala eta guztiz ere, nola ekoizpen literarioa hala eskola-sistema abian jartzea euskararen bateratze-lanak baldintzatzen ditu; beraz, bateratzeak ez dauka itxaroterik.

Eleizalde adierazten du antzinako literatura idatzi bat ez izatea eragozpen dela euska- raren bateratze linguistikorako. Horren ondorioz, euskal idazleentzako informazio-iturri baka- rra herriaren aho-hizkuntza denez, herri mailako aldaera guztiak (euskalkiak, fonetika, eta abar) gero hizkuntza idatzian islatzen dira. Euskara hizkuntza oso irakurria eta literarioa izan dadin, ezinbesteko da hiru arlotako bateratzea: ortografikoa, fonetikoa eta dialektala. Hona hemen bere planteamenduaren laburpena⁵⁴ gai horiei buruz:

- Batasun ortografikoa: “rr” hotsa r azentudunaz irudikatu behar da, Bonapartek jadanik egiten zuen moduan. Grafian sistemak erraza izan behar du eta idazkera ez da fonografiare- kin irudikatu behar, zeren ez baitago hitz egiten den bezala idazten den hizkuntzarik. Urte batzuk lehenago eta hainbat idatzitan Eleizalde agertzen du Arana-Goirik bere “Lecciones de ortografía del Euskera bizkaino” liburuan proposaturiko sistema fonetikoa eta grafikoa ja- rraitzen dituela.

- Batasun fonetikoa: Transkripzio grafikoetan horren erabilpen oso neurtua gomendatzen du, eta desberdintasunak areagotu ordez murriztea helburuaren mesedetan. Beste gai bat “bustidura”rena da, bustidura batzuk asemikoak dira eta beste batzuk semantikoak (azken horiek ñabardurak ezartzen dizkiote hitzen esanahiari eta lehenak baino hobesgarriagoak dira).

- Batasun dialektala: Hori ez da eskatzen herritarren erabilpenerako, baizik eta literatura- rako soilik eta idatzirako batik bat. Planteamenduen arteko desberdintasunak nahi den bata-

⁵³ Eleizalde, K: Países y Razas. Irlanda y su clero II. Euzkadi Egunkaria. 1913-06-01.

⁵⁴ Eleizalde, K: Metodología para la restauración del euzkera. I Eusko Ikaskuntzaren Kongresua. Bilbaina de Artes Gráficas. Bilbo.1919. 435 eta hh.

sunak lortzeko moduari buruzkoak izaten dira sarritan. Batzuk berezko bilakaeraren eta euskalkietako bat besteen gainetik jartzearen alde agertzen dira (toskanoak, gaztelaniak eta abarrek horrela jokatu zuten); Eleizalderen ustez, berriz, literaturako hizkuntza gisa abantaila gehien eskaintzen dituen euskalkia idazleen eta erakundeen artean kontsentsuz hautatzea litzateke praktikoena.

9. ETORKIZUNEN HIZKUNTZA AKADEMIA BATERAKO PROPOSAMENAK ETA ELEIZALDEK HURA SORTU ETA GARATZEAN IZANDAKO ZERIKUSIA

Berreskuratze zientifiko eta literarioaz Eleizaldek egiten duen planteamendua, intelektual eta idazle euskaldunek burutu behar zuten lanarekin batera, banakako egintzak koordinatzea zekarren; eta literatoen artean desberdintasunak eragotzi eta hizkuntzaren euskal akademia bat sortzera behartzen zuen.

“Cuatro conferencias” izeneko bere liburuan eredu posible ikusten zituen Kroaziar Akademia eta Gaelikoaren Irlandako Ligan (azken hori herri ekintzaren adibide gisa). Kroaziakoa gurea bezalako beharrak (hizkuntza, instrukzio eta literatura aldetikoak) asetzeko sortu zen. Strossmayer apezpikuaren iritziz, herri eta nazio guztiek gailu ditzakete dialekto-desberdintasunak ezabatzearen zailtasunak; era berean ondorengoa dio: “nazio oso txikiak ez dute oso literatura originala izatea lortuko, beren dialektoen aniztasuna hizkuntza idatzi bakar batean bateratzea lortzen ez duten bitartean”⁵⁵.

Racki, aipaturiko apezpikuaren lankidea, kezu zen Jugoslavian behar adinako solidaritate-sentimendurik lortu ez zelako. Gaitz horiek, aipaturiko autoreen arabera, batasun eta kultura gune eta egintza eta abertzaletasun gune gisa eratutako akademia baten bidez konpondu behar dira. Korporazio horrek ordaindu egin behar die kideetako batzuei eta horrela ziurtatu egin behar du horien jarraipena.

Liga gaelikoari dagokionez esaten du ez dela filologia soilaz arduratzen, baizik eta gertakari praktikoan alorrera ere iristen dela. Bertan, hizkuntzaren birjaiotza planteatzen da aberriaren birjaiotzaren oinarri gisara. Halaber, “adar” deitzen betekizuna azaltzen du irlandararen hedapen-zentro diren heinean (irakasle boluntarioek antolatutako eskolak) eta horien jardura bikaina.

Eleizalderen lanak, garaiko beste euskaltzaleenarekin batera, 1918an Oñatin egindako Eusko Ikaskuntzaren I Kongresuan, Hizkuntza saileko ondorioetan, Euskaltzaindia sor zedin proposatzeko modua egin zuen; proposamen hori egia bihurtu zen 1919ko iraileko Batzarrean, eta horren indarrez Euskaltzaindia eraturik gelditu zen Elren menpeko antolakuntza gisara, baina alor zientifikoan autonomia zuela.

Eleizaldek, Hizkuntza saileko batzordearen lanak burutzerakoan Oñatin egin zuen proposamena honako hau da: “Niri, aldiz, Batzorde ortan bi lan-mota oietarako biar diran gizonak bildu ditezkeala deritzat. Jakintza uts-utsean, eguneroko bearra begiratu gabe leporaño sartuak bizi diranak badira: oyeri dagokie euskera ikertzeko lana. Beste batzuk hizkuntza, ez bakarrik ura ikertzeko baña geienik gizonen artean gorde ta zabaltzeko, gogoan darabilte: oye-

⁵⁵ Eleizalde, K: Cuatro conferencias. Editorial Vasca Bilbao. 1918. 219 orr.

kek Euskeraren zaiñ eta banatzaileak izango dirade ta guztiok buru bakar baten menpean dabiltzala sail osoagoa beteko dute”⁵⁶.

Eleizalde, 1919ko urriaren 7ko bilkuran Euskaltzaindiaren idazkari hautatu zuten. Euskal bizitzaren aldeko agerpen guztiekiko Bilbon zegoen giro ona ikusirik, Akademiaren helbidea hiri horretan kokatzea eskatu eta lortu zuen Eleizaldek.

Akademiak Eleizalderi emandako lanen artean, azpimarratzekoa da auzo eta hirien sarreteretan ezarritako errotuluak gainbegiratu eta aztertzeo eginkizuna, osatu edo, akatsik egonez gero, zuzen zezan.

10. AZKEN ONDORIOAK

Eleizaldek hizkuntz alderdia errealtate askozaz zabal eta konplexuago batean sartzen du (euskal arazoan, bere osotasunean harturik). Baina, bere garaiko beste aktibista politikoko batzuek ez bezala, “kontzientzia nazionala” lehen unean kultur gaiei, nola hezkuntzakoei hala hizkuntzakoei, lehentasuna emanaz lortzea planteatzen du. Bere pentsamendua azaltzen duen eskema sinple baina argigarri bat honako hau da: Euskal herria nazio bat da, zeren arraza, odola... eta beste osagai komunez gainera, beste desberdingarri ugari dituelako; nabariena eta bereziena bere hizkuntza propioa da. Hala eta guztiz ere, eta zirkunstantzia historiko-sozialengatik euskalduntasunarekiko utzikeria egon da. Beharrezko da, beraz, gure arrazaren espiritua berrindartu, eraberritu eta berpiztea batez ere gure ikastetxe propioak sortzearen bidetik (zeren estatuari ez baitzaio nabari zeregin horretan esku hartzeko interesik). Ikastetxe horietan euskarak irakaskuntza-tresna izan behar du, hizkuntza propioa delako eta horrek ematen dituen abantaila pedagogikoengatik.

Zehazki eta norbere hizkuntzaren arazoari heltzerakoan, naziotasunen teoriatik jotzen du. Izan ere beste errealtate nazionalekin duen harremana kontuan izanik (harreman pertsonala ere badena kasu askotan), ahaleginak egiten ditu beti esperientzia eta eredu horien arabera jokatzeko eta gure egoerara moldatzeko.

Gure hizkuntza dialekto izatera eta gure nazioa erregio izatera mugatzen saiatzen diren hainbat irizpide “alderdikoi” eta interesaturen kontra eraso egiten du.

Beste alor batean, eta hizkuntzaren alorrera mugaturik, bere kezka erabat praktikoa da (euskararen iraupena); horregatik da presazkoa sozialki berrezartzea, egunero erabiltzea. Bere aldetik, planteatzen dituen zientzia eta ikerketa-mailako azterlan guztiak helburu horretara bideraturik daude. Euskararen kasuan, haren egoera negargarria kontuan izanik, “berreraikitze”-lana planteatzen du, funtsean aditzean eta lexikoan zentraturik. Adizkien “berreraikitze”-lan horretan era induktiboan dihardu, hau da, dauden eta erabiltzen diren formak aztertzen ditu eta horietatik erro komun batzuk ateratzen ditu, horietatik flexio berriak sortzeko, ordurarte izan gabeak. Eleizaldek proposatzen du flexio horiek literaturan soilik erabiltzea eta herri-hizketan, berriz, herriak bereganatzen dituen neurrian bakarrik. Eleizalde, beraz, hizkuntzaren sistematizatzaile bat da, “hizkeraren egintza” desberdinen metodizatzaile bat, horrela flexio horiek ikastea errazagoa gerta dadin. Zentzu horretan berak egindako ekarpen batzuk gaur egun ere oraindik indarrean daude. (Aditz-flexioak gaur egun aztertzeo dugun era, berak proposatu zuenaren antzekoa da, nahiz eta nomenklatura aldatu).

⁵⁶ Onaindia, S: Euskal literatura. V. libkia. Etor. Bilbo. 1977. 135 orr.; Euskera aldizkaritik hartua. 1919-1920. 45 orr.

Lexikoaren alorrean, besteak beste, euskara “araztu, garbitu” egin nahi du, arrotzak zaizkion hitzetatik; latinezko eta grekerazko jatorria dutenak baztertu edo ordezkatzetik hasten da, Euskara hizkuntza horien senide ez delako. (Ideia hori Migel Unamunokok ere azaldu zuen). Hitz batean, euskal hitz berriak eratzea proposatzen du, bere esanetan, klasikoak diren autoreetara jotzen duelarik (A. Mendibururengana esaterako).

Egia da bere lehen idatzi eta argitalpenetan bere “maisua” (Arana-Goiri) zintzo jarraitzen duena; baina egia da baita ere pixkanaka bere teoria propioa eratzuz joango dela eta alderdi batzuetan hark proposaturiko ideietatik urrunduz joango dela (horren adibide batzuk dagoe-neko jaso ditugu lan honetan zehar): “Euzkotarren ixendegia idatzi zuenean bat zetorren Sabino Aranarekin, baina gero aldatu egin zuen izendegi hura”⁵⁷.

Eleizalde eta bere obraz era guztietako balorazioak egin dira ondoren; horietako batzuk jasoko ditugu:

Mitxelenarentzat⁵⁸ Eleizaldek eta oro har, garbizaleek ez dute gupidarik literatur tradizioa eta herri-hizketarekiko, logikak hala eskatzen duen bakoitzean. Zalantzarik gabe onartzen dute ondorio bat aurrez finkaturiko printzipioetatik baldin badator. (Jadanik esan dugunez, hori ez da erabat egia Eleizalderen kasuan, zeren ohiko forma errotuak zeudenean errespetatu egiten zituen, nahiz eta logikaren aurkakoak izan).

Urkixok azpimarratu zuen beharrezkoa zela bereiztea Eleizaldek sorturiko hitz edo flexioak eta aurreko idatzietan behar adina dokumentaturik zeudenak.

Onaindiak, aditz sintetikoa gehiegi erabiltzetik sortzen den kaltea onartu arren, positibotzat jotzen ditu flexio sinpleak batez ere poesian⁵⁹.

Villasantek uste du forma horiek ugari erabiltzeak korapilatsu eta zail bihurtzen duela horrelako testua jarraitzea; gainera zehazten du hizkuntza ez dela inoren apetara erabil daitekeen zerbait. Eleizalde bera ere jabeturik dago hizkuntza ez dela gobernatzen arrazoi hutsaren arabera, jadanik aditzera eman dugunez.

Azkuek, bere “Morfología vasca” Eleizalderen obra baino urte batzuk geroago lantzean, aitortzen du ez zuela izan Eleizalderen obra ezagutu eta erabiltzeko aukerarik; agian horregatik gelditu da Eleizalderen obra Azkueren ondorengo tratatu eta gramatiketan sartu gabe.

Nolanahi dela ere, badira Eleizaldek sorturiko forma edo hitz batzuk gaur egun normaltasun osoz erabiltzen ditugunak edo gutxienez gramatikako tratatuetan agertzen direnak: ahal eta subjuntiboko forma batzuk aditz sintetiko batzuetan; eratorri bezalako aditzak edo aberkide bezalako hitzak, adibidez, altxor komunekoak dira gaur egungo euskaran.

Esandako guztitik garrantzizko deritzogu Eleizalderen figura aitortu eta balioesteari eta bibliografia propioan dagokion lekua eman eta bere pertsonaren inguruan sortuz joan diren aurriritzi posibleak ezabatzeari.

Euskararen aldeko lanean Eleizaldek beti beharrezko ikusi zuen pertsona-talde bat bilatzea, erakunde baten azpian bi funtzio beteko zituena: ikerketakoa (fonetika, ortografia eta

⁵⁷ Odon Apraiz jaunaren hitzak. Euskera aldizk. XXIV. 1987-2. 878 orr.

⁵⁸ Michelena, L: Historia de la literatura vasca. Minotauro. Madril. 1960. 143-145 orr.

⁵⁹ Onaindia, S: Euskal literatura. III. libkia. Etor. Bilbo. 1974. 293-294 orr.

dialektoei buruzkoa batik bat) eta "propaganda-praktikakoa", euskara gizarteko maila guztietara hedatzekoa; azken hori "euskararen gizarte-berreskuratzea" izenez ezagutzen da. Lan horri ekiteko sortu zen Euskaltzaindia eta Eleizalde sustatzaile eta kide izan zen, Eusko Ikaskuntza eta beste kultur elkarte batzuetan bezala.

Hona hemen Eleizalde hil zenean Urkixok esandako hitzak, amaiera gisa erabil ditzakegunak: "Eusko Ikaskuntzak bere sustengatzaile nagusietako bat galdu du, herriak adimen handiko eta zintzotasun orbangabeko gizon bat, eta guk lankide aktibo eta adiskide on bat"⁶⁰.

LABURBILDUMA

Lan honekin Koldo Eleizaldek hizkuntzaren alorrean egin zituen ekarpen interesgarrien berri ematen saiatu gara.

Lehenik esango dugu norbere hizkuntza naziotasunaren kanpo-zeinu nagusizat hartzen duela; horren ondorioz, hizkuntza desberdinari naziotasun desberdina dagokio. Era berean, ama-hizkuntzak irakaskuntzaren eroale eta bitarteko izan behar du, benetan eraginkor eta baliagarri izan dadin.

Euskararen kasuan, bere berezitasun eta ezaugarriak kontuan izanik, hizkuntza honen premia larriena gizarte, literatura eta zientzia-mailan berrezartzearena da. Egiteko horretan ikastetxeen eta intelektualen jarduna hil ala bizikoa da; azken horiek instituzio (Euskaltzaindia) baten azpian koordinatu beharko dituzte beren ekintzak.

Eleizaldek ahalegin berezia eskaintzen dio aditz sintetikoaren ikerketari; gutxi erabiltzen dela ohartzen da eta hizkuntzaren beraren narriaduratik datorrela uste du. Beraz, forma horiek "berreskuratzeari" ekiten dio, analogiaz, ohikoetatik abiaturik arau batzuk jarraituz. Eleizalderen helburua adizkiak sistematizatzea da eta hasiberriei horien ikasketa erraztea. Bere oinarritzko kezka euskararen biziraupena da. Lexikoa eta etimologiaren alorrean egin dituen ekarpenak ere kontuan hartzekoak dira.

BIBLIOGRAFIA

- AA.DD: I Congreso de Estudios Vascos. Biltzarreko lanen bilduma. Bilbaína de Artes Gráficas. Bilbo. 1919-20. 999.
- AA.DD: Reglamento. Primer Congreso de Estudios Vascos. Bilbaína de Artes Gráficas. 1919-1920. 34-38
- AA.DD: Conclusiones de la Sección de Lengua. Primer Congreso de Estudios Vascos. Bilbaínas de Artes Gráficas. Bilbo. 1919. 1920. 940-947.
- AA.DD: Conclusiones de la Sección de Enseñanza. Primer Congreso de Estudios Vascos. Bilbaína de Artes Gráficas. Bilbo. 1919-1920. 940-947.
- AA.DD: Historia general del País Vasco. Haranburu editor. Donostia. 1984. I-XIV libkiak.
- AA.DD: Catálogo de obras didácticas infantiles 1800-1976. II. Congreso Mundial vasco.
- AA.DD: Constatación de la entrega de material toponímico por la viuda de Eleizalde a la SEV. BSEV. 35. zkia. 1927. 5.

⁶⁰ Urquijo, J: Koldo Eleizalde. RIEV. 1923. XIV. libkia. 697 orr.

- AA.DD: Relación de ayudas económicas a cada tema. BSEV. 39 zkia. 1928. 4-6.
- Eleizalde, J: Breves notas acerca del euzkera de Bergara. Euzkadi aldizk. 1905. 64-77.
- Eleizalde, K: Acerca de una supuesta irregularidad en el verbo euzkérico. Euzkadi aldizk. 1905. II. 162-168.
- Eleizalde, K: Acerca de una supuesta irregularidad en el verbo euzkérico. Euzkadi aldizk. 1905. II. 306-312.
- Eleizalde, K: Notas acerca de la influencia del euzkera sobre el latín y recíprocamente. Euzkadi aldizk. 1906. III. 3. 2-5.
- Eleizalde, K: Nuevos apuntes acerca de las conjugaciones euzkéricas simples. Euzkadi aldizk. 1906. III. 7. 205-213 .
- Eleizalde, K: Nuevos apuntes acerca de las conjugaciones euzkéricas simples. Euzkadi aldizk. 1906. 279-293.
- Eleizalde, K: Notas acerca del euskera segunda época. Euzkadi aldizk. 1906. 5. 2-5.
- Eleizalde, K: De euzkeralogía. La Gaceta del Norte. 1906-I-11.
- Eleizalde, K: Notas acerca del léxico y de las flexiones simples del P. Mendiburu en su obra "Otoitz-gayak". RIEV. 1907. I libkia. 67-73.
- Eleizalde, K: Notas al artículo "Les études basques de 1901 a 1906" de M. Vinson. RIEV. 1907. I. 183-184.
- Eleizalde, K: Notas acerca del léxico y de las flexiones simples del P. Mendiburu en su obra "Otoitz-gayak". RIEV. 1907. I. 210-212.
- Eleizalde, K: Notas acerca del léxico y de las flexiones simples del P. Mendiburu en su obra "Otoitz-gayak". RIEV. 1907. I. 464-468.
- Eleizalde, K: Kristo'ren Antz-bidea. Euzkadi aldizk. 1907.IV. 171-172.
- Eleizalde, K: Notas acerca de las flexiones del grupo G. RIEV. II. 340-351.
- Eleizalde, K: Del verbo Euzkérico. Respuesta al señor Vinson. RIEV. 1908. II. 611-613.
- Eleizalde, K: Notas suplementarias al estudio de la conjugación euzkérica del grupo A (Euzkera gipuzkoano). Euzkadi aldizk. 1908.V. 239-245.
- Eleizalde, K: Notas acerca de las flexiones del grupo G. Euzkadi aldizk. 1908. 13. 17-30.
- Eleizalde, K: Euskeltzale sintsubaren agintzak. Euskal Esnalea. 1908.I. 170.
- Eleizalde, K: Kristo'ren Antz-bidea. Euzkadi aldizk. 1908.V. 333-334.
- Eleizalde, K: Kristo'ren Antz-bidea. Euzkadi aldizk. 1908.V. 405-408.
- Eleizalde, K: Otoyak euskaraz. (Bizkai-eraz) I. Loyola'tar Iñaki Deunaren otoi bi.II Otoi egikorra. III. Jabier'tar Deun Pantzeska'ren bederatzí-urrena. Bilbo. Elexpuru. 1908.8.
- Eleizalde, J: (Sobre traducción al euskera de la palabra gente). Euskal Esnalea. 1908.I. 96-97.
- Eleizalde, K: Revisión del verbo EGOKI. Euzkadi aldizk. 1909. VI.57-62.
- Eleizalde, K: Notas acerca de las flexiones del grupo G. Euzkadi aldizk. 1908. 18. 159-172.
- Eleizalde, K: Las cosas en su punto (Cuestiones etimológicas). Euskal Esnalea. 1909.II.74-77.
- Eleizalde, K: Notas para el estudio de la sufijación euzkérica. Euskal Esnalea. 1909.II. 74-77.
- Eleizalde, K: Deun eta onetsi. (Contestación a Orkaiztegi) Euskal Esnalea. 1909.II. 78-79.
- Eleizalde, K: Il-obijetarako euzkel-idazkunak (Bizkai-ta Gipuzko-eraz). Euskal Esnalea. 1909. II.192-193.
- Eleizalde, K: Kristo'ren Antz-bidea. Euskal Esnalea 1909.II. 142-143.
- Eleizalde, K: Apéndice a la conjugación G. Euzkadi aldizk. 1910. VII. 115-118.

- Eleizalde, K: Tratado elemental de la conjugación euskérica de síntesis. Euzkadi aldizk. 1910. 179-194.
- Eleizalde, K: Tratado elemental de la conjugación euskérica de síntesis. Euzkadi aldizk. 1910. 253-260
- Eleizalde, K: Tratado elemental de la conjugación euskérica de síntesis. Euzkadi aldizk. 1910. 323-338.
- Eleizalde, K: Tratado elemental de la conjugación euskérica de síntesis. Euzkadi aldizk. 1910. 403-418.
- Eleizalde, K: Nombres baskos. La Baskonia. 443. 1910. 595 zkia.
- Eleizalde, K: Nombres baskos. La Baskonia. 443. 1910. 598 zkia.
- Eleizalde, K: Al Sr. Urquijo. La Baskonia. 594. 1910. 601 zkia.
- Eleizalde, K: Nombres baskos y el "Folklore". La Baskonia. 443. 1910. 604 zkia.
- Eleizalde, K: CXXXVI Eresija. Erri oratubaren negarra. (poesia). Euzkadi aldizk. 1910. VII. 389-390.
- Eleizalde, K: Gurutza Deunaren bidea. Portu-Mauricio'tar Lonarta deunak idatzi ebaneran lez Euzkeraldu dau bizkaieraz, Eleizalde'tar Koldobika'k. Grijelmo. Bilbo. 1910. 36or. (Jaungoiko-Zalen Idaztija. Bilbo. 1917).
- Eleizalde, K: Irakurkizun laburrak. Euzkadi aldizk. 1910. VII. 475-476.
- Eleizalde, K: Notas euzkerográficas. I. Las voces euskéricas de interrogación y sus derivaciones afijativas; II. La prefijación en las flexiones verbales; III. Una acepción poco conocida del sufijo Kl. Euzkadi aldizk. 1910. VII. 301-307.
- Eleizalde, K: Raza, Lengua y nación vasca. A propósito de unos artículos publicados en "El Debate" de Madrid, por el Sr. D. Fernando de Antón del Olmet bajo el título "El Nacionalismo Vasco y los orígenes de la raza vascongada". Elexpuru Hnos. Bilbo. 1911. 140 zkia.
- Eleizalde, K: Tratado elemental de la conjugación euskérica de síntesis. Euzkadi. aldizk. 1911. 83-96.
- Eleizalde, K: Raza, Lengua , Nación. Bizkaitarra. 1911. 140 zkia.
- Eleizalde, K: Los nombres euskéricos. Bizkaitarra. 1911.
- Eleizalde, K: Irakurkizun laburrak. Euzkadi. aldizk. 1911. VIII.77-79.
- Eleizalde, K: Notas euzkerográficas. I. Las voces euskéricas de interrogación y sus derivaciones afijativas; II. La prefijación en las flexiones verbales; III. Una acepción poco conocida del sufijo Kl. Euzkadi aldizk. 1911. VII. 311-314.
- Eleizalde, K: Raza, Lengua y nación vasca. A propósito de unos artículos publicados en "El Debate" de Madrid, por el Sr. D. Fernando de Antón del Olmet bajo el título "El Nacionalismo Vasco y los orígenes de la raza vascongada". Elexpuru Hnos. Bilbo. 1911.VII. 163-196.
- Eleizalde, K: Raza, Lengua y nación vasca. A propósito de unos artículos publicados en "El Debate" de Madrid, por el Sr. D. Fernando de Antón del Olmet bajo el título "El Nacionalismo Vasco y los orígenes de la raza vascongada". Elexpuru Hnos. Bilbo. 1911. VIII. 243-276.
- Eleizalde, K: Raza, Lengua y nación vasca. A propósito de unos artículos publicados en "El Debate" de Madrid, por el Sr. D. Fernando de Antón del Olmet bajo el título "El Nacionalismo Vasco y los orígenes de la raza vascongada". Elexpuru Hnos. Bilbo. 1911. VIII. 323-339.
- Eleizalde, K: Tratado elemental de la conjugación euskérica de síntesis. Euzkadi aldizk. 1911. VIII. 3-19.
- Eleizalde, K: Tratado elemental de la conjugación euskérica de síntesis. Euzkadi aldizk. 1911. VIII. 403-419.
- Eleizalde, K: Zubiya (The Invisible Light-Argi ikusiezkorra-deritzan R.H. Benson'en idazti ederretik artuba). Euzkadi aldizk. 1911. VIII. 131-135.
- Eleizalde, K: Euzkadi aldizk. 1912. 157-158.
- Eleizalde, K: Tratado elemental de la conjugación euskérica de síntesis. Euzkadi aldizk. 1912.IX. 243-258.
- Eleizalde, K: Tratado elemental de la conjugación euskérica de síntesis. Euzkadi aldizk. 1912.IX. 323-333.
- Eleizalde, K: Elenetxu, eta umien lenengozko jaunartza. Bilbo. Euzko-Deyaren Argitalgintzea. Grijelmo'ren alargun eta semien irarkolea. Euzkeltzale bazkuna. 1912. 32.

- Eleizalde, K: Morfología de la conjugación vasca sintética. I. libkia. La conjugación sintética gipuzcoana en el tratamiento cortés. Elexpuru Hnos. Bilbo. 1913.
- Eleizalde, K: Progreso vasquista. Euzkadi aldizk. 1913-IV-08.
- Eleizalde, K: Países y Razas. El renacimiento literario txeeque. Euzkadi aldizk. 1913-V-07.
- Eleizalde, K: Países y Razas. El renacimiento literario txeeque. Euzkadi aldizk. 1913-V-17.
- Eleizalde, K: Países y Razas. Irlanda y su clero. Euzkadi aldizk. 1913-VI-01.
- Eleizalde, K: Países y Razas. El renacimiento croata. Euzkadi aldizk. 1913-VI-08.
- Eleizalde, K: Países y Razas. El renacimiento croata. Euzkadi aldizk. 1913-VI-16.
- Eleizalde, K: Países y Razas. El renacimiento croata. Euzkadi aldizk. 1913-VI-22.
- Eleizalde, K: Aurrerantz. Euzkadi aldizk. 1913-VIII-03.
- Eleizalde, K: Países y Razas. Finlandia. Euzkadi aldizk. 1913-XI-05.
- Eleizalde, K: Países y Razas. Los polacos de Galitzia. Euzkadi aldizk. 1913-XI-23.
- Eleizalde, K: Países y Razas. Los obstáculos del renacimiento gaélico. Euzkadi aldizk. 1913-XII-7.
- Eleizalde, K: Tratado elemental de la conjugación euskérica de síntesis. Euzkadi aldizk. 1913.IX. 2-16.
- Eleizalde, K: Tratado elemental de la conjugación euskérica de síntesis. Euzkadi aldizk. 1912.IX. 402-411.
- Eleizalde, K: De conjugación sintética. Euzkadi aldizk. 1913. X. 366-371.
- Eleizalde, K: De conjugación sintética. Euzkadi aldizk. 1913. X. 379-389.
- Eleizalde, K: Halidon-Murua (Halindon-Hill) Walter Scott eritzan Eskotelandia'ko idazlerik bikaiñenaren antzerkia. Euzkadi aldizk. 1913. X.436-445.
- Eleizalde, K: Kristo'ren Antz-bidea. Euzkadi aldizk. 1913.X. 53-56.
- Eleizalde, K: Sobre un proyecto de unificación de la grafía euskérica a los miembros del "Cercle d'Etudes Euskariennes" de Bayona. Euzkadi aldizk. 1913. X. 152-156.
- Eleizalde, K: Países y Razas. Las tribus albanesas. Euzkadi aldizk. 1914-I-11.
- Eleizalde, K: Países y Razas. Los fenianos. Euzkadi aldizk. 1914-I-25.
- Eleizalde, K: Completamente de acuerdo. Euzkadi aldizk. 1914-II-03.
- Eleizalde, K: Países y Razas. La lucha escolar en Polonia. Euzkadi aldizk. 1914-II-15.
- Eleizalde, K: Países y Razas. Polonia por su nacionalidad. Euzkadi aldizk. 1914-III-29.
- Eleizalde, K: Países y Razas. Los grandes patriotas. Euzkadi aldizk. 1914-IV-12.
- Eleizalde, K: Escuelas vascas. Euzkadi aldizk. 1914-05-03.
- Eleizalde, K: Euzkadi aldizk. 1914. 99.
- Eleizalde, K: Tratado elemental de la conjugación euskérica de síntesis. Euzkadi aldizk. 1914. 2-7.
- Eleizalde, K: Tratado elemental de la conjugación euskérica de síntesis. Euzkadi aldizk. 1914. 90-97.
- Eleizalde, K: Berrogeikaro deunerako irakurkizun egokia. ¿Garbai nagosia zer da? Euzkadi aldizk. 1914. XI. 260-263.
- Eleizalde, K: Garaikunde. Abestiak. Arerioa ausi-artekoa. (poesia) Euzkadi aldizk. 1914. XI. 214-215.
- Eleizalde, K: Halidon-Murua (Halindon-Hill) Walter Scott eritzan Eskotelandia'ko idazlerik bikaiñenaren antzerkia. Euzkadi aldizk. 1914 (Urt. Ek). XI. 102-112.
- Eleizalde, K: Halidon-Murua (Halindon-Hill) Walter Scott eritzan Eskotelandia'ko idazlerik bikaiñenaren antzerkia. Euzkadi aldizk. 1914 (Uzt-Ab). XI.29-35.
- Eleizalde, K: Halidon-Murua (Halindon-Hill) Walter Scott eritzan Eskotelandia'ko idazlerik bikaiñenaren antzerkia. Euzkadi aldizk. 1914 (Uzt-Ab). XI. 120-125.

- Eleizalde, K: Halidon-Murua (Halindon-Hill) Walter Scott eritzan Eskotelandia'ko idazlerik bikaiñenaren antzerkia. Euzkadi aldizk. 1914 (Uzt. Ab). XI.149-158.
- Eleizalde, K: Halidon-Murua (Halindon-Hill) Walter Scott eritzan Eskotelandia'ko idazlerik bikaiñenaren antzerkia. Euzkadi aldizk. 1914 ((Uzt-Ab). XI.228-233.
- Eleizalde, K: Halidon-Murua (Halindon-Hill) Walter Scott eritzan Eskotelandia'ko idazlerik bikaiñenaren antzerkia. Euzkadi aldizk. 1913(Uzt-Ab). XI. 281-287.
- Eleizalde, K: Por lo que valga. (Acerca de la conjugación sintética). Euzkadi aldizk. 1914. (Mar-Ap). XI. 98-101.
- Eleizalde, K: Retazos lexicográficos. Euzkadi aldizk. 1915-01-03.
- Eleizalde, K: Zaldi baltza. (Antziñako Abesti baten antzez). Euzkadi aldizk. 1914. (Ap). XI. 317-322.
- Eleizalde, K: El renacimiento literario finés. Euzkadi aldizk. 1915-01-03.
- Eleizalde, K: Rumanos contra magyares. Euzkadi aldizk. 1915-01-23.
- Eleizalde, K: Fundamentos racionales de nuestra fe, conferencia. La iglesia y el progreso de la humanidad. La racionalidad vasca como razón del nacionalismo vasco. Raza vasca, estudio antropológico. El euskera. Las instituciones vascas. Euzkadi aldizk. 1915-11-07.
- Eleizalde, K: Transcendental labor en favor del euskara. Euzkadi aldizk. 1915-IV-26.
- Eleizalde, K: En pro del euskera. La Tarde. 1915-IV-28.
- Eleizalde, K: Toponimia y patronimia vascas. La Tarde. 1915-X-07.
- Eleizalde, K: Agure eroa (poesia). Euzkadi aldizk. 1915. XII. 352.
- Eleizalde, K: De algunos apellidos euzkéricos. Euzkadi aldizk. 1915. X. 162-166.
- Eleizalde, K: De patronimia y toponimia vascas. Euskal Erria. 1915. LXXIII. 27-30.
- Eleizalde, K: De patronimia y toponimia vascas. Euskal Erria. 1915. LXXIII. 275-276.
- Eleizalde, K: El idioma basko. in. Los baskos en la Nación Argentina. (1816-1916). J.R. de Uriarte. Buenos Aires. 1916. 43-46.
- Eleizalde, K: Indicaciones elementales sobre la formación y los usuales componentes de las voces topónimicas vascas, compuestas y publicadas por la Sociedad de Estudios Vascos. Bilbo. Alvarez. 1916.
- Eleizalde, K: El idioma vasco. Euzkadi aldizk. 1916-II-06.
- Eleizalde, K: El valor pedagógico de la enseñanza del euskera. Euzkadi aldizk. 1916-II-05.
- Eleizalde, K: Orreaga. Euzkadi aldizk. 1916-IX-10.
- Eleizalde, K: De patronimia y toponimia vascas. Euskal Erria. 1916. LXXIV. 369.
- Eleizalde, K: El "Unai-deuna". Novela. Hermes. 1917. 1, 9 eta 10 zkia. 4.
- Eleizalde, K: El "Unai-deuna". Novela. Hermes. 1917. 1. 11 zkia.
- Eleizalde, K El "Unai-deuna". Novela. Hermes. 1917. 1. 12 zkia. 4.
- Eleizalde, K: Cuatro conferencias. (I-II) "Conferencias apologeticas a la Juventud Vasca de Bilbao"; III-IV "La lucha por el amor propio". De. Vasca. Bilbo. 1918.
- Eleizalde, K: La lucha por el idioma propio. Euskal Erria. 1918. LXXVIII. 264-272.
- Eleizalde, K: Conferencia por el idioma propio. Euzkadi aldizk. 1918-III-17.
- Eleizalde, K: Conferencia por el idioma propio. Euzkadi aldizk. 1918-III-18.
- Eleizalde, K: Unas páginas de Landíbar. Euzkadi aldizk. 1918.
- Eleizalde, K: La lucha por el idioma propio. La Tarde. 18-1918.
- Eleizalde, K: La lucha por el idioma propio. La Tarde. 19-1918.

- Eleizalde, K: La lucha por el idioma propio. La Tarde. 20-1918.
- Eleizalde, K: La lucha por el idioma propio. La Tarde. 22-1918.
- Eleizalde, K: La lucha por el idioma propio. La Tarde. 23-1918.
- Eleizalde, K: La lucha por el idioma propio. La Tarde. 26-1918.
- Eleizalde, K: La lucha por el idioma propio. La Tarde. 28-1918.
- Eleizalde, K: La lucha por el idioma propio. Conferencia. Bilbaína de Artes Gráficas. Bilbo. 1919.
- Eleizalde, K: Metodología para la restauración del euzkera. I Congreso de Estudios Vascos. Bilbaína de Artes Gráficas. Bilbo. 1919-1920. 428-439.
- Eleizalde, K: Nuestra onomástica. Euzkadi aldizk. 1920-III-14.
- Eleizalde, K: Euskal-Zenbakitzia. Lenengo ikasle mallarako. Bizkai-Aldundiaren Erri-Irakaskuntza-Batzordearen aginduz ta ordainez argitaldua. Bilbo. Alvarez'en irakolan. 1920.
- Eleizalde, K: Toponomástica vasca. Hermes. 1921. V (2) maiatza. 23-28.
- Eleizalde, K: Notas. La caída de vocales iniciales en las voces toponímicas vascas. RIEV. 1922. XIII. 439-444.
- Eleizalde, K: Listas alfabéticas de voces toponímicas vascas. (A-Ax). RIEV. 1922. XIII. 113-128.
- Eleizalde, K: Listas alfabéticas de voces toponímicas vascas. RIEV. 1922. XIII. 420-438.
- Eleizalde, K: Listas alfabéticas de voces toponímicas vascas. RIEV. 1922. XIII. 493-509.
- Eleizalde, K: Arantzazu'ko Andre Maria'ri abestiak (poesia) . Arantzazu. 1922. II. 287-288.
- Eleizalde, K: El individualismo lingüístico. Euzkadi aldizk. 1923-III-03.
- Eleizalde, K: Lingüística. Euzkadi aldizk. 1923-XI-01.
- Eleizalde, K: Listas alfabéticas de voces toponímicas vascas. (Ax-EI). RIEV. 1923. XIV. 128-144.
- Eleizalde, K: Listas alfabéticas de voces toponímicas vascas. RIEV.1923. XIV. 315-328.
- Eleizalde, K: Listas alfabéticas de voces toponímicas vascas. RIEV. 1923. XIV. 442-456.
- Eleizalde, K: Listas alfabéticas de voces toponímicas vascas. RIEV. 1923. XIV. 558-571.
- Eleizalde, K: Listas alfabéticas de voces toponímicas vascas. (EI-Er). RIEV. 1927. XVIII. 625-633.
- Eleizalde, K: Listas alfabéticas de voces toponímicas vascas. (Er-Ga). RIEV. 1928. XIX. 77-87.
- Eleizalde, K: Listas alfabéticas de voces toponímicas vascas. RIEV. 1928. XXI. 381-392.
- Eleizalde, K: Listas alfabéticas de voces toponímicas vascas. RIEV. 1928. XVIII. 614-626.
- Eleizalde, K: Listas alfabéticas de voces toponímicas vascas. (GA-I). RIEV. 1929. XIX. 24-35.
- Eleizalde, K: Listas alfabéticas de voces toponímicas vascas. RIEV. 1929. XVIII. 218-226.
- Eleizalde, K: Listas alfabéticas de voces toponímicas vascas. (I-L).RIEV. 1930. XIX. 178-201.
- Eleizalde, K: Listas alfabéticas de voces toponímicas vascas. RIEV. 1930. XXI. 518-554.
- Eleizalde, K: Listas alfabéticas de voces toponímicas vascas. (L-Latse). RIEV. 1931. XXII. 288-303.
- Eleizalde, K: Listas alfabéticas de voces toponímicas vascas. (Latse-Mata). RIEV. 1932. XXIII. 408-437.
- Eleizalde, K: Listas alfabéticas de voces toponímicas vascas. (Mate-Orma). RIEV. 1932. XXIII. 283-303.
- Eleizalde, K: Listas alfabéticas de voces toponímicas vascas. RIEV. 1933. XXIV. 387-404.
- Eleizalde, K: Listas alfabéticas de voces toponímicas vascas. (Orma-P). RIEV. 1934. XXV. 418-429.
- Eleizalde, K: Listas alfabéticas de voces toponímicas vascas. (P-Pozu). RIEV. 1936. XXVII. 163-172.
- Eleizalde, K: Izkillu deya. (poesia). Euzko Gogo. 1950. I. (5-6 zkiak.). 2.
- Eleizalde, K: Los nombres euskéricos. Bizkaitarra. 1919-IV-20.

- Eleizalde, K: Poetas y profetas. Euzkadi aldizk. 1919-IV-20.
- Estornés Zubizarreta, I: La Sociedad de Estudios Vascos. Aportaciones de Eusko Ikaskuntza a la Cultura Vasca. (1918-1936).
- Garate, J: Toponimia euskérica. Complemento a la toponomástica vasca de Don Koldo Eleizalde. Euskal Esnalea. 1930. XX. 100-104.
- Garate, J: Toponimia euskérica. Complemento a la toponomástica vasca de Don Koldo Eleizalde. Euskal Esnalea. 1930. XX. 153-157.
- Garate, J: Toponimia euskérica. Complemento a la toponomástica vasca de Don Koldo Eleizalde. Euskal Esnalea. 1930. XX. 170-174.
- Garate, J: Toponimia euskérica. Complemento a la toponomástica vasca de Don Koldo Eleizalde. Euskal Esnalea. 1930. XX. 235.
- Iturriotz'tar P: Txomin-ikasle. Iñaki deunaren Irarkola. Donostia. 1931.
- Lertxundi, J.M.: Euskal-iztiya. Euzkadi aldizk. 1913. X. 394-396.
- López Mendizabal, I: Manual de conversación... Euzkadi aldizk. 1908. V. 437-438.
- López Mendizabal, I: Manual de conversación... Euzkadi aldizk. 1913. X. 382-393.
- Méndez de la Torre, A: La nueva escuela primaria en el País Vasco. Primer Congreso de Estudios Vascos. Bilbaína de Artes Gráficas. 1919-1920. 920-938.
- Michelena, L: Historia de la literatura vasca. Minotauro. Madril. 1960.
- Mújica, G: Crónica general del I CEV. Primer Congreso de Estudios Vascos. Bilbaína de Artes Gráficas. 1919-1920. 9-33.
- Sarasola, I: Historia Social de la Literatura Vasca. Akal. Madril. 1982. 183.
- Urquijo, J: A propósito de mi conferencia. RIEV. 1912. VI. 246.
- Urquijo, J: Bibliografía. Koldo Eleizalde. Morfología de la Conjugación Vasca Sintética. RIEV. 1914-1917. VII. 174-175.
- Urquijo, J: Bibliografía. Indicaciones elementales sobre la formación y los usuales componentes de las voces toponímicas vascas, compuestas y publicadas por la sociedad "Estudios Vascos". Bilbo. 1916. Jesús Alvarez. Imprimatzailea. RIEV. 1918. IX. 242.
- Urquijo, J: Bibliografía. Koldo Eleizalde. Cuatro conferencias. Prólogo del autor. Publicaciones de Editorial Vasca Euzko-Argitaldaria y Koldo Eleizalde. La lucha por el idioma propio. Bilbo. 1919. RIEV. 1920. XI. 70-71.
- Urquijo, J: Bibliografía. Indicaciones elementales sobre la formación y los usuales componentes de las voces toponímicas vascas. Bilbo. 1916. RIEV. 1919. X. 132.
- Villasante, L: Euskararen auziaz. Nafarroa. 1988. 263.
- Vinson, J: Le verbe basque. RIEV. 1908. II. 474-475.
- Vinson, J: Observations Grammaticales. RIEV. 1908. II. 795-798.

Ideologia eta hezkuntza Koldo Eleizalderen baitan

Bizkaiko Auzo Ikastolen ikuskari
legez egin zuen lana



Gregorio **A**rrien **B**errojaechevarría

I. NAZIONALISMO POSIBILISTA ETA KULTUR EGINTZA

1. SARRERA

Luis Eleizalde Breñosa oso pertsonaia garrantzitsua da Aranaren ondoko nazionalismoan; gaztetatik Sabino Aranaren irakatsien jarraitzaile, era nekagaitzean ari izan zen horiek euskal herrian zabaltzen eta errotzen.

Kultura eta pedagogiaren alorrean, euskal eskola deituaren eta euskal kultur berpizkundearen bultzatzaile gailenenetako bat da, Eduardo Landetarekin batera. Irakas-autonomiaren eta pedagogi berrikuntzaren alde berak egindako lana batez ere XX. mendeko bigarren hamarkadan garatu zen.

Institutuko katedradun izanik, Eusko Ikaskuntza Elkartearen Zuzendaritza Iraunkorreko kide ere izan zen, baita euskaltzain oso eta Bizkaiko Aldundiaren menpeko ikastoletako ikuskari ere; aldi berean, publizista nabarmen ere izan zen, zenbait zientzian oso aditua, eta guztiz ezagun bihurtu zituen egunkari abertzaleetan “Azkain”, “Iturain”, “Aitzerreka” eta “Axe” izen-goitiak. Ezin zenbatu ahala lan utzi zituen “Jel”, “Euzkadi”, “Hermes” eta beste hainbat aldizkarietan, baita “Euzkadi” egunkarian ere. Berak idatzitako lan ugariak foileto, aldizkari, astekari eta egunkarietan sakabanaturik daude, baita zenbait liburutan ere, hala nola: “Raza, lengua y nación vasca” (1911), “Morfología de la conjugación vasca sintética” (1914), “Países y razas” (1914), “Landibar” (1918).

1878ko ekainaren 9an Bergaran jaioa, Eleizaldek bere jaioterriko Aita Dominikoen ikastetxean hasi zuen batxilergoa, eta Zaragozako jesuitetan bukatu zuen. Aragoiko hiriburuan Zientzien karrerari ekin zion; gero Madrila joan eta bertan lizentziatu zen 1899ko ekainean; geroago, lehiaketa bidez, Gasteizko institutuko matematika-katedra irabazi zuen, eta hantxe ari izan zen 1919an Bizkaira aldatu zen arte. Bilbon hil zen 1923ko uztailaren 21ean.

Irakaskuntza eta euskal hizkuntzari buruzko auziak —bere ideologia politiko bereziari modu banaezinez lotuak— izan ziren bere bi ardur nagusiak. Sinetsirik zegoen biharko nazionalismo errealista eta argikusleak irmo helduko ziola euskarazko eskola egituratzeari, zeren, bere iritziz, gainerako auziak, baita aldian-aldian gorien zeudenak ere, irakas-arazoaren ondorio argi eta garbiak besterik ez baitziren.

Jakina denez, itzal handiko gizona izatera iritsi zen euskararen sailean.

2. KARLISMOTIK NAZIONALISMORA

XIX. mendearen bukaeratik, eragimen politikoa galduz joan zen karlismoa, batez ere bere barnean izan zituen gainbeheren ondorioz, hala nola 1888ko eten integrista edo mundugerraren ondoko eten tradizionalista. Alderdi nazionalistaren sorrerak ere bizkorragotu egin zuen garrantzi politikoa galtze hori, karlismoaren oinarrian zeuden asmoen parte handi bat bereganatzean.

Luis Eleizalde, gaztaroan karlista izan ondoren, laster lerratu zen Sabino Aranak sortutako nazionalismorantz, eta bere lehen partiduaren gainbeheraren lekuko aparta izan zen. Landibar izeneko bere eleberrian aipatzen du, hain zuzen ere, karlismotik etorritako jende asko etengabe nazionalismorantz lerratzearen fenomeno ezagun hori:

“(...) Gaur egungo nazionalistarik hoberenak —dio pertsonaietako batek— atzo karlista izanak dira, zu zeu bezala, don Aquilino. Horrek frogatzen du karlisten harrobia oso ona dela, edo izan dela behintzat. Nik uste oraindik ere badela”¹.

Aipaturiko eleberrian esaten da karlismoak, non “masa osasuntsu, jator eta idealista” bat baitago, beste edozein talde politiko espainolistak baino begikotasun gehiago sortarazten duela; garrantzizko puntu askotan karlistekin bat etorri ahal izateaz ere hitz egiten da, baldin eta menderaturik dauzkan zapalkuntza atzerritarra gainetik kentzeko adorea hartzen badute. Baina egun hori iritsi bitartean “oso barkabera izan beharra dago horiekin eta ez dira alferrik garratu behar desberdintasun-auzi batzuk”.

Begikotasun-agerpen horiek gora-behera, Eleizalde argi eta garbi aitortuko du euskal karlismoa kanpoko jendearen eraginpean dagoela, eta horiek kutsatu zitetela

“gure neba-arreba banatuei gureganako gorrotoa, euskalduntasunaren kontrako aiherra, jauntxokeria kontserbatzailearekiko morrontza menegilea, erreketean matoikeria lotsagarria eta beste gauza higuinargi batzuk”².

Antzeko ideiak azalduak zituen bi urte lehenago Euzkadin-n “La obra del carlismo ” izenburupean argitaratutako artikuluan; idatzi horretan gaineratzen zuen karlismoa ez zela inoren eta ezeren soluzioa, bere egintzak mito “katastrofiko”ari eusten ziolako oinarritzko postulatua gisa. Bere lehen hogei urteak giro zeharo karlista batean bizi izanak eraginda, karlisten ezpainetatik beren alderdiko egunkariak nekagabe jorratzen zuten gaiaren bariazioak besterik ez zituela entzun adierazten zuen: “Gauzak oso ongi doaz oker baino okerrago doazelako. Hondamendi gorenak Monarkia legitimo eta tradizionalaren berrezarpena ekarriko du ezinbestean. Eta dena konpondurik geldituko da”.

Eleizalderen arabera, “karlismo exotiko eta exotizatzaileak” ondikozko amaiera batera eramanean euskal nazionalitatea; eta horrela, beste nazionalitateek XIX. mendearen lehen herenean beren birjaiotza-prozesuari ekin zioten bitartean, euskaldunek denbora galdu zuten tradizioaren ordezkari legitimoa tronuan berrezartzeko ideiarekin, eta laurogei bat urtez berandutu zen gure birjaiotza.

“Eta, argi dago, inprenta sortu eta euskarazko liburuak argitaratu beharrean, kainoiak ezartzen eta danbadaka ibili gara; ikastetxeak ireki eta akademiak bildu beha-

¹ Eleizalde, Luis de: Landibar. Gasteiz. 1918, 285 orr.

² Ibidem, 285-286 orr.

rean, partidak eratzen eta batailoiak antolatzen ibili gara; geure Herrialde ezezaguna “visu et scientia” ezagutzeko txango zientifikoak sustatu ordez, operazio militarretarako planak eraiki eta gerra-espeditzioak sustatu ditugu. Jakina, egurra eman digute: ongi merezia geneukan. Babalore izateagatik”³.

1916ko urtarrilaren 16an “Hermes”en argitaraturiko artikulu batean, Eleizaldek bere nazionalismo hasiberriaren eta ondorengo bilakaera politikoaren aipamena egiten du:

“Gure lehen hogeit hamar urteak jadanik nazionalistak ziren, nazionalismo xalo eta sentimental batekoak, eta beste hogeit hamar urte hauek pasa eta gero, irribarrea eragiten digu horrek -baina ez gaitu lotsagorritzen-. Herrialdeko gerrillari zaharrei edota zenbait urtez Gipuzkoa eta Nafarroako mendietan giriekin tiro hutsean ibili ziren partida-buruei kontakizunak entzutean haurtzaroan sentitutako zirraren aztarnaren batek bizirik zirauen gudan, zalantzarik gabe (...). Irakurketa hauek eta zirrara haiek, eraldakuntza ortogonal bat izan ondoren, Geometrian esango genukeenez —hau da, idealizazio asaldatu eta sinplista samar baten menpe erori ondoren, oso sinplearen menpe ez esatearren—, halako kutsu erromantiko batean biltzen zuten gure nazionalismo hasiberria, eta horrek bazuen xarmarik eta poesiarik hogeit hamar urteko gazteengan (...) Urte banaka batzuk pasatu behar izan zuten nazionalitate bat eraikitzeak berekin dauzkan alderdi askotarikoez konturatzeko hasteko, baita —hasitako bidean atzera-pausorik emateko inolako asmorik gabe— arazo konplikatu baten aurreko soluzio sinplista oroz mesfidantza sakona izaten ikasterako ere, izan ere soluzio hori faltsua baita, ezinbestean, sinplista den heinean. Hori gerora ikusi dugu, eta egunean-egunean argitasun handiagoarekin”⁴.

Eleizaldek, antza denez, Aranaren “El Partido Carlista y los Fueros vasco-navarros” foiletoa irakurri ondoren eman zuen izena nazionalismoaren lerroetan. Fundatzailearen lehen jarraitzaileetako bat izan zen, eta 1901ean, “Iturain” izengoitiarekin, “Euzkadi” aldizkarian lankide gisara ageri da. Hurrengo urteetan “Patria” eta “La Patria” astekarietan argitaratzen dira bere idatziak.

Engrazio Aranzadi “Kizkitzak” adierazten duenez, EAJren sortzaileak bere lankide kuttunen artean sartu zuen Eleizalde, bere egintza politiko konfidentziala agertu zien lankideen artean.

Mugimendu nazionalista, oinarri nagusia Bizkaian zuelarik, eragozpen handiekin hasi zen hedatzen, baina aldi berean, antolakuntza praktikoari arreta handiagoa eskaintzen zitzaion. Donostiako lehen Euskal Zentroa 1904an ireki zen, Bilboko Euskal Gazteria ofizialki antolatzen urte berean⁵.

Arana hil eta gero, “euskal nazionalismoaren heriotza eta hilobiratzea iragarri zuten penintsula osoko prentsa eta politikariek erabateko ahobatasunez”⁶. Baina Kizkitzak idazten

³ “Axe”: La obra del carlismo. “Euzkadi”, 1916ko urtarrilaren 16a.

⁴ Eleizalde, Luis de: Nuestros veinte años. “Hermes”, ekaina 1917, 6. zkia.

⁵ 1904an sortu zen “Liga Forala”, EAJren laguntzarik jaso ez arren, zeren alderdi horrek kaltegarritzat hartu baitzuen aberriaren kausarako. “EAJren mehatxuaren aurrean, eskuin katolikoak eta liberal eta errepublikarrek, Liga Forala sortu zuten (1904), hau da, inork ez zekizkien foru batzuk aipatuz integrista zurrunkak errepublikar “disipatu”ekin bizikide izatera behartu zituen naturaz kontrako mustroa, harik eta 1906ko giltzarapo-legeak gauzak bere lekuan ezarri zituen arte” (Estornes, Idoia: Elecciones y partidos políticos en Euskadi (1808-1923), “Historia del pueblo vasco”n, 3. 1979. 183).

⁶ Aranzadi, Engracio de: Ereintza: Siembra del nacionalismo vasco, 1894-1912. Zarautz, 1935. 164.

duenez, profezia hori ez zen bete, zeren, sortzailea bizi izan zen bitartean, “kanpo-zapalkuntzaren izotzak eta barneko axolagabekeriak” nazionalismoa ito arren, “berehalaxe hasi baitzen Bizkaia eta Gipuzkoan barrena hedatzen”.

1906an “La Patria” alderdiaren organoak zenbaki berezi bat eskaini zion Sabino Aranaren heriotzaren 2. urteurrenaren ospakizunari; Eleizalde Bilboko Larrinaga kartzelan sartu zuten orduan argitara eman zuen artikulua batengatik. Presondegian zegoen bitartean, “Kizkitza”rekin batera zenbait zuzenketa egin zizkion “Eusko Ami”ren jatorrizko testuari, frai Ebanjelista Iberok landutako katixima nazionalistari.

“Gipuzkoarra” astekariaren lehen zenbakia 1907ko maiatzaren 18an atera zen, eta 1913an “Euzkadi” egunkaria argitaratu arte iraun zuen. Aldizkari horrek, gutxi gora-behera, 6.000 aleko tirada zuen, eta interesatuen atseginerako, salakuntza bakar bat besterik ez zuen izan. Nazionalismoaren oinarri historikoak azaldu eta luze eta zabal eztabaidatu zituen organoa izan zen. Alderdia, esan izanenez, aipaturiko “Gipuzkoarra” aldizkaria argitaratu zuen taldearen inguruan sartu zen Gipuzkoan. Astekariaren lankide izan ziren, “Kizkitza” zuzendariak gainera, Eleizalde, Isaak López Mendizabal, Angel Zabala, Ebanjelista Ibero, Anizeto Rezola, Jose Eizagirre, Inazio Azkoitia, Ramon Renteria, Abelino Barriola, Luis Zabala eta abar.

3. EGITARAUA ETA ALDERDIAREN ANTOLAKUNTZA

Aranaren ustekabeko heriotzaren erruz, alderdi berriaren ideia egitasmo hutsean gelditu zen, eta botere-hutsuneak eta antolakuntza-gabeziak eragindako arazo hori konpondu beharra zegoela proposatu zen. Laster hasi zen kanpaina bat “Euskalduna”ren orrialdeetatik, nazionalisten barne-antolakuntza eskatuz. Kritikarik gogorrenak, Angel Zabala EAJko ordezkariak zuten buruzagitzaren aurkakoak izan ziren.

1905az gero, Eduardo Landetak bat egin zuen erreformisten ofentsibarekin, eta bere idatzi ugarietan, “Euskalduna”ko lankideek ordurako erabilitako argudioetako batzuk errepikatu zituen. Landetak 1906ko ekainean idazten zuenez,

“Euskalduna-ren egitekoa, batez ere, dotrina eta printzipio nazionalisten defentsa eta zabalkundea egiteaz gain, alderdiaren egitaraua eta antolakuntza erdiestea izan da, bere idealak gauzatu nahi dituen edozein organismori dagokion legezko biritza emankorra izan dezan”⁷.

Azkenik, Bilbon 1906ko abenduaren 8an izandako Asanblada nazionalistan, Manifestua eta alderdiaren antolakuntza berria onartu ziren⁸. Horren prestakuntzan, EAJko ideologo eragileenetako bik esku hartu zuten: E. Aranzadik eta L. Eleizaldek. Manifestuan eta antolakuntzan euskal nazionalitatearen printzipioa baieztatzen zen, eta Euskadik 1839a

⁷ Landeta, Eduardo de: Hablemos claro. “Euskalduna”, 1906ko ekainaren 23a. 448 zkia, XI. urtea.

⁸ 1906an “Kontzertu Ekonomikoa”ren berrikuntza gertatu zen, eta horren negoziaketan oso partaidetza aktiboa izan zuen EAJk beste alderdi eta instituzioekin batera; nahiz eta lehenago Gobernuarekin negoziatzearen aurkako agertu, EAJk alde batera utzi zuen jarrera erradikal hori, antza denez, alderdiko sektore moderatuagoaren eraginez, “Kontzertuan” interes eta itxaropen handiak baitzeuzkan jarriak.

baino lehen zituen eskubide foralak berreskuratzeko erreibindikazio tradizionala ere jasozten zen⁹.

Egitarauaren 102. artikuluan zehazten zenez, kultura, euskal gizarte-ekintza, prentsa, hauteskundeak, estatistika, artxiboa eta beste hainbat batzorde onartu ziren. 1908, 1911 eta 1914ko hurrengo asanblada nazionalistetan hartutako erabakietan, batzordeen kopurua pixkanaka ugalduz joan zen, harik eta guztira hamahiru izan arte, besteak beste, irakaskuntza, musika eta dantza, euskal antzertia eta abar barne zirela, guztiak ere alderdiaren garapen eta orientazioari begira, erregio-karguen luzapen tekniko gisa.

1906an sortutako kultura-batzordeak, teorikoki bederen, kontu egin behar ziren

“bere jurisdikzioko euskaldunen instrukzio eta hezkuntzari, katedrak, ateneoak eta akademiak sortuz, Alderdiaren menpeko ikastetxeetan euskararen irakaskuntza hobetu zedila zainduz.

Bere egintza-eremuaren barruan sartuko dira zientzia erlijiosoak, filosofikoak, historikoak, sozialak, juridikoak eta politikoak; azterketa etniko, filosofiko, literario, artistiko, tekniko, profesionalak, eta, oro har, giza jakitearen abar guztiak, Euskal herriari aplikatuz, aplikazio hori egingarria den heinean”.

Nazionalisten kopuruak horretarako aukera ematen zuen tokietan, kultura honako azpi-batzordeetan banatuko zen: adierazitako gaien irakaskuntza, ideia nazionalisten propaganda, tradizioa eta ohiturak, eta letra eta arteak.

Euskarako batzordeak, bere aldetik, eskolak, katedrak eta akademiak sortzea du helburu, ahal duen guztia eginez pulpitoan, ikastetxe publikoetan, Elizaren boletin ofizialetan eta Aldundienetan euskara erabil dadin, araztu eta Euskadiko hizkuntza bakarra izan arte hedatzeko helburuaz.

Aurreko egitaraua eta antolakuntza onartu ondoren, Zabalaren kargu-uztea gertatu zen, eta hortaz, mugimendu nazionalistaren garapenean aldi berri bat hasi zen. Hala eta guztiz ere, ez zen hain berehalakoa izan onarturiko eduki askoren ezarpena, zailtasunak sortu baitziren alderdiko zuzendaritza-organo batzuk aukeratzean¹⁰.

1907az geroztik era nabarian igarri zen EAJren prozeduretan gertaturiko bilakaera; urte horretan, mugimendu nazionalistak gero eta garrantzi politiko handiagoa lortzearekin batera, Mauraren Gobernuak lehen aldiz nazionalista bat izendatu zuen Bilboko alkatetzarako. Gregorio Ibarretxe izendatu zuen, eta horrekin, nazionalistek gora egitea eta Estatuko politikan bide eskuhartzaileetara orientatzea erraztu zuen; parez pare, elementu moderatuak tentaldi separatistatik aldentu ziren.

⁹ 1906ko Asanbladatik hasita, zuzendaritza kolegiatu bat izendatzen da alderdirako (“Euzkadi-Buru-Batzarra”); ideologikoki “Jaun-Goikua eta Lege Zarra” politika defendatzeari jarraitzen zaio.

Beste maila batzuetan, finkaturik gelditzen dira bai alderdiaren antolakuntza, eta bai zenbait aspektu, hala nola afiliazio-araua, udal-batzordeak, erregio-kontseiluak, erregio-asanbladak, kontseilu gorena, altxorra, epai-organismoa, hauteskundeak, batzorde teknikoak eta abar. Zehatz esateko, ongi egituraturik agertzen da alderdiaren udal-oinarria, udal-batzarren bidez. Probintzia edo lurralde bakoitza erregio-kontseiluen bitartez antolatzen da, kontseilu gorena aginte gorena delarik, eta horrelakoa den heinean erregio-kontseiluetako banakoek eratua.

¹⁰ “Bizkaian ia bi urte iragan ziren, harik eta “Bizkai-Buru-Batzarrak” bere lanari ekin zion arte. Pragmatikoago eta batuago jokatzen zuten gipuzkoar nazionalistek ez bezala, Bizkaiko jeltkide banatuek bi alderdi-biltzar behar izan zituzten zuzendaritzako organo gorenak hautatzeko”. (Mees Ludger: *Nacionalismo vasco, movimiento obrero y cuestión social (1903-1923)*. Sabino Arana Fundazioa. Bilbo, 1992, 59 orr.).

Landetak ez zuen ezkututzen nazionalismoak bai geografikoki eta bai kopuru aldetik erdiezitako zabalkundeak sortzen zion poza; haren ustez, hazkuntza horren esplikazioa zera litzateke:

“bere ideiak ez direla egoistak, ez direla ziztrinak; zuzenbidean, arrazoian, justizian oinarrituriko ideiak direlako: elkarrenganako errespetuan, ordenan, progresuan oinarrituriko ideiak direlako; aberria askatasunaren argi txit garbiaz blai eginik ikusteko aukera ematen duten ideiak direlako”¹¹.

1907 eta 1908 urte bitartean hazi egin ziren alderdiko talde propagandagileak: orfeoiak eta dantza-taldeak herrialde osoan barrena hedatu ziren. “Batzoki” bat baino gehiago ireki zen: Gasteizkoa 1907an sortu zen, eta Iruñekoa 1909an.

Elgoibarko (1908) asanblada nazionalistan, zeinean ofizialki baztertu baitzen separatismoaren ideia, urrats handia eman zen alderdiaren antolakuntza-eredua sendotzeko; hala ere, independentisten eta autonomisten arteko barne-gatazkak ez ziren desagertu, nahiz azken horiek nagusitu ziren¹².

Bitartean, Eleizalde (‘‘Azkain’’ izengoitiaekin) adierazpen batzuk egin zituen ‘‘Gipuzkoarra’’ren orrialdeetatik: aditzera eman zuen euskaldunak ez zirela beste nazio baten erregio, baizik eta ‘‘nazio, beste edozein bezain nazio, eta Europako beste guztiak ez bezalako nazio’’¹³. Nazionalitatea definitzeko elementu gisa, ordena honetan aipatzen zituen: arraza, hizkuntza eta historia. Erregio-lurraldea, euskal nazioaren barruan, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Nafarroa, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa erregio historikoei eratzten zuten.

1909an, ‘‘Azkain’’ek euskarazko astekari bat argitaratzeko ideia proposatu zuen, berak zioenez, egitasmo bideragarria zelako ‘‘baldin eta bere izaera guztiz herritarretik desbideratzen ez bazen, baldin eta propaganda arretatsu eta aktibo bat egiten bazen’’¹⁴. Hala ere, egitasmoa ez zen garai hartan mamitu, zeren arrazoiz uste baitzuten ez zuela behar adina irakurle izango, ‘‘Ibaizabal’’ eta ‘‘Euskaltzale’’ euskarazko aldizkari iraungiek zentzu horretan izan zuten esperientzia ezkorra kontuan izanik.

Gainerakoan, Eleizalde, Aranzadirekin batera, nazionalismo posibilista deituaren bultzatzaile nagusietako bat izan zen, eta ahaleginak egin zituen EAJ legezketasun monarkikora egokitu zedin; horien eta beste ideologo batzuen eraginpean, kultura eta propagandako egitarau zabal bat abian jarri zen mundu-gerratearen aurreko urteetan. Gero hitz egingo dugu

¹¹ Landeta, Eduardo de: El Partido Nacionalista Vasco. ‘‘Euskalduna’’. 1907ko abuztuaren 10a, 506 zk. XII. urtea.

¹² Landetak dei bat egin zuen 1908an errealliterantz ibiltzeko: ‘‘Bi indar ari dira borrokan elkarren artean Alderdi honen barruan. Bata osagai erradikal eta intransigenteak ordezkatzeko dituenak, ‘‘dena edo ezerez’’era gidatzen duena, eta bestea moderatuagoa, kontserbadoreagoa, denera iritsi nahi duena, baina horregatik, pixkanaka berreskura daitekeen parteari muzin egin gabe, baizik eta atseginez hartu eta den horren kontura beti, eta berari uko egin gabe.’’

‘‘Dena edo ezerez’’aren politikak, talde erradikalak ordezkatzeko duenak, ezin du inolako gauza on errealki edo positiborik ekarri. Ez gara geldituko hemen baieztapen aski begibistako hori frogatzen; baieztapen horiek maitasun engainakorrezko agerpenak baizik ez dira, zeinetan nazionalismoa itsu gelditzen baita erreallitatearen aurrean’’ (‘‘Veritas Vincit’’: Caminemos hacia la realidad. ‘‘Euskalduna’’, 1908ko abuztuaren 27a, 560 zk.).

¹³ ‘‘Azkain’’: Afirmaciones nacionalistas. ‘‘Gipuzkoarra’’, 1907ko abenduaren 14a, 23 zk.

¹⁴ ‘‘Azkain’’: Por lo que valga. ‘‘Gipuzkoarra’’, 1909ko abenduaren 14a, 115 zk.

L. tar K-k gehitzen zuen ‘‘euskarazko egunkaria alderdi nazionalistaren nahietako bat da, eta nahiz eta gaur gaurkoz gure etsaiek euskaraz irakurtzeko duten ohitura ezarengatik gurea ez den hizkuntza erabiltzera beharturik aurkitzen garen, helduko da eguna gure hizkuntza gaixo eta baztertuak egunkarien prentsan eskubidez dagokion monopolioa eta erabateko nagusitasuna izango duena...’’ (La labor del partido nacionalista. V. ‘‘Gipuzkoarra’’, 1910eko abenduaren 24a, 173 zk.).

kultur egintzaz, baina “propagandari dagokionez, erregio mailako astekariaren eskuetan uzten zen, Gipuzkoarra ereduzat harturik”¹⁵. Horrela sortu zen *Napartarra* 1911ko urtarrilean, 1919aren hasierara arte argitaratu zelararik, eta 1912ko urtarrilean, berriz, *Arabarra* agertu zen Gasteizen, itxuraz arrakasta handirik izan ez zuena, zeren afiliazio ahul baten gainean oinarritu baitzen.

1914a baino lehen, tamaina handi samarreko beste zenbait gertakari eta egitasmo ere gauzatu ziren. Jarraian aipatuko ditugu laburki:

- 1911n, lehen aldiz, Arabako nazionalismoa hauteskundeetako borrokara aurkeztu zen Gasteizko hirian, eta horren ordezkari behinena, zalantzarik gabe, Luis Eleizalde izan zen. Gasteizko herriari ezagutzera emandako egitaraua, Elgoibarko herri-asanbladan onartutako doktrina eta jardunbideetan oinarriturik zegoen. Hitz batean, aldarrikaturiko bi ideal handiak ondorengo hauek ziren: alde batetik, euskal herriaren ezaugarri politiko, juridiko, ekonomiko eta kulturalak berriz ere indarrean eta ekinean jartzea, aldiari aldiko errealitateen arabera; eta bestetik, Euskadiko tradizioari eustea zen helburua, usadio eta ohitura onei zegokienez, Eliza katolikoaren agindu moral eta irakatsiei atxikirik.

- 1911ko abenduaren 17an Gasteizen izandako Erregio Asanbladaren ondoren, Eleizaldek lehen “Araba-Buru-Batzarrean” esku hartu zuen bokal gisa, bilera-buru Garcia-Fresca zelararik.

- Francisco Ulaziaren zuzendaritzapean sortu zen Bilbon “Partido Nacionalista Liberal Vasco” izenekoa, baina egitasmo horrek porrot egin zuen 1913az geroztik batez ere, bi urte inguruko iraupen labur baten ondoren. Garai horretan, “Azkatasuna” astekariaren zenbait ale argitaratu ziren, berau zelararik talde berriaren organoa. Nazionalista liberalek euskal gizarte laiko eta demokratikoa defendatzen zuten, eta erlijio eta politikaren arteko errotiko bereizkuntza¹⁶.

-1911n “Solidaridad de Obreros Vascos (ELA)” izeneko euskal antolakuntza sindikala sortu zen, gainerako sindikatu sozialista, anarkista eta katolikoetatik independentea; nolabaiteko etsaitasunaz hartu zuen UGTK ELA.

3.1. “Euzkadi” aldizkaria eta “Juventud Vasca de Bilbao”

Aipaturiko aldizkari erregionalak agertu baino zertxobait lehenago, Sabino Aranak 1901ean sortutako “Euzkadi” kultur aldizkariaren berregituraketa egin nahi izan zen, Zientziak-Arte Ederrak-Letrak gaiei buruzko hiruherokoko aldizkari gisa. Bilbon argitaratu zen 1915era arte, 1902tik 1904ra bitarteko etenaldi batez. Bihilerokoa izan zen 1910eko maiatza eta 1914ko abendua bitartean, eta hilerokoa 1915etik aurrera.

EAJK aldizkariaren zuzendaritza Federiko Belaustegiogitiaren eskuetan jarri ondoren, horrek, 1909aren amaiera aldera, sartu nahi zituen hobekuntzen berri eman zuen, publikazio-eritmoa gehitzetik hasita. Lehengo lau haien ordezkari urtero sei zenbaki argitaratuko zirela iragarri zuen, eta zenbaki bakoitzean aurreko tamaina berari eutsiko zitzaioela.

¹⁵ Elorza, Antonio: Ideologías del nacionalismo vasco. Donostia, 1978, 161 orr.

¹⁶ Luis Eleizaldek, liberalismoa euskal arrazaren izpirituarekin erabat bateraezintzat jotzen zuen, eta gogor kritikatu zituen ezkerreko nazionalistak; hala ere, alderdi berriaren porrota nabarmendu zen bezain laster, “Alderdi Nazionalista Errepublikarrari “nacionalista” etiketa eman zion eta bera sortzea ere ontzat eman zuela zirudien, argudiatuz alderdi hori baliagarri izango zela borondate oneko euskaldunak Madriletik zuzendutako alderdi kanpotarren atzaparretatik aska zitezen” (Mees, L.: Opus cit., 1992, 133 orr).

Belaustegigoitiak jakinarazi zuen, halaber, aldizkari aberatsagoa eta atseginagoa egin nahi zuela, sail finko eta aldakor gehiago sartuz. Azken horien artean, eta ordura arte gutxi arakaturiko gai askok zuten garrantzia aitortuz, hitza eman zuen ahaleginak egingo zituela pertsona gaituek puri-purian zeuden eta Euskal Herriarentzat interes handienekoak ziren gaiak lant zituzaten; aditzera ematen zenez, aldaketa horiek ez zuten harpidetza-prezioa gehituko. Antza denez, harpidedunak 680 ziren 1910ean.

Aldizkari eraberrituaren lankide posibleei zuzenduriko gutunean, honela arrazoitzen zen beren lankidetzaren beharra:

“Ez dezagun ahantz zientziak dakarrela nazioen nagusitasuna, adimenak gizakia krea-zioaren errege bihurtzen duela, eta Eliza katolikoak berak ere ez diola zientziaren giza alderdiari uko egiten indar guztiak aurkako bere borroka garaikorrari eutsi nahirik. Zientzia gehi-ago bagenu, baliabide gehiago izango genituzke euskal kontzientzia nazionala eratzeko, eta eratu ondoren, geure arraza birsortu dadin oraindik ere geure esku dauzkagun osagaiak us-tiatzen eta antolatzen jakingo genuke: bere indar barreiatu eta egoera gordinekoetatik abia-tuz, indar diziplinatu eta ahaltsuak egingo genituzke”¹⁷.

Asmo on horiek gora-behera, badirudi gauzak ez zirela oso ongi joan “Euzkadi” aldiz-kariarentzat, zeren 1911n Luis Eleizalderen eskuetan jarri baitzen haren zuzendaritza, Luis Arana-Goirik hala nahi izanik. L. Meesek ohartarazten duenez, aldizkaria bere jarrera mar-jinaletik ateratzeko eta euskal gizartean eragimen politikoa handiagoa emateko azken aha-legina izan zen. Helburu hori lortzeko, -zuzendari berriaren arabera- ordura artekoa baino publikazio erregularragoa ziurtatu behar zen, jendartera irteteko datei zegokienez. Erdi-epera, “Euzkadi” bihilabetekari bihurtu behar zen “komunitate nazionalistako antolakuntza desberdinei eztabaida-tranpal gisara zerbitzatzeko, eta aldi berean, gai politikoen eremua kultur gaien bitartez ugartuz, sail zaletuen artean propaganda errazteko”; hori guztia ira-katsi katolikoarekiko eta hastapen nazionalistekiko errespetu guztiarekin egin behar zen¹⁸.

Lehen esan denez, “Euzkadi”-k 1915ean utzi zion argitaratzeari, Eleizalderen nahiak era-bat bete gabe, kultur aldizkari garrantzitsu bat izateari zegokionez bederen. Ordurako irakurle nazionalisten arreta 1913an agertutako EAJren egunerokoari begira jarrita zegoen.

Kazetaritza-argitalpenen ondoan, “Juventud Vasca de Bilbao” gazte-antolakuntza dina-mikoak bere gain hartu zuen propaganda eta kultur mailako lanaren parte handi bat. Etenaren aurretik (1921), talde edo sail batzuk jarri zituen abian, hala nola Eusko ikaskuntzen zirkulua, Musika-batzordea, Euskal zentro dramatikoak, Eusko gazterriko dantzariak, Euskal kultur tradi-zioen berreskurapena, Gimnasia eta kirolerako euskal zentroa, Mendigoizaleak, Euskaltzale Bazkuna¹⁹.

¹⁷ Lankideei 1909ko azaroaren 19an bidalitako zirkularrean, “Euzkadi” aldizkariak izan behar zituen sailez ere hitz egiten zen: “Gure aldizkariak historia, zuzenbidea, etnografia, ekonomia, eta abarrez hitz egin behar du, zientzia guztiak eta euskal arte nazional guztiak jorratu behar ditu. Gutxi aztertutako puntuak ikertzerara hedatu behar du, eta obra eta aldizkari atzeritarretan lortutako emaitza zientifiko garrantzitsuen berri eman behar du, baldin eta gure gau-zekin zerikusiren bat badute. Material berrieekin gero eta gehiago sendotu behar ditu nazionalismoaren oinarriak eta egungotasun erlijiozkoa, politikoa, soziala edo alderdikoa duten hainbat arazoz jabetu eta horiek ebatzi behar ditu, izan ere, horien soluzioa ez baitago zoriaren menpe, ezta herrialdearen etsaiek direnen esku ere, uzterik.

Horrela egiten ez badugu, begirune gutxi irabaziko dugu pertsona ikasien artean, eta horrek, kalte handia egin-go dio gure kausari.”

¹⁸ Mees, L.: *Opus cit.*, 1992, 78 orr.

¹⁹ Ikusi I. Camino eta L. de Guezala: *Juventud y Nacionalismo Vasco (1901-1937)*. Sabino Arana Fundazioa. Bil-bo. 1991.

1907an sortutako Euskal ikaskuntzen Zirkuluaren helburua propagandista berriak sortzea zen, eta halaber, beilaldiak, lehiaketak eta hitzaldiak antolatzea.

Antzerkia nazionalismoaren adierazpen- eta hedapen-tresnatzat erabili zen Sabino Aranaren garaietatik, baina XX. mendean zehar garatu zen bereziki; Juventud Vasca-k gogo biziz ekin zion egiteko horri “Libe”, “Sasi-Eskola”, “Alma Vasca”, “Patriota” eta beste obra ezagun batzuk antzetzuz. Antzerkiek, Santageda koruek eta beste ekimen batzuek sarritan Bilboko Ikastolen, Euskal Zentroaren eta “Euzkaltzale Bazkuna”ren alde dirua biltzeko balio izan zuten.

Lehendabiziko “mendigoizale”-taldeak 1906 eta 1912. urte bitartean sortu ziren, eta pro-selitismo-iturri eta abertzaletasunaren-oinarri izatea zen horien funtsa, beste mendizale-talde batzuekin batera: “Mendizale Bazkuna” 1908an eratu zen.

“Euzkaltzale Bazkuna” euskara landu eta hedatzeko sortu zen 1910ean, eta 1915ean, “Euzkel-Abestijak” izeneko koaderno batzuk argitaratzen hasi zen, euskal musika herritarraren ezaugarriak berezkoena biltzeko asmoz. 1916az geroztik, talde horrek *Euzko Deya* izeneko euskarazko astekaria sortu zuen, eta bere bigarren aldian 1921etik 1922ra luzatu zen.

Beste alde batetik, oso ezaguna da Juventud Vasca de Bilbao-k EAJren egituraren barruan izan zuen garrantzia; horregatik, Eleizaldek aparteko zaletasuna sentitzen zuen gazteria horrenganako, eta horrixek eskaini zion, 1914an, “Garaikunde Abestia (Arerioa ausi-ostekoa)” izenburua zuen poema, bere azken ahapaldian honela zioena:

“Entzun guztiok gure abestia:
¡Bezau da arrotza! ¡Jagon da Aberria!
Ba-letor ostera
Izkiluz geurera,
Ostera larke gaurko ukaldia.
Mendi-ibar aunek egin dauz Jainkoak
Azkerik bizi gaizantzat euzkoak!”²⁰

4. ERLIJO-AUZIA

Alderdi nazionalista, bere sorburutik, katoliko erromatarra izan zen. Aranaren tesi zahar bat jasoz, “Kizkitzak” zera idatzi zuen: “gure herria deseuskaldunduz joan den neurrian joan da deskristautuz ere”²¹.

Nazionalismoa erlijio katolikoarekin identifikatze horrek bultzatu egin zuen EAJren eta ezkerreko alderdien (sozialista, errepublikar eta beste talde politiko batzuen) arteko enfrontamendua, baina gertakari horrek berorrek nazionalistei balio izan zien alderdi katolikoekin ados jartzeko, batez ere hauteskunde-garai jakin batzuetan²². Ezin dezakegu hemen luze aztertu

²⁰ Eleizalde'tar Koldobika: Garaikunde-Abestia. “Euzkadi” aldizkaria, maiatza-ekaina 1914, 27 zk.

²¹ Aranzadi, E.: Opus cit., 249 orr.

²² José M^a Urquijo, nazionalisten, karlisten eta integristen laguntzarekin, diputatu izendatu zuten Bilbotik 1903ko Hauteskunde Orokorretan; Sabino Aranak berak eman zien jarraitzaileei Urquijori botoa emateko agindua.

1907ko hauteskunde orokorrekin Bilbotik Fernando M^a Ibarra mauristari eman zioten garaitzapena, katolikoekin, karlisten eta euskal nazionalismoko talde garrantzitsu baten laguntza izan zuelarik (azken alderdi horretako gutxiengo batek bere hautagai propioa aurkeztu zuen); Pablo Iglesias sozialistak porrota erdietsi zuen oraingo honetan.

katolikoaren batasunaren gaia; jakina denez, auzi horrek interes handia piztu zuen XX. mendearen lehen urteetan, batez ere, erlijio erakundearen egoera eta elizgizonen eraginpetik aterata nahi zuten irakaskuntzaren arazoa zela-eta liberalak beren bandera antiklerikal zaharrari hautsa kendu nahi izan ziotenean.

Nazionalisten erlijiozaletasun sakona gorabehera, eliz hierarkiaren harremanak ez ziren onak izan; Gasteizko apezpikuek —monarkia alfonsotarraren zaletu sutsuek— ez zuten ezer egin, beren aldetik, herrialdean gertatzen ari zena ulertzeko. Esan izan da Mateo Mujika iritsi arte,

“zeina Gasteizko apezpiku izan baitzen 1928az geroztik, ez zela sentiberatasunik izan Gasteizko apezpikuen aldetik euskal faktu desberdinuarekiko. Bai, ordea, Fr. Zacarias Martínez-en garaian euskara erabiltzen hasi zirela elizbarrutiko Boletín Ofizialean; baina argi dago erabilpen hori amore emate bat besterik ez zela “batasunaren mesedetan”. Fr. Zacariasek oso argi zeukan zein zen euskaldunen aberria eta zeintzuk izan behar zuten bere betebeharrak aberri horrekiko”²³.

Kleroaren egoera desberdina zen. Gerrate karlistaren ondoren, horietako gehienak jarrera atzerakoi eta integrista nabarmenetan finkaturik gelditu ziren; iragan antiliberalak zuten gero, neke handirik gabe eman zuten izena nazionalismoaren erroldetan, Aranak eta bere jarraitzaileek katolizismo oso bat bermatzen zuten formulazio politikoa begien aurrera aurkeztu ziotenean. Euskal nazionalismoak beren pastoralgintza indartzeko aukera eskaintzen zien elizgizonari, herri bezala iraungitzeko zorian zegoen herrialde baten salbamena gizatari eta erlijiozkoaren alde arituz.

Jakina denez, lehen unetik apaiz batzuek begikotasunez begiratu zioten Sabino Arana obrari; izenik ezagunenak Ebangelista de Ibero eta Ramón de Rentería dira. Antza denez, elizgizonak mundu-gerrateko urteetan aldatu ziren nabarmenki nazionalismora:

“Nazionalismoaren arrakasta handiak, eta Aldundien bitartez baserriaren eta arrantzaleen arazoetan murgildu izanak, lurraren eta herriaren sustraietan era naturalean erroteriko alderdi baten irudia faboratu zuten. Zabal egotzi izan zaio kleroari nazionalismoa predikatu izana. Pulpitoetatik egindako lanaren lekukotasunik ez dagoenez gero, us-te izan da eraginkorra eta bizia gertatu zela aitorlekuetatik egindakoa”²⁴.

José Cadena y Eleta Gasteizko apezpikuak, 1910aren hasieran, gutun pastoral bat idatzi zuen, haurrak euskarazko izenekin bataiatzea debekatuz, nahiz haur askoren gurasoek hori onartzea eskaturik zeukaten, eta horrexek piztu zuen gatazka. Pastoralak zioen latina zela sakramentuak administratzeko hizkuntza ofiziala, eta “Espainiako Elizak baduela bere hizkuntza ofiziala, gaztelania” era guztietako dokumentuak idazteko.

Apezpikuaren idatzia elizbarrutiko pulpito guztietan irakurri zen, eta Aranzadik aditzera ematen duenez “euskaldun asko, eta nazionalista gehienak, ustekabean harrapatu zituen eliz hierarkiatik egindako lehen ofentsiba handi honek”²⁵. Hala eta guztiz ere, nazionalistek isilik egotea erabaki zuten apezpikuaren dokumentuaren aurrean, eta bien bitartean, alderdi eskuindarrak eta katoliko ez zirenak zirkunstantzia horretaz baliatu ziren kanpaina anti-nazionalista gogor bat egiteko.

²³ Villota, Ignazio: *La Iglesia en la sociedad española y vasca contemporánea*. Desclée de Brouwer. Bilbo. 1985. 174 orr.

²⁴ *Ibidem*, 174 orr.

²⁵ Aranzadi, E.: *Opus cit.*, 262 orr.

Luis Eleizalde ez zen etsipenezko jarrera hartzearen aldeko²⁶, eta 1910eko ekainean orri bat idatzi zuen “Contestando al Heraldo” (Arabako egunkari independentea) izenburuaz, eta bertan, alderdi nazionalistak²⁷ eskatutakoa azaltzearekin batera, Sakramentuen Kongregazio Santura joko dutela iragartzen du “zuzen onez gure fidelotasun katolikoaren aurkakotzat daukagun” horren berri emateko²⁸.

Aipaturiko Gutun Pastoralara irten eta handik gutxira, Cadena y Eletak Zirkular batean gaitzetsiko zuen Angel Zabalaren “Historia de Vizcaya”ren lehen liburukia “bertan dauden errakuntza ugari eta larriengatik”. Gaitzetsiriko liburuan adierazten zen, baldintza jakin batzuetan gizabanakoak ez zeudela eliz gidarien aginduei men egitera behartuak.

Bitartean, nazionalistek atzera pausorik eman gabe eta ezbairik gabe iraun zuten. “Irmo” izan zen 1910eko otsailaren 26ko “Gipuzkoarra”ren editoriala, eta bertan esaten zen zuriak eta gorriak elkar hartu zutela berauek suntsitzeko; baina etsaiek, igaro ahala, aurriritziak eta faltsukeriak ereiten bazituzten ere herriagandik bereizteko asmoz, “jainkoari eskerrak, zinez errotu gara gure maitasunezko lur honetan, ekaitzaren besoetan galtzeko”.

Irudi katolikoa bera hobetzeko Lourdesera bi peregrinazio egin zituzten, 1910ean eta 1911n antolatuak; otsailaren 19an bi horien artean lehena “Gipuzkoarra”n aurkeztu zutenean, euskal erromesaldi nazional legez aipatu zuten, aberriaren ordezkari gisara Lourdesera zihonana²⁹. Ideia hori gogo handiz hartu zuten, eta erromesaldian zenbait milaka euskaldunek esku hartu zuten.

Erligioa finkatzeko kanpaina hori, “Eskola Laikoen” aurka protesta egiteko antolaturiko ekitaldiekin osatu ahal izan zen; antikerikalismoa ez zen artean arazo handia euskal gizartean, baina sindikalismo sozialistak hazkuntza handia izan zuen, eta gainera, Mauraren erorketa eta José Canalejasen garaitzapena ere denbora bertsuan gertatu ziren, baita Conjunción Republicano-Socialistaren arrakastak ere.

Protesta-ekintzetan parte hartzeko orduan, nazionalistak ez ziren izan Bilboko “Teatro del Circo”-n katolikoek antolaturiko mitinean; nahiago izan zuten gai berari buruz “Euskalduna”

²⁶ L. Meesek aditzera ematen duenez, Eleizaldek uste zuen Gasteizko apezpikuaren ofentsiba antinazionalistaren egiazko zioak alor politikoan zeudela:

1. Ideal nazionalistarekiko bere gorrotoa (...)

2. Hauteskundeak, Gernikako hautes-barrutikoak batik bat. A zer nolako miseria!

Usnatu ahal izan dut oso erreta dauzkala Bilboko porrot karlo-kontserbadoreak, azken hauteskundeetan eta hori alderdi nazionalistaren jarrerari egozten diotela (...) Niretzat, Apezpikua, Mauraren agente (oso trebea) besterik ez da, eta hark ez dio amore ematen Euzkadin alderdi kontserbadore ugari bat eratzeko duen asmoari”.

²⁷ Aipaturiko orrian “Contestando al Heraldo”, honela laburbiltzen zen nazionalisten nahia:

“Eusko Alderdi nazionalistak ez du inoiz eskatu bataioa euskaraz ematerik.

Eusko Alderdi nazionalistak ez du inoiz eskatu bataio-agiriak euskaraz idazterik.

Eusko Alderdi nazionalistak soilik eskatu du neofitoaren izena euskarazko eran idatz dadila bataio-agirian, haurra Sakramentura dakarrenak hala eskatzen duenean”.

²⁸ Iragarritako Erromarako bidaiak, agi danez, 1911ko otsailean egin zuten, nahiz eta Sakramentuen Kongregazio Santuaren Dekretuak aurreko urteko data duen; dekretu horretan arrazoia ematen zitzaion apezpikuari planteamenduei zegokionez, baina zabalik uzten ziren ateak izenak euskaraz idazteari zegokionez.

²⁹ Lourdeserako erromesaldia aukera bikaina izan zen euskal naziotasunaren eta fedearan agerpen bat egiteko: “ (...) Lourdesera joan behar dugu erromesaldi eskerge batean kolektibitate nazional gisara, belgikarrak, frantsesak, ingelesak, alemaniarak eta abar bezala. Gure fede nazionalak eskatzen du hori, Euzkadik Sortzez Garbiari tradizioz izan dion maitasunak...” (Aranzadi, E.: Opus cit. 284 orr.).

frontoian ekitaldi propio handi bat ospatu, eta bertan aritu ziren, hizlari gisa, Urrengoetxea, Urizar eta Orueta bilbotarrak, Olano arabarra eta Abelino Barriola gipuzkoarra.

1910ean zehar, protesta-ekitaldi gehiago egin ziren euskal probintzietan “Eskola Laikoen” aurka, eta horietan zenbait nazionalistak hartu zuen parte, norbanako gisa, alderdiak horretarako baimena emanik.

Hurrengo urteetan, Eleizalde, bere kazetaritza-artikuluetan eta hitzaldietan, Eliza eta ikastetxe erlijiosoen gaia jorratu zuen euskal naziotasunarekiko eta euskararekiko erlazioan, eta baita kristautasun eta fedearen aspektu teorikoak ere. Azken zentzu horretan, “Gure fedearen oinarri razionalak” eta “Eliza eta progresu orokorra” izenburu orokorrarekin emandako hitzaldi apologetikoek historiaren filosofiaren teoria bat finkatzea zuten helburu, euskal nazioari aplikatua:

“Kontua da jakitea zergatik garen teista, kristau, katoliko; zergatik izan behar dugun; zergatik oinarritu behar dugun gure doktrina politiko-soziala doktrina erlijioso batean”³⁰.

Sail hau bukatzeko, egokia da, labor bada ere, Eleizalde bere gaixotasun eta heriotzaren aurrean izan zuen jarrera aipatzea, zeren horrek erakusten baitu berak irakasten eta egiazki praktikatzen zuenaren arteko koherentzia.

Bizitzaren sasoi bete-betean zer gaitz zeukan jakin zuenean, kristau-etsipen eredugarriaz eta gizon-izpirituz eraman zuen gaixotasuna. Zeuzkan karguen buruzagitzan jarraitu zuen azkeneraino, bere lanetan betiko gogo biziaz murgildurik, bere izpiritua jauntasun handiz menperatuz; bere bizitzako azken egunak bere “Euskal berba toponomastikoen zerrenda alfabetikoak” osatzen eman zuen.

Oso ebakuntza gogorrek jasan zituen eta Hamburgeko klinikan itxaropen pixka bat eman zioten; baina hamalau bat hilabete igaro ondoren, ohartu zen zientziaren pronostikoa betetzeko zorian zegoela. Gernikako Eusko Ikaskuntzen Biltzarrearen lanak bukatu berriak zituen eta oso gaizki sentitu zen. Une batetik bestera indargabetzen ari zen, baina artean indarra aurkitu zuen Lourdesera bidaia bat egiteko, osasunaren eta graziaren bila.

Bilbora itzulirik, eta ohean gelditu aurretik, oso larri zegoen Jose Madinabeitia bere adiskidearen gelara igo zen; eskua luzatu, kontsolatu eta adorea eman zion, “gero arte” batekin adio esanez.

Madinabeitia oso larri zegoenez -1923ko urtarrilaren 2an hil zen sakramentuak hartu eta gero, gure autorea baino sei bat hilabete lehenago-, izpirituko indar miresgarria ageri duen gutun hau idatzi zion:

“José de Madinabeitia jauna

Adiskide txit maitea: Hor doaz ohetik oherako lerrook.

Esan didate (zerbait jakin dezakedan guztietan galdetzen dut zutaz) makalxeago zaudela. Ni neu ere gero eta bigunago nago; oraingo biok erabateko sinkronismoan goaz.

³⁰ Eleizalde, Luis de: Cuatro conferencias. Editorial Vasca. Bilbo, 1918, 21 orr.

Jar zaitetz erabat eta uste onez Jainkoaren eskuetan; bake handi batek bilduko zaitu eta ama batek bere semetxo bezala kulunkatuko zaitu. Esperentziaz esaten dizut hori.

Inoiz baino adiskide atxikiagoa duzun honek besarkatzen zaitu eta zu han aurkitzea espero du.

Luis Eleizalde
1922. Abenduaren 31.”

5. BASERRI-MUNDUAREN DEFENTSA

Ez dago azpimarratu beharrik nolako garrantzia zuen euskal baserritarrak eta bere inguruneak ideologo eta politiko nazionalistentzat. Agrarismoak, XIX. mendeko forismoaren ondarea zenak, indar ideologiko handiagoa lortu zuen industrializazio prozesuarekin. Abertzaleen lehen doktrina industrializazioaren eta bere ondorioen aurkako protesta bat izan zen, eta Bizkaia baserritar, euskaldun eta arrazaz garbia hobesten zuen.

Baserrri-munduaren idealizazioa eta baserriak sinbolizatzen zuen bere gizarte-ordenamenduarena gertakari sarri samarra da Aranaren jarraitzaile hurbilenekeen literaturan eta idatzietan, batez ere lehen mundu-gerratearen aurreko urteetan. “Kizkitzak” baserritarrarengan bertute batzuk aurkitzen ditu, industrialismoaren inguruan mugitzen den perbertsio “exotikoari” kontrajartzen zaizkionak.

“Adimen ernea, izpirituaren bizitasuna, afektuen finezia, grazia eta edertasuna euskal baserritar inguruneetan aurkitzen dira. Badirudi gure lurraldeak, eragin arrotzetatik libre, besterik ez duela behar miresgarriki loratzeko. Arrazoiak harmonia fisiko eta izpiritual ororen magia zerutik jasoko balu bezala; zerua hurbildu ahala, mendigoietako euskal sendiak, harreman arrotzetatik libre, agertuz joan dira gure hautapenik onenak balira bezala, harik eta hirietako ganduak eta lantegi handien keak Gorbeia eta Aralarren gailurrak estali dituzten arte”³¹.

Ramon Belaustegigoitiak, 1920an, luzaroan euskal baserritarrari buruz jaso dugun ikuspegi “literario eta sentimental bakar” hori kritikatu zuen, eta honela aurkeztu zuen:

“zibilizazio industrial berri baten ukipen kosmopolitaren eraginez hiltzen ari den arraza baten emaitza tipikoena.

Aire zabalean eta esperimentazioaren eremuan faktore modernoekiko ukipenean begiratu beharrean, nahiago izan dugu legendaren lainoartean bildu eta sailkatu gabeko gizakikasu bitxi bat bihurtu, beste guztiek ez bezalako tradizio berezi eta bertuteak dituena, zeinaren eginkizun mundutarra badirudien bere herri-ohiturak gordetzea dela”³².

Belaustegigoitiaren iritziz, iraganarekiko erreferentzia eta herri-ohiturak gordetzeko ahaleginak literatur orrialde ederrenak sortarazi zituzten, baina ikuspuntu sozialetik, ez zuten lagun-

³¹ “Kizkitza”: La casa solar vasca. Donostia. 1932. 34 orr.

³² Belaustegigoitia, Ramón de: Problemas de la tierra, Eusko Ikaskuntzen Bigarren Biltzarrean. 1920, 288 orr.

du bitzita modernoaren eraginez langileriak zituen baldintzak hobetzen. Baserriko bizitzaren hondamendia azaltzeko askatasun politikorik eza aztertu ordez, beste elementu modernoago eta hurbilago batzuk lantzea proposatzen zuen, hala nola “industrialismo orok beti berekin duen kulturarik eza, miseria, jabeago txikiaren kontzentrazioa, aberaste bizkorra, alkoholaren kontsumo izugarria”...³³.

Eleizaldeek puntu horretan egindako ekarpenei dagokienez, esan beharra dago areago doazela “Kizkitzaren” bidetik Belaustegigoitiarenetik baino; ez da ahaztu behar azken horren oharra, zalantzarik gabe errealistagoak baldin badira ere, gure autorearenak baino zenbait urte geroago eginak direla.

Eleizaldeek bere idatzietan baserriko eta baserriarraren bertuteen ohiko gaiak landu zituen: gizarte-abandonua eta baserriari eragiten zioten emigrazio eta alkoholismo arazoak, eta jakina, euskara galtzeagatik kultur ondorioak.

“Cuestion vital” (1916) izeneko artikuluan euskal baserriarren dohain moralei buruz hitz egin zuen, eta ia beti industrialismoaren biktima diren proletarioenak baino garaiagoak direla zioen. Haren arabera, euskal herriaren oparotasun erlatiboa dohain moral horiei eskerrak zen, eta ez elementu ekonomiko, klima edo lurriari esker; zeren “oparotasuna, oparotasun materiala bera ere, herri batean bertan bizi den jendearen arima-kaizuren arabera baitago”³⁴.

Beste idazle batzuek erabilitako argudioak errepikatuz, esaten zuen “baserriarrek”, arrantzaleekin batera, arraza-klase gutxien adulteratua eratzen zutela, eta euskal naziotasunaren azken gotorlekua zela. Baina, paradoxaz, nekazariak erabat babesgabe zeuden, eta etsipenez onartu beharra zeukatzen “jaunskila taurokatolikoaren hauteskundeetako ardi-buru izatea”; zeuden gizarte-obra bakarrak hegoaldeko atzerriarren mesederako sorturik zeudela zirudien:

“Ugari dira orain, ongi zein gaizki, gizarte ekintzazkoak deitzen dituzten obrak, gure meategi, lantegi eta tailerretako langile etorkinen erabilpen nagusi eta probetxu ia bakar-rerakoak. Lan horretatik zeinen gutxi eskaintzen zaien mendi eta itsasoko langile bertokoei!”³⁵.

Eleizaldeek interes handiarekin egin zion abegi P. Lhanderen “Mirentxu” (1914) eleberriari, mende-hasierako euskal baserri, erlijio-tradizio eta euskal sendiaren antzinatiko dohainei egindako kantu horri; Hondarribiaren eta bertako mendi eta itsaso inguruneen deskribapen bat egiten du, kontakizuna kokaleku horietan garatzen baita; obra, funtsean, D. Pantaleon lukurro atzerriarraren eta Guztizederra familiaren arteko tirabira da, familia horrek Jaizkibel mendiaren hegian daukan aspaldiko etxebizitzaz jabetzearen. Etorkin lukurroaren trikimailu higuigarriak eta euskal baserrietako ohitura eta usarioak kontraartzten dira bertan.

Eleizaldeek obra horretan azpimarratzen zituen ezaugarri erakargarrien artean, lehena “mutur batetik besteraino ageri den baikortasun-giroa” da, eta hori oso atsegina da literatura modernoan behar baino gehiagotan agertzen diren “tesi goibelen ilunkeria ezkorren erdian”.

³³ Ibidem, 289 orr.

³⁴ “Axe”: Cuestión vital. “Euzkadi”, 1916ko azaroaren 12a.

³⁵ Eleizalde, Luis de: Mirentxu. “Euzkadi”, 1914ko maiatzaren 13a.

Azpiratzen zuen beste ezaugarri bat autoreak euskal baserriarrarenganako sentitzen zuen onirizkoa zen; beretzat baserritarra ez da “kaleko” gaizkiesaleek zioten tipo muker, isekati eta errezelotsu hori³⁶.

Alkoholismoaren eta emigrazioaren arazoei helduz, Eleizaldek zinez uste zuen, horietako lehena herri txikietara iritsi bazen, industri hirietako eredu txarren ondorio zela: nazionalistei dei larria egiten zien ordura arte baino partaidetza aktiboagoa eta zuzenagoa izan zezaten alkoholeriaren arazo larria konpontzeko³⁷. Emigrazioari buruz, ohar labur batzuk besterik ez zituen egin, exodoaren zergatiak aztertzen hasi gabe eta horrentzako soluzioak bilatu gabe; baina 1916an, arazoa oso laster areagotuko zela aurreikusten zuenez gero, benetako aber-tzaleei gomendioa egiten zien hori eragozteko beharrezko erabakiak har zituzten. Haren iri-tziz, ezinbestekoa zen daniar nazio txikiak bere lurraldea nekazaritza-alorrean kontinenteko aurreratuenetako bat bihurtzeko praktikan jarritako bitartekoen azterketa xehea egitea; eta da-niar nekazaritza aurrerarazten lagundu zuten bi elementuak aipatzen zituen azkenik: elkartegintza eta lehen hezkuntza.

Mundu-gerra amaitzean, areagotu egin zen baserritik hirirako exodoa, era orokor batez, industria handiko herrialde guztietan, hala nola, Belgika, Alemania, Ingalaterra eta Frantzia; Euskal Herria ez zen salbuespen izan horretan³⁸.

Euskaldunak, lehen itsasoaz haraindiko lurretara joaten baziren ere nagusiki (Ipar Ameri-ketara eta Hispanoamerikako herrialde batzuetara), 1914az geroztik gutxi gora-behera hiri eta industrigune hurbilenetara jo zuten, lantegi bateko soldatapeko langile bihurtuz. Ikerketa ga-raikide batzuen arabera, Bilbotik hurbil zeuden baserri askotako gizonezkoak lantegira joan ziren, eta emakumeak bakarrik gelditzen ziren baserrietan; ez dago datu zehatzik baserritik industriara aldaturiko lan-eskuaz, nahiz eta jakina den garapen industrialak eta teknologikoak eragin handia izan zuela nekazaritzan.

Nekazariak, batez ere gazteak, baserriko lana bertan behera utzi eta etxeak husteratzen bul-zatu zituzten arrazoiak asko eta konplexuak dira. Garaiakideek honako faktore hauek aipatzen dituzte: hiriko industria handiek duten erakarmen handia, zortzi orduko lanaldiarekin sari han-diagoa ematen baitute; etxearen jabe izateko zailtasun handiak; alokatze-kontratuak, horieta-ko batzuk handiegia izaten baitziren...

Baserriarrak nolabait lurrari atxikita mantentzeko, soluzio ekonomikoa eta sozio-kulturaz-koa baino hoberik ez zen aurkitzen. Beharrezkotzat jotzen zen baserriarraren baldintza eko-nomikoak eta sozialak hobetzea, bere egoera material eta izpirituala hiriko langile-klasearen

³⁶ Eleizalderen arabera, iraganean zikoizkeriarik gabe bere odola eta ondasunak kausa zentzugabe batek sorta-razitako abentura desarauzkoetan eman zituen baserriarrak, “ordainetan kaletarren iseka ia dongeak jaso zituen eta eszeptizismo, errezero, amarrukiaren salakuntzak, kaletarrok alderantzizko kualitateen gailurra bagina bezala” (Mi-rentxu, 1916ko maiatzaren 13a).

³⁷ Ikusi “Axe”ren artikulak: El alcoholismo. Los malos ejemplos, “Euzkadi”, 1921eko otsailaren 1a; Una plaga nacional. El alcoholismo, “Euzkadi”, 1919ko apirilaren 3a.

Azken idatzi horretan aditzera ematen zuen “abertzaleak Euzkadiko bizitza politiko eta sozialaren gidaritza esku irmoz hartuko duten uena datorren bitartean —eta une hori iristeko dago— alkoholismoaren aurkako borroka planteatu beharko litzateke, arazo sozial eta moral den heinean, eta ondorioz erlijioso ere bai”.

³⁸ “Una barriada vizcaína y su escuela (Albiz de Mendata)” Eleizaldek erakusten du, emigrazioa, 18 eta 30 urte bitar-teko gizonezkoen artean, atzergabea dela Mendatako Albizen; lehen Hego Amerikara joaten ziren, eta XX. mendearen biga-rren hamarkadan, Iparrameriketara (Californiara), 8-10 urteko epealdi baterako. “Amerikan zeuden aldian, artzantzan ari-zen ziren, zeren eta instrukzio-gabezia ia erabatekoak ez baitie uzten lanbide diru-emankorrako batzuetan jardutea”.

ongizate geroz eta handiago baino eskasagoa izan ez zedin. Bigarrenik, hezkuntza orokorra eta nekazaritzaren irakaskuntza bereziki³⁹ aipatzen ziren, baserri-munduan bizi-maila goratze-ko bi palanka nagusietakoak bezala. Hurrengo kapituluan lehen hezkuntzak, eta irakaskuntzak oro har, zeukan egoera aipatuko dugu.

Leonzio Urabaienen arabera, apaizak eta maisuak ziren herri txikietako giza eta gizarte-hezkuntzan lan egiteko egokienak; beren eginkizun bereziarengatik, gai ziren gazteei lurraldearenganako maitasuna eta lankidetzaz-izpiritua sentiarazteko, olgeta baliabide desberdinen bitartez, hala nola, kantuak eta dantzak, bilerak eta jaialdiak, irakurketak eta gizarte-hezkuntzako beste bitarteko batzuk, herriaren bizitza maitagarriago egiten saiatuz. Urabaienek zioenez, jarduera horiek oso emaitza onak eman zituzten Danimarkan⁴⁰.

5.1. Nekazaritza eta abeltzaintzaren sustapena

Euskal baserriaren eta bere ustiapenaren deskribapen labur bat aurreratuko dugu hemen, zeren auzo-ikastolen kultur egintza Bizkaiko baserri-munduan garatuko baita gero.

Baserria —funtsezko lau atalek eratua: etxebizitza, soroa, azienda eta mendiak— bere ekoizpena aldatuz joan zen, XX. mendeko lehen bi hamarkadetan zehar, herrialdeko premiak ere aldatu ahala; ustiapenaren bitartez lortutako etekina 50 urte lehenago baino askozaz handiagoa izan zen. Ongarri kimikoak erabiltzen ziren, nahiz eta neurri txikian eta nekazariak egiazki ezagutzen ez zituela, eta larreak ere gehitu ziren, nahiz eta artean behar adinakoak ez izan. Martin Cigak (Bizkaiko Higiene eta Abere-Osasungintzako ikuskariak), zainari jarraitzen ari nartzaion puntu honetan, zera idatzi zuen 1916an:

“gaur egun baserriek batez beste dituzten gainazal landuriko hiru hektarea horiek, eta batzuetan gutxiago, bost edo sei zatitan banatzen dira eskuarki landaketarako, eta gari, arbi, arto eta indabaren etengabeko errotazioa ezarri ohi da luraren heren batean gutxi gorabehera; beste heren bat hirusta gorria eta bioleta (frantses belarra eta sekula-bedarra) eta oloa eta alpapa lantzerak; eta beste heren bat babarrunak, babak, barazkiak eta beste landareren batzuk. Baserri batzuetan mahatsari ere ematen zaio sailtxo bat, oso bereziki Bakio, Balmaseda, Deustu eta Lekeitioko elizateetan, horietan hedadura handiagoa eskaintzen baitzaie. Guztiek dituzte bi edo lau behi, bizpahiru txahal, bi txerri eta dozenaren bat oilo”⁴¹.

Baserriaren diru-sarrerak esnea, barazkiak, frutak, lekariak, hegaztiak, arrautzak, okelatarako abereak eta txakolina saltzetik sortzen dira. Guztira likido eskuratua 1.762,50 pta. izaten zen.

Errendimendu handiagoa lortzeko, autore berak -Martín Cigak- proposatzen zuen Bizkaiko nekazaritzak esnea eta okela gehiago ekoiztu behar zuela, batez ere hirigune handietatik

³⁹ V. Lafitteren iritziz, baserriarrei beren lanbidea irakasteko prozedurarik gomendagarriena eskola ibiltariena eta aldi jakinetan emandako hitzaldiena da, ikastaro horiek “gertakari zientifiko ezinbestekoenen esperientzia frogagarriekin, proiektzio zinematografikoekin, museoetara eta baserri-industrietarako bistaldiekin lagundurik.

(...) Baserri-giroko etxerako irakaskuntzak egiazko mirariak egin ditu Belgikan, Alemanian, Danimarkan, Frantziako, Kanadan eta Estatu Batuetan, eta seguraski gauza bera gertatuko litzateke gure erregioan horrelako ikas-zentroak ezarritakoan” (La explotación del suelo. El caserío, Eusko Ikaskuntzaren Lehen Kongresua, 1919, 233 orr.).

⁴⁰ Ikusi Leonzio Urabaienen idatzia: “La enseñanza en los pequeños municipios vascos”, “Asamblea de Administración Municipal Vasca”. Donostia, 1920, 277-292 orr.

⁴¹ Ciga, Martín: Medios para aumentar el rendimiento del caserío, “Información”, 1916ko irailaren 3a, 866 orr.

hurbilen dauden baserriguneetan. Gariaren ekoizpena gutxitu eta forraje desberdinez ordezkatea gomendatzen zuten, larre artifizialak sortuz eta era berean, barazkiak, frutak, hegaztiak eta arrautzak ekoiztuz. Horrek guztiak baserriko diru-sarrerak bikoiztea ekarriko zukeen, guztira 3.133,75 pta.ko kopurua eginez.

Bizkaiko gainazalaren hedadura 220.640 hektareakoa zen eta 98.000 gelditzen ziren landugabe, orduan oso errendimendu urrikoak zirenak, baina oso egokiak berroihaneztapenerako, eta sega-belarrerako larreen edo labore, lekari, frutarbola eta abarren lantze intentsiborako⁴². Lursail horien egoerak galera handia esan nahi zuen Bizkaiko ekonomiarentzat; hortik etorri zen Bizkaiko Aldundiak zuen interesa berroihaneztatze-egitarauak bultzatzeko eta baserrietan obrak egin zitatzela sustatzeko, eta hortik etorri ziren, halaber, nekazariei beren lursailak hobetzeko emandako laguntzak... Baserriak babesteko lanak 1919 aldera hasi ziren, eta Bizkaiko Aurrezki Kutxaren maileguei esker, maizter asko jabe bihurtu ziren.

Une hartako hainbat idatzitan eta lekuko literarioetan bada halako kointzidentzia bat baserriak bere baitan lehenbailehen egin beharreko hobekuntzei buruz. Azienda eta barazkiak gehiago ekoizteaz gainera, baserriaren beraren higienizatzeko premiazko bat eskatzen zen.

Burutzeko orduan higienizazioaren arazo horrek zailtasun handiak topatu zituen, Aldundiaren asmo on guztiak gora-behera.

Zenbat baserri eta ustiategi zeuden benetan hogeiko hamarkadan?

Ez da erraz jakiten baserri horien kopuru zehatza; "Vizcaya Social"ek 1928 aldera eskainitako eta beste idatzitako batzuen bitartez osatutako datuen arabera, 14.133 baserri zeuden Bizkaian, horietatik 4.165 ziren bi bizitzakoak, eta gainerakoak, bizitza bakarrekoak. 19.216 familia zeuden lurra lantze hutsetik bizi zirenak. Horien banaketa honelakoa zen: 9.918 bizitza bakarreko baserrietan, 7.739 bi bizitzako baserrietan eta 1.559 hirigune eta herrixoetako baserrietan kokatuak. Zifra horietatik ateratzen da nekazarien %91 lurraldean barreiatutako baserrietan edo auzo txikiak eratuz bizi zela. Bizkaiko baserrien %78 alokairuan zeuden⁴³.

6. MUGIMENDU NAZIONALISTA 1914 ETA 1923 URTE BITARTEAN

Nazionalismoaren historiako denbora-epe hau bialdi desberdinetan banatzen da: lehenak 1919 artekoa hartzen du, eta mugimendu nazionalistaren gorakada eta ondare posibilitatzen sendotzea ditu ezaugarri nagusiak; autonomiaren aldeko kanpainako euforaldia bat dator 1917-18 urteetan lortutako hauteskundeetako garaizapen handiekin. Data horien ondoren gelditze- eta beherakada-aldi bat gertatzen da, 1921az geroztik alderdiaren zatikatzeak larritu zirena.

Lehen aldiaren hasieran, EAJk krisialdi larria izan zuen eta Luis Arana-Goiri 1915aren azken aldera alderditik bota zutenean amaitu zen; Aranaren nazionalismoaren figura historikoa eta urte askotan EBBaren lehendakari izan zenaren isolamendua, arrazoi askorengatik gertatu zen, besteak beste, bere "germanofilia"rengatik eta alderdiaren hauteskunde-akordioak ez bete izanagatik. Ustea da berak aldegitzeak alderdiaren egiturak demokratizatzen lagun-

⁴² Ikusi idatzia "El caserío vizcaino", "Vizcaya Social". Bilbo, azaroa-abendua, 1928, 14 orr.

⁴³ Mendatako Albizek, 1919 aldera, 51 etxebizitza zituen eta beste hainbeste familia, guztira 267 biztanle: "Biztanleriaren gunea osatzen duten 51 familietatik 20, bizi diren etxearen eta lantzen dituzten lurren jabeak dira; gainerako 31ek akuran erabiltzen dituzte etxebizitza eta lurak. Horiek artoa, garia eta lekariak ekoizten dituzte, baina aberastasunik handiena aziendarena da..."(Liburuska "Una barriada vizcaina y su escuela (Albiz de Mendata)").

du zuela, eta era berean “mugimenduaren izaera nazionala nabarmendu zen, aurreko joera probintzial samarren gainetik”⁴⁴.

1916aren bukaera aldera, antolakuntza nazionalistak bere jatorrizko izena aldatu eta *Comunión Nacionalista* izena hartu zuen; izen hori, antza, Eleizaldek hala proposatu zuelako hartu zen, harentzat euskal nazionalismoa alderdi bat baino gehiago baitzen eta arlo politikoa bere barruan bilduko zuen araubide sozial bat nahi baitzuen. Horrela, Komunioaren zentzu orobiltzailea sendotu zen, eta beraz, tradiziozko doktrina guztia kontuan izan eta estrategia posibilistarekin bateragarria izan behar zuen.

Komunioaren nahiak euskal kontzientzia berreraikitzea edo “arima nazionala” berreskuratzea ziren, eta puntu horretan, aurreko aldiari jadanik ezagunak ziren ideia batzuk errepikatzen ziren. Herriaren kontzientzia nazionala iratzartzea, Eleizalderen arabera, funtsean aberztzaileen eginkizuna⁴⁵ zen, eta horretarako, ekintza politikoa ez ezik, soziala eta kulturala ere erabili beharra zegoen.

“Euzkadi” egunkaria, 1913ko otsailean sortua, alderdiaren prentsa-organoa izan zen, eta bertan islatzen ziren nazionalisten ideiak. E. Aranzadik (“Kizkitza”) eta Eleizaldek (“Axe”k) beren esku izan zuten “komunikabide nazionalisten monopolioa”, eta lehenak “Euzkadi”ren kudeaketa ere izan zuen bere eskuetan. “Gainera, mendearen lehen hamarkadan ortodoxia-patentea lortua zuten biek, maisuaren ondoan, eta haren ondorengotzan”⁴⁶.

Países y Razas (1914) obran, 1913 eta 1914 urte bitartean “Euzkadi”n argitaraturiko artikuluen berrekoizpenaren fruitu zen obra horretan, Eleizaldek mugimendu nazionalistan bi joera desberdinak zeudela aipatzen zuen, “sinn feiner” irlandarren portaera zelarik bigarren joera “iraultzaileen” eredia:

“(…) Bata da etengabeko bilakaeraz jardutea proposatzen dutenena, ideia, sentimendu eta ohiturei etengabe eraginez, era geldoan arima nazionalaren elementu horiek guztiak aldatuz, instituzioen, egoera sozialaren eta politikaren eraldakuntza herriaren mentalitate eta moralitatearen eraldakuntzaren beharrezko ondorioa izan dadin. Horiek dira herrietan burutzen diren benetako iraultza sakonak; baina hain geldoak, hain hautemanezinak beren xehe-tasunetan, non egokiago baitute “bilakaera” izena “iraultza”rena baino”.

Beste joera bat bilakaera hori bizkortu nahi dutenek ordezkatzeko dutenena da, halako mailan eta moduz bizkortu ere, non erabakia hartu baitute ezarritako erakundeak bortxaz suntsitzeko, eta beren teoriekin bat datozela uste dutenak berehala haien ordeztzeko: eta joera hori, baita horren ondoriozko ekintza multzoa ere, berez “iraultza” deitu ohi dena izango litzateke.

Herri-mugimendu orotan egon bide da, dago, edo egongo da joera “iraultzailea”⁴⁷.

⁴⁴ Mees, L.: *Opus cit.*, 188 orr.

Luis Eleizaldek “La organización en Araba. Cuatro secas verdades al señor Arana-Goiri”, 1916ko urtarrilaren 10eko idatzian, Aranari egotzen zion Arabako desantolakuntza abertzalearen erantzukizuna (...) Arana-Goiri jauna izan bide da (demagun) Eusko Alderdi Jeltzalearen sortzailea, eta ideia horren alde nahi adina sakrifizio egin ditu, nonbait. Baina duela hilabete batetik honako bere portaeran, ezabatuak ditu dagoeneko bere aurreko meritu gehientzuenak. Bere buruaren gainera erakarri du Alderdi abertzalea sortu eta haren alde sakrifikatu izanari buruzko susmoa, ez zuela egin idearengatik, baizik eta atsegin pertsonalak bilatuz. Eta gaur egun Arana-Goiri jauna asaldura arrunt baten burua da, eta besterik ez”.

⁴⁵ “Axe”: *Conciencia nacional*. “Euzkadi”, 1913ko otsailaren 15a.

⁴⁶ Elorza, A.: *Opus cit.*, 357 orr.

⁴⁷ Eleizalde, Luis de: *Países y razas*. Las aspiraciones nacionalistas en diversos pueblos. Bilbo, 1914, 113 orr.

Europako herrialde desberdinen asmo nazionalistak aztertuz, lehenago ere 1911n "Raza, lengua y Nación" obran sustengatu zituen ideia batzuk berrestera iritsi zen, denak ere kultur ekintzaren lehen tasunari buruzkoak. Oso deigarria gertatu zitzaion idazle nazionalista hungariar baten esaldia: "nazioetasunak eta hizkuntzak askatasunak baino gehiago balio dute; askatasuna berreskuratu egin baitaiteke...". Hortik ateratzen zuen ez zuela ezertarako balio askatasuna izateak, aldi berean norbere nazioetasunaren ezagutzarik gabe:

"Hortik ondorioztatzen da, nazionalitatearen helburua independentzia lortzea eta Estatu propio bat eratzea dela uste dutenek ez dutela tutik ulertzen nazionalismoaz. Askotan esan izan da hori euskal nazionalismoaz, eta hortik dator euskal nazionalisten aurka hainbesteko arinkeriaz, non eta ez den fede txar higuinagarriz, jaurtitzen den separatismo-salakuntza hori. Ez gara izugarri estutzen hori dela-eta, zeren ongi baitakigu salakuntza bera egiten zaiela etengabe Irlanda, Polonia, Kroazia eta alderdi guztietako nazionalismo-⁴⁸ei".

"Países y Razas"en azterketan, ezin dezakegu ahantz argitalpen horren bidez ezagutarazi nahi zitzaizela, bai etxekoei eta bai kanpokoei ere, euskal arazoa ez zela fantasia bat, baizik eta gauza erreala, eta nahi nazionalistak ez zirela euskaldunen arazo soilik; kontra egin nahi zion, nolabait, euskal nazionalistak politika irreal eta xeble bat sustengatzen ari zirelako iritziari -nahiz geroz eta indar gutxiago izan-.

Horregatik guztiarengatik, Komunio Nazionalistak interes handia zeukan arazoa internazionalizatzeke; horrela, 1916an Lausanan (Suitzan) nazionalitateen Biltzarra ospatu zenean, Luis Eleizalde, Isaak Lopez Mendizabalek eta Jose Eizagirrek eraturiko delegazio batek esku hartu zuen bertan; beste nazionalitate batzuekin harremanetan jartzeaz gainera, Biltzarrak aukera aparta eman zien Euskadiren nortasunaren ezaugarriez eta Espainiar Gobernuarekiko erlazioez hitz egiteko⁴⁹.

Komunio Nazionalistaren historiari itzuliz, 1917-18an zeukan garrantzi politikoa erreala aipatu behar da, lehenik. 1918ko Gorteetarako hauteskundeetan lortutako arrakastaren fruitu gisa, nazionalistek Madrilo parlamentura ordezkari propioak bidaltzea lortu zuten lehen aldiz. Aurrerapena nabaria izan zen euskal probintzia guztietan, nahiz eta Arabako nazionalistek ez zuten Gorteetarako hauteskundeetan arrakastarik izan.

Hauteskunde-garaitzapenak gogoangarriak izan ziren probintzia-mailan ere, 1917ko martxoan lortu baitzen lehen aldiz Bizkaiko Aldundi Probintzialean gehiengo absolutua, eta Gipuzkoan gora egin zuen alderdiaren garrantziak.

Garaitzapen hori ekarri zuten faktoreak aztertzerakoan, ezin liteke ahantz Cambók, Lligako politikari kataluniarrak, Euskal Herrira egindako bisita, ezta nazionalitateen auziak izan zuen egungotasuna ere, mundu-gerrako jazoerak zirela medio; bestalde, krisialdi politikoa orokorreko aroa zen Espainian, negozio burgesen oparotasunaren ondoan. Naziona-

⁴⁸ Eleizalde, Luis de: El nacionalismo en los diversos países de Europa, in "Euzkadi" aldizkaria, 1915eko urtarri-lean, 7 zk., 61 orr.

⁴⁹ Euskal ordezkariak aurkezturiko txostenean honako hau esaten da Lausano Konferentzian esku hartzeko zuten zioari buruz: "(...) Euskal Nazionalitateak interes handia dauka konferentzia honetan esku hartzeko. Euzkadik, Euskal Herriak, erakutsi beharra dauka badela; harremanetan jarri beharra dauka antzeko zirkunstantzietan dauden nazionalitateekin, horien birjaiotza-mugimenduak ezagutzeko, horiengandik borroka praktikoa irakatsi handiak ikaste-ko, eta horregatik etorri gara birjaiotzen ari diren nazionalitateen asanblada honetara, nazioarteko ordena juridikoari buruzko arazo handiei dagokienez esku hartzera".

lismoaren goratze politikoa Bizkaiko ekonomiaren gorakadarekin batera gertatu zen, eta hori jarduera industrialen, metatze kapitalistaren eta ontzi-sektore pribilegiatuaren hazkundearen fruitu izan zen.

Nazionalistek, eta Bizkaiko Aldundiak bereziki -burges moderatuen nagusigoaren menpe- kanpaina aktiboa egin zuten autonomiaren alde 1917tik aurrera, nahiz eta horien ahaleginak hutsean gelditu ziren une politiko eta ekonomikoa alderantzikatu zenean. Geroago ere itzuliko gara gai horretara, baina badu garrantzia Luis Eleizaldeek gai horri buruz duen pentsamendua ezagutzeak. Eraentza autonomikoaren abantailak azpimarratzen zituen, zeren denboraldi luze batean ekinean jar baitzitekeen herrialdearen potentzial ekonomikoa, eta era guztietako zerbitzuak sor (sozialak, kulturalak, osasungintzakoak eta abar).

“Gu, euskaldunok, ezin hobeki konprometi gaitezke araubide autonomikoko hogeita bost urtetan gure Herriaren maila moral eta materiala goratzera, Europako herrialde aurreratuenen eta kulturen mailaraino. Ez dira hitz hutsak: hor daude geure burua gobernatzen jakin izan dugula eta administratzen dakigula erakusteko gertakari historikoak, daukagun araubide anbiguo, trabatzaile eta akatsez betearen beraren barruan ere, inoren babesik gabe, eta inoren irakatsirik gabe.

Araubide autonomikoko hogeita bost urtetan, inolako beldurrik gabe konprometi gaitezke hiritar duinez osaturiko herri bat berrezartzera, legeekiko errespetudunak, zibismo-izpirituz beteak, ongizatean eta Herrialdearen aurrerapen legitimoan erabat interesatuak, lankidetzara moral eta sozial guztietan partehartzaileak, eginbeharrez betetzailak, beren eskubideen zaindaria, hitz batean, gizarteak eta Aberriak eska diezazkiguketen funtzio guztietarako egokiak”⁵⁰.

Aztertzen ari garen aldiaren bukaeran *Hermes* agertu zen, 1917ko urtarriletik 1922ko uztaileara arte argitaratu zen aldizkari bat; Jesus Sarria nazionalistak zuzendua eta ekonomikoki Sotak sustengatua, argitalpenak euskaldunen baieztapen izpirituala eta “gure balio, tradizio eta interesen defentsa”⁵¹ egin nahi zuen. Lankide-talde bat biltzeko indarra izan zuen, besteak beste, Unamuno, Maeztu, Landeta, Eleizalde, Basterra, R.S. Mazas, R. Belaustegigoitia eta abar, bere orrialdeetan zehar nazionalismo kultural integratzaile bat proiektatuz, euskal idazle eta artista ororen lanak euskal herrikotzat hartzen zituelarik, horien esanahi ideologiko eta kulturala gorabehera⁵².

⁵⁰ “Axe”: Detrás...el separatismo. “Euzkadi”, 1917ko irailaren 23a.

⁵¹ “Lo que es Hermes”, in *Hermes*, 1917ko azaroan, 9.zk.

⁵² “Hartzen bada irakurtzeko, adibidez, lehen zenbakia, 1917ko urtarrilaren 1ean irtena, bertako autore eta izenburuek egiten dute, zentzu batean, argitalpena zer izango den hurrengo urteetan. Zenbaki horretan hauek idazten dute: R. de Maeztu (Un capítulo de autoridad, libertad y función a la luz de la guerra), R. Sánchez Mazas (A Ramiro de Maeztu en sus bodas, poesía), Ramón de Olascoaga (Políticos y economistas), Pedro Murlane Michelena (Comentario a los Amigos del País), Julio Carabias (Aspectos de la economía vizcaína), José María de Salaverria (Escritores vascos. El nihilismo de Pio Baroja), Manuel Aznar (De las ciudades y los pueblos. Los hermanos Zubiaurre), Miguel de Unamuno (Del Cristo de Velázquez), Gregorio Balparda (Los caracteres de la cultura vizcaína), Ignacio de Areilza (Digresiones pedagógicas), José F. Lequerica (Disraeli en España), Rafael S. Mazas (El pasajero de Bilbao), Argos (La vida financiera), R. García Sanchiz (Del gran mundo). Lehen zenbakietan euskarazko idatziak eta gai hertsiki abertzaleak agertu ziren, Luis de Eleizalde (Las Nacionalidades izenburuarekin), R. de Belaustegigoitia, E. de Landeta eta Jesús de Sarriaren eskutik. 1919an, zenbaki berezi bat egin zen Arana-Goiriren oroitzapenez”. (Arrien, Gregorio: Educación y Escuelas de barriada de Bizkaia. Escuela y autonomía (1898-1936). Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbo. 1987. 88-89 orr.)-

Landetaren lanak, batez ere, “Problema bizkaitarra”, “Bizkaitarrismo frente a las realidades del momento actual” eta beste gai batzuen ingurukoak izan ziren eta hala erradikalen separatismoa nola botere zentralak autonomia onartzeko zeukan erresistentzia gaitzesten zuen. Eleizaldek, aldiz, *Hermesen* artikulua-sail bat idatzi zuen “Las Nacionalidades” epigrafearen pean. Zerbaki sail batean argitaratu emandako bere idatzietan, nazionalitatearen elementuez (hizkuntza, arraza, ohiturak...), euskaldunen jatorrizko independentzia, katolizismoarekiko atxikimenduz eta abarrez jardun zuen. Beste behin, argi eta garbi utzi nahi izan zuen norbere hizkuntza independentzia bera baino nazionalitate-zeinu handiagoa dela, eta garrantzizkoena auzi sozial eta kulturaleri erantzutea zela, nahiz eta Estatu propiorik ez izan:

“Ideal nazional hori gauzatuz joan gaitezen, Estatu propiorik izan gabe ere (horren gabezia, ez da oraingoz, gaitzik handiena, zeinaren hutsunea sortuko ditugun gauza bizien indarrak ezar dezanean beteko baita), beharrezko da euskal biztanleria gehitzea emigrazioa moztuz, eta nekazaritza-sistema razional batez gure Herrialdeko eskualde ia eremutuak birpopulatuz, eta beharrezkoa da geure artean gizarte-kohesioa ere areagotzea, kontzientzia nazionala zabaltzea, eta kultura modernoan, hala zientzien sailean nola arteenean, balio positiboak sortzea. Euskal nazioa, Europako herri kultoan asanbladan, errespetu osoz agertu ahal izatera iritsi behar dugu”⁵³.

6.1. 1919tik 1923ra bitarteko epea: alderdiaren zatiketa

Historiografia nazionalistaren arabera, Komunioak 1919aren ondoren izandako krisialdia, barne-faktoreei ez ezik kanpokoei ere zor zaie; bigarrenengo artean Liga Monarkikoa deituaren ofentsiba aipa liteke, liberalen aldetik Gregorio Balparda, mauristen aldetik R. Bergé, eta kontserbadore datisten aldetik Luis de Salazar buru zirela. Jakina denez, Liga eta sozialismoaren artean lankidetzazko batzuk izan ziren nazionalismoa isolatzeko asmoarekin⁵⁴.

Gorteetarako hauteskundeak egin ondoren, “Euzkadi”n ondorengoa irakur zitekeen 1919ko ekainaren 3an: “Garaitu egin gaituzte. Porrot aintzatsua! (...) Katolikoak ezkerreko hordekin elkartu dira. “Piña” delakoak ehundaka mila pezeta gastatu ditu Bizkaian eta Gipuzkoan”.

1919ko uztaileko hauteskundeetan Komunioak bere gehiengoa galdu zuen Bizkaiko Aldundian.

Barne-faktoreei zegokienez, gorakada ekonomikoak, Komunioaren arrakasta politikoak eta “hauteskunde-garaitzape nazionalistei esker errealistak ziruditen autonomia-eskariak sortutako itxaropenek”, ordura arte mugimendu nazionalistak bat eginik irautea lortu zuten, alderdiaren zuzendaritzak eta ideologoen taxuturiko egitasmoaren inguruan⁵⁵. Baina egoera politiko eta ekonomikoa aldatzean, barne-kritikariak, beren jarrera erradikalak baztertu gabe

⁵³ Eleizalde, Luis de: *Las Nacionalidades*. “Hermes”, 1919ko urriaren 15a. 49 zkia.

⁵⁴ Liga Monarkikoaren lehen fruitua “1919ko maiatzaren 25ean PSOE eta errepublikarren artean lortutako konpromisoa da, Balmasedako aktarako G. de Balparda hautagai monarkikoaren aldeko botoa ematea hitzartu baitute, Bilboko hautes-esparruan bidea libre uztearen truke. Nazionalismoa isolatzeko helburuz sozialismoaren eta Ligaren arteko lankidetzazko sail baten lehenengo ekintza da, tarteka diktaduraren garaira arte gertatuko direlarik...” (Estornés, Idoia: *Opus cit.*, 185 orr.)

⁵⁵ Mees, L.: *Opus cit.*, 308 orr.

eta 1917az geroztik beren buruak nabarmenaraziz, indar berriak hartu zituzten eta Komunioaren jarraibide ofizialaren aurka zuzendu zituzten beren salakuntzak. Hasiera batean “independentzia” gaiaren inguruan alderdiaren egitarauaren berrikuste orokor bat besterik izan ez zena, berehala jendaurreko eztabaida izatera iritsi zen.

Separatisten kanpainaren aurrean, zeinaren gotorlekua “Juventud Vasca de Bilbao” eta “Aberri” beren adierazpen-organoak baitziren, EBBak bere aginpidea ezartzeko ahaleginak egin zituen, independentziaren gaiaren inguruan jendaurreko eztabaida oro debekatu; debeku hori behin baino gehiagotan agindu bazen ere, dena alferrik izan zen.

Eleizaldek ere esku hartu zuen eztabaidan, eta 1920ko apirilaren 21ean “Euzkadi”n argitaratutako artikulua batean nazionalismo ez-separatistaren oinarriak ezarri zituen. Autoreak berak geroago esango zuenez, aipaturiko “Euskal Nazionalismoa eta independentzia” artikulua, hitz bakoitzaren irismena zorrotz neurtu eta abertzale ongi frogatuen aholkua eskatu ondoren” idatzi zen, zeren aurreikusten baitzuen “zenbait eremu nazionalistatan lortuko zuen ospe txarra egiazki ‘izugarria’ izan zitekeela. Hitz batean ondoko hau zioen:

“egitarau independentistarekin, bereizkuntza osoko egitarauarekin (funtsean eta nagusiki iraultzailea denarekin) ez dagoela Parlamentura joaterik, guda-zelaira baizik, armak eskuetan direla. Gaineratu zuen -horri ere egia deritzot- nazionalismoa ez dela derri-gor separatista, badirela nazionalista ez-separatistak, badirela separatista ez-nazionalistak, eta azkenik, badirela nazionalista hutsak”⁵⁶.

Aurreko hori argitaratu ondoren sortu zen zalaparta egundalakoa izan zen; Eleizaldek berak adierazten zuenez, “hasita nengoen santutasun-usaina galtzen Euskaltzaindian onartua izan nintzenetik”, eta orain “erregionalismo” susmopean gertatu zen askorentzat eta “antinazionalismo” susmopean zenbaitentzat; “landetista” deitu zuenik ere izan zen...

Eleizaldek formulaturiko orientazio politikoa EBBaren doktrinazko dekretu batek berretsi zuen 1920ko maiatzaren 8an; eta Donostian urte bereko maiatzaren 23 eta 24an izandako Biltzar nazionalak Komunioaren doktrina ofiziala berretsi zuen.

Disidentek Biltzarraren emaitzarekin bat etorri ez zirenez gero, *Aberrin* orrialdeen bidez “garbitasun doktrinazkoa”ren desbiderapenak deituak kritikatu zituzten. Une horretatik aurrera, etena besterik ezin zitekeen espero, nahiz eta zenbait hilabete beranduago gertatu zen. Eten hori 1921eko irailean gauzatu zen “Euskal Alderdi Nazionalista” berri baten sorrerarekin.

Bitartean ugaldu egin ziren “aberriano”ekin kazetetan izandako polemikak; Eleizaldek, diatriba bakar bat ere erantzun gabe utzi ez zuenak, “Nazionalismoaren etapez” izenburuko gaiari buruzko hitzaldi bat eman zuen 1921eko abenduaren 3an Bilboko Euskal Ateneo nazionalistan, eta biharamunean osorik “Euzkadi”n argitaratu zen. Hizlariaren arabera, eten zakar eta gaizkoatua gertatu zen, baina ez zen ideia-disidentziarik izan, ezta prozeduren apreziaziorik ere; etenak sortarazi zituen bi “antolakuntza nazionalista erabat identikoak, itxuraz, doktrinaz eta egintza-prozeduraz”, alderdien izenen diferentzia bakarrarekin.

Talde politiko berriak, bere burua “sabindar” bakartzat hartzen zuenak, Aranaren lehen etapa bakarrik hartu zuen -Eleizalderen iritzi-, 1895 eta 1899 bitartekoa, eta propaganda zaratatsu eta estremista eta nazionalismo sentimentala ziren bere ezaugarri nabarmenak; biga-

⁵⁶ Eleizalde'tar Koldobika: La cuestión del día. “Euzkadi”, 1921eko abuztuaren 12a.

rren etapan, 1899an hasitakoan, nazionalismoa gogoetariago bihurtu eta egitarau sozio-politiko gaiztasunaren barruan jokatu duen Alderdi bat eratu zedi-la” pentsatuz. Une horretan masa nazionalistak hurbiltzen hasi ziren, herrialdeko iritzi jatorra-aren aurrean alderdia hartzen ari zen gero eta ospe handiagoak erakarrita.

Eleizaldek gogo handia zuen erakusteko “Komunio nazionalista, bigarren etapa sabindar horren oinordeko zuzen eta fidela” zela eta beti sortzaileak hasitako obrari jarraitzen ziola⁵⁷.

7. KULTUR EKINTZAREN LEHENTASUNA

Estaturik gabeko europar nazionalitateetan, Eleizaldek bi talde handi bereizten zituen 1915ean: lehen taldean Polonia, Hungaria eta antzeko nazionalitate guztiak zeuden, zeinen borrorak izaera erabat politikoa baitzuen, beren kultur bilakaeraren aldia eginga zutelako eta literatura tradizio aski koherente eta hedatu baten jabe zirelako, bide politikoa eta ofizialez ezarri nahi zitzaizen kanpotiko kulturarekin lehian aritzeko beste. Bigarren taldean, aurrekoa baino ugariagoan, euskaldunak, txekiarrek, kroatarak, irlandarrak, esloveniarrak, eslovakiarrak eta abar sartzen ziren, eta beren hizkuntza, literatura, arteak eta beste kultur osagai batzuk berrezartzen ari zirenak liriteke, arrazoi askorengatik kultur gainbeheraren etapa luze bat ezagutu zutelako. Eleizalderen aburuz, nazionalitate horiek, alde txikiarekin, “guk bezalako kinka larriak eta inguruabarrak pasatakoak dira: gure eragozpen berberen kontra dihardute borrokan, eta, gu bezala, ia iraingitzeko zorian egonak dira”, baina beren iraupen, behargintasun eta abertzetasunari esker “bizi zuten desagertze-arriskuaren hurbiltasuna urruntzea lortu dute”⁵⁸.

Nazionalismo kataluniarrari dagokionez, gure autoreak mirespen handia sentitzen zuen kataluniarrek prestatuturiko literatura eta kultur erakunde bikainekiko, euskaldunen oso gainetik baitzeuden “giza egintzari, borondetari, lan errenazentistaren planteamenduari, metodoari eta zeregin horretako jarraipenari dagokion guztian. Eta ez bakarrik gaur egunekoaz denaz bezainbatean, baita iraganekoaz ere”; kataluniarrek “batasun nazional” bat erdietsi zuten beren historian, euskaldunek oraindik oso urrun zeukatena, “zeren oso bakanetan lortu baitugu “auzo” edo klan izpiritu eta sentimendutik nazioaren izpiritu eta sentimendura igotzea”⁵⁹.

Beste nazionalitate batzuen jarraibidetik, behin eta berriz aipatu zuen nolako premia genuen haiek bezala berreraikitze nazionalerako etapa erregular batzuei ekiteko, nahiz eta luze, ilun eta neketsuak izan. Etapa erregularak hartu behar ziren, bere iritzi herri euskaldunak ez zeuzkalako oraindik nazionalista izateko kultur baldintza oinarritzkoenak. Kontsideratzen zuen herrira kultura behar adinako zabaleran iristen ez zen bitartean “alferrik dela nazionalismoaren helburuak asaltoka irabaztea; baina herriaren gaitze-lan hori burututakoan helburu nazionala lortzea hurbil eta ezinbestekoa izango dugu”.

⁵⁷ Kasu honetan eta beste batzuetan, Eleizaldek argi utzi nahi izan zuen zer zen funtsezkoa eta zer akzidentekoa Sabino Aranaren obran; funtsezkoa “euskal naziotasunaren baieztapena eta nazionalismo horrekiko atxikimendu afektibo eta eraginkorra zen. Horixe baino gutxiago ez; baina gehiago ere ez”. Disidenteei erantzunez gehitu zuen hutssegite larritzat zeukala, benetan kattegarrizat, “Sabino Aranak dena prestatuturik, eginik, aurreikusirik eta kontsumaturik utzi zuelakoa. Ez da jaiotako eta ez jaiotako ere gaitasun hori duen gizonik (...) Guri dagokigu berak hasitako ildo horiek berriek irekitzen jarraitzea (...) Baina horrela jokatu ordez, badirudi nahi dela geure bizitza zuhaitz baten adaburuan pasa dezagun, fakir on gisara Sukarrietako hilerriaren begiespen pasiboan” (“Prosigue el mismo tema”. “Euzkadi”, 1921eko uztailaren 13an).

⁵⁸ Eleizalde, Luis de: El nacionalismo en los diversos países de Europa, in “Euzkadi” aldizkaria, 1915eko urtarrila, 7. zkia, 64 orr.

⁵⁹ “Axe”: El nacionalismo catalán. “Euzkadi”, 1917ko abuztuaren 12a.

Azken gogoeta horiek 1921ean Bilbon emandako hitzaldi batean egin zituen, eta gizarte eta kultur etaparen garrantzia azpimarratu zuen kontzientzia nazionala sor eta erro zedin:

“(…) Hau da oinarrizko etapa, hots, eskolen, akademien, ateneoen, argitalpen zientifiko eta literarioen, langile-kooperatiben, ikaskuntza Kongresuen, Gizarte Asteen, eta abarren etapa. Ondoren dator, nahiz eta lehena itxi gabe, bizirik badirau, etapa politikoa, zeinean nazionalismoa, ordezkari-ta administratibo eta parlamentarioen bidez, bizitza publikora aurreko etapan aztertutako eta landutako soluzioen multzoa sartzen ahalegintzen baita. Bigarren hori hauteskondeen, mitin politikoaren eta jarduera mota horrek berekin dakarren mugimendu guztiaren etapa da. Azkenik, eta lehen bi etapek dirautela, bukaera dator, garaitzaren erabateko eta jabetza osoarena, eta zenbat eta kontzientzia handiagoarekin lan egin aurreko etapetan, orduan eta egonkorrago eta sendoagoa izango da garaitzapena.

Hori da neure argi laburrez ikusten dudana egintza-egitaraua. Baina, zorigaitzez, euskal Nazionalismoan erabat alderantzikatu dela uste dut etapa horien ondozkatzeko-ordena, eta buruak ematen dit teilatutik hasia dugula eraikuntza. Eta baliteke hortik etortzea, neurri handi batean, gaur egun nazionalisten alorrean dauden desadorea, nahigabea eta sosegurik eza⁶⁰.

Kultur egintzaren lehentasuna, zentzu zabal batean, gai errepikakor samarra da Eleizalderen obran, bere kezkarik sakon eta iraunkorrenetako bat izateraino. Kezka bera edo antzekoa izan zuten nazionalismoaren beste figura ezagun batzuek, hala nola, Sabino Arana⁶¹, Federico Belastegigoiitia eta Eduardo Landetak⁶². Hala ere, oso gutxi lortu zuten kultur berrezarpena nola burutu behar zen azaltzea Eleizaldek bere azken etapan egin zuen argitasun eta zabalera. Liburugintzan, irakaskuntzan, kazetaritzan, hitzaldiak ematen eta abarretan egin zuten lanaz aparte, agerpen artistikoen, literaturaren eta kulturaren garapena bultzatu zuten euskaraz, eta halaber, ahalegin handiak egin zituen euskara eskolan eta eguneroko bizitzan sarrarazteko. Zera eskatzen zuen:

“baserriar euskaldunari konfiantza sentiarazi behar zaio hizkuntzaren balioan, sine-tsarazi behar zaio hizkuntzaren proskripzio leun, eta ostrazismo aitortu gabearen garaiak iraganak direla, horretara gehiago ez itzultzeko⁶³”.

Euskararen arazo praktikoez kezkatuta, Eusko Ikaskuntzako Lehen Kongresuan, aspektu sozial eta literarioetatik abiatuta euskara berrezartzeko arazoan nolako metodologia jarraitu

⁶⁰ Eleizalde, Luis de: Etapas del nacionalismo. “Euzkadi”, 1921eko abenduaren 4a.

⁶¹ Sabino Aranak, 1899an, euskal herriaren birsorkuntza aipatu zuen, euskaldun guztien hezkuntza eta batasunaren bitartez: “(...) Bil gaitezen guztiok bandera beraren pean, sor ditzagun elkarre euskotar hutsak, idatz ditzagun egunkari euskotarrak ere, sor ditzagun antzoki euskotarrak, eskola euskotarrak, baita ongintzako erakunde euskotarrak ere. Gure begiek ikus dezaten guztia, gure belarriek entzun dezatena, gure ahoak hitz egin dezana, gure eskuek idatz dezatena, gure adimenek pentsa dezatena eta gure bihotzek senti dezatena euskotarra izan dadila” (“Regeneración”, in “Obras completas”, 1.673 orr.).

⁶² Landetak 1923an adierazten zuen zeintzuk ziren nazionalismoak erabili beharreko bitartekoak euskal kontzientzia berreraikitzeke: “(...) Euskal kontzientzia berreraiki behar badugu, hizkuntza, hots, gure nortasunaren ezaugarria berrezarri behar da; eskolaren bitartez noranahi zabaldu behar da gure egiazko historia eta munduan dugun egoera; birberdetu egin behar dira iraganeko oroitzapenak, oraingoekin adostasunean jarri; (...) gazteria tolerantziaren printzipioetan hezi behar da elkarbizitza izatea nahi badugu; elkarre sortu behar dira, nazionalisten esanetara ez egon arren euskotarrak izango direnak, arazo sozialak eta eusko gobernuak aztertu eta eztabaidatuko dituztenak, zeinetan kokatu eta garatuko baitira euskotar hutsak diren arteak, zientziak, letrak, nekazaritza, arrantza, industria, merkataritza eta nabigazioa” (“Los errores del nacionalismo vasco y sus remedios”. Bilbo, 1923, 26 orr.).

⁶³ Eleizalde, Luis de: Cuatro conferencias. Editorial Vasca. Bilbao, 1919, 173 orr.

behar zen azaldu zuen. Lehen zentzuan, eta bere iritziz deseuskalduntzea goitik behera etorri zenez, herrialdeko klase nagusietatik, erremedioak ere bide beretik etorri behar zuen, eredu txarraren ondoren ona etor zedin:

“Euskararen berrezarpen sozialean, dena espero izan behar da goi-klase eta klerotik (...) Gaur egungo klase zuzendari eta eragileak, fortunak eta kultura intelektualak mugatzen dituzte, naziotze hutsak berak adina edo areago: horietan ageri da noski lanbide liberaletako gizonen elitea. Klase horiek euskara berrezartzearen adibidea eman behar dute, ziur egonik herriak fidelki jarraituko duela goitik emandako etsenplu ona”⁶⁴.

Berrezarpen soziala lortu eta euskara kultura-maila guztietarako tresna bihurtzeko, beharrezkoa zen hizkuntza oso mintzaira literarioa bihur zedin, eman nahi zitzaion eduki zientifikorako gaitua.

Kultur berpizkunderako tradizio literarioak ezak ekarritako eragozpen handia aipatu ondoren, honako hiru bateratze hauen aldeko agertu zen euskara irakurriagoa izan zedin: bateratze ortografikoa, fonetikoa eta dialektala. Zalantzarik gabe, azken hori zen zailena, nahiz eta “bateratze hori, bateratze fonetikoa bezala, ez den erabilpen arrunterako nahi, erabilpen literarioerako soilik, eta batez ere idatzirako”⁶⁵.

Eleizalderen arabera, agerpen artistikoek, musikak bereziki, euskal naziotasuna definitzen laguntzen zuten, hizkuntzak alor linguistikoan baino indar apurren bat gutxiagorekin. Horregatik, oso gartsuki hartu zuen euskal musika-itzarkundea, laupabost konpositore garaikideen inguruan gertatu zena, zeinen ahaleginek euskal musika herritarrean lortu nahi baitzuten E. Grieg-ek arte norvegiarraren alde egindakoa. Gai horri buruz argitaratu zituen artikuluetan, “Arte patrio” o “De música nacional” epigrafepean, behin eta berriz aipatu zuen euskal musika herritarra, musika nazionalizat hartua, oso goitik zegoela kantitatez eta kalitatez, alor horretan europar nazionalitate gehienek aurkez zezaketaren aldean.

A. Donostiaren “Euskal Preludioak” eta “Eresiak” koadernoak agertu zirenean, ez zuen zalantzarik izan konpositore horri “gure Grieg nazionala”⁶⁶ deitzeko. Gorespenezko hitzak izan zituen “Juventud Vasca de Bilbao”ren alde ere, 1914an, koaderno bat argitaratu baitzuen 23 euskal kantarekin, Guridik eta Udaltitzek harmonizatuz.

Gai horiei buruz zuen pentsamenduaz aparte, Eleizalde musikari nabaria izan zen, eta gazte-gaztetatik Chopinen piano-musikaren zalea; Eleizaldek berak gogoratzen duenez, Madridlgo estudiante euskaldunak arte nazionalistak erakarriak sentitzen ziren, eta beraiek izan ziren “Euzko Abendaren Ereserkia” lehenik kantatu zutenak:

“(...)”Euzko-Abendaren Ereserkia”koak Alaiza, Juan Egileor, Alberto Zarraoa eta beste banaka batzuk gehiago izan ginen, eta horien artean zegoen seguraski Txomin Zarakondegi: garai hartan Cruz kalean, mailegariaren eta torero-jostunen ingurunean zegoen Euskal Etxe batean gertatu zen hori.

⁶⁴ Eleizalde, Luis de: Metodología para la restauración del euzkera, Eusko Ikaskuntzaren I. Kongresua, 431 orr.

⁶⁵ Ibidem, 436 orr.

⁶⁶ “Aita Jose Antonio Donostiakoren pianorako obra argitaratu berriak bultzada handi bat dira aberriaren arterako, berpizkunderaren bide osasungarri horretatik. Konpositore bikain hau euskal herri-kantan bakarrik inspiratzen da; baina badaki bere gaiak arte modernoaren eskakizun eskisitoenak betez gauzatzen (...) Ez dago zalantzarik Aita Donostiak luzaro aztertu dituela Schumann, Txaikovski, Grieg...etab. konpositore modernoen prozedurak, eta hori beti berme bat da...” (Eleizalde, Luis de: De música nacional. “Euzkadil”, 1914ko ekainaren 7a).

Gu guztiok, euskaldunak azken finean, oso musikazaleak ginen, ez "karramarro" eta "kazerolena", baizik eta bestearena, Rhin hegikoarena. Ez genuen Kontzertu Elkartearen saiorik galtzen, ezta wagneriar antzezenik ere, ezta orduan Madrildik pasatzen ziren pianojole handi eta ugarien errezitalik ere. Urte haietan Rosenthal, Paderewski, Bauer Casalsekin, Planté, Teresa Carreño eta Joaquín Malats, gazterik hildako artista kataluniarra, entzun genituen.

Orkestra handiko musikan Beethovenek sutan jartzen gintuen, gupidarik gabe estutzen zigun arima, eskularru bat bezala alderantzikatuz. Bere obertura paregabeaz gainera, debotzio ia erlijiozkoz entzuten genituen sinfonia guztiak, inoiz entzuteko aukerarik izan ez genuen IV.a salbu. Guztiok bat gentozen Pastoral gutxiestean, nahiz hala ere hain txalotua izan, eta VIII.aren lehen bi denborei super-Mendelssohn bat, baina infra-Beethoven bat irizten genien. Aldiz, hodeietaraino igotzen ginen VIII.aren beraren finalarekin, VII. osoarekin eta gainerako denbora ia gehienekin⁶⁷.

II. LEHEN HEZKUNTZAREN ARAZOAK ETA BERRIZTATZE-AHALEGINAK

1. ANLAFABETISMOAREN ZENBAIT FAKTORE

Eskolaren arazoen inguruko gizarte-sentiberatasuna haziz joan zen XX. mendearen lehen herenean zehar, eta baserri-giroko hezkuntza-errealitatearen zuzeneko behaketaren ondorioz, lehenik, analisi objektiboak helduko ziren, eta gero soluzio praktikoak.

1920an oraindik, analfabetismo-tasak oso altuak ziren, nola Bizkaian hala gainerako euskal probintzietan: urte horretako zentsuaren arabera, alfabetatugabeen portzentaia Bizkaian % 40,79koa zen, Araban % 32,37koa, Gipuzkoan % 40,68koa eta Nafarroan % 43, 41ekoa.

Espainiako alfabetatugabeen kopuruak, Euskal Herriko batezbestekoa baino zerbait altuagoa zenak, honako kopuruak eskaintzen ditu 1900etik 1930era:

	1900	1910	1929	1930
Gizonezkoak	45,7	41,4	34,5	24,8
Emakumezkoak	66,0	59,1	50,6	39,4
Guztira	56,2	50,6	43,2	32,4 ⁶⁸

Datu hauen eta beste batzuen aurrean, autore garaikideek analfabetismoaren garapenaren eta banaketaren arteko aldeak azpimarratzen zituzten, baldintza geografikoek nahiz subjektuen baldintza pertsonalek sortuak, batez ere sexuak. Argi zegoen analfabetismoaren intentsitatea handiagoa zela emakumezkoen artean gizonezkoenean baino, nahiz eta haiei zegozkien kopuruak askozaz bizkorrago jaisten ari ziren gizonezkoen artean baino.

Ez dago baserri-giroko alfabetatugabeen estatistika-datu orokorrik, nahiz eta oso altuak izan ziren ustea egon. Jakingarri bitxi gisa, Mendatako Albiz bezalako guneeetako kasu konkretuak ezagunak dira, non auzo-ikastola sortu baino lehen egoera guztiz tamalgarria zegoela jakin ahal izan baitzuen Luis Eleizalde:

⁶⁷ Eleizalde, Luis de: Nuestros veinte años. "Hermes", 1917ko ekaina, 6. zk.

⁶⁸ Pérez S., Mariano: La enseñanza en la Segunda República. EDICUSA. Madril, 1977, 26 orr.

“(...) biztanle guztietatik (265 guztira), gaizki irakurtzen eta idazten zekitenak sei gizonetako ziren, eta emakume guztiak, berriz, alfabetatugabeak ziren”⁶⁹.

Ustea zen analfabetismoa hainbat faktoreren ondorio logikoa zela, hala nola: eskola-gabezia, irakasleen prestakuntza txarra, bizimodu ekonomiko eta sozialaren nekazaritza-izaera, eta abarrena⁷⁰; Euskal Herriaren kasuan, egoera hori larriturik ageri zen geografia-aren nahiz hizkuntzaren arazoarengatik, Eusko Ikaskuntzaren lehen Kongresuetan egiaztatzen zenez. Milaka haurrek egunero kilometro bat baino gehiago egin behar izaten zuten beren eskoletara iristeko, eta horrek guztiak asistentzia oso irregularra izatea zekarren. Bigarren, euskararen arazoak eta maisu-maistra ofizial gehienek hura ez jakiteak distantzia geografikoak adina analfabeto sortzen zituen, garaiko pentsalari eta idazleek ustetan. Landetak idazten zuenez, lehen hezkuntzako eskola sortzea demokraziaren konkista bat izan zen, eta beraren bitartez herria kulturarekiko harremanetan jarri zen; hala eta guztiz ere, “Bizkaian eta Euskal Herriko alderdi askotan, non haurrek euskaraz bakarrik hitz egiten zuten, konkista horren fruituak ez ziren iritsi, eta ez dira oraindik ere umotzera iritsi, eta ondorioz, herriak ez ditu oraindik dastatu”⁷¹.

2. IRAKASKUNTZA OFIZIALAREN EGOERA: MAISU-MAISTRAK

Ondoren, eta era eskematikoan, lehen hezkuntzak zituen arazo nagusiak jorratuko ditugu, berritze-ahaleginak gerora zein aspektu pedagogikotara bideratuko diren nolabait ere aurreratzeko asmoarekin.

Lehenik, zentralizazio pedagogikoaren eta hiri-eskola eta baserrikoaren arteko uniformitatearen auziak daude. Bi arazo horiek ideologia kontserbatzailea bere horretan mantentzeko eta politikariek eskolaren eguneroko errealitateaz duten axolagabekeriari egozten zaizkio; ikas-egitarau eta orientabideek ez zituzten erregio desberdinetako desberdintasun kultural, geografiko eta linguistikoak kontuan hartzen, ezta hiri-bizitza eta baserri-bizitzari loturiko gizarte-taldearen premiak ere aintzakotzat hartzen⁷².

Adituek sarritan aipatzen dituzte eskola-antolakuntza eskasaren arazoak eta metodo pedagogiko eta didaktiko desfatuak. Leonzio Urabaienek eta Eduardo Landetak, besteak beste, xeheki aztertu zituzten eskolaren barne-baldintzak, zenbait alderdi azpimarratuz, hala

⁶⁹ Una barriada vizcaína y su escuela (Albiz de Mendata). Edición de la Junta de Instrucción Pública de la Diputación de Bizkaia. Bilbo, 8 orr.

⁷⁰ Lorenzo Luzuriagak, espainiar alfabetismoa esplikatzen zuten faktoreak eman zituen zerrenda batean: herriaren miseria, arrazaren izaera, bizitza ekonomiko eta sozialaren izaera baserriar eta nekazaritzakoa, irakasleen prestakuntza eta ordainketa txarra; nahiz eta ulertzen zuten fenomeno horiek guztiek arazoa osatzen zutela, beraren arabera “bada bat orokorragoa eta erabakigarriagoa, eta hori eskola-gabezia da”. Azpimarratu egiten zuten analfabeto portzentaiaren, eskola bakoitzeko dagoen biztanle kopuruaren eta biztanle bakoitzeko gastuen artean dagoen erlazio estua. (El analfabetismo en España. Madrid, 1919, 75 orr.)

⁷¹ Landeta: E.: Estado actual de la escuela en el País Vasco. -Los remedios inmediatos. -Organización de la escuela vasca de conformidad con las condiciones locales. Eusko Ikaskuntzen I. Kongresua, 88 orr.

⁷² María de Maeztuk oso egoki laburbiltzen zituen gabezia eta akats horiek: “Horiek izan dira espainiar Estatuak egindako hutsegite larriak: legeria uniforme, batere originaltasunik gabea, erregio bakoitzak dituen ezaugarri bereziak batere kontuan hartzen ez dituen; gure politikariek lehen irakaskuntzako arazoekiko agertutako arinkeria; baserri-eskola erabat zabartzea. Nola harritu eraentza horrek irakaskuntza eskasa, eskola duineza, irakasle dohakabea, barrutik hautsia, solidaritate emankorretarako baretasun eta energiarik gabea ondorioztat eman izanaz? (Lehen Irakaskuntza. Eusko Ikaskuntzen II. Kongresua, 1920, 40 orr.)

nola maisu-maistren lanaren erdizpurdizkeria, irakaskuntza berbalista eta liburuzkoa, eskola-ekipamenduaren eta erabilitako materialen pobretasuna. Antolakuntzari zegokionez, Urabaiek zera adierazten zuten:

“geldi dago duela urte asko. 1857rako kalkulatu zirenak baino 122 eskola gutxiago ditugula esanez gero, dena esanda dago. 1908ko eskola-estatistikaren arabera, Euskal Herrian ezarritako eskola publiko bakoitzari, batez beste 85na ikasle eta irakasle zegozkion. Eta guztiok ongi dakigu irakasle bati ezinezko zaiola behar bezala lan egitea 45 edo 50 haur baino gehiago bere kontura eduki behar dituenean (...) Datu horiek 1908koak dira, baina egoera, Estatuaren egintzari dagokionez, ia ez da aldatu. Beraz, behar bezalako eskolarik ez izateaz gainera, behar ditugunak ere ez dauzkagu”⁷³.

Azkenik, ez dira ahaztu behar aurrekontu-eskasia eta horren ondorio negatiboak, batez ere eskola berriak sortzeari dagokionez eta irakasleriaren kontsiderazio ekonomiko eta sozialaz denaz bezainbatean⁷⁴.

Eskola-estatistika onik ez izateagatik, hogeigarren hamarkadan artean ez zegoen daturik eskola-kopuru zehatzaz, ikastetxe publikoetan eskolaturiko ikasleen kopuruaz eta bertaratze eta erregio nahiz urtaroen araberako fluktuazioen batez bestekoez. Horregatik, 1908ko datuetara jotzen zen. Urte horretan, Espainiak, gutxi gora-behera biztanleko 1,60 pta gastatu zituen lehen hezkuntzan; bien bitartean, Holanda eta Suitza bezalako europar herrialdeetan, 12 eta 21 pezeta gastatu ziren, hurrenez hurren.

Ikastetxe kopuru ahalik eta handiena jasotzeko premia larriarekin batera, bazegoen irakasleen egoera ekonomikoa hobetzeko kezka ere, erabiltzen zena baino soldata-eskala ekitatiboago baten bidez. 1901ean lehen irakaskuntzaren horniketa Estatuaren eskuetara aldatu ondoren, gutxienezko soldata 500 pta.ra igo zen; soldata hori 1.000 pta.n finkatu zen 1910ean, eta 1.500 pta.n zortzi urte geroago.

Azken urteetan egindako aurrerapen nabariak gora-behera, 17.866 maisu-maistra inguruk, hau da guztiaren % 63k, 2.000 pta. baino gutxiago irabazten zuten 1919an; egoera ekonomikoz kezkarri horrek, une hartako inguruabar ez-normalek larriagoturik, kezka-egoera larria sortzen zuten maisu-maistren artean, eta zenbaitetan, irakaskuntzaren graduazioa, eskola-egitarauak eta abar bezalako arazo garrantzitsuetan murgiltzea eragozten zuten.

Euskal Herriko eskola-erakineki dagokienez, 1908ko zentsuaren arabera 1.685 bat zeuden; eskola horietatik 1.033 bat har zitezkeen ontzat, 450 erregularizat eta 202 txartzat. Bizkaiari zegokionez, irakasteko helburuarekin eraikitakoak %65 ziren; eta Bilboren kasuan, baziren zenbait eraikin eta instituzio, Espainiako beste edozeinekin alderatuta higieenez eta pedagogiaz goragokotzat kontsidera zitezkeenak.

Hala ere, Bilboko eskola-erakin suntuosoekiko kontraste nabarian, Bizkaiko herri txiki askotan M^a de Maeztuk “baserri-eskolaren abandonua” deitzen zuena ageri zen. Herri horietako eskolei bisita egin ondoren, Maeztuk honako hau idatzi ahal izan zuen:

⁷³ Urabayen, Leoncio de: La enseñanza en los pequeños municipios vascos, “Asamblea de Administración Municipal Vasca”. Donostia, 1919, 285 orr.

⁷⁴ Ikusi Jordi Monés-en obra: El pensament escolar y la renovació pedagógica a Catalunya (1833-1938). Ediciones de La Magrana. Bartzelona, 1977, 160-162 orr.

“Nik euskal probintzietan Bilboko eskolak bakarrik ezagutzen nituen, eta horietako batzuk eraijin suntuosotan (suntuosok Espainiako gainerakoekin alderatuz gero) kokaturik zeuden eta Udalak material bikainez hornitu zituen. Cossio jaunak, 1905ean, hiri horretako Eskola-Erakusketan emandako hitzaldian, material “paregabea” deitu zion. Baina ez da probintzia guztia egoera berean aurkitzen. Bizkaiak, barruan eta kanpoan hain go-raipatua den oparotasuna gorabehera, abandonurik handienez eduki du bere erregioaren parte handi bat, hain zuzen ere ibarrean itxirik eta munduarekiko eta aberastasun-ahalbideekiko harreman murriztagoan dagoelako kuttunagoa izan beharko lukeena”⁷⁵.

2.1. Maisu-maistrak izendatzeko ahalmenaren erreklamazioa

Irakaskuntzaren arazoa, alderdi guztietan aski konplexua eta zaila izateaz gainera, Bizkaian larriagotua aurkitzen zen herrialdeak hizkuntza propioa zeukalako. Esan ohi zenez “guri ez zaizkigu aski eskolak eta maisuak. Guk behar dugu maisu horiek gaiturik egotea esku-betean hizkuntza propioan barreiatzeko” irakaskuntzaren onurak, horrela herriarentzat obra eraginkor bat eginez⁷⁶.

Alderdi jeltzaleak etengabe lan egin zuen irakasleei euskararen ezagutza ezinbesteko baldintzatat eskatu ahal izan ziezaieten, eta nahi horrek, udalek maisuak izendatu ahal izan zitzatela eskatzea ekarri zuen ondorio gisa. Funtsean, harik eta Moyano legeak (1857) instrukzio publikoaren behin betiko nibelazioa ezarri zuen arte, historikoki euskal udalek izandako ahalmen pribatibo eta forala berreskuratzea baizik ez zen.

Gurari nazionalistek gero eta aldeko gehiago bereganatu zituzten, eta 1906an, hezkuntza-gaia Aldundiek arreata handienarekin kudeatu beharreko gaien artean egon zedila eskatzen zen, Gobernuarekin Kontzertu Ekonomiko berriaren hitzarmena egitean. Azpimarratzen zen nolako garrantzi material eta moral handia zeukan “maisuk hemengoak, euskaldunak izateak, eta hemengo hizkuntzan, euskaraz hitz egiteak, horixe baita antzinakoa bezain eder den hizkuntza honen desagertzea geldiarazteko modu bakarra”; eta ondoren gehitzen zen “egunen batean iritsiko da maisuak Estatuak batere esku hartu gabe izendatuko diren eguna”⁷⁷.

Hizkuntzaz landa, irakas-autonomia erreklamatzeko eragin zuen beste auzietako bat irakaskuntza aurkitzen zen abandonu-egoera zen, maisuen etengabeko hutsegite eta interinitateengatik.

Sarritan esaten zenez, euskal herriari ez zitzaion hezkuntzarik ematen eta herri txikietan bizi zenari oraindik gutxiago, zeren

“Maisu gehienek ez dute horretarako zaletasunik, eta gainera, ez dute horretarako behar adinako prestakuntzarik. Gaitza areagotu egiten da eskolak hornitzeko garaian dagoen irregulartasunarekin. Euskal Herriak maisu gutxi ematen du, eta gure eskoletan oso nekez dago irakasle euskaldunik. Eta baserri-bizitza, dagoeneko ikusi dugunez, latza eta atsegin gutxiakoa denez, eskola bakoitza igarobide bat baizik ez da maisu bakoitzarentzat. Baldintza horietan erabat alferrik da lehen aipatzen genuen hobekuntza-lan horretan pentsatzea. Eskolak porrot egingo du zaletasun eta egonkortasunik gabeko maisuek gidatzen duten bitartean”⁷⁸.

⁷⁵ Maeztu, María de: Opus cit., 39 orr.

⁷⁶ Landeta, E.: Opus cit., 884 orr.

⁷⁷ Ikusi “Sobre lo mismo” idatzia. “Euskalduna”, 1906ko abuztuaren 18a, 456. zkia.

⁷⁸ Urabayen, Leoncio de: Opus cit., 283 orr.

Bertako korporazioak sarritan kexatu ziren egoera horretaz, eta euskal aldundiek gestioak egitea erabaki zuten lau euskal probintzietako udal eta kontzejuek maisu-maistrak libreki izendatzeko ahalmena izan zezatela Gobernuari eskatzeko. Unibertsitate-barruti propioa sortzea ere eskatzen zen, herrialdeko bertako maisu-maistrak prestatzeko alde aurretiko abiapuntu gisa⁷⁹. Iruñeko Konferentzian gertatu zen hori (1899ko ekainaren 20an eta 21ean); lau aldundiek “Instantzia” bat igorri zuten Madrila, baina ez zuen erantzunik izan, diputatuek Gor-teetara bidalitako gutunetatik ondorioztuzenez.

1912 aldera, Bizkaiko Udalen Asanbladak irakas-autonomiaren auzia planteatzen du berriro, maisu-maistrak udalek -eta ez Estatuak- izenda eta bereiz ditzatela eskatuz. Gaiak euskal instituzioen interesa sortarazi zuen, baina aurrekoetan bezala euskal gizartearen iritzi-desberdintasuna ere sortu zuen. Nazionalistek eta udal-autonomiaren aldekoek aurrez argitu nahi izan zuten ez zela ezer anarkikoa eta arraroa eskatzen, zeren eta praktika aski orokortua baitzen European irakaskuntza emankortasun-maila gorenean jarria zeukaten nazioetan, Alemanian eta Ingalaterran esaterako.

Lau probintzietako komisiok Madrila abiatu ziren “udalek maisu-maistrak izendatzeko eskubidea berreskura zezatela” kudeatzera, baina “ikusirik gestioak alferrik zirela, eta ez zegoen saileko Ministroak eta ez Canalejasek ere ez zutela ezer konpontzen, Bilbora itzultzea erabaki zuten”⁸⁰. Bitartean, Nafarroak, —negoiazio honetan aparte jokatu baitzuen—, gestioekin jarraitu zuen, eta 1914ko apirilaren 8ko E.D.-z maisu-maistren proposamen unipersonala formulatzeko ahalmena lortu zuen. Nafarroari egindako kontzesio horrek harrera ona izan zuen prentsa nazionalistan⁸¹, eta euskal instituzio publikoei Nafarroak erakutsi zuen energia, irauten eta irmotasun beraz jokatzeo eskatzen zitzaien.

Landeta izan zen udal-izaerako eskola baten aldeko kanpaina horretan gehien nabarmendu zena, eta irakaskuntza Estatuarena dela dioen ideia balio gabetzen zuten arrazoiak atera zituen; Estatu irakaslearen porrota azpimarratzea atsegin izaten zuen, eta baieztapen hori Costa, Maura, Cambó, Silió eta abarregandik hartutako aipuez sendotzen zuen, baita liburuez eta ateneoetan eta parlamentuan emandako hitzaldiez ere. Behin eta berriz defendatu zuen “La Tarde”ren orrialdeetatik, eta beti europar ereduaren arabera, “Estatuari dagokio maisuaren baldintza gutxienezkoak zaindu, gainbegiratu eta markatzea, eta behar denean udala ordezkatzeko, baina behar denean soilik”⁸².

⁷⁹ Joaquín Paviak, 1899ko Iruñeko Konferentzian Gipuzkoako ordezkari zenak, bertan bildutakoei ikusarazi zien garai hartako eskolak hornitzeko prozedurak “eragozpen larriak zekartzala irakasleen izendapena udalerriek egiten ez zutenetik, instrukzio erlijiosoari, asiduitate eta kargu hain garrantzitsua betetzeari eta herrialdeko ohitura onak gordezteari zegokienez portaera batere egokia ez zutenei postuak emanez, Maisu gehienak euskal herritik kanpokoak zirelako eta ez zutelako ezagutzen euskara, Gipuzkoako haur gehienek, batez ere biztanle gutxiko herrietan, hitz egiten duten hizkuntza bakarra”. Gainerako komisionatuak bat zetozen gipuzkoar ordezkariak azaldutako arrazoiakekin. (Gipuzkoako Aldundi Txit Gorenak horren laguntza eskatzen du, probintzia hauetako herrietako eskoletarako lehiaketak, 1857ko legeak xedatzen zuenaren arabera, bere hiriburuetako bakoitzean egin daitezela kudeatu eta Gobernutik lortzeko. Karp. 1030, esp.26)

⁸⁰ Arrien, Gregorio: Educación y escuelas de barriada de Bizkaia. (Escuela y autonomía, 1898-1936). Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbo, 1987, 64 orr.

⁸¹ “Euzkadi” aldizkariak (1914ko martxo-apirilekoak), Eleizalde zuzendua, ez zuen erabat asebetegarritzat jotzen Nafarroak lortutako ahalmena, zeren “ulertzen baitugu Nafarroak ez dituela proposatu behar, baizik izendatu bere maisu-maistrak, horretarako bere eskubidea eskatuz eta indarreango legeetan erabat ezarri arte amore eman gabe”; hala ere, eta Euskadiren gainerakoan dagoen egoerarekin alderatuta, xedapen hori garaitzapean bat zela jotzen zuen.

⁸² Arrien, Gregorio: Opus cit. 107 orr.

Eleizaldek eskola-autonomiaren eztabaidan ere esku hartu zuen eta hori lortzea baldintza "sine qua non"tzat zeukan lehen irakaskuntzaren antolakuntza erreal eta eraginkorrerako. 1919ko abuztuaren txosten luze eta dokumentatua idatzi zuen "La enseñanza primaria en Bizkaia" izenburuarekin, eta bertan azaldu zuen nolako arazoa sortzen zuten maisu-maistren interinidade eta ordezkapenek, indarreko legerian kontsagratuak zeuden egiazko anomaliak baitziren eta irakaskuntzan atzerapen eta efikaziarik eza nabaria sortarazten baitzuten, sarri askotan horiei eusteko herriek egiten zituzten ahaleginak antzu bihurtuz. Bizkaiko Aldundiak kontuan har zitzan, datuok aurkeztu zituen:

"Lau urteko epean, 1913ko irailaren 1etik 1917ko abuztuaren 31ra, Bizkaian honakoa izan dugu:

Eskola 1 irakaslerik gabe	8 eta 9 hilabete bitartean
2 eskola irakaslerik gabe	7 eta 8 hilabete bitartean
Eskola 1 irakaslerik gabe	6 eta 7 hilabete bitartean
2 eskola irakaslerik gabe	5 eta 6 hilabete bitartean
3 eskola irakaslerik gabe	4 eta 5 hilabete bitartean
8 eskola irakaslerik gabe	3 eta 4 hilabete bitartean
31 eskola irakaslerik gabe	2 eta 3 hilabete bitartean
71 eskola irakaslerik gabe	hilabete 1 eta 2 artean
69 eskola irakaslerik gabe	hilabete 1 baino gutxiago

Hau da, lau urteko epean, irakasle-gabeziarengatik irakasle gabe eta itxita epe luze samar batean ehun eta laurogeita zortzi eskola nazional izan dira Bizkaian.

Eta ez zen dena horrekin bukatzen. Izan da eskolarik zenbait hilabetez irakasle gabe egon ondoren, urtebeteko interinidadeak jasan dituen. Gaitzerdi interinidadea maisu bakarrari zegokionean, kasu horretan nabarmen urritzen baitziren izaera horren eskasiak, bazegoelako halako jarraipen bat irakaslearen lanean"⁸³.

Baldin eta eskola nazional itxi edo irakaslegabeena (%46 epe luze samar batean) bitxia bada, ez da gutxiago ordezkapenei dagokiena.

Nahiz eta zerbitzuak ez eman edo eskas eman, udalek garaiz ordaintzen zuten hitzarturiko soldata; hori zela-eta, Eleizaldek gogoratzen zuen zer kostatzen zitzaion Bizkaiari eskolak sustengatzea, Landetak behin eta berriz jorraturiko gai bat azpimarratuz. Estatuak, 1918 alde-ra, 268.000 pta. jartzen zituen bitartean, Bizkaiko udalek epealdi berean guztira egindako gastuak 729.661,20 pta. ziren urtean; zenbateko horri udal-irakaskuntzaren sustenguan gas-tatutakoa ere gehitu behar zaio (567.806,68 pta.), eta beraz, irakaskuntza publikoan 1.300.000 pta. inbertitzen ziren guztira.

Hona hemen Bizkaiko udalek inbertitzen zituzten kopuruak, gai desberdinak eta horien xehetasuna adieraziz:

⁸³ Ikusi idatzi hau: "La enseñanza primaria en Bizkaia". "Euzkadi", 1920ko martxoaren 19a eta azaroaren 6a.

1901eko udal aurrekontuetan esleitutakoa Estatuari itzultzea . . .	431.363,36 pta.
Borondatezko sariztapenak	28.500,00 pta.
Borondatezko ordainketak	75.500,00 pta.
Etxe-gelaren alokairuarengatik	108.500,00 pta.
Borondatezko gehikuntzengatik	33.500,00 pta.
Gastu orokorregatik (ura, berokuntza, garbikuntza, ikuskaritza, eta abar, Bilbon soilik)	29.500,00 pta.
1. irakaskuntzako administrazio-saila	12.300,00 pta.
Eskolen ikuskaritza	4.247,84 pta.
Pixkanakako gehikuntzak	6.250,00 pta.
Udal-irakaskuntza Bilbon.	342.806,68 pta.
Udal-irakaskuntza Bizkaiaren gainerakoan, gutxi gorabehera	225.000,00 pta.
GUZTIRA	1.297.467,88 pta.

Maisu-maistrak izendatzearen auzia Eusko Ikaskuntzan ere planteatu zen, eta bere Kongresuetan arazo horri buruzko aipamen ugari ageri da. Esate baterako, Oñatiko Kongresuan (1918), irakaskuntzaren kanpo-antolaketari buruzko ondorioetako batean euskal Aldundieiei gogorarazten zaie era zabal eta guztizkoan lot zekizkiola lehen irakaskuntzaren gaiari.

“eta horretarako, lehenik, arretaz eta gastuei kontu egin gabe, ahalegindu behar du-te instrukzio hori —bere antolakuntza administratibo eta teknikoari dagokionez— erabat herrialdearen esku egon dadila, Estatuaren inolako eskuhartzerik gabe”⁸⁴.

Talde nazionalista Aldundiaren buru egon zen bitartean, autonomi gestio orokorrek in batera-tsu, Nafarroari maisu nazionalak izendatzeko emandako eraentza Bizkaiarentzat ere lortzen saia-tu ziren; beren gestioen emaitza negatiboak ikusirik, Madrila bidalitako komisionatuetako batek zioenez, Estatuari eskatu zioten

“hartutako eginbeharrak bete ditzala. Bizkaiko Diputatuok laburrak gara hitzetan baina luzeak geure eginbeharra betetzeko egintzetan. Guk Ministeriora hurbiltzean arrazoia eman diezagula eskatu diogu. Ez ditugu hitzak bakarrik nahi, egintzak baizik; eta eskubidez dago-kiguna gutxitu nahi badigute, esan diezagutela argiro herrialdeak jakin dezan. Instrukzio Pu-blikoko Ministro Jaun Txit Gorenarengana hurbiltzean, gogoratu diogu zeintzuk izan ziren Al-ba jaunak hitzartu eta Bergamin jaunak berretsitako konpromisoak beste erregio bati eman-dakoa Baskongadetako Probintziei ere emateari zegokionez, eta gaineratuz, komenio bat bete zedila besterik ez genuela eskatzen. Instrukzio publikoarekin zerikusia duen guztia arreta bereziz begiratzen dugunok, maisu-maistren proposamen unipersonalerako eskubi-dea udalei aitortzea besterik ez dugu eskatzen”⁸⁵.

Azkenean, protesta, erreklamazio eta negoziaketa horiek ez zuten nahi izandako emaitza eskaini; porrotaren zergatiak zeintzuk ziren aztertzen hasi gabe, jakinaraziko dugu Bizkaiko gizartea eta prentsaren parte bat hezkuntzaren udal-tesien aurka zeudela⁸⁶, eta halaber age-rikoa zen maisu-maistra nazionalak zioten kontrakarra ere.

⁸⁴ Ikusi Ondorioak, Eusko Ikaskuntzen I. Kongresua, 940 orr.

⁸⁵ Bizkaiko Aldundiaren bilera, 1917ko abenduaren 5ekoa (E.H.A.A., 1918-XI-11) 1088 orr., 253 zk.

⁸⁶ “La Gaceta del Norte” egunkariak instrukzio publikoaren dezentralizazioa defendatu zuen bitartean Estatu irakaslearen porrota seinalatuz -1912 eta 1914 bitartean argitara emandako zenbait artikuluren bitartez-, Bilboko “El Liberal”ek zorrotzasun handiarekin aztertu zituen “Bizkaiko Udalerrien Asanblada” (1912) aipatuaren ondorioak, zeinak Gobernuari maisuak izendatu eta bereizteko ahalmena eskatzea erabaki baitzuen; egunkari horren arabera, erreklamazio hori lortuz gero, eragin negatiboak izango zituen bai zuzendaritza separatistan eta bai eskolaren prozesuan ere, hori

2.2. Bi adibide desberdin: Maisua “Blancos y Negros”en eta maisua “Landibar”en

Ondoren herriko maisuaren jarduera aipatuko dugu Arturo Kanpionen “Blancos y Negros” (1896) eta Luis Eleizalderen “Landibar” (1918) eleberrietan agertzen den moduan, errealitate beraren bi koadro eta bi aspektu desberdin aurkezteko asmoz, besterik gabe. Bi obra horietan maisuari buruzko ikuspegi negatibo bat azaltzen zen, baina horietako lehenean deuseuskalduntze eta inmoralitaterako tresna bezala zuen egitekoa gehiago azpimarratzen zen eta “Landibar”en, berriz, laizismo, pedanteria eta antinazionalismoaren figura adierazgarri bezala ageri da areago.

Beste aspektu batzuetan, ez dago zalantzarik aurki litekeela antzekotasun literarioren bat aipaturiko eleberrietan, nahiz bata eta bestearen artean denboraldi luze samarra igarota egon. Bietan ageri da grina politiko argi bat, agintzeko gogoa dutenen ohitura eta etsaitasunen deskribapenaren bidez agerian jarria. Kanpionek Nafarroako politika tradizionala defendatzen du, Mariogan nortua, eta Eleizaldek argi eta garbi ikusarazten du bere ohiko pentsamoldea: “Landibar” eleberriko protagonista Miguel Gaztanbide nazionalista da, bere lanbidebizitzan eta politikan garaile gertatzen den ingeniari gaztea.

“Blancos y Negros”en, maisuak (Bernardinok) egundoko jipoia ematen dion haur baten (Martinico) historia negargarria kontatzen da, egokitu zaion eta euskaraz hitz egiteagatik kenterik izan ez duen eskolako eratzuna dela-eta. Azkueren Sasi-Eskola lanean ere agertzen da eskola-eratzunaren gaia, baina obra horren amaieran hurrek eraztun beldurgarria errekarra jaurtitzea erabakitzen dute eta, ikasleek gaztelaniaz hitz egiten al duten kontrolatzeko maisuak erabiltzen duen tresna nagusia desagertu egiten da. Kanpionen eleberraren kasuan, berriz, Martinico gizagajoaren heriotza dugu, eskolan jasotako zigor ankerraren ondorioz.

Blancos y negros lanaren egileak Bernardino maisua pertsona gaixo, umore txarreko eta arranditsu gisa deskribatzen du; gogorra azpikoekin, eta zurruna nagusiekin, bere baitan biltzen zuen, aldi berean, “dominearen erdi-ezjakintasuna” eta “obra erdipurdiko eta heterogeneoen irakurle zalapartatsuen erdi-zientzia”. Bere nortasunaren beste ezaugarri batzuen artean “erregionalismoari jakobino-gorrotoa zion”, eta higuina zion euskarari “agian gogora ekarri gaztelania lardaskatzen hasi zenean bereganatu zituen isekak, zeina gaur, bere eskola-maisuaren irizpidez, munduko hizkuntza ozen, maiestatetsu, aberats eta perfektutzat baitzeukan”. Euskararekiko gaitzespena “ernegatuaren, parrizidaren suminaren bidez hartitzen zen”⁸⁷.

Urgaingo udal-maisu kargua lortu ondoren, non soldata ziztrinaren truk ozta-ozta bizi baitzen, bere lanbidean murgildu zen, karreran izandako etsipenek, familiako ezbeharrek eta gorputzeko gaitzek ozpindu zioten izaera gozakaitz samar eta sentiberatasun gutxiko bihotz batez. “Bere menpeko mitikoengan, akatsa besterik ez zuen ikusten. Eta haiek eta bera elkarren tormentu ziren”⁸⁸.

menperaturik geratzen zelarik “hiritarren ordezkariak eta klase-bereizkuntza nahi dituztenen amarruetara, gerra zibila predikatuz, maila guztietan kulturarekiko gure erlazibideak izan behar duten metodo pedagogikoei ateak trabatuz” (Todo inútil, in “El Liberal”, 1912-1-12).

Prentsa nazionalistak, gurari autonomista horiek begikotasun eta atxikimenduz hartu zituelarik, beti ikusmuga zabalagoetara begiratzen zuen bere ideologiarekiko harmonian. Bizkaitarrak, Bizkai-Buru-Batzararen organoak, gogorazten zuen “herrialde honetan antzinatik arestira arte, udalerriek lehen irakaskuntzako maisu-maistren izendapenak egiten zituztela. Oraindik badira maisu-maistra horietako batzuk” (M.: Enseñanza, “Bizkaitarra”, 1912-4-6, 171. zk.).

⁸⁷ Campián, Arturo: Blancos y Negros. Berrargitarapena. Donostia, 1934, 208 orr.

⁸⁸ Ibidem, 209. orr.

Bernardinok ikasleei esan zien aurrerantzean astean bitan eskatuko zuela eraztuna, eta ez egun jakinetan, lehenago bezala. Bere iritiz, lotsagarria zen herrian gertatzen zena: Inork ez zuen gaztelaniaz egiten eta haur bakar bat ere ez zen gai “dozenerdi bat hitz bata bestea- ren ondoren ahoskatzeko, trakeskeriarik esan gabe. Gero ikuskari jauna etorri eta errieta egi- ten du”.

Eraztuna Martinicoren eskuetan zegoen. Martinico, eskrofulak, rakitismoak eta miseriak hiru bider zaurituriko haur eragabe bat zen; nahiz eta begibistako ahulezia izan, maisuak begiratu makurra egin zion, “eraztunari betiko atxikirik” zegoela esaten zion bitartean, eta eskolara ez ze- la letrazaletasunarengatik etortzen, baizik eta udalak ematen zuen jaki-anoarengatik:

“Gaztelania zer den eta gringoa zer den ikas dezaan, odolaren zirkulazioa bizkorra- raziko diat. Hire espartuzko mihia eta hire hizkuntza parez pare zabiltzak. Esana, esan; atera eskuak eta bildu hatzak”.

Gogoz kontra obeditu zion Martinicok, eta maisuak kolpe lehorrak emateari ekin zion koadradilozko erregelaz. Garrasi egiten zuen mutikoak eta eskuak atzeratzen zituen; or- duan maisuak tirakada gogorak ematen zizkion belarrietatik eta iletik, helduleku horieta- tik tiraka airean jasoz. Odola zerien atzazalei, eta inondik ere ez zen izan eskuak berririo sakeletatik aterarazteko modurik.

(...) Negar eta garrasiek sumindurik, don Bernardino ankertuz joan zen eta kolpeak hisia basatiz ugaldtu zituen (...) Dohakabeak ez zuen jadanik negarrik egiten, intziri egiten zuen: haren keXu konbultsiozkoek dardar eragiten zioten enbor eragabetuari...”⁸⁹.

“Landibar”eko maisuari zegokionez —Glicerio Pedrajales izenez—, haren jardura esko- laz kanpo gertatzen zen, kalean eta gizarte- eta kultur bileretan. Izatez, haren eskuhartzeak oso laburrak eta barreiatuak dira Eleizalderen narratiban zehar.

Pedrajales, jaiotzez Palentziakoa eta apaizgai izana gaztetan, heterodoxoa zen “semina- rioko beste transfuga” asko bezala. Eskuarki, “jauntxozale zuhurren taldeari” lotzen zitzaion, non Don Lesmes eta beste pertsonaia tipiko batzuk baitzeuden; haien interes handiena Alder- di Jeltzaleari kontra egitea zen eta “minbizi bizkaitarra” deitua herritarren artean eragozte- a, horretarako “gainera datorkigun basatikeria oskurantista eta atzerakoia- ren oldarra arbuaitzen zuten gizon aurrerakoi guztien” batasunaz baliatuz. Hori Lesmesek esan zuen bilera batean, eta gehitu zuen, zorionez, “egitekoa erraza dela, ongi eramaten baldin badakigu. Bali- ozko eta eragimenezko elementu guztiak gurekin daude, baita kleroa bera ere, eta horrek badu bere pipermina...”⁹⁰. Politikaren baliabide gorenak César Aldagan “Sociedad Vasco-Escocesa de Vidriería”ko gerentearen eskuetan bildurik zeuden, zeinak kontratatu baitzituen Miguel Gaz- tanbideren zerbitzuak.

Nazionalistak, beren aldetik, herriko plazan kokaturik zegoen Patxiren kafetegian biltzen ziren, ondorengo ohiko partaideen tertulia eratuz: Indalecio Legorburu, arkitektoa eta Udal batzarreko burua; Eugenio Azkue, medikua eta herriko batzoki-burua; Teodoro Zumeldi, abo- katua; Miguel Gaztanbide eta beste gazte adiskide batzuk. “Landibar-Iztaurre” barrutian na- zionalistek elementu garrantzitsuak zituzten langileen artean, inguru- etako baserri- tar jabeen artean eta “Iztaurre” auzategi jendetsuko arrantzaleen artean.

⁸⁹ Ibidem, 211-213 orr.

⁹⁰ Eleizalde, Luis de: Landibar: Cuadros novelescos del País Vasco. Gasteiz, 1918, 106 orr.

Arratsalde batean, lehen irakaskuntzako maisua —Eleizaldek bere lanean “pedagogus duin”, “alegia katolikoen aurrean” menperagaitz, “pitagoriko” eta abar izendatzen duena — “disertazio izpiritista bat” (sic) eginez zetorren bidetik, adiskide-talde baten aurrean, ahots oso goran, halako moldez, non “nabarmen molestatu nahi zituen gazte nazionalistek argi eta garbi entzuteko moduan”. Bitxi samarra da hitzaldiaren edukia:

“Egiazaturik dago loaldian perizpirituak arakaketa bat egiten duela plano astralean, eta bertan batzuetan gauza ezkutuak eta etorkizunekoak jakiten direla. Eta hori ezin hobeki erakusten du haren obretan Flammarion jaunak, eta hankaz gora botatzen ditu profeziei buruzko alegia katoliko guztiak”⁹¹.

Haurrak igandero meza nagusira eta bezperetara eramaten bazituzten, Udalarekin ez esaitzeko zen, “artean atzerakoia” baitzen.

Hurrengo aukera batean, Madrildo “El Imparcial” egunkariko korrespontsal bezala ari dela agertzen zaigu Pedrajales; egunkari horretan, “Petronio” izengoitipean, udaleko baserri-azategi bateko biztanleen eta txango bat egiten ari diren pertsona batzuen artean gertatutako gorabeherez zenbait berri ematen digu. Premiazko telegrama batean, “Petronio”k gertakarien interpretazio berezi bat egiten du, eta hain zuzen ere, gertatuaz zeharo alderantzizkoa kontatzen du. Hitzez hitz dio “igorroteek, klero trabukaireak fanatizaturik eta bizkaitarrek xaxaturik, eraso egin zietela, inolako aitzakiarik gabe, makilaka, harrika eta tiroka, txangolari bake-tsuei...”; eta amaitzeko dio hiriko eta Espainiako iritzi liberal osoa alarmaturik dagoela ikusirik gehiegikeria bizkaitarrak zeinen sarri gertatzen diren eta gero eta lotsagabekeria handiagoz gainera, eta “garratz kritikatzan du gobernua, bere bigunkeria onartezinek ausarkeria separatistei indar ematen dielako”⁹².

Nazionalistek, Patxiren kafetegian bildurik aipaturiko telegrama hori “El Imparcial”en irakurri zutenean, iruzkin bat baino gehiago egin zuten horren edukiaz eta horren egileaz, “Petronio”ren amets fantastiko bezain barregarriak tonu zirtolariz nabarmenduz:

“Gizon ezjakin hutsa -erantzun zion medikuak- Petronio, eta ez beste edozein izengoiti bezala, baizik eta Cayo Petronio berpiztua bezala, gure tokiko yabaneriaren emaitza perfektuena bezala haragiztatu da Pedrajales pedagogo. Berak neuri esana da, beraren arabera, Landibarko zientzi gizon bakarra naizela —eta horrek gutxi lausengatzen nau—. Pedrajales, pedagogo izateaz gainera, erabat pitagorikoa da. Bere kredoak, sinpletasun liluragarrikoa izanik, pitagorismo eztabaidaезinezko bi artikulua bakarrik ditu: mentespikosia eta biderkatzeko taula. Emakume medium txit goren batek —“mahatmas” bategen berak dioenez; niretzat, sorgin higuinarraren batek — agertu du bere egiazko nortasuna, eta hori Petronio dibinoa baino ez da, mila zortziehun eta abar urte geroago Glicerio Pedrajales palentziar eta eskola-maisuaren azalezko material xumean haragiztatua. Ez dizuet esango agerpen izpiritista horretatik, Pedrajales gizajoa ez dela erotu, ezinezkoa baita; baina seguraski lehen baino leloago dago. Ikusi nuen azken aldiaren esan zidan gogoratzen hasita zegoela, aurreko bizitzako bere gertakari goren gisara, Satyricon idazten eman zituen gauak (...) Hori guztia hileta-doluko seriotasunarekin: berak buruz daki Satyricon, ongi baitaki latina. Apaizgai izana da”⁹³.

⁹¹ Ibidem, 150 orr.

⁹² Ibidem, 274 orr.

⁹³ Ibidem, 275-276 orr.

3. EUSKARA ETA ESKOLA: IKASTETXE PRIBATUAK

Eleizaldeek arretaz aztertu zuen oinarrizko hezkuntzaren egoera, batez ere herri euskaldunetan, herrialdeko ama-hizkuntzaren beharrezko birbalioztapena proposatzeko aldez aurreko pauso legez.

Herrietako hezkuntza-errealitateari buruz zeukan informazioa ona izaten zen eskuarki, eta gainera, gehitu egin zen 1919az geroztik, data horretan jaso baitziren Bizkaiko Aldundiaren Instrukzio Publikoko Batzordean probintzia horretako udalek bidalitako estatistika-datuak, irakaskuntzaren egoerari buruzko galdetegi bati erantzunez; horien erantzunetan bat etortze handia zegoen eskolen abiaduran eragin negatiboa zuten kausei buruz⁹⁴.

Oraindik ez zegoen hizkuntzari buruzko zentsurik, eta horregatik ez zegoen zehatz jakite-rik zenbat ziren gaztelaniaz hitz egiten zutenak, elebidunak eta euskaldunak. Guztiarekin ere, Hego Euskal Herrian, 1918 aldera, gutxi gora-behera milioi bat biztanle zeudela kalkulatu zuten guztira, eta horietatik, 400.000 bat euskaldunak zirela; azken horietatik, 80.000 batek ez zekitela gaztelania, eta gainerakoak elebidunak zirela. Beraz, zifra erlatiboen arabera, elebidunak % 32 ziren, eta euskaldun elebakarrak % 8a.

Baldintza horietan, eta batez ere horregatik, irakaskuntzarako tresna soiltzat gaztelania hartzeak, Estatuak ezartzen zuen moduan, erabateko porrota ekarri behar zuen derrigor.

Arazo horren sustraia, Eleizalderen iritziz, antolakuntza ofizialaren izpirituan zegoen "hemen bete-betean euskalduntasunaren aurkakoa baita, eta gauzak gertatzeko moduari erreparaturik, badirudi legegilearen nahia, haurren izpirituan norbere naziotasunarekiko atxikimendu oro hilaraztea dela"; halaber esaten zuen eskola nazional izenekoak "gutxi gorabehera "Estatuak Euskal Herrian ezarritako inposturarik txarrena"⁹⁵ zirela.

Bere garaiko beste teorialari batzuek bezala, haurrak beren ama-hizkuntzaz bestelako hizkuntza batean eskolatzea pedagogikoki egintza kontraeragilea zela uste zuen, haurren mentalitatearen atrofia eragiten zuelako. Uste zuen egoera horren eraginpean 10.000 bat haur zeudela Bizkaitik bertatik irten gabe.

Herri txikietara egindako bisitetan, Eleizaldeek ikusi ahal izan zuen eskoletan maisuek eta ikasleek ez zutela elkarren berri, eta nahiz eta urteetan elkarren bizikide izan, ez zirela sekula komunikazioan jarri:

⁹⁴ 1920ko martxoaren 19ko "Euzkadi"n laburbilduma bat argitaratu zen Eleizaldeek "La enseñanza primaria en Bizkaia" izenburuaz egin zuen txostenean oinarrituta; laburbilduma horrek, Bizkaiko udalerriek beren eskolen egoerari buruz emandako erantzunak jasotzen zituen: "Abadiñok euskarazko irakaskuntza eskatzen du; Arantzazuk eta Arrazolak diote irakaskuntza txarra dela hizkuntzarenatik; Axpe-Martzanak dio euskaraz dakien maistra bat behar dela; Bermeok eskatzen du maisuak Udalerriak izendatutakoak izatea eta euskara jakin dezatela eskatzea; Berriatu irakaskuntza txarraz kezkatzen da; Arteagak dio eskola-zentsua osatzen duten 84 haurretatik, 39 bakarrik joaten direla eskolara eta hutsegitea neurri handi batean hizkuntzarenatik dela; Zeanurik dio irakaskuntza eskasa dela batez ere hizkuntzarenatik; Deriok eta Dimak diote eufemistikoki irakaskuntza erregularra dela, hitz hori zentzu peioratiboan ulertzekoa delarik; Eak dio irakaskuntza erregularra dela hizkuntzarenatik; Elorrio, Ereño eta Gamizek diote irakaskuntza eskasa dela irakasleek hizkuntza ez dakitelako; Gorozikak dio irakaskuntza erregularra dela, euskarazko irakaskuntzarako materiala falta delarik; Xemeinen irakaskuntza erregularra edo eskasagoa da; Laukizek eta Leketiok ziurtatzen dute irakaskuntza eskas samarra dela hizkuntzarenatik; Lezamak irakasle euskaldunak eskatzen ditu; Markinan irakaskuntza txarra da eta maisu onak behar dituzte; Mendatak dio irakaskuntza txarra dela, irakasleak berak esandakoaren arabera, haurrekin ulertzeko biderik ez duelako eta bi hizkuntzak ulertu eta hitz egingo dituzten maisu-maistrak eskatzen ditu; Otxandio kexu da irakasleek ez dutelako hizkuntza ezagutzen; Igorrek dio irakaskuntza erregularra dela hizkuntzarenatik. Eta oraindik euskaldun gehienen erantzunak falta dira".

⁹⁵ Eleizalde, Luis de: La lucha por el idioma propio (Conferencias). 1919. Bilbo, 194-195 orr.

“(…) Ikus itzazue, eskola nazionala deituriko bateko aulkietan eserita, herrialde euskaldunean, neska-mutiko erdi-lelotu eta beldurtien aurpegiak: ez dute esaten zaiena ulertzen, gaztelaniazko hitzak ez du inolako ideiarik horien zerebroetan iratzartzen; zirkulnik egin gabe beren aulkietan, ez dute ezer ikasten, ez dute ahoa irekitzen”⁹⁶.

Halaber, ikasteko nahiz irakasteko egiten ziren ahaleginak zeinen alferrak ziren aipatzen zen. Zeren, nola transmiti zekizkiokeen ikasleari edozein eratako ideia edo ezagutzak, horretarako zentzurik hartzen ez zien hitz edo esaldiak erabiltzen bazituen? Ondorioz, eskolara sartzean euskara besterik ez zekien haurra, ezinbestekoena ere jakin gabe irteten zen bertatik sarritan, eta txarrena da denbora galdu izanaren sentsazio bazterrezinarekin izaten zela. Haurrak eskola uztean zekien bakarra otoitzak eta dotrina ziren, ahotik ahora eta euskaraz ikasi zituelako etxean eta elizan.

Kultur prestakuntza egoki baten gabeziaren ondorioak herrien gizarte-bizitzan nabarmenduko dira gero, izan ere horiek “ezin baitira sartu beste herri batzuekin biziraupenaren merkataritzan, beste herri horiek egiten duten bezainbateko zabalera eta bizitasunaz”; Landetako gehitzen zuenez, gazte asko bere bizitza guztian nekazari izatera edo emigratzera behartzen zituen ezjakintasunak: “Badira zenbait herri Bizkaian, zeinetan pertsonen %90a egoera horretan aurkitzen baita, eta bi elizate ezagutu ditugu proportzio hori oraindik handiagoa dutenak”⁹⁷.

Ikastetxe libreak eta erlijiosoak ez ziren eskola nazionalak baino hobeak euskarazko irakaskuntzari zegokionez; Eleizalderen iritziak, akats berak egiten zituzten, antzeko okerrak egiten zituzten, premia errealekiko ulertezintasun bera zuten, horiek asetzeko ezintasun bera:

“Alderdi guztietan herriaren hezkuntza eta bere prestakuntza intelektual eta morala arreta bereziz zaintzen duen Eliza horrek, hemen Euskal Herrian, badirudi ez diola arazo horri heldu nahi. Ez dugu ikusi oraindik Euzkadin izaera herritarreko instituzio erlijiosorik, Irlandako Christian Brothers bezalakorik; aldiz, ez da ikastetxe erlijiosorik falta —eta batez ere mojenak— euskararen hiltegi pedagogikoen artean batere inbidiagarriak ez diren lehenetsuneko postuak irabazi dituztenak”⁹⁸.

Ikastetxe pribatuetan euskarak bizi duen egoera, Eleizalderen idatzietan sarri samar agertzen da, eta gehienetan, Belgika, Irlanda, Polonia, eta abar bezalakoetan gertatzen zena-erikiko erlazioan agertzen da; izan ere, herrialde horietako ikastetxe katolikoak eta kleroa, izpiritua nazionalera egokituak, ama-hizkuntza lantzearen bultzatzaile sutsu bihurtu baitziren beren ikastetxe eta elizetan. Horrekiko kontrastean, Euskal Herriko apaiz eta mojek zuzenduriko ikastetxeak haur eta gazteen ia erabateko deseuskalduntzea burutzen ari ziren. Ikastetxe horietan

“alde batera uzten da gure hizkuntza; ez, ez da uzten, jazarri egiten da, egitarauetatik, eskolatik, jolasetatik baztertzen delako, ezartzen diren zigorreatatik, egozten zaion inkultura eta tonu txarreatatik, baliabide guztiak erabiliz espainola eta frantsesa sartzeko ahaleginak egiten diren bitartean, zuzpertzeko erlijiosoa ekarriko duten iturri bakar gisa”⁹⁹.

⁹⁶ Ibidem, 197 orr.

⁹⁷ Landeta, E.: Opus cit., 886 orr.

⁹⁸ Eleizalde, Luis de: La lucha por el idioma propio. 1919, 198-199 orr.

⁹⁹ Ikusi Jel-Alderaren idatzia: Aberriko izkeraz ikastoletan III. “Gipuzkoarra”, 1911ko otsailaren 6a.

Euskara ikastetxeetan sartzearen aldeko kanpainan, beste idazle nazionalista batzuek ere esku hartu zuten, baita kultur instituzio eta prentsak ere, nahiz eta ez dakigun oso garbi zer emaitza lortu zituzten. Zehatz esateko, "Euskal-Esnalea" eta "Euskaltzale-Bazkuna" elkar-teen Zuzendaritza Batzordeek gutun bat igorri zieten Euskal Herriko zuzendari-ri, ikasketen egitarau ofiziala aldatzeko asmorik gabe, euskal musika eta jolasak lantzen saia zitezela eskatuz, eta "ez dakizkitenei euskararen hasi-masiak eman dakizkiela, eta hasi-masi horiek menperatzen dituzten ikasleei ezagutza hobetzeko aukera eman dakiela"¹⁰⁰.

4. ERROTIKO ERABERRIKUNTZEN ALDE

Eleizalde sarrixotan aipatu zuen aurrez aurre eta berandutu gabe ekin behar zitzaiola lehen instrukzioaren arazoari. Beharrezko zen —1918an esaten zuenez— eskola-zentroak kaltegarriak izatetik baliagarri izatera igarotzea, kontrako izatetik aldeko izatera, "instituzio horiek herrialdearen premia bizietara egokitzen ahaleginduko diren errotiko eraberrikuntzen bitartez"¹⁰¹.

Baldin eta iraganean euskaldunek oso interes gutxi erakutsi bazuten bere herriaren instrukzio eta hezkuntzarekiko —ia erabateko zabarkeria hori, utzikeria errudun hori da gure historiako mantxarrik handienetako bat— XX. mendeko euskaldunak beharturik zeuden akats hori ahalik eta era bizkorrean konpontzera.

Kosta ahala kosta lortu beharra zegoen euskara lehen eskoletan sartzea, nahiz horretarako "herri euskaldunak bere hizkuntza propioan eskolatua izateko duen eskubidearen aitortpena aginte publikoetatik eskuratu beharra izan". Eleizalde hilbizikotzat daukan puntu honetan, ordura arte baino irmotasun eta interes handiagoarekin jokatu beharra zegoen, beren eskolaren defentsan kemen garaituzinez jokatu zuten poloniarren eredura, horrela errusiarrekiko beren desberdintasun linguistikoei eutsiz.

Bultzatu nahi zuen berrikuntza-mugimendua ez zen mugatzen, jakina, eskubide baztuen aitortpena lortzera; euskarazko eskola ezartzearen aldeko bide neketsuan beharrezkoa zen bitartekoak eta baliabideak izatea, hala nola ikasliburuak, liburuak eta ikasbideak, baita ongi prestaturiko irakasleak ere; baina artean bitarteko hain oinarriko horiek falta zirenez gero, dei ozena egin zien klase intelektualei eta idazle gazteei "eskoletarako testuak prestatzearen lan zail, ilun eta larrian" murgil zitezen. Bere konbikzioa helaraziz, honako hitz hauek zuzendu zizkien:

"Jakizue gure birjaiotza osoaren oinarriko giltza lehen eskola dela: jakizue ezinbestekoa dela lehen eskola irabaztea, zeren horrekin dena irabazten baitugu, eta hori gabe alfer-erak izango dira gure ahalegin guztiak. Gaur egun eskola irabazteko lana testuak prestatzean datza, metodoak egokitzean, maisuak prestatzean. Gaur egun askoz garrantzi handiagoa du silabario bat egiteak poema heroiko bat egiteak baino. Gaur gaurkoz askozaz gehiago interesatzen zaigu Aritmetikako oinarri-testu on bat metafisikari buruzkoa baino. Gaur gaurkoz, gauzen tratatu bat arreta handiagoarekin prestatu behar dugu, euskaraz, haurrentzat, Entziklopedia baten argitalpena baino. Zeren oinarriko liburu horiek guztiak —silabategia, Aritmetika, gauzen tratatua— premia larri, oso larrikoak baitira; eta beste liburu goren horiek —poema, Metafisika, Entziklopedia— ez dira hainbeste"¹⁰².

¹⁰⁰ Euskal-Esnalea eta Euskaltzale-Bazkunaren Zuzendaritza Batzordeen Gutuna. "Euzkadi", 1917ko otsailaren 6a.

¹⁰¹ Eleizalde, Luis de: La lucha por el idioma propio. 1919, 199 orr.

¹⁰² Ibidem, 208 orr.

4.1. Euskal Eskola Berria

Landetak “La Tarde”n “Euskal eskolari buruz” izenburuarekin (1921) idatzi zuen artikulu luze eta bikainak oso harrera ona izan zuen. Euskaltzaindiak, lana bere balioan estimatuz, tirada ugaria egin eta Herrialde osoan zehar banatu zuen.

Jakina denez, artikulu hori Eleizalderen ekimenez idatzi zen, “Euzkadi”ren orrialdeetatik jo baitzuen bere adiskidearengana, euskal eskolari buruzko bere iritzia ager zezala eskatuz. Idatzia irakurri ondoren, eta bere nahia ase ondoren, Eleizaldek argi adierazi zuen zein bi puntutan zeuden erabateko adostasunean Landeta eta biak —gai horri buruz baretasun eta patxadaz pentsa zezaten guztiekin—:

“Lehenik: Herri batentzat hil edo biziko arazo bakarra, zeinahi dela ere; herrialdearen etorkizuna erabat zintzilik dauzkaten auzi guztiak laburbiltzen dituen instrukzio publikoarena da, eta zehatzago esateko, lehen instrukzioarena.

Bigarren: herrialde baten herri-instrukzioaren bitartekoa, eroalea, “modus docendi et discendi”a, ezin liteke izan herrialde horren hizkuntza propioa baizik. Horrek, jakina, ez du baztertzen beste hizkuntza bat ikastea, baldin eta beharrezkotzat edo besterik gabe komenigarritzat jotzen bada”¹⁰³.

Landetak eta Eleizaldek ez zuten elkarrenganako begikotasuna ezkututzen, eta bazuten amankomunean, besteak beste, antzeko hezkuntza-gaiekiko kezka eta dedikazio luzea. 1918az geroztik biak ari ziren lanean Eusko Ikaskuntza Elkarteko instituzioetan, eta bertatik ahalegindu ziren hizkuntzaren hezkuntza-betekizuna eta hezkuntza-eredu berri baten taxue-ra aztertzen eta formulatzen, oinarritzeko lehen eskola baten plan edo egitasmoa euskal gizarteari horrela eskainiz.

Oñatiko Kongresuan nabarmen birbalioztatu zen hizkuntza, Euskal Eskola Berriaren ezinbesteko osagai gisa irakaskuntzan sartu zenean. B.M. Erregeak inaugurazio-ekitaldian izan zuen partehartzea, ez zen hizkuntzaren birbalioztapen horretatik kanpo gelditu, biltzarkideengan zirrara atsegina sortarazi zuten hitz haiek esan baitzituen: “Lant ezazue -esan zuen- zuen hizkuntza beneragarria eta aspaldidanikoa, zuen gurasoengandik jaso duzuen gizateriaren altxorreko harribitxi preziatua eta zeuen seme-alabei kaltegabe helarazi behar diezuen”¹⁰⁴.

Lehen Irakaskuntza Sailaren ondorioetan irakur daitekeenez, horren ponenteek eskola-erlebitasunaren formulazioa egitea lortu zuten bi eredu desberdin bereiztearen bitartez, bata herrialdearen euskalgunerako eta bestea erdalgunerako. Formula hori gero Gernikako Kongresura (1922) igaro zen, eta funtsezkoan berretsirik geldituko zen, aspektu berriez aberasturik. Hizkuntzarekin batera Euskal Herriko geografia eta historiaren irakaskuntza ere kontuan hartzen ez zuen lehen eskolarik ezin zitekeen kontzebi.

Eskola Berria izenekoa eta beronek eskola-instituzioaren barne-berrikuntzaren arloan zuten inplikazioak aztertzeraz ere hedatu ziren Landetaren kezka teorikoak. Eskola Berria esamoldeak, hezkuntza tradizionalarekiko erreakzio gisara sortua, zentzu zabalagoa lortu zuen, mundu-gerra bukatu eta gero, “begibistan jarri ziren ordura arte aztertu gabeko faktore historiko-kultural garrantzitsuak, eta horiekin, hezkuntza-kontzepzioetan kontuan izan beharreko gizar-te eta politika-bizitzako baldintzak”¹⁰⁵.

¹⁰³ “Axe”: El problema vital. “Euzkadi”, 1921eko abenduaren 18a.

¹⁰⁴ “Axe”: El problema vital. “Euzkadi”, 1921eko abenduaren 18a.

¹⁰⁵ Ikusi Errege Hitzaldiaren testu osoa, Eusko Ikaskuntzen I. Kongresua, 884 orr.

Eskola Berriko ideal handiek kontraste egiten zuten, sarritan, errealtate mingots batekin, errealtate hori oso urrun zegoelako hainbeste aldarrikatutako horretara hurbiltzetik; Landetak esango zukeenez, pedagogia modernoaz, interesguneak sortzeaz, ingurunera moldatzeaz eta abarrez hitz egin arren, hezkuntza-obra aski funtsik gabea eta bizitzatik aldentua zen. Euskal Ikaskuntzako Kongresuan emandako hitzaldian, irakaskuntzak Herriaren errealtatera benetan nola moldatu behar zuen azaldu zuen, eskolaren izaera bereziki praktikoa azpimarratuz. "Haurra -dio- liburuaren mehertasun eta antzutasunetik atera egin behar da, bizitzarekin harremanetan jartzeko", eta lan hori ikasketaren bidez lortutako ezagutzaren berehalako aplikazio konkretuarekin osatu; baina, guztiaren gainetik, eta horren guztiaren tokirik sakonenean haragiturik, kontuan eduki beharra zegoen "haur bakoitzaren ekimena eta egintza propioa, bere natura asetzearen aurrean arima banako bakoitzak duen zinezko garapena"¹⁰⁶. Berrikuntzazko ildo honetan kokatu behar da haurraren hezkuntza osatzeko familia eta eskolaren arteko beharrezko lankidetzeta, hainbestetan azpimarratu izana; uste du guraso eta maisu-maistren arteko bilerak, beste nazio batzuetan hain normalak izan arren, hemen ez zirela existitzen, maisu-maistrak eskolaz kanpoko beste edozein eskuhartzeren aurka zeudelako, eta gurasoek axolagabekeria agertzen zutelako hezkuntzarekiko.

Eskola-elebitasunaren historiara itzulirik, Gernikako Kongresuan zenbait esperientzia elebidun bildu ziren, Britainia Handia eta Belgikako herrialdeetako ordezkariak aurkeztuak, batez ere.

Gernikan antolaturiko azterketetan, irakaskuntzako ponentzietan buruz eta horiek zirela medio, Bizkaiko Auzo-Eskoletako haurrek beren euskararen ezagutzaren benetako erakusketa bat egin zuten biltzarkideen aurrean, bai irakurketan eta idazketan eta bai geografia eta aritmetikako eza-gutzei dagokienez ere: "Entzuleak liluraturik gelditu ziren ikusirik nolako segurtasunez irakurtzen, idazten eta erantzuten zieten galderei euskaraz instrukzioa hartu zuten neska-mutikoei"¹⁰⁷.

Eleizalde, Batzar Nagusietan eta Eusko Ikaskuntzako Elkartearen Batzorde Iraunkorreen 1922ko irailaren 9an eta 16an izan zen azkeneko aldiz, baina ezin izan zuen esku hartu, dagoeneko ezagunak diren arrazoiengatik, urte bereko abenduko 21eko Batzorde Iraunkorreen, non Landetak egindako "Proyecto de Escuela Primaria Elemental" interesgarria aurkeztu baitzen; Egitasmo horrek ikastetxe-mota zehatz bat definitzen zuen, eta bide batez, autorearen eta Elkartearen beraren pentsamenduaren laburpena jasotzen zuen nolabait ere.

Hizkuntzaren erabilpenari eskainiriko partean, oinarritzko lehen eskolan elebitasuna ezartzeko araudi labur bat ezartzen zen:

- “1. art. Euskal Herriko eskolako eta irakaskuntzako urte guztietako hizkuntza euskara izango da, ikasle gehienen ama-hizkuntza euskara denean.
2. art. Bigarren hizkuntzaren irakaskuntza, hau da, gaztelaniarena, ez da eskola-zikloaren maila ertaina baino lehen ematen hasiko.
3. art. Euskal Herriko eskolako eta irakaskuntzako urte guztietako hizkuntza gaztelania izango da, ikasle gehienen ama-hizkuntza gaztelania denean.

¹⁰⁶ Ollero, M^a Isidora eta Rodríguez, A.: La filosofía educativa de la Escuela Nueva y la política educativa de la II República a través de la Revista de Pedagogía (1922-1936), "Lorenzo Luzuriaga y la política educativa de su tiempo". Ciudad Realgo Aldundia-Kultura Saila. 1986, 226 orr.

¹⁰⁷ Eusko Ikaskuntzen III. Kongresua, 12 orr.

4. art. Bigarren hizkuntzaren irakaskuntza, hau da, euskararena, ez da eskola-zikloaren maila ertaina baino lehen ematen hasiko.”¹⁰⁸

4.2. Euskal eskolen sorrera

Euskarazko lehen irakaskuntza ezartzeko baimena noiz emango zain asperturik, eskola propioen sare zabal bat sortzea proposatu zuen Eleizaldek 1918an, nahiz eta zenbait sakrifizio partikular aurreikusgarri egin behar izango ziren; Oñatiko Kongresuaren markoan egin zuen proposamen hori:

“Euskal Herriko lehen instrukzioaren korapilo hori, beharrezkoa da askatzea edo ebakitzea, Gordioren bezala. Ez dut uste askatzea lortuko dugunik, hau da, Estatuarengandik, bere lilurazko abstrakzioak alde batera utziz eta noiz edo noiz errealtate biziei helduz, bere hezkuntza-sistema aldatu eta euskarazko lehen irakaskuntza Euskal Herrian ezar dezala lortuko dugunik. Hori logikoa, arrazoizkoa eta bidezkoa izango litzateke; baina, horrexegatik, ez dirudi oso gertakorra denik. Ondorioz, gaur eguneko egoeran egin litekeen gauza bakarra korapiloa ebakitzea litzateke, hau da, guk geuk elkarte baten bitartez txekiarren “Matitse Skolska” moduko zerbait antolatzea: euskarazko eskolak. Ikusten dudana bide bakarra da, gaur gaurkoz, bide neketsua, zaila, sakrifizioz bete; baina hala eta guzti ere, bide ibilgarri bakarra”¹⁰⁹.

Ez zen Eleizaldek euskal eskolak sortzea aipatzen zuen lehen aldia; adibidez, “Escuelas vascas” (1914) izenburuko artikuluan adierazten zuen une hartako bi obra premiazkoenak prentsa eta eskolak zirela, zeren eta horiek gabe ezinezkoa baitzen birjaiotze nazionaleko ezein ahalegin. Horregatik, gonbidatu egiten zituen abertzaleak “hileroko kuota txiki bat ematera euskal eskoletara zuzendua”, beren etsenpluak jarraitzaileak izango zituela ziur, eta horrela etorkizuneko aberri-kulturaren oinarriak sortuko zirela¹¹⁰.

Eleizalderen aipaturiko artikulua bere adiskide Dunixiri egindako erantzun bat zen, izan ere horrek galdetzen baitzion ez ote zen heldu altxor sakratu gisako bat sortzeko ordua euskal eskolak sortzeari begira, “irlandar nekazarien hileroko pennyaren antzeko zerbait”.

Ez da erraza jakiten aurreko dei horiek berehalako eragin praktikoa izan ote zuten, baina susma daiteke ez zuela eragin handirik izan euskal eskolen aldeko elkarte desiratu hori sor zedin. Izatez, Eleizaldek berak aitortzen zuen “euskaldunok ez dakigula elkartzen, zailtasunak ditugula antolatzeko”, euskal herriaren indibidualismoaren erruz.

Testuinguru horretan sartzen eta hobeki ulertzen da Bilboko Plaza Berriko eskolen bilakera, 1908an sortu eta Itziarko Andre Mariaren izenpean ezagutzen direnak, hain zuzen. Dakigunaren arabera, bizimodu makal samarra izan zuten ez zutelako benetako laguntzarik jasotzen, eta hortik zailtasun ekonomikoak sortu zirelako. Patronatu Junta batek gobernaturik zeuden eta 4 ikasgela zituen diktadura iristearekin batera desagertu zirenean.

Hala ere, ez ziren hor amaitu euskal eskolak sortzeko ahaleginak; 1921aren amaieran, eta era nabarian, auzo-ikastolen inguruan sorturiko hasierako euforiak behera egin zuenean,

¹⁰⁸ Ikusi Lehen Eskola Oinarrikoaren Egitasmoa, Eusko Ikaskuntzaren Buletina. 1923, 17. zk., 19 orr.

¹⁰⁹ Eleizalde, Luis de: El problema de la enseñanza en el País Vasco. Eusko Ikaskuntzaren I. Kongresua, 871 orr.

¹¹⁰ “Axe”: Escuelas vascas. “Euzkadi”, 1914ko martxoaren 3a.

elkartez eta ekimen pribatuak hezkuntza-alorrean zuen eraginkortasun paregabeaz hitz egin zen berriro. Oraingo honetan, Eleizalderen etsipenak herrialdeko Korporazio administratiboen portaeran zuen jatorria, izan ere beren egituragatik, bere funtzionamendu-eragatik, eta batez ere, jasaten zituzten kanpo-eragin eta izaera politikozkoengatik, "behar zen eskola-instituzioa-ri kooperazio prekario, aldizkako eta urruneko" bat bakarrik eman ziezaioketen¹¹¹.

Eta herri-instrukzioa planteatu behar zen moduan antolatzeko instituzio publikoekin kon-
tatzerik ez zegoenez gero, euskaldun abertzaleak beste behin gonbidatzen zituen arazoaren konponbideak eskatzen zituen sakrifizioak onartzera; gehitu zuen legeak nahikoa tarte uzten zuela egin nahi zen on guztirako, eta lan neurgabe bat egiteko aukera zegoela eta emaitzak benetan kalkulaezinak izango zirela¹¹².

1933 aldera, Landeta ere ordura arte hartutako norabidea aldatzearen aldeko agertuko zen eta egintzaren martxari heltzearen aldeko, lehen irakaskuntzako eskola-eredu bat ezarritz, beste eskolentzat estimulu eta jarraibide izango zena. Oharturik zegoen alferrik zela Estatuarengandik eskoletan elebitasuna ezar zezala itxarotea, zeren eta "Estatu-gizonek, nola atzokoek hala gaurkoek, monarkikoek zein errepublikarrek, beti gor baitiraute gure eskubideen aurrean"¹¹³.

III. POLITIKA NAZIONALISTA BIZKAIKO ALDUNDIAN: HEZKUNTZAKO BERRIKUNTZAK

1. IRAKAS-AUTONOMIA

1917an hasitako kanpaina autonomikoa, Euskal Aldundiek zuzendua, toki askotan herrien itzartzea igar zitekeen garai batean gertatu zen; autonomiaren agerpenak eta erreibindikazioak maila erregionalean eta maila nazional nahiz internazionalen garatu ziren.

Ofentsiba orokor horren berotan, kontsentsu zabala sortu zen aldundien gestioen inguruan. Herrialdeko alderdi eta instituzio politikoak horien alde zeuden. Gobernu zentralari mezu bidali aurretik, udalbatzek horri buruz zituzten iritzia entzun nahi izan zituzten Aldundiek; Bizkaiko udal-ordezkariek, 1917ko abuztuaren 9ko asanbladan bildurik, aho batezko laguntza eman zieten abian zeuden planei. Zeanuri eta Balmasedako ordezkariak ez zioten abagune hari ihes egiten utzi nahi izan irakaskuntza-adar horrekiko beren kezka eta interesa erakutsi gabe, eta horrela, Aldundiari eskatu zioten gai horretan ahalmenik zabalena bereganatu zitzala; Udalek, jakina, bazuten proiekturiko erreforma administratiboa lortzeko itxaropena, hezkuntza-alorrean ahalmen berriak eskuratuko zizkiena. Sekula ez zen alde batera utzi gutxienezko erreforma irrikatu hori, nahiz eta irakaskuntzaren auzia Autonomi Estatuaren egitasmoaren barruan sartu zen, zeinean irakaskuntza betekizun erregional bat izatera pasa baitzen.

Aipaturiko mezuan, Gobernuaren arreta euskal auzirantz erakartzeko prestatuturiko dokumentu bat izaki, antzinako foruen berrezarpen osoa eskatzen zen, eta foruen berrituzte hori botere zentralak edo Gorteen desegokitzat joz gero bakarrik erreklamatzeko ahalik eta au-

¹¹¹ "Axe": El problema vital. "Euzkadi", 1921eko abenduaren 18a.

¹¹² Frederiko Belaustegigoitia, soluzio errotikoen zalea ez zenez, ez zegoen beren kontutik eskolak sortzeko egitasmoaren alde. Bere ustez, laguntza eta subentzioen politika batekin, garaiko eskola nazional asko euskara irakaste-ko prest agertuko ziren. Bere "Euskerazko Eskolak" idatzia ikus daiteke, "Lenengo Euskalegunetako Itzaldiak". 1922, 114 orr.

¹¹³ Landeta, E.: El bilingüismo en la enseñanza internacional y en Euzkadi. "Yakintza", aza-ab, 1933, 6. zk., 400 eta hh. orr.

tonomia handiena. Alor desberdinen administrazioan, ondorengo alor hauek estatuari ematen zitzaizkion: nazioarteko harremanak, ejerzitoa, zortze publikoa, muga eta aduanetako araudiak, moneta akuinatzea, pisu eta monetak finkatzea... Euskal Aldundien eskumenekoak izango ziren hezkuntza, ongintza, hidroenergia, nekazaritza, meatzaritza, industria eta merkataritza alorrak.

Gurari horiek zehatzago gauzaturik zeuden Estatuaren egitasmoan, bai Estuari erre-berbaturiko funtzioei zegokienez eta bai erregioari zegokienez ere. Azken horien artean, hezkuntza-gaietan, "irakaskuntza, oinarrizkoa, goikoa eta lanbide-instrukzioa, irakaskuntza-planak, egitarauen idazkuntza, graduak ematea, eta abar" finkatzen ziren¹¹⁴. Hau da, irakas-funtzioak beren maila guztietan.

Autonomi egitasmoaren barruan baziren zenbait aspektu gatazkatsu samar, hala nola euskara gaztelaniarekin juridikoki parekatzea, gai fiskalean euskaldunen subiranotasun mugagabea, polizia-sailaren eskumena, eta abar. Hezkuntza-alorrean bertan ere izan zen iritzi-desberdintasunik, irakas-autonomiaren defendatzaile sutsuen eta horren kontraesale garrantzitsu batzuen artean. Lehenengoen artean, adibidez, Oñatiko Eusko Ikaskuntzako Kongresuko ponenteak aurkitzen ziren, zeinen ondorioetan jasotzen baitzen "ezinbestekoa dela lehen instrukzioa Herrialdeak berak antolatua izatea, hau da, Aldundiek eta Udalek"; eta euskal Aldundiei gomendatzen zitzaizkien irakas-arazoa erabat eta osoki har zezatela, halako moldez, non lehen instrukzioa "bere antolakuntza tekniko eta administratiboan, herrialdearen esku egon zedin, estatuaren inolako eskuhartzerik gabe"¹¹⁵.

Luis Eleizaldek, zeinaren pentsamendua puntu horretan bat datorren alderdi askotan Eusko Ikaskuntzako Biltzarretan azaldukoarekin, adierazten zuen eskola-antolakuntza eskasetik sortutako arazoak irakas-autonomiaren bitartez bakarrik konponduko zirela. Berak bere gogoetak honako hiru puntuotan laburbiltzen zituen:

1. "Sine qua non" baldintza - izenpetzailearen iritzi- Bizkaian lehen instrukzioa benetan eta eraginkorki antolatzeko, eskola-autonomia erabatekoan datza, eta horren bitartez Aldundi Txit Gorenak, Udalekin batera, herrialde honen premiek eskatzen duten lehen irakaskuntzaren lana eta araubidea ezarri ahal izango du.

2. Araubide autonomiko horren truke, Aldundi Txit Gorenak osoki eta erabat ordeztuko du Estatu lehen irakaskuntzako pertsonala eta materialaren arloei dagokienez, gaur egun arlo horiek ezarrita dauden zenbateko eta eran.

3. Beharrezko irakasleak pixkanaka prestatuz joateko, Aldundi Txit Gorenak, bai berak bakarrik edo bai senide dituen eta egitasmoa interesatzen zaien beste Aldundiekin batera, Eskola Normal Aske bat sortuko du, bere helburuak betetzeko erakunde horrek behar duen ofizialtasun-maila estatuari eskatuz¹¹⁶.

Aurreko aroan bezala, maisu-maistrak izan ziren irakas-autonomiaren etsairik gogorrenak; 1917a baino lehen arlo horretako ministroari maisu-maistrak izendatzeko ahalmena

¹¹⁴ Ikusi "Bases para el establecimiento de la autonomía vasca", F. de Zabalaren liburuan: "De los fueros al Estado". Donostia, 1976, 118 orr.

¹¹⁵ Ondorio Orokorrak, Eusko Ikaskuntzen Lehen Kongresua, 940 orr.

¹¹⁶ Luis Eleizaldek "La enseñanza primaria en Bizkaia" gaiari buruz idatzitako txostena. 1919ko abuztuaren 27a (Euzkadi, 1920ko martxoaren 19a eta 1920ko azaroaren 6a).

udalei ez emateko eskatu baldin bazioten, Nafarroari egindako kontzesioa ere ezabatuz, une horretan gogor lan egin zuten Gobernuak nahi autonomikoen aurrean amore eman ez zezan, zeren lehen instrukzioa eta "horrekin zerikusia duen guztia bitzitza nazionalako osagirik garrantzizkoenetako bat baita. Eskola baldintza ezinbestekoenetako bat da nazioaren existentziarako". Maisu-maistren Elkarte Nazionalak ez zuen amore eman eta gogor lan egin zuen "eskolak bere izaera gal ez dezan eta maisu-maistra nazionalak ez gaitetzen eror, berriro, udal tranpatien sare itsuan, edota jaunskila autonomikoen atzaparretan, mila bider kaltegarriagoak izango bailirateke gaur egungo oligarkak baino"¹¹⁷. Eskola nazionalaren aldeko kanpainan, magisterioko organo ofizialen eta prentsa orokorraren bidez garatu zelarik, Kataluniaren eta euskal probintzien gurariak "maneu separarista"tzat jotzen ziren, eta horixe zen egungotasun handieneko arazoa eta gobernatzaileak eta bitzitza nazionalako sektore zabalak gehien kezkatzen zituen.

Alferrikakoak gertatu ziren irakasleen kezka eta errezeloak desagertarazteko ahaleginak, zeinak prest zeuden onartzeko "Konstituzioak onartzen duen deszentralizazio administratibo handiena; baina ez dadila utz inondik ere batasun nazionalari erasotzen, eta gutxiago irakas-kuntzari, zeinak guztien interesagatik estatuaren menpean egon behar duen eta beti eta toki guztietan espainiar hizkuntzan eman behar den"¹¹⁸.

Kanpaina autonomistak bukaera arrakastatsua izango zela iragartzen zuen, batez ere Romanones politikari liberalak, 1919an, Kataluniarako eta Euskal Herrirako autonomia estatutu bana egiteko parlamentuaz kanpoko batzorde bat sortu zuenean. Baina laster porrot egin zuten itxaropenek; egitasmoa ez zen Kongresuan eztabaidatzera iritsi, zeren une horretan, Romanonesen gobernuaren dimisioa gertatu baitzen, zeina Mauraren gobernu kontserbadore berriak ordezkatu zuen. Eskuineko alderdi kontserbadorea oso zentralista agertu zen, eta ezin izan zen autonomia zabal bat lortu, eta azken urteetan politika nazionalistak izandako helburu nagusi hori hutsean geratu zen.

Kontrako emaitza horrek, oinarri nazionalistan etsipenezko sentsazio sakon bat eragin zuen, eta "korronte erradikalei indar berria eman zien alderdiaren barruan"; ondorioz, autonomia kontzeptuaren eta ezarritako prozedura malgu eta erreformistaren¹¹⁹ aurkako iritziak izan ziren, baita garai batean alderdiaren zuzendaritzan norabide moderatu eta posibilista bultzatu zutenen aldetik ere. Azken zentzu horretan, Eleizalde, berari ere eragin baitzion etsipen orokortuzko giro horrek, azpimarratu zuen Madrilgo politikariek "arrisku autonomista" uxatu zutela, zeinaren funtsa baitzen "gaur zuloa estaltzea, hamabost egunera handiago bat irekitzearen truke". Baldintza horietan, eta ondorio negatiboak aurreikusgarriak ziren heinean, Madril en zerbait ona lortzeko ustea zeukatenen (erregionalista, autonomista eta foristen) itxaropenak xalo eta oinarrigabetzat jotzen zituen. Azkenik, eta autonomia eskubide zabalagoak lortzeko bidean igarobide bezala ulertuz, gehitzen zuen "hemen, Euskadin oso autonomista gutxi dagoela, mairu leialei autonomia izugarrikeria bat iruditzen zaie; guri, nazionalistoi, autonomia erradikalena ziztrinkeria gozo eta xalo bat iruditzen zaigu, patata jator bat. Gure abertzale-bihotzek autonomia eta forismoarekin batere zerikusirik ez duen zerbait nahi dute. Independentzia nazional santua da gure arimak erakartzen dituen ideal gorena. Gaur egungo gai-

¹¹⁷ La Autonomía y la escuela, "El Defensor de los Maestros", 1919ko urtarrilaren 11, VII. urtea, 252. zk.

¹¹⁸ El movimiento nacionalista y la autonomía. Los maestros debemos defender la integridad de la Patria, "El Magisterio Español". Instrukzio publikoko aldizkaria. Madril, 1919ko urtarrilaren 4a. LIII. urtea, 4. aroa.

¹¹⁹ Mees, L.: Opus cit., 1992, 244-245 orr.

tzentzat ikusten dugun erremedio bakarra da, baita etorkizunean mehatxuka dauzkagunen-tzat ere. Halaber, egiatzko abertzale baten gurari duin bakarra da”¹²⁰.

2. INSTRUKZIO PUBLIKOKO BATZORDEAREN SORRERA

Aldundiaren lehendakaritza-kargua hartzean, 1917ko maiatzean, Ramon Sotak, talde nazionalistaren hauteskunde-egitarauaren eta orientabide politikoen arabera, bere ekitaldia hiru sail handitan banatuko zuela agindu zuen: hezkuntza-obrak, aberastasuna gehitzea eta obra ekonomikoak. Hezkuntza-sailean, hitz eman zuen euskalduntze-ildoan eta hezkuntzaren hobekuntzan herrialdean zegoen mugimendu handia aprobetxatuko zuela, Euskal Unibertsitatea eratzeke oinarriak ere ezarri zituela eta Arte eta Ofizioetako eskoletan irakaskuntza praktikoa-goa bihurtuko zuela. Lehen eskolari dagokionez, irakaskuntza praktikatzeko moduan aldaketa sakon baten premia aipatu zuen, batez ere probintziako baserri-giroan, non haurrak “irakur-tzen eta idazten jakingabe irteten diren eskolatik (...) Beharrezko da -esan zuen- gure biztan-leriaren parte horri euskara irakastea; jakina, horretarako Estatutik erabateko askatasuna es-ukuratu beharko dugu irakaskuntza alorrean beste aldundiekin batera”¹²¹. Zalantzarik gabe, gogoan zeukan Kataluniako Mankomunitateak eskola-erreformaren alde egindakoa, zeinaren egintza lehen irakaskuntzara, irakaskuntza teknikora eta emakumearen prestakuntza profesio-nalera zuzendu baitzen bereziki.

1917ko urriaren 4an Aldundiko Kultura Batzordea eratu zen herrialdeko kultur mugimen-dua ikuspegi euskaltzaletik bultzatzeko¹²². 1917ko abenduaren 5eko Korporazio probintziala-ren akordio batez eratu zen Bizkaiko Aldundiaren Instrukzio Publikoko batzordea. 1918ko maiatzaren 21eko saioan, bere funtzionamendu eta jarduerarako eginkizun aholku-emaile eta betearazleak onartu ziren.

Instrukzio Publikoko Batzordeak, bere eginkizunei hasiera eman zienean, bulego bat era-tu zuen instrukzio publikorako xedatua, eta horrela Aldundiaren Sustapen Saitetik bereziki egin zen. Bere jardueraren araudi propio bat ere eratu zuen eta bere etorkizuneko barne-antola-kuntzaren, ahalmenen eta foruen oinarriak ezarri zituen. Izaera teknikoko batzorde bat eratu nahi zen, zeinaren kideek prestakuntza bereziki bat izango baitzuten herrialdeko irakaskuntza-ren arazoak konpontzeko; zentzu horretan, uste zen batzorde horrek ez zuela aholku-emaile

¹²⁰ Luis Eleizalderen gogoeta horiek, “Nuevo campo de batalla” izenburua dutenak, Bermeoko sendi-artxioban dauden ohar eta idatzitako argitaragabeen osagai dira.

¹²¹ Bizkaiko Aldundiaren Administrazio Artxiboa (B. A. A): 1917-V-04ko Aldundiaren Bilera (B.A.A.O.) 1917-V-23koa, 494 orr, 114 zk.

¹²² Euskal Kulturaren Batzordea honako sailetan banatu zen bere funtzionamendurako: historia, artxiobak eta li-burutegiak; hitzaldiak; hizkuntza; euskal antzerkia; euskal musika; arte plastikoak; arkeologi museoak; antropologi mu-seoa; eta Arte Ederretarako eraikin bat eraikitzekoa. Lehen Euskal Kulturaren Batzordea honako kideek osatu zuten: Julio Urkixo, Juan Karlos Kortazar, Benigno Belaustegiogitia, Eduardo Landeta, Anakleto Ortueta, Juan Mugartegi, Fer-nando de la Cuadra Salcedo, Alvaro Kortazar, Manuel M^o Smith, Oskar Rochelt, Gregorio Ybarra, Ebaristo Bustintza eta Jose Joaquin Sautu.

Halaber, eta lehenago aipaturiko kideek eskaturik, 1918ko ekainean, kulturako izen eta figura berriak sartu ziren Batzordean, bokal gisara: Pedro Aguado, F. Belaustegiogitia, Jose Urizar, Tomas Etxebarria, Jose M^o Arroitauregi, Jose M^o Goia, Javier Kortazar eta Jose M^o Basterra.

Inaugurazio-ekitaldia hitzaldi-ikastaro edo ziklo bat izan zen, Filarmonikoaren aretoetan emana. 1918ko urtarille-tik martxora bitartean hitzaldi distiratsua eman ziren euskara, artea, unibertsitatea, eta beste gai batzuetako adituen eskutik. Gonbidaturiko adituen artean Luis Eleizalde, A. Apraiz, A. Kanpion, Karmelo Etxegarai, R.M. Azkue eta abar zeuden. Eleizaldek gai hau erabili zuen: hizkuntza propioaren aldeko borroka.

soila izan behar, zeren eta horren ondorioz, halako auzien helmena ulertzeko prestatuak ez zeudenen botoen menpe geratzen baitziren erabakiak, eta kasurik hoberenean, atzeratu egin zezaketen horiek betetzea¹²³.

Batzordeak bazituen, lehen esan den bezala, zenbait eskumen betearazle hezkuntza-alorrean, 1918ko urtean onarturiko oinarrien arabera; gainerako oinarriak guztira hamasei alderdi desberdinei buruzkoak ziren, eta garrantzitsuenak honako hauek ziren:

- Batzordeak bere gain hartzen du Korporazio probintzialaren ordezkari-tza Estatuarekiko, beste aldundiekiko eta udaliekiko erlazioetan.

- Ikuskaritza eta estatistikako zerbitzu-mota guztiak antolatzeko ahalmena du.

- Aurrekontu arrunt eta bereziak banatu eta inbertitzeko ahalmena du.

- Bere egitekoa hezkuntza eta kulturako plan eta metodoak aztertzea da, herrialdearen eta garaiaren premietara egokiturik.

- Bere eginkizunak, irakaskuntza berriak sortu, eta daudenak hobetu, eraberritu edo ezabatzea izango dira.

- Era berean, berari dagokio euskara gorde dadin ahalgintzea, hori erdiesteko bitartekoak praktikan jarri.

- Aldundiaren eskumenerakoak diren ikastetxeetan maisu-maistrak eta irakasleak izendatu ahal izango ditu.

- Batzordeak bere barne-funtzionamendurako araudi propioa idatziko du.

Barne-araudi horren arabera, Batzordeak hamasei kide izango zituen. Horietatik hamarek diputatu izan behar zuten, eta sei pertsonak Aldundiaz kanpokoak. Lehen kide osatzaileak honakoak izan ziren: Diputatu gisa Ramon M^a Rotaetxe, Felix Landaburu, Mariano de la Torre, Luis Urrengoetxea, Vicente Ibarra, Juan Francisco Tierra, Jose M^a Garay, Kosme Elgezabal eta Manuel Egileor, eta bokal auzo gisa, Eduardo Landeta, Ebaristo Bustintza, Juan Bautista Eguzkiza, Federiko Belaustegigoitia eta Alfredo Acebal. Luis Eleizalde, bokal izateari uko egin arren, parte hartu zuen Batzordean, Aldundiaren menpeko establezimenduen ikuskari gisa.

Bai Batzordeburua, diputatua izan behar zuena, eta bai gainerako kideak ere, Aldundiak izendatu behar zituen.

Bere bilerei zegokienez, hilean hiru egiteko konpromisoa hartu zuen, eta beste bilera berezi batzuk ere bai, nahiz kopuru eta datarik ez zehaztu.

Batzordearen eskumen betearazleek bere horretan iraun zuten bitartean, hezkuntza-egintza guztiak bere ardura soilekoak izan ziren, eta Aldundia, horien jakinaren gainean zegoela adieraztera eta akordioak praktikan jartzera mugatzen zen; eskumen horiek 1919ko maiatzaren 5eko eta abuztuaren 29ko Korporazio probintzialaren saioan berretsi ziren. Hala ere, ez zegoen erabateko akordiorik diputatuen artean eskumen betearazle horiek onesteari buruz, zeren eta, horrekin -zioten- diputatuei kendu egiten baitzitzaien beren karguari zegozkion zenbait funtzio burutzeko ahalmena. 1921eko apirilaz gero desagertu egin ziren ahalmen bete-

¹²³ Ikusi Gregorio Arrienen liburua: Educación y Escuelas de barriada de Bizkaia. Foru Aldundia. Bilbo, 1987, 135-139 orr.

razleak, eta aurrerantzean Batzorde Aholkuemaile soil baten gisara funtzionatu zuen. Data horretatik aurrera, kide auzoak ere desagertu egin ziren, eta diputatu ziren kideek bakarrik osatu zuten. Batzordearen funtzionamendurako erreforma horiek, Aldundiaren osaketan sortutako etengabeko aldaketan eta bere hezkuntza-politikaren testuinguruan gertatu ziren.

Eduardo Landetak, horren ondorioz hezkuntzaren alorrean izan ziren agerraldietan gehien parte hartu zuenetako batek, ordura arte egindako lanaren laburpen bat egin zuen 1919.aren erdi aldera:

“(…) 1918ko apirilaren 30etik 1919ko uztailaren 31ra arte hogeita sei bilera egin eta 260 erabaki baino gehiago hartu ditu, besteak beste eta alde zurretiko bisita eta zenbait hizketalderen ondoren, Laukizen, Plentzian, Mendatan eta Ibarrrin ikastetxeak egitea, baita Amorebietako Maisuen Normal Askea eta Bilbo eta Barakaldoko Maistren Normalean euskararen katedrak sortzea ere; zenbait herrialdetara zenbait ikuskaritza-bisita egitea eta, Arte eta Ofizioetako Eskolak ikuskatu eta horien egoeraz berri ematea; Bizkaiko irakaskuntzaren egoeraz estatistikak egitea (ordura arte Aldundi Txit Gorenak inondik ere ezagutzen ez zituen datuak), eta horrela, Bizkaia osoan barrena barreiatutako berrogei lehen eskola biltzea lortu du, denak ere Batzordearen dirulaguntza dutela euskarazko irakaskuntzarako, eta horiei bisita egitea ere badagokio, eta abar, eta abar; gainera, kontuak despatxatu, izapidetu eta aztertzeaz eta, nolabait ere, Instrukzio Publikoarekin zerikusia duten arazo guztiak ebazteaz arduratu da.

Gaur egun Bizkaia lehen instrukzioarekiko duen egoeraren azterketa oso bat egin du, berau normaldu eta hobetzeko egokitzen jotzen dituen bitarteko guztiak aipatuz; halaber, Bizkaia bere maisu-maistren izendapenean proposamen unipertsonala egiteko ahalmena Estatuarengandik jaso dezan dauzkan eskubideak aztertu eta horien berri eman du, eta Batzordearen ordezkariak batek parte hartu du Aldundi senideek horri buruz izandako konferentzietan, bere txostena eta azterketa alderdi guztietan goretzia eta onartua izan delarik.

Maisuen Eskola Aske Normal baten azterketa oso bat egin zuen bere egitarau, ordu-tegi, eta abarrekin..., izan ere, maisua baitzen, bere ustez, hezkuntzaren oinarri funtsezkoa”¹²⁴.

Esan beharra dago aurreko aipua Luis Aranguren diputatuak egindako ohar edo salakuntzei erantzunez egindako idatzi zabal baten atal dela, zeinak nazionalistei alferreko pertsonala izendatu izana leporatzen baitzien, eta halaber, Probintziako altxorari gastu handiak eragin izana¹²⁵. Puntu guztiak banan-banan argitu ondoren, Batzordeak egindako izendapenen premia frogatzen saiatu zen Landeta, eta halaber, erakunde horrek irakaskuntzaren hobekuntzan izandako eraginkortasuna ere erakutsi zuen. Instrukzio publikoko bulegoan 1919an enplegatutako langileak, ikuskari bakar bat (Luis Eleizalde), idazkari bakar bat (Jose Bengoezia) eta idazlari bakar bat (Zipriano Zenitagoia) besterik ez ziren¹²⁶.

¹²⁴ B. A. A.: Aldundi Txit Gorenak 1917-1919ko biurtean, instrukzio publikoari buruz egindakoaz Luis Aranguren jaunaren interpelazioa eta Eduardo Landeta Batzordeko kideak interpelazioari emandako erantzuna. 1919, 1.076 karp, esp. 15.

¹²⁵ Nazionalisten politika kultural eta hezkuntzakoa indar politiko desberdinen jopuntu bihurtu zen, batez ere eskuin monarkikoa. Hori dela-eta, honako liburuan adierazitako ideiak ikus daitezke: “La administración provincial en manos de los nacionalistas”. Publicación de la Liga de la Acción Monárquica de Vizcaya. 1919, 19-22 orr.

¹²⁶ Instrukzio Publikoko Batzordeak, denbora iragan ahala, egundoko eraldakuntza izango zuen, ez hainbeste bertan lanean ari ziren enplegatuei zegokienez, baizik eta bere bulegotik ematen ziren zerbitzuei zegokienez; langile-

3. EUSKARAZKO ESKOLAK

Noizbait idatzi izan denez, Bizkaiko Aldundiak ez zeukan ahalmen berezi eta pribatiborik irakaskuntzaren alorrean, ez lehen-mailarako eta ez gorenerako ere, nahiz eta Kontzertu Ekonomikoen eraentzaren ondorio gisa, eta euskal aldundien eta Estatuaren artean lortutako akordioen ildotik, aldundi horien egitekoa izan udalek lehen irakaskuntzaren zainketagatik Estatuari zor zizkieten diru-kopuruak ordaintzea, 1901. urtetik aurrera.

Estatuak zeukan irakas-monopolioa zela-eta, eta hizkuntzak eskolan zeukan arazoari zuzenean ekiteko asmoz, Instrukzio Publikoko Batzordeari honako bi bide hauetariko bati jarraitzeko aukera besterik ez zitzaion gelditzen: eskola askeak susta zitzakeen, indarreko legeriak horri buruz ematen zituen ahalmenez baliatuz, edota irakaskuntza ofizialaren gabeziak osatzen ahalegindu zitekeen, lehendik zeuden edo geroan sortuko ziren lehen mailako ikastetxei diru-laguntzak emanez, baldin eta horiek herrialdearen ezaugarrietara eta ikasleen baldintzetara moldatzen baziren. Batzordeak, ordukoz, bigarren bideari heldu zion, eta hori garatzeko oinarri-sorta bat idatzi zuen, Aldundiak 1918ko uztailaren 26ko bileran onartu zuena.

Oro har, diru-laguntza hori jasotzeko, “erlijio- eta aberri-izpiritu bikoitzaz” informaturik egon behar zuten eskola-instituzioek, eta “derrigorrez katolikoak izan behar dute, eta euskal herriaren izaera, jarduera eta joeretan oinarrituko dira beren irakaskuntza eta hezkuntza-planiari dagokionez”¹²⁷.

Oinarrietako beste batean esaten zen Batzordeak ez zuela ikastetxeetako zuzendaritza, plan eta metodoetan esku hartzeko asmorik, baina emandako laguntzen ordainetan, irakaskuntza jakin bat eskatzen zuen, hau da: euskara nagusi zen herrialdeko guneetan, euskarazko irakaskuntza zabal samarra eman behar zen, Batzordeak balioetsiriko inguruabarren arabera, “irakurketa, idazkuntza, errezoak, kantuak eta aritmetika-nozioak euskaraz ematearen gutxienezko baten gainean”; gaztelania hizkuntza nagusia zen guneetan, berriz, euskara eta bere irakurketa, idazkuntza eta kantuak irakatsiko ziren, eta egitarauaren gainerakoa gaztelaniaz emango zen.

Bere unean ikusiko dugun bezala, auzo-ikastolen etorkizuneko antolakuntza Instrukzio Publiko Batzorde horrek egindako erregelamendu horretara egokitu da oinarrian eta funtsean.

Diru-laguntza 3,50 pta.koa zen hileko eta ikasleko, eskolak ikasgela bakarra zuenean eta bertara 25 ikasle baino gutxiago joaten zirenean; ikasgelan 25eko kopurua baino handiagoa bazegoen, baina 40tik igaro gabe, diru-laguntza 2 pta.koa zen.

Jakina, erregelamenduak Batzordearen esku uzten zuen matrikula-liburuen berrikusteskubidea eta irakaskuntza subentzionatuaren emaitzak egiaztatu ahal izateko azterketak egiaztatzea.

Ikastetxe askok aipaturiko laguntza horiek eskatu eta lortu ere egin zituzten: garaiko dokumentuetan 40 bat aipatzen dira, nahiz eta euskarazko irakaskuntza ezartzea eskatu zuten toki eta eskola guztien izenik ez eman. Zehazki, ezagunak dira honako herrietako maisu na-

ria mugatu samarra zen: 1930 aldera bulegoak ikuskariburu bat zuen, buruorde bat, laguntzaile bat eta idazlari bat. Aldiz, bertan egiten ziren lanek zerikusia zuten Euskal Unibertsitatearekin, Institutuarekin, Arte eta Ofizioetako Eskolarekin, Ingeniari Industrialarekin, Nautika Eskolarekin, euskarazko eskolekin, takigrafia eskolekin eta abarrekin, baita auzo-ikastoleetako antolakuntza, langileria eta ikuskaritza-eraentzarekin ere.

¹²⁷ B.A.A.: Lehen eskolei diruz laguntzeko oinarriak (B.A. A.O. 1920-VI-4koa).

zionalak aurkezturiko eskariak: Usantsolo (Galdakao), Zeanuri, Ubidea, Dima, Urduña, Zior-tza, Abadiño, Busturia, Getxo, Natxitu, Gallarta, Zornotza, Nabarniz, Muxika, Deustua, Etxabarri, Gorliz, Abanto eta Zierbena, Plentzia, Gizaburuaga, Meñaka, Gorozika, Kortezubi, Karrantza, Balmaseda, Sestao, Guenes eta abarretakoak.

Herrialdearen hezkuntza eta kulturaren beste aspektu batzuetan ez ziren falta izan euskarazko eskolei buruzko aurriritzi batzuk, politika nazionalista egiteko bitartekotzat erabiltzen zirela esanez, era gutxi-asko mozorrotuan; batzuetan, horien baliagarritasun urria ere aipatu zen¹²⁸. Hala eta guztiz ere, ekinean jarraitu zuten harik eta Bizkaiko baserri-guneetan eskola berriak eraikitzeak horien presentzia alferrikakoa bihurtu zuen arte.

3.1. Goi mailako ikastetxeak eta maisuen normal askea

Gallano diputatuak Gernika, Markina, Durango eta Balmasedan goi-mailako ikastetxeak sortzeari buruz aurkeztutako mozio interesgarria aztertuko dugu jarraian; 1920ko abenduaren 9an onartu zuen Aldundiak. Ordurako Bizkaian Arte Ofizioetako hamasei bat eskola zeuden, eta Aldundiari eta horiek kokatuak zeuden udalerriei, 262.705,70 pta. kostatzen zitzairen urtero. Azken ikastetxe horietako irakaskuntzak ez zuen izaera ofizialik.

Horrekin batera, bazeuden goi-mailako irakaskuntzako beste ikastetxe batzuk ere, hala nola: Institutua, Merkataritza Eskola, Maistren Eskola Normala, Nautika Eskola, Meatzetako Kapatazen eta Ingeniari Industrialen Eskola; ikastetxe horien antolakuntza eta barne-araubidea Estatuaren obra eta ahalmena zen bakar-bakarrik, nahiz eta Bizkaian horiek sustengatzen 337.218,22 pta. ko diru-kopuru garrantzitsua inbertitzen zuen¹²⁹.

Gallanoren mozioaren helburua zera zen, hots, "ez dadila egon, ezain kasutan eta inolako aitzakiaz, hiritar-talde handi samarrik ikastetxeetara joateko aukerarik gabe"; horretarako jarrera, bokazioa eta gaitasuna erakusten zutenei bideragarri egin nahi zitzairen lehen irakaskuntza amaitu ondoren goi-mailako irakaskuntzara iristea¹³⁰.

Aipaturiko ikastetxe horiek ezartzeko ezinbestekoa zen zegozkien udalak beharrezko lokalak eta irakas-materialak dohainik ematea. Tokiko erakundeei eskatzen zitzairen, halaber, eskualdearen ezaugarri ekonomiko eta sozialei buruz eta lehen ikasketak egin ondoren gazte-

¹²⁸ A. Pisón diputatuak zera zioen: "sinetsirik nago ezarritako eta ezartzekoak diren euskarazko Ikastetxeen baliagarritasun urriaz, eta hori diot zeren esparru enkartatuan ez dakitelako euskararik eta ikasi ere nahi ez dutelako; beraz, alferrikako gastua da bertan egiten dena. Bizkaiko gainerako esparruetan ez da beharrezko euskarazko eskola, zeren jaiotzetik baitakite euskara..." (1919-XII-18ko Aldundiaren bilera; B.A. A.O.: 1922-IX-20koa).

¹²⁹ Udalen edo Aldundiaren, edo aldi berean bi erakundeen jabegoko eraikinetan antolatutako goi-irakaskuntza ofizialari eustea honako hau kostatzen zitzaion Bizkaian 1919an:

2. irakaskuntzako Institutua	36.202, 32 pta.	"
-Merkataritza Eskola	18.280	"
-Maistren Eskola Normala	52.175, 84	"
-Meatzetako Kapatazen Eskola	21.359, 06	"
-Nautika Eskola	50.000	"
-Ingeniari Industrialen Eskola	159.203	"
GUZTIRA	337.218, 22	"

¹³⁰ B.D.A.: Gallano diputatuaren mozioa Durango, Markina, Gernika eta Balmasedan goi-mailako ikastetxe bat sortzea proposatzen. 957 karp, 17 esp.

riak hartzen zuen norabideari buruz datu-sail bat eman zezatela, etorkizuneko ikastetxeek izan behar zuten orientabidea eta izaera asmatzearren; pentsatzen zen, horiek plan bakar eta komun bati lotu beharrean, gune bakoitzeko premia eta ikuspegietara egokitu behar zutela. Horrela, eskualde industrialek industria-eskolak izan behar zituzten, beren helburuetarako bitartekoez hornituak, baina hala ere, batasun organiko baten atal izan behar zuten, zeinen ardatza Bilboko Eskola Industrialak izango baitzen, eta horri atxikiko zitaizkion beren funtzionamenduan.

Zirriborraturiko plana, bere garaian, Gernika, Balmaseda, Markina, Durango, Galdakao eta Igorreko udalei bidali zitzairen; Gernika eta Galdakako ordezkariak eman zuten erantzunik bizkorrena, eta interesa agertu zuten proposamenaren eduki hori beren Udalerrietan egia bihur zedin.

Luis Eleizalde izan zen ikasketa-plana prestatzearen arduraduna, aipaturiko mozioak kontratatu beharreko irakasleen kopuruaz ezartzen zituen mugen barruan, ikastetxe bakoitzak hiruna irakasle izan behar zuelako; Gernika eta bere inguruneko zirkunstantziak kontuan izanik, eduki orokorrekin nekazaritza, industria, merkataritza eta itsasgintzako arloak jaso behar zituzten hemen, halaxe adierazi baitzen hiri horretara bidalitako inkestari erantzutean.

Astiro samar izan arren, Gernika eta Galdakako ikastetxeen izapidetak aurrera jarraitu zuten 1922an zehar; Gernikaren kasuan, Aldundiak eraikuntza-lanetarako 45.000 pezetako diru-laguntza onartu ere egin zuen 1923aren hasieran. Hala eta guztiz ere, dena horretan gelditu zen, eta proiektaturiko obra ez zen burutu ahal izan. Antza denez, gauzak horretan gelditu izanaren arrazoia, une horretan hezkuntza-politikan gertaturiko aldaketan aurkitu behar da.

Antzeko bukaera etsigarria izan zuen, bi urte lehenago, Maisuen Eskola Normal Aske bati buruzko egitasmoak, maisuen gabezia osatzeko asmoz gogo bizienarekin horri ekin ondoren.

Bazen Bizkaian, XX. mendearen hasieratik, Maistren Eskola Normal bat, betidanik espazio eta lokal-baldintza zailak izan zituena. Urteak igaro ahala, egoera hori instituzioaren arazo iraunkor bihurtu zen, ikasleen kopurua izugarri hazi zelako. Auzi horiez landa, urte horietan eztabaidagai bihurtu zen Normalek nolako gaitasuna zuten herrialdeak behar zituen maisuak prestatzeko, eta horrela, pedagogoez bitarteko bat baino gehiago proposatu zituzten irakasleen kultur prestakuntzaren maila jasotzeko, eta horiek Euskal Herriko irakaskuntzara nola moldatu zehazteko. Besteak beste, ikasgaien koadro orokorrean euskararen irakaskuntzaren hutsunea nabari zen.

Bizkaiko Maistren Eskola Normalean irakaskuntza elebidunik ez izatea nolabait konpondu ahal izateko, Instrukzio Publikoko Batzordeak, 1918an, euskararen ezagutza bertara hedatu zedila erabaki zuen, eta horretarako euskararen katedra bat sortu zedila Aldundiaren kontura; izaera dohainekoa, publikoa eta borondatezkoa zuen katedra horrek ikasle-kopuru handi samar bati erantzun zion -hogeita eta hogeita hamar bitarteko kopuruak ikasturteko- eta 1923aren bukaerara arte ari izan zen.

Batzordeko kideak ez zeuden pozik zeukatzen Normalarekin, bertako orientabideekin eta bertako ikasketa-planekin; horregatik, 1918an, Eskola Normal Aske bat sortzea bultzatu zuten, Landetak bere lehen zirriborroan prestatutako egitasmoari jarraiki; urte berean onartu zuen Aldundiak.

Egitasmo zabal horretan, Landetak gauza guztietan pentsatu zuen. Egituraturik zeuzkan xede eta helburuak, ikasketa-planak, eraikin berriaren kokagunea eta azken aurrekontua. Eskola Normal Aske horrek izango zituen ezaugarri nagusien artean ondokoak zeuden:

- Oinarrizkotzat jotzen zen maisu-maistraren prestakuntza integrala, eta horretarako, funtsezkotzat jotzen zen karreraren zehar irakasle eta ikasleak elkarrekin bizi izatea Eskolan, erdi-barnetegi baten antzera, eredu ingelesari jarraituz.

- Eskola Normal Berriaren xede nagusia herriak behar lukeenerako maisu moldakorrak prestatzea izango zen herriak behar lukeen alorrerako, garaiko kultura-mailaren arabera eza-gutza-multzo jakin baten jabe izango zirenak. Horretarako, etorkizuneko maisuei ongi ordaintzea pentsatzen zen.

- Egitarauari dagokionez, Estatuak eskaturiko gaiez aparte, beste gai gehigarri batzuk erantsiko zitzaizkion, hala nola Euskal Herriko geografia nahiz historia, eta euskara.

- Laburbilduz, honako alderdi hauek lortzeko asmoa zegoen: "Ezagutzak areagotzea, ikasteko denbora gehitzea, antolakuntza pedagogiko hobea lortzea, euskal premietara moldatzea eta izpiritu hezitzaileago bat izatea"¹³¹.

Hura kokatzeko lurraz Zornotzako udalerrian erosi ziren, eta etorkizuneko eraikinaren planoak egin ere egin ziren; baina lehen esan denez, obra gelditu egin zen, behin betiko eran, 1921ean, eta data horretan beste gai asko ere geldiarazi ziren, geroago ikusiko denez.

3.2. Bilboko Nautika Eskola eta Euskal Unibertsitatea

1919ko irailaren 16an, Bilbon Nautika Eskola bat ezartzea erabaki zuen Bizkaiko Aldundiak, eta horretarako, ofizialki aitortzea eta Instrukzio Publikoko Ministerioaren menpekotasun zuzenean ez egotea eskatu zion Estatuari; Bermeo, Lekeitio, Plentzia eta Santurtziko Eskolek ordurako funtzionatzen zuten bezala, 1915ean emandako xedapen baten arabera, Bilboko etorkizuneko Nautika Eskola, haiek bezala, Patronatu Batzorde baten menpean egon zedila lortu nahi zen, baina instituzioaren araubide eta funtzionamenduan, irakasleen izendapen eta bereizkuntzan, soldata ezartzean eta abarretan subiranoa izango zena¹³². Gastu guztiak Aldundiaren kontura izango ziren, eta Estatuak beretzat gordeko zuen titulu profesionalak emateko eskubidea, berak izendaturiko funtzionarioek azterketa egin eta gero.

Garai hartako txosten eta kazetari-artikuluetan azpimarratzen zenez, Aldundiak, Bilboko itsasontzi-industriaren garrantziaren arabera zegokion mailan ezarri nahi zuen aipaturiko ikasketxea; horretarako, eta irakas-material egokiaz hornitzeaz gainera, pertsona gaituak prestatzeko beharrezkoak liratekeen irakasgaiak gehitu nahi zitzaizkien egitarau ofizialei, merkataritzaren eta nabigazioaren garapenak zeuzkan eskakizunekin bat etorritz.

"Aldundiak Bilbon sortu nahi duen Nautika Eskola, hori sortzeko bitartekaritza egin baitu Ministro jaunaren aurrean, Korporazio honek gastu guztiak ordainduko lituzkeelarik, egiazko Eskola bat izatea nahi da, teorikoa eta praktikoa, hori baita bititza, eta bertako egitarauak burutu eta gainditze soila askitasun nahikoaren berme izan dadila edonon"¹³³.

¹³¹ Arrien, G.: Opus cit., 1987. 124-125 orr.

¹³² Bilboko Nautika Eskolaren Patronatu Batzorde proiektatua honela eraturik egongo zen: Lehendakaria, Aldundikoa; lehendakariordeak, Marinako komandante jauna eta Instrukzio publikoko Batzordeburua; kideak, Eskolako zuzendaria, Institutu orokor eta teknikoko zuzendaria, Aldundiaren Instrukzio Publikoko Batzordeko hiru kide, Merkataritzako marinan lanean ziharduten kapitain, pilotu eta makinisten artean hautaturiko ordezkari bat, Bilboko Merkataritza Ganbarako lehendakaria, Bilboko Portuko Obretarako Batzordeburua eta Ontzijabeen Elkarteburua; eta idazkari gisara, Aldundiaren Instrukzio Publikoko Batzordearena eta proiektaturiko Nautika Eskolarena.

¹³³ Landeta, E. de: La Escuela de Náutica de Bilbao y el Sr. Balparda... y algo más. "La Tarde", 1920ko ekainaren 9a.

1919aren bukaeran, Aldundiak bereziki izendatutako diputatuen batzorde bat Madrilera joan zen, Nautika eskola horren aitoren ofiziala berehala lortzeko asmoz; Luis Eleizalde batzorde horretan zegoen, Instrukzio Publikoko Batzordearen izenean.

Madriden zegoela, hilabetez egon behar izan baitzuen bertan, Eleizaldek gutun bat baino gehiago idatzi zizkion Landeta bere adiskideari, pauso guztien berri emanez, Institutu eta Merkataritza eta Nautika Eskolen bulegora egindako bisitei buruzkoak gehienak, baina baita Administrazio publikoaren arduradun gorenekin izandako hartu-emanei buruzkoak ere.

Proposaturiko helburua ahalik eta errazen lortzeko, Aldundiak Gorteetako euskal ordezkariengana jo zuen, beren laguntza eta babesa eskatuz; zentzu horretan Indalecio Prieto oso arretatsu agertu zen denbora guztian, eta batzordekideei beren gestio guztietan lagundu zien eta berak prestatu zuen Prado eta Palaciosekiko elkarrizketa. Hala ere, ezkor samarra izan zen Gregorio Balpardaren portaera, 1919ko azaroaren 18an Eleizaldek idatzi zuenaren arabera:

“(...) Atzo, azkenik, Sanromán bulegoburu jaunarekin izan nintzen. Ezagutzen zuen ordurako Nautikaren gaia, oso inpresio onak eman zizkidan horri buruz eta esan zidan Ministroa eta I.P.ko Kontseiluburua ikustera joan nendila. Hori ikusirik, gauean Prietori abisatu nion gaur eguerdian lagun gintzan. Hoteleko hallean haren zain nengoela, batzordekideek Balparda jaunarekin hitz egin dute eta honek ezezko biribila eman die Nautika Eskolaren aldeko gestioetan, “ni batzordean nengoelako (testualki)”; beraz jaun horren lankidetzat baliosua lortu nahi baduzue, I.P.ko Batzordea eraberritzetik hasi behar duzue, bertatik ni leunki bidaliz”¹³⁴.

Lehen unean erraz samarra zirudiena, egunak igaro ahala ezin lortuzkoa bihurtu zen; Eleizalderen gutunek argi eta garbi islatzen dute gestioetan aurkituriko zailtasuna eta batzordekideen geroz eta etsimendu handiagoa. Porrot-sentsazioari Madrilen luzaro egon behar izateak sortutako nekea gehitu zitzaion, hasiera batean aurreikusia baino askoz egonaldi luzeagoa izan baitzen. Bere inpresio ezkorak gorabehera, Eleizaldek lanean jarraitu zuen, eta azken unerarte mugitzen; dirudienez, batzordekide guztiek ez zuten interes bera jarri esku artean zituzten gaietan¹³⁵.

Espainiako hiriburutik egindako bere azken gutunetako batean, bila zebilena lortzeko aurkeztzen ziren era politikoko objektioak aipatzen zituen:

“(...) Gaia jadanik Kontseiluan dago eta bihar, osteguna, batzorde iraunkorrean ponentea izendatuko da. Vegasi guztientzako mesedegarria iruditzen zaio gai hori; gaiaren alderdi “politikoa”ri dio beldurra bakarrik (ez beragatik, besteengatik baizik). Hemen guztiek ikaragarritzko beldurra diote separatismoari. Kosmografia nazioartekoa dela eta doktrina politikozko ondorioetarako biderik ez duela ematen ihardetsi diodanean, erantzun du gai horri ez diotela beldurrik, pertsonalari baizik (...). Vegasek berriro ere esan dit ez dela bere buruaz ari, baizik eta beste batzuek aurkez ditzaketan eragozpenak aurrerazten ari dela, eta abar...”¹³⁶.

¹³⁴ Landeta, Nautika Eskolaren egitasmoa aurrera atera zedin interesatuenetako bat, interesarekin jarraitu zituen Madril horri buruz egiten ari ziren gestio guztiak, bere artxibo partikularrean gorde dira Luis Eleizaldek idatziriko gutunak.

¹³⁵ Eleizaldek idazten zuenez “batzordeko besteak, salbuespenak salbuespen, badirudi gehiago arduratzen direla ostradez (sic) gomendaturiko arazoez baino. Bizkaia gaixoa! (1919-XI-19an Landetari egindako gutuna).

¹³⁶ 1919-XII-10ean Landetari egindako gutuna.

Aldundiak, azkenik, ezin izan zituen bere nahiak beterik ikusi eta ez zuen Bilboko Nautika Eskola onartzerik lortu. Landetak porrot horren parte handi bat Gregorio Balparda Balmasedako diputatuaren oposizioari egotzi zion, garai hartan Instrukzio Publikoko ministro zenaren talde politikoaren osakide baitzen.

Balparda eta bere gogaideen arabera, Eskola hori maniobra politiko-separatista bat zen¹³⁷.

3.2.1. Euskal unibertsitatearen auzia

XX. mendearen lehen herenean asko ugaritu ziren Euskal Unibertsitatearen aldeko egitasmoak.

“1914an, Donostiako udaleko zenbait zinegotzik Donostian Ikastetxe Unibertsitario Ofizial bat sortzea eskatuz udalean mozio bat aurkeztu zutenetik 1936an Bilbon Medikuntzako fakultatea sortu zen arte, zenbait aldiz gai hori bera azaldu zen. Horrezaz aparte, Eusko Ikaskuntzen Elkartek eta Bilboko Udalbatza bezalako zenbait instituziok, beren aldetik, egitasmo beraren alde ekitea erabaki zuten; Angel Apraiz, Luis Eleizalde, F. Cuadra Salcedo eta beste hainbat pertsonalitatearen ahaleginak ahaztu gabe, izan ere beren idatzi eta hitzaldien bitartez, bizirik eutsi baitzioten goi-mailako ikasketa-zentro baten aldeko interesari”¹³⁸.

Eleizaldek puntu honetan zuen pentsamenduari dagokionez, Euskal Unibertsitatearen egitasmoaren lehen bultzatzailetako bat izan zela ziurta daiteke. Ideia horren jatorriari buruzko aipamenetan, 1914an adierazi zuen nazionalistek sarritan pentsatu zutela gai horretan, “gure Unibertsitatearen ideia une batetik bestera noiz sortuko zain, egitasmo hori gure alderditik bertatik sor zedila desiraturaz”, unea iristen zenean behar zuen laguntza guztia geure aldetik emateko. Baina ikusirik “inor ez dela gogoratzen, inor ez dela arduratzen, itxura guztien arabera inori ez zitzaiola interesatzen”, ideia jaurtitzeko erabaki zuten, nahiz eta ikusi, beren alorretik sortua izateagatik, Euskal Herriko zenbait esfera politikotan eta udalbatza batzuetan baztertua izan zitekeela”¹³⁹.

Euskadik unibertsitateari ez zuenez, ikasleak beharturik zeuden Valladolid eta Zaragozako espainiar unibertsitateetara joatera, horrek zekartzan kostu ekonomiko handiekin eta haien bizitzetarako arrisku moralekin; gainera, ikastetxe horietan jasotako prestakuntza intelektuala, sendoa, zabala, zaindua eta arretatsua izan beharrean, txar samarra zen, eta hezkuntza, “oraindik askozaz txarragoa”.

Eleizaldek, instituzio unibertsitarioari buruz bere ideiak azaldu ondoren, Euskal Unibertsitatea euskal irakasleriaren bidez sortzea proposatu zuen, “xede horri begira batean bildutako Euskal Aldundien goi-babesletzaren laguntzaz”. Ekimen pribatua eta aberatsen egintza ere eskatzen zuen, gazteriak bere herrialdetik irten gabe beharrezko instrukzio guztia jaso zezan¹⁴⁰.

¹³⁷ Gregorio Balpardak Nautika Eskolaren gaian itsumen politikoa eduki izanaren salakuntza ez zuen Landetak bakarrik egin; Bizkaiko Aldundiak berak, zeinean ideia politiko mota guztiak biltzen baitziren, Balparda eta Gandaria-sen portaerarengatik ondoeza adieraztea erabaki zuen 1920ko azaroaren 3ko bere bileran eta aldi berean Instrukzio Publikoko Batzordearen gestioa onartu zuen.

¹³⁸ Arrien, G.: *Opus cit.*, 1987, 125-126 orr.

¹³⁹ “Axe”: *La mancomunidad vasca para la Universidad Vasca*. “Euzkadi”, 1914ko otsailaren 22a.

¹⁴⁰ Leonzio Urabaienek ere dei bat egin zuen “Un llamamiento a la riqueza que tiene corazón (1919), herriaren kultur maila jasotzeko beharrezko laguntza aurkitzeko asmoz, hori guztia, zenbait kultur instituzio sortzearen bitartez (zientzia eta ikerketa lantzeko laboratoriorak sortzea, maisuei sariak ematea, bokazioarreko eskola bat, lanbide-eskolak, haur-etxeak, liburutegi publikoak sortzea eta abar).

Goi-mailako irakaskuntza-zentro bat ezartzea, bere iritziz, herrialdeak zeukan hil edo biziko interesetako bat zen, eta ezin berandutuzkotzat zeukan hori sortzea, hezkuntza bizi eta eraginkorra nahi baldin bazen; uste zuen Unibertsitatea edukitzea funtsezkoa zela eskola-sistema osorako, eta halaber, horixe zela lehen irakaskuntzaren arazoa konpontzeko bitartekorik hoberena:

“(…) lehen eta bigarren eskola onak, akademia eta ikastetxe onak eduki nahi baditugu, beharrezkoa da lehenik Unibertsitate on bat edukitzea. Aurrerakuntza zientifiko eta literarioa goitik dator, eguzkiak ibarrak baino lehen gailurrak argitzen dituen bezala. Unibertsitatearen beste inon baino hobeki ikasten da zientzia eta hezkuntzaren artea, bere historial eta metodo desberdinen bidez”¹⁴¹.

Aurreko funtzio horretaz gain, unibertsitateak herrialdearen lokarri izpirituala ere izan behar zuen, banakako ahalegin izpiritualak bilduz eta koordinatuz, “Herrialdeko kulturaren eta horren zerbitzu hobearen alde ekiteko prest baikaude”. Azken ideia horiek Eusko Ikaskuntzen Lehen Kongresuan (1918) garatu zituen, eta bertan, Unibertsitatearen helburuaz ere mintzatu zen; bere ustez, instituzio horrek “izpiritu gutxi batzuen, onenen, indartsueneren eta saiatueneren hautespen bat izan behar zuen”, eta halaber, “ikaskuntza desinteresatuaren egoitza, zientzia —bere horretan harturik eta helburu utilitario oro alde batera utzirik— lantzeko saialekoa”; ezaguera zientifikoak eta beren aplikazioak zabaltzeko bazeuden beste erakunde batzuk (arte eta ofizioetako eskolak, nekazaritzakoa, zientzia aplikatuena, era guztietako establezimendu teknikoak)¹⁴². Ildo horretatik, eraikinen, araudien, errenten eta gainerako auzien arazoa bigarren mailakotzat jotzen zuen; funtsezkoa zen gidatatz balioko zuen goi-printzipio izpiritual bat izatea, “gauzatu beharreko ideal bizi bat, bete beharreko helburu moral bat”. Labor esateko, Unibertsitatearen egitekoa ez da medikuntzan, jurisprudentzian edo zientzietan profesionalak sortzea bakarrik. Helburu hori bigarren mailakoa litzateke. Unibertsitatearen egitekoa gorago dago, benetan gorena da. Alor desberdinetako gizaki gailenak biltzea da xedea, beren buruak lantzen jarrai dezaten, eta ondorioz, beste batzuen garapena sustatzeko gai izan daitezen. Unibertsitateak, beraz, kultura oso bat eman beharko du, ez intelektuala bakarrik, zeren eta errakuntzarik handiena egitea izango bailitzateke ezagutza intelektualak biderkatze hutsa, eta gizakiaren egiazko handitasuna batez ere energia moralaren baitan dagoela ahaztea”¹⁴³.

Sail hau amaitzeko, labor bada ere aztertu beharra daukagu Eusko Ikaskuntzaren pentsamendua Euskal Unibertsitateari dagokionez. Oñatiko Kongresuan, bere ondorioetako batean, arrazoi sozial, zientifiko eta ekonomikoengatik hura sortu beharra jasotzen zen; ideia horiek zabaldu eta zehaztu egin ziren Elkarte beraren hurrengo Kongresuetan¹⁴⁴. Gernikako Kongresuan (1922) arretaz aztertu zen Estatutuaren egitasmoa, eta bertan, Unibertsitatea ezartzeak konponduko litzuzkeen arazoaren soluzioak jasotzen ziren. Hortik sortuko ziren gerora Euskal Herriko arazo unibertsitarioaren Oinarriak; hamabi oinarrien bitartez, Unibertsitatearen kokaera, estatutu berezia eta ikasgaiak edota horien antolakuntza bezain alderdi garrantzitsuak finkatzen ziren.

¹⁴¹ “Axe”: Algunas ideas acerca de la Universidad Vasca. “Euzkadi”, 1914ko apirilaren 12a.

¹⁴² Eleizalde, Luis de: El problema de la enseñanza en el País Vasco. Eusko Ikaskuntzen I. Kongresua, 872-873 orr.

¹⁴³ Ibidem, 873-874 orr.

¹⁴⁴ Estatuko Unibertsitateetan halako autonomia bat ezartzen zuen 1919ko E.D. zela eta, bazirudien ate bat irekitzen zitzaiola gero eta premiazkoagoa zen Euskal Unibertsitatea lortzeko gurariari; baina ate hori itxita geratu zen Unibertsitateen Autonomi Lege-Proiektuaren klausularekin, zeinaren arabera, unibertsitate berri bat sortzeko edota jandantik zegoen erakunde bati maila hori emateko, lege berezi bat eskatzen baitzen, eta eskakizun hori oso zaila zen lortzen.

Unibertsitatearen kokaerari buruz -horixe izan zen punturik eztabaidatuenetako bat- Eusko Ikaskuntzak adierazi zuen ez zuela Euskal Herriko gune jakin batean kokaturik egon behar, baizik eta probintzia desberdinetan zehar barreiaturik egon zitekeela, araudi eta zuzendaritza komun baten azpian, eta batasun orokor baten barruan. Euskal Unibertsitatea, herrialdean zeuden eta sor zitezkeen goi-mailako irakas-zentro guztien antolakuntza bezala hartu behar zen; gainera, antolakuntza hori hitzarmen berezien bitartez erlaziona daiteke “Unibertsitatearen lankide izan nahi duten zentroekin, erabat haren Araudi eta Zuzendaritzari atxiki beharrik izan gabe”¹⁴⁵.

Irakaskuntza unibertsitarioan estatuak esku hartzeari buruz eta bertan ezarri beharreko eraentzaz Elkarateak uste zuen ekimen partikularraren ikuskaritza, jagoletza eta ordezkaritza eginkizunetara mugatu behar zuela. Hau da, Unibertsitateak autonomo eta librea izan behar zuela, Estatuko Unibertsitatea ez bezalakoa.

Oinarrietako batek instituzio unibertsitarioaren izaera zientifikoa ere aipatzen zuen, bere helburua hezkuntza eta gizarte arlokoa izan behar zuelarik. Eleizalde aipatuz, gaineratzen zen, profesionalak prestatzeko helburu soil horretara mugatetik urrun, jakitearen alor desberdinetan pertsona gailenak zirenak biltzeko gai ere izan behar zuela.

Azkenik, zazpigarren oinarriak adierazten zuen Unibertsitateak klasikoak deituriko fakultate guztiak hartuko dituela, eta halaber, “zientzia puru edo aplikatu eta Arte Ederretakoak, herrialdearen premia kultural eta materialek goi-mailan eskatuko dituztenak”; era berean, arreta berezia eskainiko dio “Magisterioari eta lanaren aplikazio berriak ezartzen lagun dezaketen irakaskuntza guztien prestakuntzari”¹⁴⁶.

Unibertsitatearen aldeko gestioek II. Errepublikan zehar jarraituko dute, eta azkenik, 1936ko azaroaren 18an Euskadiko Behin behineko Gobernuak Euskal Unibertsitatea sortuko du, Bilbon kokaturiko medikuntza Fakultatearen bidez.

4. LUIS ELEIZALDE, BIZKAIKO ALDUNDIAREN MENPEKO IKASTETXEEN IKUSKARI

Instrukzio Publikoko Batzordeak, 1918ko azaroaren 5eko bere bileran, ikuskari bat izendatu zuen Aldundiaren menpeko irakas-zentro guztien zuzendaritzaz arduratu zedin. Postu horren sorrera honako arrazoiek justifikatu zuten: alde batetik Korporazio probintzialak esku-zabaltasunez sustengaturiko hezkuntza-instituzioek ez zuten ematen haiengandik espero eta eska zitekeen errendimendua, ez zegoelako inolako zuzeneko egintza iraunkorrik diruz lagunduriko erakunde horien gainean; behar adinako gaitasuna lukeen pertsona baten lan orientatzaileak lagundu egingo luke ikasketa-planak, hezkuntza-metodoak eta horien aplikazio prak-

Madriren zegoela, 1919aren amaiera aldera, Eleizalde beste komisionatu batzuekin lan egin zuen, Senatuan izendaturiko Komizioak klausula hori bazter zezan. Zentzu berean, eta emaitza negatibo berarekin, euskal aldundiek azalpen bat bidali zuten Egitasmo horri buruz berri eman behar zuen Senatuko komizio berera.

Era berean porrot egin zuten 1921ean egindako gestioek, Unibertsitate Autonomiaren Lege-Proiektua Gorteetan aurkeztu zenean.

¹⁴⁵ Memorias y bases para la resolución del problema universitario en el País Vasco. 1923, 4-5 orr. Eusko Ikaskuntza.

¹⁴⁶ Ibidem, 6 orr.

tikoa aztertu eta eskaintzen. Bigarrenik, diruz lagunduriko irakas-zentroen zabalera eta aniztasunak, baita eskola berrien egitasmoak gauzatzeko ere, eragotzi egiten zuten Batzordeak instituzio horiei zuzenean ekin ahal izatea.

Ondorioz, ikuskari lanpostu bat hornitzeko lehiaketarako deialdia egin zen, honako baldintza hauekin: lehiakideek euskaldunak izan behar zuten, euskararen jabe, 25 urtez gorakoa eta 40 baino gutxiagokoak, eta beren gaitasuna frogatu behar zuten, egoki jotzen ziren frogak guztiak aurkeztuz. Lanpostuak urtean 8.000 pta.ko soldata edukiko zuten, eta bosturteen arabera 500 pta.ko gehikuntzak izango zituen, ikuskaritza-bidaietan egindako gastuak aparte ordainduko lirakeelarik. Bigarren deialdian urteko soldata 10.000 pta.n jarri zen, eta goiko aldetik adina mugatzearen baldintza kendu egin zen, eta beraz, 25 urteko gorakoentzat zabalik gelditu zen lehiaketa, besterik gabe.

Zortzi izan ziren ikuskari izateko lehiakideak lehen deialdian, hau da: Luis Ezkurdia Arenaza, 25 urtekoa, Areetako udal-eskolako zuzendaria; Joakin Etxabe Sustaeta, zientzia fisiko-kimikoe-tan lizentziatua eta farmazian doktorea; Jose M^a Eskudero Bollar, abokatua; Leon Urriza Berraondo, Bergararokoa; Inazio M^a Villasante Orue, abokatua eta bibliotekaria, Elias Aspiazu Gorosabel, maisu nazionala; Manuel Sierra Bustamante, 36 urtekoa, Portugaletekoa, Gipuzkoako irakaskuntzaren ikuskaria; aldez aurretik, denbora laburrean, Lleidan eta Araban ikuskari izana zen; beste titulu batzuen artean, zientzietako doktorearena eta gaitasun pedagogikoko ziurtagiria zituen; Ramon Belaustegigoitia Landaluze, 27 urtekoa, Laudioarra, abokatu eta kontsul-karrera zituen, eta kazetaritzan aritua zen bere lizentziatura bukatu baino lehen eta gero. 1916 eta 1918 bitartean Londresen egona zen ingeles hizkuntzaren ezagutza hobetzeko asmoarekin.

Lehiakideek aurkezturiko eskaerak aztertu ondoren, Instrukzio Publikoko Batzordeak deitutako lehiaketa bete gabe uztea erabaki zuen, "ez baitzuten —generikoki zioen— lortu nahi zuten kargua arrakastaz betetzeko nahikoa ziurtasun eskaintzen"¹⁴⁷.

Batzordearen txostenaren arabera, eskaeragileek ez zituzten eskaturiko baldintzak betezen, eta ondorioz lehiaketa berri bat egitea proposatzen zuten; deialdi hori 1918ko abenduaren 18an egin zen. Bigarren aukera honetan 15 bat eskaera aurkeztu ziren¹⁴⁸; baina hori guztia egintza formal hutsa baizik ez zen izan, zeren eta ordurako kargua Luis Eleizalderi eskaini baitzitzaion, eta horrek hartua baitzuen. Hori zela-eta, Landetaren bi gutun daude, eta horiek argi eta garbi erakusten dute nola gertatu ziren konponketa berezi horiek, lehen lehiaketaren emaitzak ezagutu baino lehen ere. Hona hemen lehen gutunaren testua:

¹⁴⁷ B. A. A.: Komisio Probintzial Txit Argiari lehen eta goiko irakaskuntzan ikuskari-postu bat, nolabait ere Aldundiaren menpean legokeena, hornitzeko lehiaketa baten iragarpena proposatzea erabaki du Batzordeak. 1918ko azaroaren 5a, 2.589 karp., 8 esp.

¹⁴⁸ Hona hemen bigarren deialdian ikuskari-posturako izangai batzuen izenak: Calixto Paz de Alcibar, maisua; Manuel Serdán Díaz de Arcaute, abokatua; Florencio M. Acha, Ramon Belaustegigoitia; Ambrosio M. Saseta y Lazaro, maisua; Rufino Mendiola y Querejeta; Enrique Martín Ugarte; Manuel Sierra y Bustamante; Teodoro Uriarte y Berasategi, abokatua; Luis Eleizalde Breñosa; Manuel Campos y Ostolaza, ingeniari industrialia; Adelina Mendez de la Torre, maistra, Esteban de Isusi, etab.

1918ko abenduaren 7an

Luis Eleizalde Jauna

Gasteiz

Adiskide estimatua:

Uste dut jakinaren gainean zaudela nola Bizkaiko Aldundiak lehiaketa bat zabalik duen Instrukzio Publikoko Ikuskari lanpostua sortzeko (...) Esleituriko soldata urtean 8.000 ptakoa da, gastuak ordainduak eta %10eko gehikuntza bosturteko zerbitzuak asebetegarriak badira.

Zuk nik baino hobeki dakizu zein den kargu horren garrantzia eta ikuskaritza horren egiteko goitar eta abertzalea. Nire iritiz, izangaietako batek ere ez ditu beharrezko baldintzak betetzen. Sarritan gogoratu naiz zutaz, zeren eta ezagutza zientifikoez gain abertzale-baldintza betetzen baituzu; agian hori beharrezkoago da gaur egun beste horiek baino, baldin eta gure belaunaldiak geure idealaren bideetatik orientatu eta bideratu nahi baditugu.

Nik erregutzen dizut gogoeta apur bat egin dezazula eta erabakia har dezazula postu hori hartzeko. Onartuz gero erraza litzaidake urteroko ordaina 10.000 pta.raino igotzea eta gainera, zuk onartzen duzula jakinda, neu moldatuko nintzateke postua zuri eskaini ahal izateko, zuk zeuk eskatu gabe.

Ez didazu ezer eskertu behar. Hau bezalako egoeratan alde batera utzi behar dira begikotasunak, eta abar, eta abar, Aberriarentzako gizon egokia bilatu behar da. Eta hori zeu zara eta horregatik jotzen dut zuregan.

Nik erantzun lasterra eskertuko dizut, zeren gainerako guztia hemen konponduko baitugu.

E. Landeta”.

Oso lasterra izan zen Eleizalderen erantzuna, Landetak bere bigarren gutuna idatzi zuen data ikusita; hark, hartutako erabakiarengatik eskerrak ematen zizkion bitartean, arazo guztiak berehala konpontzea agintzen zion, interesatuaren eskuhartzerik gabe.

“1918ko abenduaren 11n

Luis Eleizalde. Gasteiz.

Ene adiskide estimatua: Neure eskuan daukat atzoko zurea, eta pozez betetzen nau neure aurreko gutunean proposatzen nizuna onartzen duzula jakiteak.

Hitz egin dut Lehendakariarekin, Urrengoetxea eta Egileorrekin, eta guztiek beren poza adierazi didate lorpen honengatik.

Orain, gaiak ez arduratzeko besterik ez dizut esaten, zeren geuk konponduko baitugu hemen eta nik emango dizut egin beharrekoaren berri, seguras-ki datorren igandean, zeren ostiralean bilduko baita Instrukzio Publikoko Batzordea zeinean iragarritako lehiaketa hutsik geldituko dela jakinaraziko baita eta gu geure nahiari forma ematen saiatuko gara zu postu horretaz jabetzera etor zaitez.

Berriz diotsut neuk jakinaraziko dizudala dagoenaren berri.

Neure buruari zorionak emanez eta erabakia eskertuz bihotz-bihotzez agurtzen zaitu zure adiskide on...

E. Landetak.”

Eleizalde 1919ko maiatzaren 9an izendatu zuten ikuskari¹⁴⁹, eta urte bereko ekainaren 21ean hartu zuen kargu horren ardura.

IV. BIZKAIKO AUZO IKASTOLAK

1. GALLANO MOZIOA

Auzo Ikastolak, 1919ko azaroaren 26ko Gallano Mozioaren bidez sortuak, garrantzi handiko hezkuntza-obra bat dira. Eskola horien helburua “Bizkaian, biztanleriaren banaketa bereziarengatik, dagoen hezkuntza-eskasia osatzea” da, udalekin edo auzo-taldeekin elkarlanean ikastetxeak ezarriz¹⁵⁰. Probintziako kultur eta hezkuntza desoreka konpontzeko ahaleginak egin nahi ziren, begibistan baitzegoen biztanleriaren sail gutxi-asko zabalak bazterturik zeudela, batez ere baserri-giroan.

Azterketa bat baino gehiago egin dira ikastola horiei buruz, eta horietan, beren alderdi nagusiak biltzen ahalegindu gara¹⁵¹; horregatik, Luis Eleizaldek gai honen inguruan egin zuen lan nabarmenaz hitz egitean, derrigor jo beharko dugu lan horietara.

Bizkaiko hezkuntzaren historian ahalegin bat baino gehiago egin ziren baserri-giroko eskolak sortzeko, nahiz eta gero arrazoi eta zirkunstantzia desberdinegatik porrot egin beharrean aurkitu ziren. 1896an Victoriano Galdiz Probintziako diputatuak Bizkaiko baserrigunee-tan eskola osatugabeak sortzea proposatu zuen, beren aurrekontuaren ehuneko berrogeia diru publikoaren bidez estalita. Mozio hori artxibaturik gelditu zen, 1898 urte inguruan Euskal Aldundiak lehen irakaskuntzaren eraberrikuntza administratiboak lortzeko egintza kolektibo bat eratu zutenean, azterketa honen beste alderdi batean adierazi den bezala. 1911n eskolak sortzeko beste proposamen bat dago, Isidoro León diputatuak aurkeztua, eraikuntza-plan zabal bat jasoz, hogeitau urtean egitekoa eta gutxi gorabehera hiru milioi pezetakoa¹⁵². Mozio interesgarri hau, Aldundiko Sustapen Batzordeak aintzakotzat hartua, ez zen aurrera irten, ezezagunak zaizkigun arrazoiengatik.

Aurrekoek ez bezala, Gallano Mozioak, bere garapenari lagundu zioten faktore eta elementu multzo bat izan zuen, XX. mendeko garai horretan pisu handia izan zutenak; honako hauek ziren: analfabetismoaren maila altuak zuzendu beharra, eskolako pentsamendua eta kultur maileri buruzko geroz eta kontzientzia argi eta zorrotzagoa herrialde kultoeneren bidetik garatzea, bultzada autonomikoa eta gorantz zihoan nazionalismoaren ideologia, eta herrialdeak urte horietan lortu zuen aberastasun erlatiboa.

¹⁴⁹ Aldundiak egindako izendapenaren aurretik, Instrukzio Publikoko Batzordeak Eleizalde hautatu zuen 1919ko martxoaren 4an, kasuak eskatzen zituen formalitateak gordez; hautatuaren aldeko botoa eman zutenak hauek izan ziren: E. Landeta, L. Urrengoetxea, E. Bustintza, J.B. Eguzkiza, M. Egileor eta V. Ibarra; J.M. Garay eta A. Acebalek J. Etxabe Sustataren aldeko botoa eman zuten, eta F. Belaustegigoitiak ez zuen botorik eman.

¹⁵⁰ Ikusi El Reglamento de las Escuelas de barriada. Bilbo. 1921, 29 orr.

¹⁵¹ Auzo-ikastolen sorrera eta bilakaerari buruzko informazioa zabalteko, Gregorio Arrienen idatziak kontsulta daitezke: “Educación y Escuelas de barriada de Bizkaia (Escuela y autonomía, 1898-1936)”. Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbo, 1987; “Bere irakaskuntza praktika Bizkaiko auzo eskoletan, “Julene Azpeitia. Ehun Urte Mugan (1888-1988)”. Bilbo, 1988, 69-94 orr. “Educación y Escuelas de barriada de Vizcaya, 1937-1939 (“Su traspaso al Estado y deterioro de la enseñanza”. “Julio Caro Barojari Omenaldia”. RIEV, 34. urtea, XXXI. libkia, 3. zk., urria-abendua, 1986, 629-640 orr.

¹⁵² B. A. A.: La Moción del Diputado Isidoro de León, en libro de sesiones de la Diputación de Bizkaia, 1911. 1911-V-20ko bilera.

Hona hemen Mozio horren edukia:

“Jaun Txit Gorena:

Gizakiari bere naturatik datozkion berdintasunezko eskubideak bizitzako aldi guztietan aitortu beharra egunetik egunera premiazkoagoa eta larriagoa bihurtzen ari da. Egiazki kezkarriak dira une hauek herrien gizarte-bizitzan, eta batez ere arazo ekonomikoari dagokionez, eta berandutu gabe eta kementez ekin behar zaito horren soluzioari, mehatxupearan gauzkatzen izatera deuseztatzaila eta anarkikoko arrisku handiak salbatzearen, instituzio eta organismo zaharrek gaur egun porrot egitearen ondorioz, eztabaidea eta iraunkortzat eduki izan baitira.

Baina maila ekonomiko-sozialeko eraberrikuntzekin, aberastasun kolektibo-boa ekitatiboki banatzearen zentzu unibertseki onartuarekin, hondamendia une baterako urrunaraztea besterik ez da lortuko, baldin eta parez pare gizartearen kultur eta hezkuntza-lana ez bada indartzen, halako moldez, non horietako kideek, beharizan fisikoak aseturik dauzkaten heinean, elikadura izpiritualako elementu erraz eta ugariak ere izan ditzaten, horiek baitira bakearen eta oparotasunaren oinarri eta berme.

Gure kultur aberastasuna gizarte-esfera guztietara era berean iritsi dadila lortuz, eta gaitasun-mailaz beste bereizkuntzarik egin gabe, arazorik zailenak konpontzeko ezinbestekoak diren oinarriak ezarriko ditugu, zibilizazioaren pixkanakako martxa aldatu eta geldiaraziko duen perturbazio eta konbultsiorik gabe.

Bizkaiak, beraz, bere ahalmen ekonomikoarekiko harmonian, instrukzio publikoaren onurak orokortzeko beharra du (trokel horretan eratzen baitira etorkizuneko belaunaldiak), halako moldez, non ezein kasutan eta inolako aitzakiaren azpian hiritar-talde gutxi-asko ugariak ez baitaitezke bizi ikastetxetara joateko ezintasun materialean; eta ahalmen hori bideratu egin behar da herri-gaitasun guztiak ustiatu ahal izateko eran, aldeztu aurretik hautespen patxadatsu eta zorrotz bat eginez, irakas-instituzio guztietarako bidea zabal dadin, izan ere, garapen intelektualean hastapenetan jardueraren emankorren itxaropen bilakatzen baitira.

Aipaturiko helburuak lortzeko lehen urrats gisa, Aldundi Txit Goren honi honako egitasmo hauek kontuan hartzea proposatzen diot:

1.- Lehen mailako berrogeita hamar eskola sortzea mutikoentzat eta berrogeita hamar neskoentzat, bost urteko epean, hamar familia baino gehiagoko beste hainbeste auzune edo taldeetan, baldin eta etxebizitzatik eskola hurbilenera kilometro bateko distantzia badago, auzo laboratuek duten gelarik egokiena horretarako dohainik laga dadila kudeatuz, Aldundi Txit Gorenak ordainduko duelarik irakaskuntzarako beharrezkoa den materiala eta maisuen

Mozio horrek suposatzen zuen Estatua laguntzailekide izango zela ehuneko 25ean, eta Udalak beren aldetik prest egongo zirela eraikinen balioaren ehuneko 3 ordaintzeko, gehi hogeita hamabost urteko epe batean amortizatzeko legokiekien erabilera.

sustengua, zeinen soldata gutxienez 3.000 pta.koa izango den. Hurrengo ekitaldiko aurrekontuetan 90.000 pta.ko kopurua esleitzea lehen urteari dagozkion hogeitaz eskolak eraikitzeko.

(...) 5.- J.T.G. horrek Mozio hau kontuan hartu duzularik, Instrukzio Publikoko Batzordeak eta Sustapen Batzordeak hori aztertu eta horren berri eman dezatela eskatzen dut, azken finean aipaturiko egitasmoekiko egokien jotzen diren gehiketak edo kenketak proposa ditzaten, zeinen errealitatea eta eraginkortasuna labur dadila komeni baita adierazitako helburuak lehenbailehen lortzeko.

J.T.G. horrek erabakiko du egokien deritzona.

Bilbon, 1919ko azaroaren 26an,
Juan Gallano”.

Ehun eskola sortu nahi ziren bost urteko epean, urtean 20 eraikita; azkenik, eta geroago ikusiko denez, ehun eta hemeretzi izango dira, betiere auzune desberdinetan sortutako premia berrien arabera. Egitasmo hori benetako interesaz hartu zuten Instrukzio Publikoko kideek, eta Luis Eleizalde, mozioaren albisteak ustekabeen harrapatu baitzuen Madrilan, zera idatzi zuen, “lehen irakurraldian eta oro har oso ongi deritxot, fundazio horiek Herrialdearen errealitate biziei erantzuteko badira; horixe da auziaren korapiloa, horretan datza obra bat onuragarria izatea edo, aitzitik, ahalegin hori abentura txoroetan alferrik galtzea. Hala ere, uste dut, fundazio horietan zentzu eta arreta pixka batez jokatzu gero, arrakasta ona izango dela eta oharkabeen aldatuko dela gauzen itxura”¹⁵³.

Bizkaiko Aldundiak aintzakotzat hartu zuen 1919ko abenduaren 9ko mozioa; gerora, Landetak, Eleizalde (ikuskeriak), Gallanok eta P. Aransolok osatutako ponentzia bat eratu zuen, auzo-ikastolen izapidetza administratiboarekin loturiko lan guztiak izaera betearazle batez egin zituzten.

2. AUZO-IKASTOLAK SORTU ETA GARATZEA (1920-1923)

1920.eko lehen hilabeteetan gogor lan egin zen, bai egitasmoaren eta bere antolakuntza-irismena aztertzen, eta bai Administrazio Zentralaren lege-alderdiak izapidatzen ere; horrekin bateratu, Instrukzio Publikoko bulegoa berrantolatu zen, eta delineaizale bat gelditu zen horri atxikirik eskola-eraikinekin zerikusia zuten gauza guztiez arduratuta, Aldundiko arkitectoarekin adostasunean.

Egitasmo zabal hau burutzean arrakasta segurtatzeko, ahalik eta zehaztasun handienaz ezagutu behar ziren Bizkaiko herri desberdinetan zeuden premiak; horretarako zirkular bat eta galde-zerrenda bat zuzendu zituzten 1920ko urtarrian. Aginduriko lehen hezkuntzako eskola erdiesteko herriek edo auzo-elkarteek bete behar zituzten hiru baldintzen berri ematen zuten zirkularrak: hamar biztanle baino gehiago izan behar zituzten, horien etxebizitzek gutxienez kilometro batera egon behar zuten eskola hurbilenetik, eta azkenik, beharrezkoa zen auzo- edo Udalek lokal egoki bat eskaintzea. Aldundiak, bere aldetik, eskola-materiala eta maisuen sustengua ordaintzeko konpromisoa hartzen zuen.

¹⁵³ 1919ko abenduaren 10ean E. Landetak egindako gutuna.

Euskaraz eta gaztelaniaz idatzirik zegoen galde-zerrendak honako datuak eskatzen zituen: herriaren izena, biztanleen kopurua, eskola-zentsua, ohiko hizkuntza, eskola behar duten auzoak, nekazaritza-lanen ohiko aroa, lan horien iraupena, haurrek nekazaritza-lanetan hartzen duten parte, eta abar.

Galde-zerrendari emandako erantzunak jaso eta herrien beharrezanean buruz lehen eskuko informazioa bildu ondoren, Instrukzio Publikoko batzordea zerrenda bat egiten eta auzoen lehen-tasun-ordena bat ezartzen hasi zen, honako alderdiak kontuan izanik: ikasle kopururik handiena eta biztanle kopuru orokorra, baita eskola hurbilenera zegoen distantzia handiena ere; batzordeak ikusi zuen udalerrri eta auzune-kopuru handi batek behar zuela eskola bat sortzea, kasu bakoitzean ageri ziren datuei erreparatuz gero.

Batzordeak hala erabakirik, Eleizaldek, Landetak eta Gallanok eraturiko ponentzia bat izendatu zen lehen instrukzioko berrogeita hamar postu zuzkitzeko lehiaketa prestatu eta ireki zezaten; jakina denez, lehiaketa publiko eta orokor hori apiril aldera ireki zen. Deialdian bi oinarri edo baldintzaren aipamena egiten zen: lehenaren arabera, maisuek aski ongi menperatu behar zuten euskara, batez ere, gune euskalduneko postuez jabetzeko. Bigarren oinarri edo baldintzak zioen postu guztiak, kategoria-salbuespenik gabe, sarreran hiru mila pta.ko soldataz horniturik egongo zirela, eta horri, zegokion araudian ezarritako bosturteroko gehikuntzak erantsi beharko litzaizkioke. Halaber, maisu-maistrek hartzeko pasiboetarako eskubidea ere izango zuten, araudian zehazturiko zenbateko eta eran.

Deialdiak oihartzun handia izan zuen maisu-maistren artean, eta eskaera ugari jaso ziren Batzordean eta aise gairitu zituzten zeuden postuen kopurua.

Maisuen lehen promozioa, Auzo-ikastolen garapenean hainbesteko eragina izan zuena, 1920ko hilabete horietan onartu zen¹⁵⁴; artean ez zegoen lehiaketa-egitaraurik, eta gainerako beste baldintzak ere zehaztu gabe zeuden, nahiz eta ondorengo urteetan finkatzen joango ziren.

Eskola-eraikinei zegokionez, 1920 eta 1923. urte bitartean 53 eskola inauguratu ziren beste hainbeste auzunetan, eta beste banaka batzuk ia amaiturik gelditu ziren.

Honako laukian ikusten denez, eskolen eraikuntza-erritmoa oso bizkorra izan zen lehen urteetan, eta ikasleen kopurua ere nabarmen gehitu zen. Erritmoa gutxituz joan zen diktaduragaraian, hamarkadaren bukaeran ehun eskolako kopurua osatu zen arte.

	Irekitako eskolak	Eraikinak guztira	Ikasleak guztira
1920	2	2	99
1921	23	25	1637
1922	13	38	2426
1923	15	53	3074
1924	9	62	3692
1925	15	77	4748
1926	9	86	4989
1927	9	95	5315

¹⁵⁴ Lehen maisu / maistra-promozio hau honako izenek osatzen zuten: Julene Azpeitia, Maria Learreta, M^ñ Nieves Gomeza, Purificación Mandiola, M^ñ Asunción Gorriño, Consuelo Gallastegi, Primitiva Unzueta, M^ñ Luisa Leivar, Sixta Barrenechea, M^ñ Rementería, Nicolasa Aizpuru, Eulalia Azcuénaga, Benita Larrabe, Juana Eceiza, Gregoria Zufiaurre, Juana Zubero, Presentación Lecube, Segunda Ibarreche, Pascuala Gamecho, Inés de Zubeldia, Emeteria Gangoiti, Eloisa Urquidi, Félix Gutiérrez, Ireneo Díez A., Julián Irigoyen Irisarri.

	Irekitako eskolak	Eraikinak guztira	Ikasleak guztira
1928	4	99	5642
1929	1	100	5731
1930	0	100	5810

Soilik lehen aroan eraikitako eskolei bagagozkie, esan liteke probintzia osoan barrena sakabanaturik daudela, batez ere Markina, Durango, Arratia eta Enkarterrietan; udalerrri batzuek eskola bat baino gehiago zeukaten ordurako beren lurraldean.

Lehen inauguratu zen eskola Mendatako Albiz izan zen, eta ondotik Belendiz (Arratzu), Arkotxa (Zaratamo), Bengoetxe (Galdakao), Uribe (Zeanuri), Metxikas (Errigoiti), Iruzubieta (Ziortza), Errigoitolea (Errigoiti), San Migel (Amorebieta), Iturreta (Markina), Derio (Zamudio-Derio), Laukariz (Mungia), Aspiltza (Xemein), Jainko (Arrieta), Ziarregi (Ziortza), Axuria (Barruri), Linarez (Artzetales), Zubiaur (Bermeo), Torkatxas (Karrantza), Sangrizes (Karrantza), Areatza (Muxika), Oromino (Durango), Santxosolo (Gueñes), Astelarra (Muxika), Oba (Dima), Eizaga (Zaldua), San Lorentzo (Zaldua), Natxitua (Ea), Gallartu (Orozko), Amalloa (Xemein), Kabiezes (Santurtzi), Santa Lutzia (Igorre), Leiz-Miota (Elorrio), Gallano (Basauri), Isuskiza (Plentzia), Uresantze (Gorliz), Baldatika (Forua), Lauro (Loiu), Gabika (Ereño), Geldo (Zamudio-Derio), Berreño (Arbazegi), Erietxeeta (Galdakao), Zubialdea (Basauri), Las Muñecas (Sopuerta), San Zipriano (Karrantza), Mendiola (Abadino), Bernagoiti (Amorebieta), Asterría (Zeanuri), Indusi (Dima), El Alta (Galdames), Arbaiza (Orozko), La Calera (Karrantza)...

Bizkaiko haran eta muinoetan barreiaruriko eskola hauek ezin hobeki egokitu ziren herrialdearen izaera eta paisaiara, bai eraikinaren kanpo-konfigurazioarengatik, eta bai eraikuntzan erabilitako materialengatik ere; arkitektura, oro har, eskual baserriaren estilora moldatzen da.

Oso eraikuntza trinkoak dira, harlangaitzekoak eta 0'60 metro lodierako hormak dituztenak. Teila kurbatuzko teilatuak nola gainerako arkitekturak herrialde honen ezaugarriei erantzuten die. Eskola-eraikinaren inguruan nekazaritza-esperimentaziorako lurguneak daude, lorategiaz eta jolaserako frontoiaz gainera.

Ikuskaritza-karguan Luis Eleizalderen ondoren etorriko zenak, Pedro Zufiak, eskola bikun baten planoaren deskribapena utzi digu, baita eraikinaren barrunbeena ere:

“Eraikinak planta bakarra du, eta honela banaturik dago: ataria, ikasgela, materialgela eta sukalde-jantokia. Gure eskola guztiak mota berekoak dira, zeinahi kategoriatakoa izanik ere; aldatzen den gauza bakarra ikasgela eta komun kopurua da, eta desberdintasun hori eskola-zentsua osatzen duten haur-kopuruaren arabera dago, zeren ez baitago baimendurik ikasgela eta maisu bakoitzeko 48 ikasle baino gehiago duen matrikula-ketarik. Ikasgelak laukizuzenak eta luzeak dira, argikuntza ugari eta uniformeari lehentasuna eman nahi zaiolako, honako neurri hauekin: 6'50 metro zabalean eta 9 metro luzean, eta 4,25 metroko altuera teilatuetan, eta zorua zur, baldosa edo zerrauts konprimatuzkoa izango da nagusiki, 0,25 metroko altuera duten tabike edo gangatxoan gainean eraikia, barruan eratzen den aire-ganbarari esker hezetasunetik erabat isolatzeko. Airea etengabe berrizatzen da kanpo-hormetan ezarritako haizagailuei esker. Ikasgeletako argikuntza beti aldebakarrekoa da, ikasleek ezkerretik hartzen baitute argia, 2 x 2,50 metroko hiru leihateria laukizuzen zabaletatik, eta horiek behetik gora horizontalki baskulatzuten duten montantez horniturik daude, ikasgelaren aireztapen etengabea lortzen dutelarik ikasleen osasuna arriskuan jarri gabe, zeinek ez baitute hozteko arriskurik, ze-

ren ikasgelek estufa baitute berogailutzat, nahiz gurea bezain klima onberan ez den oso beharrezkoa izaten. Eraikineko barrunbe guztiak 1'20tik 1,50rako altuera duen zokalo batez estalirik daude, eta kasurik gehienetan axuleiua da, zeren horrela exijitzen baita neurri higieniko, apaindurazko eta denborarekin ekonomiko gisa. Goi-partean hormak zurituz daude eta angelu guztiak biribilduak dituzte; bainugelak esekitzeko kakoak doaz hiru frontetan eta bestean bi garbileku daude txorrota atzeragarriz horniturik, haurrek ura surtidore-sistemaz edan dezaten, eta beraz, inolako kutsatze-arriskurik gabe; sukalde-jantokia sutegi ekonomikoaz, ikastokiaz eta ur korrontedun harrazkaz horniturik dago: azken baldintza hori eskola guztietan eskatzen da, eta kasurik gehienetan, iturriko hura hartuz bete izan da, eta gutxi batzuetan bakarrik, eta ezin gaudituzko zailtasunengatik, deposituak eraikiz euri-ura erabiltzeko.

Komunak eraikin nagusitik bereizirik daude, eta mutiko eta neskatoentzat bi sail erabat berezitan banaturik daude, denak ere kanpo-ate, etengabeko aireztapen, ur korronte eta dagokion garbilekuz hornituak¹⁵⁵.

3. LEHEN ORIENTAZIO ELEBIDUNAREN ALDAKETA

1921ean argitaraturiko eskolen lehen araudiaren arabera, irakaskuntza-planak, edozein lehen eskolak dituen ikasgai komunez gainera, herrialdeko ama-hizkuntzaren irakaskuntza eta euskal gramatikaren ikaskuntza hartzen ditu bere baitan; bi printzipio garrantzizko hartuko dira, gauzen errealitateak eta sentitzen diren premia ezinbestekoek zehaztuak, hots: "A" kategoriako eskoletan, euskal hizkuntza erabilia eta ohikoa den eskualdeetan kokaturik daudenean, irakaskuntza "euskaraz eman behar da, gaztelania irakaskuntzako gai derrigorrezkoa izanik Eskola horietako goi-ikasturteetan"; bestalde, "B" kategoriako eskoletan, erabilitako hizkuntza gaztelania den eskualdeetan kokaturik daudenean, irakaskuntza gaztelaniaz emango da, "euskara borondatezko ikasgaia izanik Eskola horietako goi-ikasturteetan".

Horren guztiaren hedapen egitarauzko batek, "A" kategoriako eskoletan irakurketa eta idazketa euskaraz egitea ezartzen zuen oinarrizko ikasturtean; Bizkaia eta Euskal Herriko historia ikastea erdiko ikasturtean, eta euskal gramatika ikastea goiko ikasturtean, eta horrezaz gainera, aurreko urtean hasitako Euskal Herriko historia eta geografiako ezaguerak hedatzea.

Luis Eleizaldek eta Instrukzio Publikoko gainerako Batzordekideek auzo-ikastolei eman zieten hezkuntza-orientazio hau aldatu egin zen haien ibilbidea hasi bezain laster, Landetak berak, aldaketa horien lekuko berezia izan zenak, berresten digunez:

"Luis Eleizalde jaunak -dio- auzo-ikastolei buruz zuen pentsamendua -hari zor diote bizia- ezagutzeko aukera izan genuenok, egindako urte guzti hauetan etengabe harritu gaitu nolako aldaketak egin diren, pixkanaka-pixkanaka, haren orientazioan, geroz eta gehiago desnaturalizatuz joan baitira.

Utzi gintuen euskaldun handi haren ideietatik praktikara alde nabarmenak azpimarratu genituen ezinbestean, eta Eleizaldek berak ere horretara moldatu behar izan zuen bere borondatez, nahi zuenaren parte handi samar bat lortuko bazuen¹⁵⁶.

¹⁵⁵ Zufía, Pedro de: Las Escuelas de barriada. Bilbo, 1930, 134-136 orr.

¹⁵⁶ "Don Higinio": ¿Alta traición? Contra las Escuelas de barriada. "Euzkadi", 1931ko urriaren 9a.

Zalantzarik gabe, Liga Monarkikoa eratzeak eta hura agertu eta sendotzearen ondorioz sor-
turiko egoera berriak izan zuen eraginik Aldundiaren hezkuntza-politikan gertaturiko aldaketa ho-
rietan guztietan. Beste toki batean aipatu dugu Ligak zer pentsamendu zuen nazionalistek euskal
kulturaren gaietan, euskarazko eskoletan eta abarretan egindako gastuen inguruan. Ligaren ara-
bera, herrialdea “desespainoltzera” zuzendurik zegoen dena, eta beren asmoa zen “euskararen
erabilpena hedatzea eta haurretatik darabiltenek gaztelaniarik ez ikastea”¹⁵⁷. Euskal nazionalis-
moaren aurrez aurreko oposizioaren testuinguru honetan ulertu behar da Eusko Ikaskuntzari eta
Gernikako Kongresuari egindako kritika gogorra. Aski da “El Pueblo Vasco” irakurtzea Eusko
Ikaskuntza Elkartearen lanez zer iritzi zeukan konturatzeko, esaten zenean “gizon ezaxolati edo
neuro batzuen ondoan, jokaera aktibo eta erabakior batez separatista adierazgarrienak ikusten
ditugu”; eta Aldundiko Batzordearen jardunari dagokionez, honako hau gehitzen zuen prentsa
berak: “Oraindik ere, irakaskuntzako negoziatua, edo hobeki esanda, eskoletara propaganda biz-
kaitarra zabaltzekoa fanatiko arrakatsu batek, alderdiari egindako zerbitzuak ordaintzeko gehien-
go nazionalistak bertan jarritako batek gidatzen du, eta hori eskandalagarria da”¹⁵⁸. Aipu hauetan
eta beste batzuetan, era gutxi-asko nabarmenean, Luis Eleizalderen pertsona adierazi nahi zen,
separatista gailenetakotzat hartua.

Aldunditik zuzenduriko hezkuntza-obraren aurkako susmo txar eta akusaziozko giro ho-
netan ez da harritzekoa eskola probintzialesi buruz ere adierazpen aldekoegiak ez egitea: ma-
gisterio nazionaleko ordezkari batzuen arabera, horiek sortzean separatisten maniobra politi-
ko osasungaitz bat ikus zitekeen: eskola horiek “izaera euskaldun nabarmena zuten, eta on-
dorioz, goiburutzat espainiar intsignia daukatenen etsai” ziren¹⁵⁹.

Eskolen hezkuntza-orientazioari buruzko salakuntzak ugaldtu egin ziren 1921eko lehen hi-
labeteetan, auzo-ikastoletan eta oro har euskal eskoletan erabiltzeko zenbait euskarazko ikas-
liburu argitaratu zirenean; Instrukzio Publikoko Batzordekide batzuen iritiz, testu horietan ku-
tsu politiko argiko kontzeptuak defendatzen ziren, eta horregatik, berehala erabileratik kanpo
utz zitzatela eskatu zen.

Eskola-testu horien edukiari buruzko eztabaida Batzordean hasi eta Aldundira eta prentsara
igaro zen gero. Hori zela-eta, aipaturiko liburuetatik pasarte batzuk atera ziren eta, gaztelaniara i-
tzulirik, nazionalisten asmo politikoen egiaztagarritzat argitaratu ziren. Hau bezalako esaldiak ate-
ra ziren: “Tomad el vascuence y dejad el castellano”; eta beste hura: “si queremos ser libres co-
mo fuimos antes, dejemos para los castellanos los cuentos escritos en castellano” eta abar¹⁶⁰.
Hautatu eta argitaraturiko gainerako esaldiak ildo beretik zihoazen eta zentzu berekoak ziren.

Nazionalisten “lan separatista”ri buruzko kexuak administraziora ere iritsi ziren, eta horre-
la, Valladolideko Unibertsitateko Errektoreak, 1921eko abuztuan xedatu zuen, nahiz eta alde
aurretik aitortu eskola horiek zeinen eginkizun garrantzitsua betetzen zuten baserri-giroa alfa-
betizatzen, gaztelaniazko gramatika ikasi beharra zegoela herrialdeko eskola guztietan.
Errektorearen jakinarazpenak zioen, besteak beste,

¹⁵⁷ Ikusi “La administración provincial en manos de los nacionalistas”. Publicación de la Liga de Acción Monár-
quica de Vizcaya. 1919, 21 orr.

¹⁵⁸ “Frente a la conjura. El mitin de Guernica”, “El Pueblo Vasco”, 1922ko irailaren 15a.

¹⁵⁹ Manzanares, Alejandro de: Las Escuelas de Vizcaya. “El Liberal”, 1920ko apirilaren 21a.

Aurreko idatziaren zentzu berean aurkitzen da Daniel Ranz Lafuenteren beste bat: Las Escuelas en Vizcaya, “El
Liberal”, 1920ko apirilaren 27a.

¹⁶⁰ Ikusi “El Magisterio español” (Periódico de instrucción pública) 1921-V-09, LV. urtea, 5.985. zk., Emilia Gus-
polcuzen idatzia, zeinak “Labor separatista intolerable” izenburupean, “Azijerea eta Osasun-Bidea” euskarazko liburu-
tik jasotako eta separatistatzat jotzen dituen puntu batzuk aipatzen baititu. Honela idatzen du idazleak:

“eskola horien funtzionamenduaz aurkezturiko salakuntzak direla-eta irekitako informazioa kontuan hartuz, une hartan Ministerioan aurkitzen zelarik informazio hori, ondo-ondotzatzen da uneren batean Bizkaiko iritzian alarmaren bat sortu zela aipaturiko eskola horiek sortu izanarekin lotuta.

Errektoregoak zuhur irizten dio inkoaturiko espedientei onarpena eman aurretik Bizkaiko Aldundi Probintzialera jotzeari, bertan honako puntuok alda ditzan:

“Ikus beza irakurleak liburu horiek zer dioten:

Azjireea eta Osasun-Bidea testua

31. folioa. IV Ikasgaia- Aberrijaganako biarkunak

Ikasgai honetan Euzcadiz (Euzkadi Aberrija) hitz egiten da etengabe. Dirua eman behar dela dio, baita bizia ere, gure nazioaren askatasuna babesteko. Ejerzito espainiarraren inbasioaz eta Otxandioko borroka hitz egiten da. Irakurgai: “Ume euskaldunen laguna”, II libkia, 22. folioa. Honela dio:

“Ardiak larreen ari diren bitartean, artzainek zantzoak jaregiten dituzte erdi-euskaraz, erdi-erdaraz, eta hori hizkera lotsagarria da”.

30. folioa.

Honela dio bertso batek: “Hartu euskara eta utzi erdara”.

34. folioa.

Honela dio: “Euskaldun jaio nintzen, euskaldun hazi, nire amak euskara bakarrik erakutsi zidan; euskara maitea, zoaz beti nirekin; euskara hilez gero, ez nuke bizi nahi”.

108. folioa

Honela dio: “Lehen izan ginen bezala aske izan nahi badugu berriro, utz ditzagun erdaldunentzat erdaraz idatzitako ipuinak”.

116. folioa

Honela dio: “Menditik irten da eguzki askatzailea; haren argia laster zabalduko da noranahi. Itzartu euskalduna. Gora euskaldun guztiak. Gora, gora lege zaharrak”.

120. folioa

Udaberriari egindako bertso batzuetan dio negua gogorra izan dela Euzkadin, bere seme-alabak arrotz eta atzeritarren artean bizi izan direla, baina, itxaron, zeren neguaren ostean udaberria etorriko baita eta orduan Euzkadi biziko da eta zoriotsu izango da”.

141. folioa

Honela dio bertso batek:

“Euskaldun erdaldundua. A zer izurria!”

204. folioa

Ardiak zaintzen ari den artzain bat irudikatzen du bineta batek, eta hasieran datorren bertsozko ikasgai batek honela amaitzen du: “Geu gara, artzain abertzaleok, Euzkadi begi zoliz zaindu behar dugunak hartzik sar ez dakigun, zeren hartz arrotzek inguratutik baitaukat Euzkadi”.

“Ume euskaldunen laguna” liburuaren bigarren tomoan, bada ikasgai bat 17. folioan, “Erdalderiaz” izenburua duena.

Ikaskai honen ertzean bineta nazkagarri bat ageri da, mihi pozointsua ageri duen suge batez inguratutiko zuhaitz baten enborra irudikatzen duena, eta ikasgai horretan esaten da “Gaztelerritik ordu txarrean sugedorri bat sartu zitzaigula, bere mintzo eziaz guztiok engainatu gaituela. Sugedorri zikin hori hasieran akabatu bagenu, buruan joz, euskal herriaren askatasuna gaur bizirik legoke munduan”.

Ale horretan bertan, 175. folioan, beste ikasgai bat dago bertsoan, eta bertan Irakasleak bere ikasleei galdetzen die zer egingo luketen erdaldunak izatera behartuko balituzte, eta haurrek esaten dute “erdaldunak izan baino hobe da hiltzea”.

(Nazionalistak beren buruak defendatzera beharturik aurkitzean esaten dute Erdeldun eta Erdara hitzek pertsona edo hizkuntza arrotz edo atzeritarra esan nahi dutela, baina mundu guztiak daki nazionalistak hitz horiek erabiltzen ditueanean, pertsona edo hizkuntza hori gaztelania edo espainiarra dela adierazteko dela).

Hori irakurri ondoren suminduko ez denik baldin badago, sentiberatasuna galdua duela sinetsi beharko da. Eta agi denez, bada jendea, hori guztiarekiko sentigaitz, ezer berezirik gertatu ez balitz bezala jarraitzen duena.

Instrukzioko Ministro Txit Garaia: eskola horiek, liburuarekin edo liburu gabe, badute beren seiua, nabarmendu egin dute beren izpiritua espainiar aberri, bakar eta banaezinaren sentimendurekiko kontrakarrean dagoena”.

1. Auzo-ikastolen plan edo irakasgai-koadroan, bai A taldekoetan eta bai B taldekoetan ere, gaztelaniazko hizkuntza eta gramatikaren ikaskuntza sartu behar da irakaskuntza banatzen den beheko, erdiko eta goiko hiru ikasturteetako bakoitzean, horiek eskatzen duten mailakako hedapenarekin...”¹⁶¹.

Horren guztiaren ondorio gisa, Bizkaiko Aldundiak, lehen adierazi den eran gobernaturik, auzo-ikastoletan indarrean zegoen ikasketa-plana aldatzea erabaki zuen, 1921eko urriaren 11ko bileran; orientazio euskaltzalea eta euskal gramatikaren ikasketa desagertu egin zen beraz, eta aurrerantz, euskararen erabilpena irakaskuntzako bitarteko eta eroale gisa bakarrik gorde zen.

Hain zuzen ere, Luis Eleizalderi egokituko zitzaion, ikuskari zen aldetik, Aldundiak hartutako erabakiaren berri maisu-maistra guztiei ematea; 1921eko urriaren 17ko bere idatzian esaten zien ikasketa-plana aldaturik gelditzen zela, Valladolideko Errektoreak goian azalduko zentzuan¹⁶².

Urte bereko azaroan, auzo-ikastolak sortzeko izendaturiko ponentziak erabaki zuen E. Solanaren gaztelaniazko gramatika erabil zedila gaztelaniazko hizkuntza eta gramatika irakasteko.

4. ESKOLEN LAGUNTZA HERRITARRA. ERAIKUNTZA ETA KONTSERBAZIO KOSTUAK

Eskola-gelak, eskolak ezarri beharreko auzoen udalek eman behar zituzten, eta gero Udalarenak edo Aldundiarenak izango ziren jabetzari zegokionez; 1926ko araudiaren arabera, Korporazio probintziala prest zegoen auzo-elkarteei eraikuntza-kontzesioak egiteko, baldin eta horiek hitz ematen bazuten “Aldundiari lagako ziotela eraikinaren lege-usufruktua, irakaskuntzarako den bitartean, eta Aldundiak aitortuko zuen bertako seme-alabek lehenetazko eskubidea dutela eskolara joateko”¹⁶³.

Udalak, eta bere kasuan, herritar jabeak obligaturik zeuden beharrezko konponketa eta atonketa guztiak egitera eraikinak behar bezala edukitzeko; era berean, horien kontura zihozten urteroko garbiketara eta zuriketara lanak ere, eta baita jarduera horietarako beharrezko materiala hornitzea ere.

Jakina denez, eraikin gehienak Udalek eraiki zituzten, udal-aurrekontuen kargura; baina hamarka batzuk zegokien auzoko biztanleen jabetzakoak ziren. Auzolagun horiek, auzoari eskola bat emateko bildurik, era guztietako ahalegin pertsonal eta komunitarioak egin zituzten eta beren dirua ere eman zuten.

Landetak, herritarren ekarpen horien lekuko izanik, Bizkaian gertatu zen jazoera miressgarria azpimarratu zuen, non “guztiek, gazte eta zaharrek, gizon nahiz emakumeek, ez beren dirua soilik, beren aurrezkiak, baizik eta beren ahalegin pertsonala eskaini zuten. Batzuek beren basoetako zura edo harrobietako harria eskaini zuten, beren idi-pareak eta gurdia material horiek garraiatzeko, beren izerdia eman zuten besoetako ahaleginez, zeren guztiek, gizaki sentituz, beren herriko eskolan parte izan nahi baitzuten, beren seme-alaben arimak eta gorputzak moldeatuko ziren tailerlean”¹⁶⁴.

¹⁶¹ B. A. A.: Gallano Mozioa, 1919, 957. Karp, 4. esp.

¹⁶² Ibidem.

¹⁶³ Ikusi El Reglamento de las Escuelas de barriada. 1926, 11. orr. Ondoren, eta Araudiko 18. atal horrek jabeen seme-alabei bakarrik mesede egiten zenez gero, honela aldatu zuten: “(...) eskola-adinean dauden haurrak eskolan sartzeko, izangaiaren adin handiagoa beste lehenetazunik ez da izango, 52. atalean ezarritakoaren arabera”.

¹⁶⁴ “Don Higinio”: De Instrucción Pública. Nuestras Escuelas de barriada. “Euzkadi”, 1932ko martxoaren 23a.

Eraikinen kostua, zehazten erraza ez den arren, Zufiaren arabera, 17.000 pta. ingurukoa zen batez beste eskola bakunarentzat, eta 24.000 pta.koa bikunarentzat. Hori, 1930a baino lehen eraikitako eskolei zegokienez.

Badakigu eraikinaren kostua ahalik eta merkeena izan zedin saiatu zirela auzolagunak, eta horretarako ez zituzten materialak (harria, zura, garraioak eta abar) soilik eman, baita jornalak ere; auzolagunek, batzuetan, haren kokagunerako lurra ere jartzen zuten, eta horrenbestez, aurrekontua diru-kopuru aski apalera murriztua gelditu zen. Berriaturen kasuan, eskola eraikitzeak ez zuen mila pezeta baino gehiago balio izan ordainduriko dirutan, eta badira beste zenbait adibide, mila eta hiru mila pta. bitartean ibili zirenak¹⁶⁵.

Interesgarria izango litzateke aztertzea auzo-elkarteek nola burutu zituzten eskolak eraikitze-ko gestioak; baina hemen kasu bakoitzak dituen berezitasun apartekoak jasotzeko modurik ez dugunez gero, Mendatako Albizekoaren eraikuntzan gertatuaren berri emango dugu ondoren; kontaera honek, seguraski Luis Eleizaldek berak idatziriko monografia baten parte denak, ongi samar islatzen du gainerako eskoletan ere gertatzen zena. Gestioak zuzenean egin ziren

“Albiz auzoko biztanleekin, beraiek hitzartu baitute Aldundi Txit Gorenarekin, gaur egun dagoen ikastetxea beren diruz eraikitzea”.

Ikastetxe horren kostua, bere kokapenerako beharrezkoa den lursaila barne, 25.000 bat pezetan jo daiteke. Kontuan hartzen bada 3.000 pta.koa dela familia bakoitzaren diru-sarrera, urtebeteko diru-sarrera guztien %16'33a izango litzateke.

Horren diru-sakrifizio handia ia laguntzarik gabe egin du Albiz auzuneak, lehen eskolak bere sorreratik eman zituen emaitza eraginkorrak zabaldu eta sendotzeko gogo bizi horrek bultzaturik. Gaur egungo eskola-eraikina jasotzeko lanetan auzoko gizonezko guztiek esku hartu zuten, nola jabeek ala maizterrek, era berdinean, prestazio pertsonalaren bidez. Horrezaz gainera, auzotar jabeek beren kontura eman eta garraiatu zuten, bakoitzak bere ahalbideen arabera, eraikuntzarako beharrezko zura. Harlangaitza Ortiz de Vidasolo jaunak eman zuen dohainik, kontuan izanik zer helburutarako zen, nahiz auzune horretan ez bizi, bertan interes eta afektuak baitzeuzkan. Dirutan egin beharreko ordainketak 51 auzotarren artean egin ziren proportzionaliki, beharrezko kopuruak lortu arte, nola jabeen hala maizterren artean, bakoitzak auzo-banaketa gisara Mendatako Udalarari ordaintzen dion zerga-kuota oinarritzat harturik. Auzotar maizterrei dagokienez, baldin eta horiek ez badira aldentzen Albizetik hamar urteko epe batean, behin betikotzat jotzen dira eskola eraikitze-ko gastu-eragindako ekarpenak; baldin eta data hori baino lehen alde egiten badute auzunetik, kalteordaina emango zaie ordainduriko kopuruarengatik, hamar urteko epea bete arte falta den denboraren konformidadean.

Obra egiten ari ziren bitartean, auzolagunek, batzorde bat eraturik, beren artetik lau pertsona izendatu zituzten obrak ikuskatzeko; bat hargintzarako, bestea zurgintzarako eta abar.

Bonifazio Etxegaraiak “La vecindad. Relaciones que engendra en el País Vasco”(1933) “bere lanean, eskola-mota kolektibo hori guztien onerako egiten ziren beste auzolaguntzen lerro berean kokatzen du, hala nola: bideak trazatu, garbitu eta konpontzea, auzunetako baserri-elizak zaintzea, nekazaritza-lanetan elkarri laguntzea eta abarren parean.

¹⁶⁵ Diktadura-garaian egindako auzo-ikastolen eraikuntzak sortutako kostu erreal edo ordainketa efektiboek buruzko informazioa zabaltzeko, honako liburu hau irakur daiteke: “Cinco años de Nuevo Régimen”. Bilbo, 1929, 23. orr.

Arrazoiz esan daiteke, beraz, ezin hobea izan dela Albizeko auzotarrek izan duten lotura Bizkaiko Aldundi Txit Gorenak bertan sorturiko auzo-ikastolarekin, eta ongi merezi duela familia haiek beren seme-alaben etorkizuna hobetzeko agertutako eskuzabaltasuna eta sakrifizioa lerro hauetan goraiatzea. Eta hain da adierazgarria Albizko auzuneak bere auzo-ikastolari ematen dion gizarte-laguntza, non bertan honako kasu hauek izan diren: Eleuterio Uribek, hango auzotar batek, saldu egin zuen zeukan artaldea bere seme-alabak eskolara joan zitezen, zeren ezin baitziren nahi adinako sarritasunez bertara joan artzain-lanetan zebiltzalako, eta Dionisio Badiolak Albizera itzularazi du kanpoan neskametzan ari zen alaba bat, eskolara joan zedin eta bertan beharrezko instrukzioa eta hezkuntza lor zezan¹⁶⁶.

Auzo-ikastola bakoitzean Tokiko Ikuskaritza Batzorde bat eratu zen, alkateak, herriko parrukoak, mediku titularrak eta familiako guraso kideek eratua. Praktikan irakaskuntza, ikasleen partaidetza eta diziiplina nola zihoan soilik adieraztera mugatzen zen bere eginkizuna. Batzorde horiek, irakasleriaren gaitasun, portaera eta ardurari buruzko azalpenak ematen zizkioten Instrukzio Publikoko Batzordeari; baina batez ere, ikasgeletako eragiketak eta higiena agintzeaz arduratzen ziren.

Konpontze, atontze eta garbitze-lanak udako oporretan egin behar izaten ziren, irailean ikasturtea hasi baino lehen.

Bere aldetik, Aldundiak, eta haren izenean Instrukzio Publikoko Batzordeak, ikastetxeak sortu, banatu, antolatu eta administratzeko eskumen orokorrak beretzat gordeak zeuzkan araudiz; horren arabera, esklusibitatez zegokion eskolaren izaera zehaztea (bakuna, bikuna, mistoa, graduatua, eta abar), maisuak prestatu, hautatu eta izendatzea, irakaskuntzako pertsonal eta materialaren premia guztiei erantzutea, ikastetxe eta ikasgela bakoitzaren kopurua finkatzea, eta azkenik, ikasketa-plana, ordutegiak, barne-araudia eta eskolen ikuskaritza orokorra ezartzea.

Ahalmen horietako batzuen interpretazioak zailtasunak sortu zituen auzotarren eta Aldundiaren artean; halaber, auzotarren eta maisuen artean ere arazo batzuk izan ziren, baita auzotarren eta eraikitzaileak ez ziren beste auzotarren edo auzunetik urrundurik zeuden baserrien artean ere.

Nahiz eta hemen ez izan gai horiek sakontzeko astirik, bidezkoa da esatea asko direla Instrukzio Publikoko Batzordearen eta Tokiko Batzordeen zerbitzuen artean trukaturako ohar eta gutunak, kasu bakoitzean egin behar ziren obren berri ematen zutenak.

5. ESKOLA-ANTOLAKUNTZA ETA EGITARAUAK

1923ko Araudiaren arabera, auzo-ikastolak bertako ikasleen arabera misto, baterako eta bereziak izaten ziren, eta eraikinen egitura eta banaeraren arabera bakun, bikun eta bereziak; gerora, eskola bereziek eta bikun mistoek beti graduatuak izan behar zutela ezarriko zen obligazio gisa. Horrela, 1934-35 ikasturtean 27 eskolak graduatu-izaera lortu zuten, eta guztira 74 ikasgela zituzten.

¹⁶⁶ Una barriada vizcaína. Albiz de Mendata. Bizkaiko Instrukzio Publikoko Batzordearen edizioa. Bilbo, 1922, 12-14 orr.

Ikasgela bakoitzeko 48 ikasle baino gehiago ezin zitekeela onar ezarri zen debeku gisa, eta eskola-zentsua kopuru hori baino handiagoa bazen, berehalaxe gehitzen ziren ikasgelak.

Eskola-adina 5 eta 14 urte bitartekoa zen. Ikaslea, eskolan zegoen bitartean, honako graduotatik pasatzen zen: prestakuntza-gradua, 5 urtetik 7ra; behe-gradua, 8tik 10era gutxi gorabehera; erdiko gradua, 11tik 12 urtera; goi-gradua, 13 eta 14 urterekin.

Eskolak sei ordukoak izaten ziren egunero: udazkenean eta neguan goizeko zortzi t'erdietatik arratsaldeko lau t'erdiak arte; eta udaberrian eta udan, zortzietatik hamaiketara eta ordu bi t'erdietatik arratsaldeko bostak arte. Ordu-tegiak aldatu egiten ziren eskualde bakoitzaren premien arabera. Goizean eta arratsaldean banaturik, ordu erdiko jolasaldi izaten zuten.

Ikasturteek irailaren lehenetik uztailaren 16ra arte irauten zuten, Eguberrietako eta Aste Santuko oporraldiak zituztela, jakina, eta gainera, araudiz ezarritako beste jaiegun batzuk ere baziren.

Eskolako diziplina barne-antolakuntzan eta lanean zetzan; debekatuak zeuden gorputz-zigorrak, eta estimuluak erabiltzea gomendatzen zen, esaterako, nota onak, bereizkuntza publikoak eta pribatuak, ohorezko postuak ematea, eskola-karneta.... Ikaslea irakaslearen irakaspenak bereganatzen saiatzeko estimulurik onena saria zela uste zen.

Irakaskuntzen koadro orokorrak, honako gai hauek biltzen zituen: Instrukzio erlijioso eta morala, irakurketa eta idazketa, aritmetika eta geometria, urbanitatea eta higieena, geografia eta historia, gaztelaniazko gramatika, zientzia fisiko-naturalak, marrazketa, zuzenbide-nozioak eta eskola-kantuak.

Goi-ikasturtean, herri bakoitzaren izaera eta bertan ugarienak ziren lanbideak kontuan izanik, oinarrizko nozioak ematen ziren nekazaritza, nabigazioa, arrantza, industria edo merkataritzari buruz. Horretarako Bizkaian hiru alde ongi zehatu bereizten ziren: nekazaritza arlokoa (zabalena eta garrantzitsuena), fabrika arlokoa eta itsas arlokoa.

Baserri-giroan kokaturiko eskolen garrantziaren arabera, "nekazaritza-esperimentaziorako lurguneak" ezarri ziren ikasleei esperientziak eta ezaguerak iradokitzeko asmoz, lehen irakaskuntzaren apaltasunaren barruan, etorkizuneko bizitzarako halako baliagarritasun bat ematearren, "ongarrien, hazien, eta kultiboen entseguak eginez ondorio ziur eta aurreikusgarrietara gidatuko dituztenak, aldikako bitarteko gisa landaz baliaturik fisika, kimika, fisiologia, botanika eta abarren parte handi baten irakaskuntzarako, beren nozio oinarrizkoen eta nekazaritzarekiko erlazio estuenetan. Ez dira ahaztekoak abere-industriari buruzko irakaspenak ere, gure ikasleentzat hainbesteko garrantzia dutenak"¹⁶⁷.

Halaber, erdiko gradutik hasita, eskulana sartzen dira neskentzat: josketa, ebaketa, plantaketa, garbiketa, ekonomi nozioak, haurtzaintza, etxearen kudeaketa eta beste zenbait arlo.

Eskola-egitarauai dagokienez, horien oinarrizko lerroak 1921ean idatzi zirelarik, askatasuna ematen zitzaizkien irakasleei eskolak antolatzeko, ikasleak sailkatzeko, irakaskuntza orientatu eta ikasgela bakoitzaren egitarauak idazteko; ekimenari eta askatasunari buruzko hezkuntzaren bitartez ikasleak bizitzarako prestatu zitekeela esaten zen; Eleizaldek esango zukeenez,

¹⁶⁷ Zufia, Pedro de: *Opus cit.*, 66 or.

“izaki aktiboak eta ekimenez beteak prestatu behar dira, askatasun-sentimenduaren jabe eta hartaz ongi baliatzeko gai direnak. Eskoletan era guztietako ekimenak onartuko zaizkie, diziplinaren mugen barruan.

(...) Beharrezko da ikaslearengan erantzukizunaren sentimendua sortu eta sustatzea; horretarako ona da “karguak” ematea eskolaren barruan, bai instruktore edo sailburu gisa, eta bai liburutegiaren, garbitokien, argikuntzaren eta abarren zaintzaile gisa ere.

Askatasunaren hezkuntza era mailakatuan egin behar da. Emandako askatasunmailek parez pare joan behar dute irabazitako konfiantza-mailekin”¹⁶⁸.

Eskola-egitarau bakarraren argitalpena 1928an gertatuko zen; P. Zufia egilearen arabera, errealitateak ezarritako eta esperientziak aholkatu-rikiko plan baten oinarri, gida eta garapen gisa balio behar zuen¹⁶⁹; azken egitarau horretan debekatu egiten zen ikasgaiak buruz ikastea eta ikasliburuak gehiegi erabiltzea, baina aldiz, gomendatu egiten zen eskolan apunteak hartzea, elkarrizketa bizia, idazkuntza originalak, ariketa praktikoak eta txangoak egitea... Hezkuntzaren eginkizunaren barruan sartuko lirarteke haurrengan egizaletasuna eta justiziale-
tasuna sustatzea, edertasun artistikoa eta naturarekiko zaletasuna iratzartzea, gorputzaren hezkuntza ahaztu gabe, lan fisikoaren, gimnasiaren, joko gidatuen eta higie-ne eta gorputz-txukuntasunaren bitartez.

Edukiei zegokienez, aipaturiko eskola-egitarauak bere garaiko egitarau nazional guztien akatsak zeuzkan, oro har. Eduki zabal eta konplexuegiak ziren¹⁷⁰, eta haien orientazioa ez zegoen behar adina moldatua herrialdearen eskakizun eta premietara. Eusko Ikaskuntza Elkar-tearen Lehen Irakaskuntzako batzordeak, egitarauak eta irakaskuntzako koadro berriek euskarazko orientazio eta giro-rik ez zutela salatu zuen:

“(...) Egitarau horiek kutsu “estatista”, konbentzional eta baterakoiz blai eginak, irakaslanaren emaitza hurbil eta berehalakoaz obesesionaturik ageri dira.

Izpiritualitatea eta giroa falta zaien neurrian “neuro”tzat kalifikatzera ausartuko ginatekeen pedagogi sistema bat da, eta uste dugu lehenbailehen baztertu behar dela emaitza kaltegarriak saihesteko”¹⁷¹.

¹⁶⁸ Eleizaldeak, irakaskuntzako ikuskari gisara, idatzirik hezkuntzari buruzko oharren artean, batzuk, nolabait, txosten eta araudietan jaso ziren, eta beste batzuk argitaratu gabe gelditu ziren, honako hau bezala.

¹⁶⁹ 1928ko eskola-egitarau honetan bi alderdi argiro bereiziaz ageri dira: sarrerako alderdi bat orientazio pedagogiko orokorreko lerro nagusiak finkatzeko xedea duena, eta beste alderdia, prestakuntzako, oinarriko, erdiko eta goiko maila desberdinetan ikasi beharreko gaiak era enuntziatiboan garatzen dituen.

¹⁷⁰ E. Landetaren aburuz, egitarau horiek hain dira zabal eta desarauzkoak, non institutuko ikasleek berek eta unibertsarioek ere nekez emango bailiekete erantzun egokia ezarritako gai batzuei, baina halere baserriarren seme-alabentzako prestatuak daude, gehienak gure mendietako baserrietan bizi direlarik. (“Euzkadi”, 1928ko martxoaren 13a).

¹⁷¹ Ikusi “La Tarde”, 1931-V-14koa, Eusko Ikaskuntzen Elkartearen Lehen Irakaskuntzako Komisioaren oharra, Bizkaia eta Gipuzkoako Aldundiei zuzendua; ohar horretan kritika egiten zaio bi probintzietako baserri-eskoletan ezarritako sistema pedagogikoari.

6. ALTZARIAK ETA ESKOLA-MATERIALA: EUSKARAZKO TESTUAK

Oro har, auzo-ikastolako altzariak honako hauek izaten ziren: irakasle-mahai bat, hiru bat aulki ikasgelarako, materialarentzako armairu bat, mahai-aulki bipertsonalak ikasleentzat, arbel finkoa eta arbel mugikorra, Bizkaia, Espainia eta Europaren mapa erliebedunak, erregearen erretratu bat, egutegi bat, erloju bat, termometro bat, estufa bat, barometro bat eta guru-tze bat. Sukaldean aulki batzuk, mahaia eta tresnak gordetzeko armairu bat izaten ziren.

Aldundiak dohainik eta eskuzabalki irakaskuntzarako emandako materialari dagokionez, ondorengo multzo edo atalak biltzen zituen: testuak, ikasleentzako irakurketa-liburuak eta irakasleentzako kontsulta-liburuak; eskolako koadernoak, marrazketarako eredu eta paperak; idazketa eta marrazketarako bitartekoak; intuizio eta proiektzio baliabide deiturikoak.

Material multzo honen barruan arreta erakartzen duena, bere ugaritasunaz eta premia errealei moldatua izateaz gainera, horien modernitatea da. Ikastolen lehen urteetan, materialen horniketa Leipzig-eko Koehler eta Volckmar etxe sonatuaren esku utzi zen, eta hezkuntza balio handiko produktuak ekartzeaz arduratu zen, hala nola arbel bikoitzak, mapak esekitzeko "Lipsia" aparatuek, zirkuluerdi graduatuak, arbelerako eskuairak, konpasak, haurren entretenimendurako konbinazioak, Froebel sistema, Koepf irakurketa-makinak, espainiar alfabetoak Koepf aparatuek, gorputz geometriko desmontagarriak, lur-esferak, sistema metriko-dezimala irakasteko aparatuek, taula zenbatzaileak, globoak, indukzio-arbelak, 7 hormirudi anatomiko, animalia eta landareen kartoizko serieak, "Kristo, haurren adiskidea" laminak, Europaren mapa fisiko-politikoak, Espainia eta Portugalen mapa fisiko-politikoak eta abar. Material-bloke honekin 50 eskola misto hornitzea espero zen, ikastola bakoitzeko 30na ikasle oinarritzat harturik.

1922. urtearen erdi aldera gorputz opakoak proiektatzeko aparatu batzuk erosi ziren, Luis Eleizaldek bereziki gomendatuak: maneaerrazak eta aplikazioanitzak zirelako oso baliagarriak gertatu ziren argi elektrikoa zuten ikastoletan. Eleizaldek pentsatzen zuen aparatu horiek balio zezaketela maistra batzuk has zitezen "bakoitzak bere auzuneko helduei herri-kulturrari buruzko gau-hitzaldiak ematen, hala nola, higieniaz, alkoholiaz, gaixoentzako lehen laguntzez eta abarri buruz", gai horiek garrantzi handikotzat jotzen baitzituen¹⁷².

1925ean eskolako zinema ezarri zen, irudi eta proiektzioen mundua osatuz. Balio praktikoa handikoak ziren filmeak, eta batez ere, bidaia, historia, geografia eta nekazaritza-abeltzaientza eta oihantzaintzari buruzkoak ziren.

Maisu-maistrek materialaren eskariak egiten zituzten, eskuarki, irail, abendu, martxo eta ekaineko lehen hamabostaldietan.

Gai horretan egindako gastuei zegokienez, Instrukzio Publikoko Batzordeak horien oinarri eta arautzat eskola-matrikula eta aurreko hiruhilekoan izandako asistentzia jarri zituen. Matrikulatutako ikasleek arabera, ikasleko eta urteko 8 pta.ko kopurua ezarri zen beheko, erdiko eta goiko graduetan; eta 5 pta.koa parbuluetan. Zifra horiek gainditurik gelditu ziren 1921-22 eta 1922-23an, horietako lehen ikasmailan 8'78 lortu zen urte eta ikasle bakoitzeko, eta bigarreanean, 9'45.

Dokumentazio ugaria dago Aldundiak ikastola bakoitzari eskuraturiko material erabilgarriaz¹⁷³. 1923-1924 ikasturtean materiala lehiaketa publikoz eskuratzeko araua ezarri zen, eta

¹⁷² B.A.A.: Adquisición de material escolar a la Casa Koehler de Leipzig, 1920-1923. 1120 karp., 10. esp.

¹⁷³ "(...) titulu-ugaritasun handia dagoenez gero, eta batez ere, maisuek egindako eskaeren artean alde handiak daudenez gero, oso zaila da guztia sintetizatu egitea.

bai hornitzaileak eta bai liburusaltzaileak ere, aldez aurretik xeheki adierazitako oinarri batzuk bete behar zituzten.

Beste gauza eta material batzuei dagokienez, "Alfa" josteko makinez ere hornitu ziren Auzo-ikastolak, eta txango eta eskola-ibilaldietan zehar jasotako gauzak gordetzeko bitrinez ere bai, "Eskola Museoa" eratzeko. Zentzu horretan, ez zegoen ikasleek berek egindako lanak baino eraginkortasun pedagogiko gehiago zuen beste materialik.

Txangoak helburu hezitzaile eta praktikoa batez antolatzea, oso ohiko bilakatu zen eskola horietan, batez ere 1923 eta 1930. urte bitartean; goi-mailako ikasleentzako zeuden antolatuak, ikasle batek ere ez zezan eskolatik alde egin txangoren bat egin gabe.

Haurra, oso lausoki eta erreferentzia zehazkabez bakarrik ezagutzen zuen bizitza berri batera hurbiltzea zen helburua. Auzategiko girotik ikaslea atera eta beste giro batzuk ezagutzeko aukera eskaintzearen, txango horiek maiztza-ekaina eta urria-azaroa aldietan egitea gomendatzen zen, horiek baitziren egitasmoari eraginkortasuna emateko egokienak¹⁷⁴.

6.1. Euskarazko testuen auzia

Euskaraz idatziriko testurik ez zegoenez hurrek instrukzioa eta hezkuntza beren bitarteko naturalez jaso zezaten, Instrukzio Publikoko Batzordeak erabaki zuen, 1918ko ekainean, lehiaketa bat iragartzea lehen irakaskuntzako libururik hoberenak saritzeko. Lehiaketako oinarrien arabera, honako kopuru hauek emango ziren sari gisa: 500 pta. "Euskal Herriko geografiaren bilduma laburra" eta "Baserri-giroko urbanitate eta higienea" testuentzat. "Lehen graduako irakurketa-liburua" eta "Bigarren graduako ikasleentzako irakurketa-liburua" testuek 750 pta. jasoko zituzten.

Lanak edozein euskalki eta ortografiatan egon zitezkeen idatziak, nahiz eta sarituen argitalpena "bizkaieraz eta Arana-Goiriren ortografian egingo zen. Lanak, beren irakurketa eta azterketa epaimahaikoek erraz ulertzeko moduan aurkeztu beharko dira"¹⁷⁵.

Lehiaketara aurkezturiko liburuen artean, epaimahaiak —Luis Urrengoetxeak, Ebaristo Bustintzak eta Juan Bautista Eguskitzak osatua— honako hauen aldeko epaia eman zuen: "Euzko errixen edesti laburra", Eugenio Urroz eta Gabriel Manterolarena; "Ume euzkeldunen laguna (Leningo eta bigarren idazkija)", Joseba Altunarena; eta "Azijerea ta Ozazunbidea", C. Jemeinena.

Asko orokortzen ahaleginduz, testu-liburuen partean esan daiteke, titulu eta autore-ugaritasun handia zegoela. Esan liteke liburuen kopurua ere gehiegizkoa zela. Hornizio horrek egokiagoa ematen zuen hiriko eskola graduatueterako, baserri-eskola apal batzuetarako baino. Gehien eskatutako titulu edo liburuen artean hauek dira aipagarrienak: Bruñoren aritmetika eta geometria, Solanaren gaztelaniazko gramatika eta historia sakratua, Ascarzaren zientzia fisiko-naturalak, Seix y Barralen Espainiako historia eta historia naturala, baina baita beste autore eta titulu gehiago ere, hala nola Dalmau, F.T.D., Rufino Blanco, Marti Alpera, Masriera eta abar.

Haurrentzako irakurketa-liburuei dagokienez, autore eta titulu zerbitzatuak zerranda luze bat aipa daiteke; irakurgai horien autoreak hauek dira: Dalmau, Seix y Barral, Pazzi, M. Alpera, Araluce, Solana, Calleja, Ascarza, eta abar (Arrien, Gregorio: Educación y Escuelas de barriada... 1987, 170-171 orr.).

¹⁷⁴ 1923ko zirkular bati erantzunez, maisuek jakinarazi zuten zein ibilbide eta garraibide erabili nahi zuten beren txangoetan, baita zein eskolarekin elkar zitezkeen ere horiek egiteko eta gutxi gorabeherako aurrekontuak. Hautaturiko helburuen artean, bidaiaren helmuga gisara, kostaldea aipatzen zen, erakarmen handienekoa eta lehentasunekoa baitzen lurralde barrukoentzat; baina Bizkaiko Labe Garaiak, Sestaako Ontziola eta Abadiño eta Zallako Nekazaritza Granja ere bisitatzeko ziren.

¹⁷⁵ Euskarazko testuei buruzko edozerarako, ikus bedi " B.A.A.: Material euskérico para las escuelas primarias de Vizcaya". 1125 karp., 10. esp.

“Editorial Vasca” elkarteari esleitu zitzaion aipaturiko liburuen argitalpena, kontuan harturik erakunde horren proposamena zela abantailatsuena Batzordeari aurkeztu zitzaizkionen artean, eta testu bakoitzetik argitaratu beharreko aleak hiru mila izango zirela finkatu zen.

Batzordeak Federiko Belaustegigoitiari gomendatu zion geografiako testu baten prestakuntza, sari hori hutsik geratu baitzen; parez pare, irakurketarako zenbait liburu eskuratu zituen, hala nola, E. Bustintzaren “Abarrak”, eta euskarazko katixima bat argitaratzeko gogoa piztu zitzaion. Azken puntu horretan “Jaungoiko-Zale” apaiz-elkartea arduratu zen lantzeaz, eta lehenik, lehen graduko “Kristiñau Ikasbidea” argitaratu zen; gero, katixima osoa ere agertu zen, Auzo-ikastolen hiru graduetan erabiltzekoa.

Seix y Barral argitaletxeak, pedagogia, eskulan eta gazteentzako argitalpenetan espezialduriko etxeak, bere burua eskaini zion Instrukzio Publikoko Batzordeari materialez hornitzeko, ez ikasliburuez soilik, baita koadernoaz eta eskulanez ere; Batzordeak, nahiz hasieran bere asmoa ez zen izan eskola-liburuak euskarara itzultzea soilik, baina bai Seix y Barralen edizioek zerabilten metodologia erabiltzea, 20.000 koaderno erosi zizkion etxe horri “amerikar idazkerako bildumako hiru koadernoetako bakoitzetik, horren jatorrizkoa” aurrez behar bezala euskaratua izan zelarik.

Eleizalde bera arduratu zen oinarrizko aritmetikako testu bat bizkaieraz lantzeaz (“Euzkel-Zenbakiztia”); egileak berak egindako adierazpenen arabera, 49 orrialdeko liburuxka horren edizioa mila aletan finkatu zen, alor horretan egiten zen lehen esperientzietako bat zenez, eduki zitzakeen metodo-akatsak zuzendu ahal izateko. Testuak, 1920an Alvarez'en Irakolan Bilbon argitaratuak, lau eragiketa matematikoak biltzen ditu. Sarreran jakinarazten denez, egileak kontuan izan zuen Isaak Lopez-Mendizabalaren “Zenbakiztiya”, gipuzkeraz idatzia, eta alderdi askotan eredutzat hartu zuen.

Silabategi txiki bat ere argitaratu zen, batzuetan Eleizalderi eta beste batzuetan Gastañagari egotzia. Hori dela-eta, Instrukzio Publikoko Batzordearen agirietan (1919ko uztailaren 30ean) esaten da irakaskuntzen ikuskariari eskumena ematen zaiola “Gastañaga jaunari buruz, hots, Batzordeari aurkezturiko silabategiaren egileari buruz, egiten ari den gestioak aurrera eraman ditzan, Ikuskari jaunak, bere aldetik, hormako karteloiak eta euskarazko silabategiak egitearen kalterik gabe, zeinak Batzordearen onespena beharko duten”¹⁷⁶.

1919ko irailaren 25ean Eleizaldek Batzordeari aurkeztu zion “beronen aginduz idatzirik euskarazko silabategia, ponente gisa Belaustegigoitia izendatzea erabakitzen delarik horren berri eman dezan”¹⁷⁷. Hurrengo hilean hamar mila ale kaleratzea erabaki zen.

48 bat orrialdeko testu hori, “Euskeraz irakurteko irakaspidea ta lenengo irakurkizunak” titulatu eta 1920an “Euzkel-Zenbakiztia”ren inprenta berean argitaratua, egoki irudizaturik ageri da haur guztiek ezagunak dituzten gauzak eta animaliak erabiliz, bukaeran irakurgai labur eta errazak datozela.

Silabategiak harrera bikaina izan zuen auzo-ikastoletako maisu-maistren artean.

¹⁷⁶ Eleizalderen Bermeoko artxiboan gordeta dagoen “Euskeraz irakurteko irakaspidea ta lenengo irakurkizunak” jatorrizkoa ez dator erabat bat argitaraturiko testuarekin, eta 15 orrialde besterik ez ditu.

¹⁷⁷ B.A. A.; Libro de actas de la Junta de Instrucción Pública, 1919-1924. 1919ko irailaren 25eko bilera.

Gainerakoan, gaur egun ia ezinezkoa gertatzen da material horiek aurkitzea, banaka batzuk aurki daitezkeen arren. Aurreko orrialdeetan esandakoaren arabera, 1920aren bukaeraz geroztik irakurketa eta urbanitateko testuak erabilgabetzea eskatu zen “beren baitan biltzen zituzten eduki eta kontzeptu politikoengatik”¹⁷⁸.

Eskoletan erabiltzea debekatu zenean, material horren parte handi bat biltegitururik gelditu zen; “Euzkadi” egunkarian idatzi zen gerora liburuak erre egin zirela, desagertarazteko:

“(…) mehatxua bete egin zen. Eta euskarazko hogeita hamar mila liburuak erre egin ziren, banan-banan, Bizkaiko Aldundiaren eraikineko berogailuaren galdaretan. Eta horien orde ez zituzten beste batzuek egin. Ia ezezaguna den gertakari honek ez du iruzkin beharrik”¹⁷⁹.

6.2. Ikuskaritza medikoa eta kantinak. Beste jarduera osagarri batzuk

Auzo-ikastolak sortzeko izendaturiko ponentziak erabaki zuen, 1921eko otsailaren 18an, sail horrek ikuskaritza medikoaren gaia aztertzeari ekin ziezaiola, batez ere, medikuei ordaintzeko erarik egokienari buruz eta osasun-fitxa argitaratzeari buruz.

Beharrezko osasun-neurriak hartu eta bisita orokor eta hilerokoarengatik eta ikasleen txertaketa nahiz birtxertaketarengatik medikuei ordaindu beharrekoak finkatu ondoren, Eleizalde bere gain hartu zuen erabaki horien berri eskolak zeuden udalerriei jakinaraztea. Kasu horietan finkaturiko ordainkizunak honakoak ziren: 50 pta. ikasturte-hasierako (edo ikastola-irekierako) bisitarengatik, 10 pta. hileroko bisitarengatik; pezeta 1 ikasle bakoitza txertatu edo birtxertatzeagatik. “Kobrakizun horiek jasotzeko, auzo-ikastoletako irakasleek ofizioz jakinara zi behar diote Batzordeari agindu horiek bete direla”¹⁸⁰.

Batzordeak gonbidatu egin zituen herri eta elizateetako mediku titularrak eskola probintzialak bisitatzea; une horretatik aurrera, medikuek atseginez bete zuten beren egitekoa, eta batzuetan zenbait ikastoletako higiene eta osasun eskasiak zuzendu ere egin zituzten.

Medikuek, maisuak edo maistrak deitutakoan joan behar zuten eskolara, eta kutsadura-arriskuren bat zuten ikasleak eskolaratugabe uzteko baimena zuten.

Aldundiaren 1923ko azaroaren 30eko erabaki batez, eskola-ikuskaritza medikoa ezarri eta sustenga zezatela gomendatu zitzairen udalei, baina data horretatik aurrera oso zaila gertatu zen hori nola bete zen jarraitzea.

1931n, beste Auzo-ikastola batzuk eraikitzearekin batera, Gorlizko Osasunetxean eskola berezi bat ezarri zen bertan bilduriko 4 eta 14 urte bitarteko haurrei arreta eskaintzeko.

Horrezaz guztiaz aparte, ikastola bakoitzak sorospen-botikin bat eduki behar zuen, maisuaren zaindaritza zorrotzaren pean, ezbeharretan eta bat-bateko ondoezetan laguntzeko.

Eskolako kantinari dagokionez, izaera sozial eta humanitarioko instituzio bat zen, eta behar beste janari osasungarri eta elikagarri ematea zuen helburu; halaber, horren bitartez su-

¹⁷⁸ J. Gallanok egin zuen eskaera hau 1920ko abenduaren 16ko Instrukzio Publikoko Batzordearen bileran.

¹⁷⁹ “Artez”: Begi zoliz. “Euzkadi”, 1931ko abenduaren 16a.

¹⁸⁰ B.A. A.: Inspección médica de la escuela de barriada de Zubiaur (Bermeo), 1921, 1201 karp, 69. esp.

kaldaritza eta higieena ere irakatsi nahi zen, baliagarritasun handikoak izango baitziren goikasturteetako neska ikasleentzat.

Eskolako kantinek, ikastola guztietara hedatuak zeudenez, baserriak urrun egoteagatik eta bideak zailak izateagatik ikastoletara ez joatearen arazoa konpontzeko balio izan zuten, baita haurrak baldintza inhumanotan bazkari hotz bat jatera beharturik ez egoteko ere. Aldundiaren galdera-zerrenda bati emandako erantzunen arabera, 10-15 ikasle izaten ziren, batez beste, bazkaria eskolara ekartzera beharturik aurkitzen zirenak.

Kantina ezartzeko, Udalek, eta hala zegokionean, auzo-taldeek, mahaia, armairua, bi aulki eta sutegi ekonomiko bat ezarri behar zuten. Aldundiak bere gain hartzen zuen bateria, baxera eta gainerako mahai-tresnak hornitzea (platerak, edalontziak, erretiluak, katiluak, burrun-tzaliak, labanak, pitxerrak, bandejak, fruitontziak eta abar).

Ikasleek, gehienetan baserriarren seme-alabak, ekartzen zituzten behar ziren jakiak: ogia, indabak, patatak, barazkiak, urdaia, txorizoa, zezina, arrautzak, esnea, fruta... Nekazaritza-esperimentazioko lurguneetako emaitzak ere kantinetarako izaten ziren. Maistra, ardurazten zen jakiak prestatzeaz, arestian esan bezala goiko ikasturteetako ikasleek lagundurik.

Azkenik, jarduera osagarriak izendapenaren azpian, museoak, eskola-mutualitatea, liburutegi ibiltariak, beka-sistemak, erakusketak eta helduen eskolak sartzen ziren; azkeneko hiru instituzio horiez geroago hitz egingo dugu.

Eskola-mutualitatea, Bizkaiko Aurrezki Kutxaren zuzendaritzapean ezarria, sakon errotu zen probintzian eta erruz ugaldu zen urte gutxiren buruan; gizarte mailako lan bat bezala burutzen zen, eta aurrezpenaren eta aurreikuspenaren zentzua areagotzeko aukera gisa, norberaren adinaren arabera.

1923ko araudiak zehazten zuen irakasleak beharturik zeudela bere laguntza ematera eskola-mutualitateen ezarpen eta funtzionamenduari eta "oro har Aldundi Txit Gorenak edo berak sorturiko organismoek aurrerantzean eskolaren inguruan eta ondoren ezarriko dituzten izaera mutualistako instituzioei"¹⁸¹.

Bere aldetik, eskola-liburutegiak, izaera publiko eta ibiltariarekin sortuak, egiazko kultur hedapen bat ziren, zeren horien zerbitzuak ez baitziren eskolaroko ikasleentzat bakarrik, baizik eta auzo guztienganaino iristen ziren. Auzo-ikastoletan ezarritako lehen liburutegiak Bizkaiko Aurrezki Kutxaren eskuzabaltasunari esker eman ziren, zeinak beharrezko altzariak eta bakoitzari 70 obra eman baitzizkion; ondoren, liburutegi gehiago bidali ziren eta aurrekoak aberastuz joan ziren, Aldundiaren kontura.

Liburutegiak prestatzeko irizpide praktikoa eta bereziki utilitarioak erabili ziren; liburuek gairik desberdinenak jorratzen zituzten eta ezaugarri nagusia beren atsegintasuna, interesa, baliagarritasuna eta irakaskuntza praktikoa zuten. Nekazaritza orokorra, zuhaitzaintza, baratzaintza, abelazkuntza, higieena, historia, biografiak, bidaiak, literatura, geografia deskribatzailea, merkataritza, industria, nabigazioa eta ohiturazko zuzenbideari buruzko obrak ziren.

Liburutegi horiek berrehunetik hirurehunera bitarteko liburu-masa batek eratuak zeuden, eta tartean, euskarazko titulu batzuk ere bazeuden, hala nola: "Peru Abarka", "Ipuiañak" (Lego-

¹⁸¹ Reglamento de las Escuelas de barriada. Bilbo, 1923, 25 orr.

aldi, Altuna, Urruzuno eta abarrenak), "Xabierto" (Mendizabalena), "Abarak (Bustintzarena) eta abar. Oro har, han zeuden Lizardi, I. Lopez-Mendizabal, Zamarripa, Manterola, J. Altuna eta abarren liburuak.

7. IRAKASLEAK

Auzo-ikastoletako irakasleak funtsezko osagaitzat hartzen ziren beren antolakuntza eta funtzionamendurako; Eleizaldek 1922an adierazi zuen "eskola dela maisu-maistra", eta "eskola horiek lortzen ari diren arrakasta zabal eta hazkorraren faktore nagusia, eta iritzi publikoan duten abegi merezia, horien ardura daramaten irakasleak direla"¹⁸².

Irakasleak lehiaketa bidez izendatzen ziren; lehiaketan parte hartzeko honako baldintza hauek bete behar ziren: Lehen irakaskuntzako maisu-titulua edo ofizialki horrekin parekatu-rik egon zitezkeenetakoren baten jabe izan; maisuek hogeitun urte beteak edukitzea eta hemezortzi maistrek; ziurtagiri medikoa eta beste agiri batzuk lortzea (jaiotze-agiria, zedula pertsonala, titulua eta zegokion eskaera).

Izangai guztiek behar besteko gaitasuna erakutsi behar zuten jendaurreko azterketan, epaimahaiaren aurrean eta Batzordeak modu egokian izendaturiko egitarauarekin.

Lehiaketazko eta hautespenezko ariketa desberdinak gai-zerrenda edo galdera-zerrenda zabal bati atxikirik egiten ziren, eta horietatik berrogeita hamar, letratakoak izaten ziren, eta beste berrogeita hamarrek, berriz, zientzietakoak. Pertsona askoren ustez lehiakideei ezar-zen zitzaien egitarauak gai-kopuru gehiegizkoa zeukan, eta horien ezagutza frogatzea ez zen beharrezko maisu edo maistra ona izateko. Zehatzago esateko, Landetak zalantzan jar-zen zuen erlijio arloan

"beren lanpostua lehiaketa bidez irabazi duten doktoratu eta magistratuak, azterke-tan onik atera zitezkeenik hori prestatzeko hamabost egun bakarrik emanda, eta beste alderdi batzuetan hainbestekoa da gaien konplexutasuna, non ariketen lekuko izan be-harko baita ondorioztatzeko ezen, lehiaketariak, denik eta abantailatu eta gailenak izanik ere, ez direla gauza egokitzen zaizkien gaiei egoki erantzuteko, zeren hamabost egune-ko epean ez baitago denbora materialik lehiaketari batek bere ikasketak uztartzeko, hala-ko moldez, non dakiena, ikasi duena edo ikas dezana, nahikoa ongi azalduko duen"¹⁸³.

Ariketen ordenari dagokionez, guztientzat orokorra zen gai bati buruzko idatzizko azter-ke-ta baten bidez hasten zen; ondoren ahozko azterketa bat egiten zen, alfabetoaren arabera; gero baztertze eta sailkapenetara jotzen zen, merituen arabera; azkenik, "A" kategoriako lehiakideek euskarazko azterketa egiten zuten, eta "B" kategoriara pasatzen ziren proba hori gainditzen ez zutenak.

Denbora igaro ahala, ariketa-sorta honek aldaketa handiak izango zituen, ariketa praktikoa ere tartean sartuz, hamar bat minutuko epean egin beharrezkoa, horretarako ekarritako au-zo-ikastoletako haur-talde batekin¹⁸⁴.

Epaimahai aztertzailea, eskuarki, Aldundiko lehendakariak, Instrukzio Publikoko Batzor-deburuak, irakaskuntzen ikuskariak eta Batzordeko idazkariak osatzen zuten; batzuetan, jada-

¹⁸² B. A. A.: Oficio del inspector de enseñanzas al presidente de la Diputación, 1922ko uztailaren 18a, 2082 karp., 1. esp.

¹⁸³ "Las Escuelas de barriada. Oposición de maestros y maestras". "La Tarde", 1922ko uztailaren 12a.

¹⁸⁴ Lehiaketetan gertaturiko guztia, baita onartuen kopurua eta izenak ere, puntualki jasota gelditzen ziren epai-mahaiaren agirietan, eta horrela dokumentazio ugari eta zehatza bildu zen lehiaketa horiei buruz.

nik lanean ari ziren maisuren batzuek ere esku hartzen zuten, antzinasunagatik edo ikasleen errendimenduarengatik gailentzen zirenak. Eleizalde epaimahaiaren idazkari gisa aritzen zen eta “lehiakideen egiazko hautespen guztiz eskrupulutsuaren”¹⁸⁵ aldekoa izanik, bere eginkizun aztertzailleak berekin zituen zailtasun batzuk aipatu zituen gutun batean:

“Auzo-ikastoletako maisuen lehiaketa-epaimahaitik idazten dizut; gaur hasi dugu neke-iturri horrekikoa, eta hogeit bat egunetarako izango dugulakoan nago. Ea egiteko hori bukatzen denerako, zure bila joan naitekeen, nahi dudana bezala, eta etxera ekartzen zaitudan, guztion pozgarri.

(...) 30 maisu eta 86 maistra ditugu aztertzeko; pentsa dezakezu nola hertsatzen gaituzten alderdi guztietatik”¹⁸⁶.

Lehiaketak, hasiera-hasieratik, ia urteroko erregularitasunez errepikatu ziren, maisu berrien premiak sortzen ziren neurrian; 1936a baino lehen, 13 promozio desberdin izan ziren, guztira 179 maisu-maistra gutxi gora-behera. Baldintza berdinetan, eskoletako lanpostu berriak bizkaitarrentzat ziren; baina horiek falta baziren Euskal Herri osoko langileez beteko ziren, baita Espainiako beste probintzietakoez ere (Burgos, Valladolid, Palentzia eta abarretakoez). Izatez, “A” kategoriako eskolak Bizkaia eta Gipuzkoako maisu-maistratz beterik zeuden, eta neurri txikiagoan Nafarroakoez.

Inoiz edo behin idatzi izan denez, auzo-ikastoletako maisu-maistrek homogeneotasun handia ageri zuten; Normaletako onenak eskola horietara joaten ziren, ordainsariak eta eskubideek erakarririk, izan ere, 1920ko garai hartan aurrerapen handia baitziren legeak ezartzen zituenekiko; maisu-maistrek 3.000 pta.ko sarrera-soldata zuten, 250 pta.ko bosturtekoak kobratzeko eskubidearekin, nazionalen gutxieneko soldata 500 pta.koa zen bitartean.

Araudi zaharrak jubilazio-eskubidea ere ezartzen zuen, borondatezkoa edo behartua izan zitekeena; azken hori adinarengatikoa izan zitekeen (70 urterekin maisuak eta 65 urterekin maistrak), edo bestela, ezgaitze fisikoarengatik¹⁸⁷. Eskubide pasibo horiek 1923ko azaroa baino lehen izendaturiko pertsonal guztiak zeuzkan; sail honetan geroago sartu zirenak, Al-
dundiko enplegatuen Montepio orokorrean sartu zituzten 1929ko maiatzaren 1etik aurrera. Irakasle guztiei eman zitzaizkien, ere berean, Aurrezki Behartuaren onurak.

Aurreko beste lan batzuetan maisu horietako askoren kalitate handia aztertzen ahalegin-
du gara: hautespen-prozesuak, ikastaro pedagogikoen bidezko etengabeko prestakuntzak eta zeukaten material ugari eta bikainak, nabarmenki faboratu zuten beren irakaste-lanaren eraginkortasuna¹⁸⁸.

¹⁸⁵ B. A.A.: Oficio de inspector de enseñanzas al presidente de la Diputación, 1922ko utzailaren 18a, 2082 karp., 1. esp.

¹⁸⁶ Emazteari idatziriko gutuna. Bilbo, 1922ko utzailaren 26a.

¹⁸⁷ Zufia, Pedro de: Opus cit., 39-41 orr.

¹⁸⁸ “(...)Lanean diharduten irakasleen etengabeko prestakuntza izan zen eskola horien beste ezaugarrietako bat. Zentzu horretan, jarduera pedagogikoaren baldintzak hobetzeko tresna edo bitarteko bat baino gehiago ezarri zituzten. Horietako bat zen orientatzaileak eskoletara bidaltzea gaitasun gutxieneko edo berrikuntzarako uzkurrago agertzen ziren maisu-maistregana. Prozedura hori, gero ikusiko denez, barrenean, zigor moral bat zen irakasleentzat, benetako estimulua bainoago.

Irakasleen esku jarritako bigarren bitartekoa ikastaro pedagogikoak antolatzean zetzan, eta partidu-buruetan eta uda-garaian eginik, erabilitako metodo eta prozedurak berritzeko balio zuen, eta horrek aukera bat eskaintzen zuen lagun eta adituekin ikasturtean zehar izandako zailtasunak eta aldeak kontrastatzeko” (Arrien, Gregorio: Educación y Escuelas de barriada...1987, 185 orr.).

Magisterio horretan nabarmentzekoak dira, lanean izandako bilakaera bikainengatik eta instituzioek eman zizkieten sari eta zorionengatik, honako izenak: Julene Azpeitia, Soledad Campos, M^a Pilar Arana, Emeteria Gangoiti, Konsuelo Gallastegi, Berta Jiménez, M^a Berta Isasi, Juan Bautista Aspiroz, Teodoro Tejedor, Augusto Vecino, Angel J. del Río, Amado Arnaiz...

Julene Azpeitiak, nortasun handiko hezitzaile eta idazleak, ongi ezagutzen zituen A. Manjoren Ave Mariaren Eskoletako esperientzia pedagogikoak eta Decrolyk sustaturiko metodoa. Bere idatzietan ardura handia ageri du irakaskuntza elebidunarekiko. 1888an Zumaian (Gipuzkoa) jaioa, Donostiako Normal Nagusian ikasi zuen, eta gero lehen postua lortu zuen maistra nazional posturako lehiaketan. Auzo-ikastolak sortzean, emakumezko irakasleen zuzendari-kargua bete zuen eskola horietan, denbora labur batez izan arren. Irakaskuntza arloko jardunean, behin eta berriz lan egin zuen Dudeako San Migeleko auzo-ikastoletan (Amorebietan), Mendiolan eta Matienan (Abadinon). Azken horretan 1926tik 1936ra bitartean lan egin zuen¹⁸⁹.

8. IKASLEAK ETA ESKOLA-ASISTENTZIA: HELDUENTZAKO ESKOLAK

Hasiera-hasieratik interes handienarekin heldu zitzaion eskola-asistentziaren arazoari. Auzuneen eta baserriguneen erdian eskolak ezarri zirenean, desagertu egin ziren distantziak, bide txarrak eta beste hainbat eragozpen, baina baserritarrak konbentzitu egin behar ziren neska-mutikoentzat irakaskuntza onuragarriagoa zela nekazaritza-lanetan aritzea baino. Bartzuetan zer bait biltzen lagundu behar zutelako, beste bartzuetan azienda zaindu behar zutelako eta beste zenbaitetan iratzea edo belarra ebaki behar zutelako, sarritan egiten zuten huts, beren hezkuntzari kalte handia eginez¹⁹⁰.

Instrukzio Publikoko Batzordeak behin-betiko konpondu nahi zuen egoera hori, tokiko agintarien eta gurasoen interesa piztuz. Erabateko asistentzia lortzea etenik gabeko desio bat izan zen; hori zela eta, zenbait tresna jarri ziren abian, eskola-urteak ahalik eta hobekien aprobetxatzeko helburuz.

Eleizaldeak, irakaskuntzaren ikuskariak, asistentzia-orriak bidali zizkien maisu-maistrei 1921ean, eta haiek, Batzordearen bulegoetara itzuli behar izango zituzten hamabostean behin, irakaskuntzaren martxari, asistentziaren gora-beherei eta bertan eragina izan zezaketen kausei buruzko datuak adieraziz; parez pare, maiz eskolara huts egiten zuten seme-alaben gurasoei ere eragin nahi izan zitzairen, eskolara bidaltzeaz ardura zitezen. Hori zela-eta, tokiko ikuskaritza-batzordeak

“bultzatu egin behar zuten eskolara joatea, horretarako bitarteko guztiak erabiliz, baita horrelakoetarako legeak ezartzen dituen neurri hertsagarriak ere; eta halaber, matrikula-eragiketak antolatu, eta irakasleekin lankidetzan aritu, irakaskuntzan ahalik eta emaitzarik onenak lortzeko”¹⁹¹.

¹⁸⁹ Ikusi obra hau: “Julene Azpeitia. Ehun Urte Muga (1888-1988)”. Bilbo, 1988.

1988an Juleneren jaiotzaren mendeurrenean prestatu genuen liburua bere bizitza eta obraren alderdi guztiak biltzen ditu: Bibliografia, pentsamendu pedagogikoa, metodo didaktikoak eta auzo-ikastoletako irakaskuntza, abertzale eta emakume gisara izan zuen jardura, baita haur-narratiban burururiko bere lana ere.

¹⁹⁰ Hamabostero bidalitako maisuen txostenetan argi adierazten zen ikasleen eskolaratzea gutxitu egiten zela abendutik urtarilerara, eguraldi txarrarengatik (euria eta hotza); halaber, antzeko gutxitze bat nabarmentzen zen nekazaritzako lan-garaian, bai udaberrian eta bai udazkenean ere.

¹⁹¹ Reglamento de las Escuelas de barriada. Bilbo. 1923, 8 orr.

Guztiarekin ere, asistentzia-batezbestekoaren % 80 portzentaia ontzat hartzen zen; 1933-34an lortu zen batezbestekoa (% 81,42koa) ageri da, gorabehera handirik gabe, aurreko eta ondorengo ikasturteetan.

Beste maila batean, Bizkaiko Aldundiak 1924tik aurrera beka eta ikasketarako laguntza batzuk ezarri zituen bere eskoletako ikasle abantailatuen sustapen intelektuala faboratzeko, horrela auzunean bertan hasitako instrukzio eta kultur obra osatu ahal izan zezaten; eta beka horiez baliatzeko aukera izango zuten, posizio ekonomiko egokia ez edukitzearen ondorioz, "beren ahalmen intelektualak, horien eraginkortasun gorena eta etorkizuneko garapen erabatekoa lortu arte, osoki" erabili ezin zituztenek¹⁹².

Jakina da ikasturte guztietan eman zirela beka batzuk, nahiz eta inoiz ez izan oso ugariak, zeren eta horretarako izendatutako dirua ez baitzen oso ugaria izan; esan liteke bekek, batez ere, batxilergoa eta magisterioa jarraitzeko balio izan zutela, eta kasu banaka batzuetan, baita unibertsitate-karrera egiteko ere.

8.1. Helduentzako eskolen antolakuntza

Helduentzako eskolak sortzearen egitasmoa, auzuneetan analfabetismoaren aurka burututako borrokaren eta sustapen intelektual eta moralaren testuinguruan kokatu behar da.

Auzotarrek berek, irakasleen laguntzarekin, izan zuten horrelakoak eratzeko ekimena; behin eta berriz jo zuten Instrukzio Publikoko Batzordera, neguko hilabeteetan auzo-ikastoletan helduentzako irakaskuntza ezartzeko zegokion baimenaren bila. Batzordeak, hezkuntzaren onurak ahalik eta pertsona gehienengana hedatu nahi zituenez gero, agertutako desio horiei arreta eskaini behar zitzaie la erabaki zuen, eta hain lan beharrezko eta ongilea erraztu. Aldundiak 1922ko abenduan onartu zuen horiek ezartzea, eta beren funtzionamendurako honako oinarri edo baldintzak ezarri zituen:

A.- Hasiera batean, helduen gau-irakaskuntzari eman zitzaion baimena, horretarako auzo-ikastolak eta bertako material finkoa erabil zitezkeelarik.

B.- Maisu-maistrek ikasle interesatuekin zuzenean konpondu beharko lukete adosturiko ordainketen zenbatekoa, horiek nola kobratu eta zer material osagarri ekarri beharko luketen.

C.- Irakaskuntza horiek finkatzen dituzten maisu-maistrek Instrukzio Publikoko Batzordeari jakinarazi beharko diote, eta bertara, ikasturtearen hasieran, matrikulen zerrenda, asistentzia-erlazioa eta adin eta sexuaren arabera egindako ikasleen sailkapena bidali.

D.- Irakaskuntza horiek ez diote inoiz egunekoari kalterik egin behar, hori baita irakasleen lehentasunezko jarduerara.

Jakina denez, baimen horretaz baliatu eta helduei beren atek ireki zituzten eskolak ondoko hauek izan ziren 1922-23 eta 1923-24 ikasturteetan: Laukariz (Mungia), Santxosolo (Gueñes), Santa Lutzia (Igorre), Albiz (Mendata), Ariz (Basauri), Astelarra (Mungia)...

Jarraituriko curriculumaren arabera, Santa Lutzia (Igorre) eskolako maisuak zioen irakurketa, esan ahala egindako idazketa, aritmetika praktikoa eta gauzei eta geografiari buruzko

¹⁹² B.D.A.: Zirkularra. Becas para alumnos de las Escuelas de barriada. 1924. 965 karp., 4. esp.

zenbait ikasgai irakasten ahalegintzen zela¹⁹³; seguraski, beste ikastetxeetan ezarritako curriculumua ez zen oso desberdina. Gau-eskola hauetara ikasle-kopuru handi samarra etortzen zen kasu guztietan eta ikasturtea urritik martxora bitartekoa izaten zen. Ikasleen adina hamabi urte eta hogeita hamar, edota gehiago, bitartekoa izaten zen; gehienak gazteak izaten ziren eta gutxi batzuk adinekoak. Maisuek, beren aldetik, hirutik bost pezetara bitartean kobratzen zuten ikasle eta hilabete bakoitzeko.

9. ESKOLEN GEROKO BILAKAERA

Eleizalde hil eta gero, irakaskuntzako ikuskari-kargua hutsik gelditu zen bost bat hilabetez; 1923ko abenduaren 20an, Instrukzio Publikoko Batzordeak, Rafael Muñozen zuzendaritzapean bildurik, Aldundiari Pedro Zufia proposatzea erabaki zuen aurreko kargu hori betetzeko; Ernesto Erkoreka, Gabino Orbe eta Rikardo Urrutia kideek, eramandako prozedurarekin ados ez zeudenez, boto partikularra eman zuten postu hura lehiaketa-bidez hornitzearen alde. Hurrengo urtearen hasieran, Pedro Zufia irakaskuntza-ikuskari izendatu zuten, "Ofizial Letradun horrek, erreferentziako kargurako oso egoki bihurtzen duten baldintza pertsonalak biltzen dituelako bere baitan"¹⁹⁴.

1925ean, eta R. Muñoz beraren proposamenez, Juan Gallanoren izendapena onartu zen Instrukzio Publikoko Batzordeko bokal iraunkor gisa, Auzo-ikastolen sorreraren egile izan zelako¹⁹⁵; hori zela-eta, Eleizaldek eginkizun horretan bertan izan zuen partaidetza baliotsua jasoz arazi zen¹⁹⁶.

Eskolak eraikitzeke planari jarraipen ematea eta aurreko aroan hasitako lana osatzea egokitu zitzaion Pedro Zufiari; berari zor zaizkio zenbait ekimen garrantzitsu, hala nola egitarauak egitea eta parte hartze erabakigarria izan zuten zenbait orientazio pedagogiko. "Las Escuelas de barriada. Monografía" (1930) obra idatzi zuen eta "Geografía de Vizcaya" baten egile ere bada, auzo-ikastolei begira gaztelaniaz idatziriko liburuska labur baten egile.

1931 aldera oso hazia zegoen zerbitzu administratiboaren eta ikuskaritzaren konplexutasuna; une horretan pentsatu zuten ikuskariaren laguntzaile gisa bi irakasle izendatzea, ikuskariburuaren menpe.

Zufiak, irakaslearentzako liburutegi ibiltari bat sortzea bultzatu zuen, irakaslearen lana pedagogiaren bide berrietatik ibilarazteko beharrezko obra zientifiko eta metodologiazkoak jasoz; horrekin batera, irakas-pertsonalaren jardueraren inguruko eskakizunak gehitu egin ziren.

Kargua etengabea utzita edukitzeagatik, insubordinazioagatik, agintarien aginduei men ez egiteagatik, eta abarregatik ohiko zigor eta ohartarazpenak egiteaz gain, beste zehapen batzuk gehitu zitzaizkien, lanetik iraitzea barne zela, ikasturte bakoitzaren amaieran egindako

¹⁹³ Nagusien irakaskuntzari buruzko guztirako, horri buruzko txosten bat ikus daiteke " B.A.A.: Reglamento de Escuelas de barriada. 960 karp., 8. esp.

¹⁹⁴ 1924ko urtarrilaren 2ko Aldundiaren bilera (B.A.A.O. 1924-VIII-23, 189. zk.).

¹⁹⁵ Joan Gallano, Bidasoako Beran jaioa eta Bizkaian bizi zena, joera erradikal liberalekoa, Probintziako diputatu izan zen, 1919an auzo-ikastolak sortu zituen Mozioa aurkeztu zuenean. II. Errepublikan Bizkaiko Aldundiaren Komisio Kudeatzailearen buru izan zen, eta 1934an utzi zuen postu hori.

¹⁹⁶ "(...) Muñoz jaunak jasoarazten du pozik hartzen dituela prentsaren agerpenak, eta zorionak ematen dizkio bere buruari, Luis Eleizalde (G.B.), Irakaskuntzako Ikuskari izan zenak, auzo-ikastolen sorreran izan zuen eskuhartze hain baliotsu eta aktiboa jasoz ahal duelako". (B.A.A.: Moción Muñoz sobre la designación de Don Juan Gallano para vocal perpetuo de la Junta de Instrucción Pública, como autor que es de la creación de Escuelas de barriada. 1925, 960 karp., 3. esp.).

azterketen ondorio gisa. Azterketa horiek, 1925-26tik aurrera geroz eta hedadura, orokortasun eta zorroztasun handiagoa izaten hasi zirelarik, maisu-maistren lana epaitzeko erabiltzen ziren, batena bestearenarekin alderatu eta irakasleak ikasgelak lortutako notaren arabera sailkatzeko; ondorioz, nota txar batek arriskuan jar zezakeen maisuaren jarraipena.

Irakaskuntza ez zen baretasunez burutzeko egoera atsegin bat; maisu-maistrak behin baino gehiagotan kexatu ziren, eta azterketa horiek, egiten ziren modu horretan, kentzeko ere eskatu zuten eta horien ordean ikuskaritzako bisitak egiteko. Zentzu horretan, Euskal Irakasleen Elkarteak, irakaskuntzaren euskal ezaugarriak, kontzientzia-askatasuna eta elebitasuna babesteko 1932an sortuak, eskaera luze eta dokumentatu bat helarazi zion Aldundiko Batzorde Kudeatzailearen Buruari, kentzeko erregutuz, azterketa hori "zentzugabea", baliogabea eta haurren hezkuntzarako sistema kontraeragingarria zela kontsideratuz¹⁹⁷.

Nahiz eta azalpena oso arrazoitua izan, azterketak ohiko eran egiten jarraitu zuten; ikuskaritza-buruak uste zuen estimulurik eta epaiketarik gabeko irakaslea, bere burua aise zabartzen duen maisua dela.

Eskolen orientazio elebidunari zegokionez, aldaketa nabarmenak egin ziren garai horretan. Landetak esango zuen bezala: "Estatuaren esku-sartzeak batzuetan, bizkaitarren maneiu kritikagarriek beste batzuetan, hasierako asmo hura endekarazi zuten, askoren eskandalurako", behin baino gehiagotan aldatu zen araudia, eta diktadurak

"euskaldunen aurkako suminak hartuta, zenbait errege-agindu diktarazi zituen, zeinak asmo on hura indargabetzen ahalegintzen baitziren, auzo-ikastoletako irakaskuntza Estatuak ematen zuenarekin parekatzen zuten baldintzak ezarriz, eta horrela, bateratze bat lortzen saiatu zen, hasiera-emateen planaren eta herrien komenientziaren aurka ez ezik, zientzia pedagogikoaren printzipioen kontra ere bazihona, zeina lege izango baitzen irakaskuntza-gaietan, eta hori, guk hala uste dugu, funtsezko gauza da horrelako gaietan.

Baina guztiarekin ere, auzo-ikastolek nortasun zehatz bat zuten, eta esleituak zituzten helburuetako batzuk, guztiak ez baziren ere, betetzen zituzten"¹⁹⁸.

II. Errepublikaren garaian erlijioaren irakaskuntza bertan behera utzi eta laizismoa ezarri zen; Batzorde Kudeatzailearen dekretuz (1932), aurrerantzean, instrukzio erlijiosoari buruzko alderdi guztiak irakas-egitarauetatik bazterturik gelditu ziren. Alferrik izan ziren zenbait elkar-terren protestak, prentsa katolikoarenak eta pedagogo eta pentsatzaileen protestak¹⁹⁹.

Garai berean, eskola berriak sortu ziren, eta ordurako osatua zegoen aurreko eraikuntza planari, 25 bat ikastetxe gehiago batu zitzaizkion; aldi berean, doenerdi bat eskola ezabatu ziren, 30eko hamarraldia baino lehen sortuak, beren jatorri eta sorreran izendatu zitzaizen helburua betetzeari utzi zituelako.

Aurreko aldaketa horiek guztiak gorabehera, auzo-ikastolek nortasun nabarmena zuten; beren antolakuntza autonomo bereziaz aparte, atxikimendu herritar inbidigarria zuten.

¹⁹⁷ B.A.A.: La Agrupación de Maestros Vascos, en representación de los de barriada, solicita la supresión del artículo 32 del Reglamento. 1933, 968 karp., 15. esp.

¹⁹⁸ "Don Higinio": ¿Alta traición? Contra las Escuelas de barriada. "Euzkadi", 1931ko urriaren 9a.

¹⁹⁹ Beste batzuen artean, Eduardo Landetaren ustez, erlijio-alderdia auzo-ikastolen oinarritzko orientazioaren osagai garrantzizko bat zen; horregatik sustengatzen zuen Komisio Kudeatzaileak ezin zuela, berez eta bere aurrean, udalerriak eta herritarrak kontuan izan gabe, zeinekin egin baitzen erlijioa eta morala irakasteko kontratu tazitutako moduko bat, irakasgaien koadroa aldatzen ahalegindu eta eskolatik instrukzio erlijioso eta morala baztertu.

Eskola horien balioespen orokor bat eginez, ezin dira ahantzi honako alderdi edo emaitzak: analfabetismoa murriztea, auzuneak harreman gizatiar, sozial eta kulturaletako mundu batera irekitzea eta hezkuntza elebiduna ezartzea; jadanik ezagunak diren muga guztiekin, alde zurratik aurkitu ez zuen leku bat eman ziztaion euskarari.

Emaitza horiek lortzeko, Aldundiak ez zuen zikoitz jokatu gastu eta ahaleginetan: 1920 eta 1936. urte bitartean diru-kopuru handiak inbertitu zituen, auzo-ikastolei eusteko ez ezik, baita instrukzio publikoan oro har ere. Garai horretan Korporazio probintzialak 9 milioi pta. baino gehiago gastatu zituen auzo-ikastolei eusten bakarrik; kopuru horren parterik handiena maisuei soldatak ordaintzen inbertitu zen.

Jakina denez, gerra zibilak sakon eragin zion eskolen funtzionamenduari; 1938an auzo-ikastolak auzuneko Eskola Nazional bihurtu ziren.

Argazki bilduma



Argazkiak:

Bizkaiko Foru Aldundia. Liburutegia
Eleizalde familia
Eusko Ikaskuntzako Argazki Artxiboa



Koldo Eleizalde gaztetan



Lone Urrutiarekin, senar-emazteen oroitzapena (Foto Segura, Madril)



1922. Heriotzaren aurreko urteko oroitzapena. Betiko lanetara emana jarraitu zuen amaieraraino.



Eleizalde senar-emazteen lau seme-alabak: Luis María, Miren Eulali, Miren eta Itziar.



EL PROBLEMA VITAL

Va ya para un mes que publicó el diario local "La Tuda" un extenso y notable artículo delido a la pluma de don Eusebio de Lasaeta, y titulado "Acercas de la escuela vasca". Había ya, días antes, cruzado la opinión de "Don Higinio" desde estas columnas de EIZKADI, y "Don Higinio" se volvió a discutir en la forma y grado que él sabe hacerlo. Póblon es que la Academia de la Lengua Vasca, primando en su valor el trabajo de nuestro distinguido convecino, ha acordado hacer conlata trada de ese artículo y repartirla porntunamente por todo el País. Sé decir de mí que en lectura me produjo la especialísima satisfacción que se obtiene al encontrar, clara y perfectamente expresadas, ideas y cosas que sentía muy mismo de un modo confuso y oscuro.

Creo que los dos puntos fundamentales en los que nos encontramos en perfecto acuerdo "Don Higinio" y yo—con cuantos piensen con acierto y a un poco de distanciamiento sobre esto asunto—son los siguientes:

Primero: El dicho problema vital para un pueblo, sea el que fuere; el problema que resume todas las cuestiones de las que depende enteramente el porvenir de un país, es el de la instrucción pública, y señalando más, el de la instrucción primaria.

Segundo: El medio, el vehículo de la instrucción popular primaria de un país, el medio *decendi et discendi*, no puede ser otro que la propia lengua materna de ese país. Lo cual, evidentemente, no excluye el aprendizaje de otra lengua que se reputa necesaria o mercedemente conveniente.

Las escuelas primarias del Estado, que son un evidente fracaso en todas partes—no siendo ninguna clase de reproche al hacer esta afirmación, pero consta patéticamente el hecho—se ven todavía empotradas en nuestro País, y especialmente en nuestra País castellana, por desconocer o olvidada y atenuadamente esta primordial necesidad de instruir al pueblo en su propio idioma y no en lengua extranjera, como se enseñan en buerco. Se encuentran a veces profesores que tienen la sinceridad de reconocer esa necesidad; se encuentran otras veces profesores—en menor número—que no sólo reconocen esa necesidad, sino que procuran remediarla, aprediendo la lengua del país en el grado suficiente para entenderse con sus alumnos. Pero los reglamentos, y más aún el espíritu que los informa, siguen siendo absurdamente hostiles a cuanto parezca necesario a la manera de ser y las necesidades vivas y reales de los pueblos, en las escuelas del Estado español. En este sentido, las cosas—como decía muy bien desde un punto de vista de entonces el señor Balmori—ocurren como si se enseñara "a saber, en beneficio de la lengua de la región castellana, con los demás idiomas regionales, y no, la cultura de todos los españoles."

Y con todo, alandando por un momento el terreno en que mis ideas de siempre me colocan, y pasando en hipótesis al que razonablemente le sea dado ocupar al español más españolista de toda la Celtiberia, se puede discutir y proceder de muy otra manera de la que es, y degrading, habitual en los altos poderes del Estado, en los políticos de Madrid y en los centros oficiales y académicos.

Un buen español, patriota y clarividente, podría pensar que la mayor parte de los males que en el orden político sobrevienen a la zona pública se debe al abandono completo de que España sea—lo que no es, ni puede ser—un Estado "nacional". Que España

sea en tratamiento un "Estado de nacionalidad", en condiciones tales que se imponen una salida y prudente política de equilibrio entre esas nacionalidades, evitando con todo cuidado el no pequeño peligro de hegemonía de una nacionalidad, cuya exclusiva representación asume el Estado, sobre las demás. Que al declarar la oficialidad de una nacionalidad representativa, y, por extensión, la "inoficialidad" de las restantes, se abre el camino de todas las acciones políticas y de todos los separatismos. Que, aceptado, por el contrario, el principio del "Estado de nacionalidades", no solamente debía abstenerse el Estado de aburgar y opresir a sus nacionalidades—como lo opone y aboga en sus vitales características y en sus peculiares modalidades—sino que, muy lejos de eso, consideráralas como cosas geminas y propias, había de tender justamente a favorecerlas y a ayudarlas en el fomento y desarrollo normal de aquellas mismas características y modalidades.

Añí podía, y me atrevo a creer que "debia" discutir un buen español, clarividente y patriota. Por desgracia, no sé de ninguno que disciera así. No sé de ninguno que haya discutido así desde el tiempo de los Reyes Católicos hasta la forma—muy ilustre pero única excepción de don Francisco Pi y Margall—, ni creo probable que ningún político español tenga el amplio espíritu que se necesita para recibir y abogar estas visiones de política "elemental".

Por donde juzgo que ninguna esperanza cabe a esta cuestión de oficialidad del Estado y sus altas políticas tocante a esta cuestión ni a ninguna otra que a la nación vasca, como tal nación, interese.

Debemos, por tanto, volver a nuestros patios feres y a nuestras posiciones ideológicas.

Creo que tampoco podríamos gustar, para la obra de la instrucción popular en la forma en que precisamente debe ser planteada, con las Corporaciones administrativas de nuestro País, más que de un modo eventual y subsidiario.

Estas Corporaciones están, por lo general, demasado influidas por los valores de la política para que puedan ser garantías suficientes de una obra de la estabilidad y solidez requeridas por la instrucción popular. No digo que las Corporaciones no pueden creer y sostener acardas, ni digo que lleguen a cerrar las ya existentes. Lo que digo es que, por su estructura, por su modo de funcionamiento—más que todo por las influencias exteriores y de carácter político a las que están sometidas—no se puede esperar de las Corporaciones más que una precaria, intermitente y débil cooperación, en la institución de la escuela "que se necesita".

Queda, por tanto, la iniciativa privada, difícil de organizar, costosa en sostenes, pero libre y libérrima y de una eficacia incontestable. La ley dejó margen suficiente para todo lo bueno que se quiera hacer. A las claras, a la vista de todo el mundo, cumpliendo estiracamente todas las condiciones legales, se puede realizar una labor inmensa cuyos resultados serían verdaderamente incalculables.

¿Cómo? Por medio de la asociación. Si los vascos patriotas llegan a "ver" este problema, a "sentirlo" como absolutamente único y a decidirse a resolverlo, asumiendo los graves sacrificios que esta solución requiere, se darán ya andada la mitad del camino. Toda la demás será ya rebalsadamente fácil. Y habrá alcanzado el primer día de verdadera esperanza para nuestra Patria.

ANEX

Irakaskuntza eta euskara, Eleizalderen ardura handietariko bi

H. D. José de Madinabeitia

Illeg cuando amigo. Ahí van unas
líneas de cama a cama.

He leido dicho (pregunto por usted bien
pe que peso sabes algo) que está usted
algo peor. También yo voy ablandándose
cada vez más; de modo que por el
momento vamos en pleno sinovris-
mo

Pongame usted enter y confianza-
mente en manos de Dios; una
gran paz le envolverá y le mecerá
a usted como una madre a su
hijito. Lo digo por experiencia.

Se abraza su más que nunca
afecto amigo que espere encontrarse
allá,
Luis de Eleizalde

31 Setbr. 1922

Hamburg (Auelmannstrasse, 14),
16 de Agosto de 1921

Mi querida mujer: Hace un mo-
mento me he instalado en esta deliciosa
quinta que te recuerdo de entusiasmo si
la viéras. José he tomado un cuarto
para dormir en la vecindad (Zippendorfer
Bau, 26), y en este momento está conmigo
Alfons. Hemos llegado, la Frau doctor me
he tomado la temperatura (36.9) y el
peso (72 kg.) y ahora estamos esperando
lo que designa el profesor Parauer.
En este momento son las 12 en punto
del mediodía, el tiempo está hermoso aun-
que muy fresco, porque he dejado mucho
los días anteriores. Batemos en el viento
de un magnífico parque, con grandes
arboledas, en una casa preciosa, y la
habitación buena. — De París a Colonia




Berlín, 26 Julio 1922

Mi querida mujer: En este momento he re-
sido tu carta del 20, ya me he dado cuenta poco,
pero me he sido aburrido y triste; bien quisiera estar
del pan bastante un poco de compañía, porque yo me
voy mucho de que te diste en la casa agradable. Pero
cuando en un con un poco de paciencia pasará esos
días tristes, y volviendo a tu casa con perfecta salud
y sin las molestias que hasta ahora te han abur-
rado.

He escrito desde el tribunal de opiniones de
muertos de cosas de decirte; hay cosas interesantes
en un pequeño, y yo me tendré que ir
mucho días de ir a por un poco de tiempo con un
tira, puede ir yo a buscarlo, como deseo, y
triste a casa, con pleno satisfacción de todos. A
la misma la cuestión existe, aunque no tanto como
antes, según las noticias de científicos ya me diste
en 4. Hasta ayer no recibí la fotografía de las
citas (ya me me parece muy buena); seguramente
ya se va a tardar por la guerra.

Ahí hay pocas noticias me comunicaste.
En dicho se nota poco movimiento en las
citas; yo me voy muy con una visión profunda en
todas las cosas. — Tenemos 30 muertos y 26 mu-
chos que esperan; ya te figurabas cómo me
recorran por todos partes.

Después están muy buenas. Quisiera muy pronto
de, a un objeto a una mujer con su mantilla.



Hainbat liburuz gain, Eleizalde idazki produkzio zabala utzi zuen liburuxka, aldizkari, astekari eta egunkarietan barreiatua




Hainbat liburuz gain, Eleizalde idazki produkzio zabala utzi zuen liburuxka, aldizkari, astekari eta egunkarietan barreiatua




Bizkaiko Auzo Ikastolen zuzendari gisa, Eleizalde erabat lotu zitzaion antolaketa eta orientabide lanari



Erletxeko Auzo Ikastola



Santelicesko (Muskiz) Auzo Ikastola



Koldo Eleizalde irakaskuntzaren aldeko lana egin zuen eta eskolarako euskal testuen argitarapena -bultzatu zuen.

Euskeraz irakurteko irakaspidea
ta
Lenengo irakurkizunak

Bizkai-Aldundiaren Eri-Irakaskuntza-Batzordearen
arduraz ta ordaiñez argitaldua



BILBAO'N
ALVAREZ'EN IRARKOLAN
1920

*Koldo Eleizalde irakaskuntzaren aldeko lana egin zuen eta eskolarako
euskal testuen argitarapena bultzatu zuen.*



Eusko Ikaskuntzak Eleizalderi eginiko omenaldia Bergaran



Koldo Eleizalde



Koldo Eleizalde

Koldo Eleizalde, kazetari



José Javier **G**ranja **P**ascual

1. TESTUINGURU NAZIONALISTA

Euzkadi egunkaria da, Gerra zibilaren aurreko garaian, euskal nazionalismoaren hedapen-organo eraginkorra. Koldo Eleizalde, alderdiarekin konprometaturik egonik, lankidetzaz bizi izango du bere heriotzara arte dibulgazio eta iritzi artikuluekin nazionalismoaren bilakae-raz, Europako nazionalismoez, euskarari buruz, bateratzeaz, euskal unibertsitateaz, literatur kritikaz, musikaz, zientziez eta abarrez idatziz.

1913an Euzkadi egunkarian idazten hasten denerako Eleizalde bilakaera bat izan du, 1903ko sabindar jarrera erradikalenetatik erradikalismo independentistari uko egiten dion nazionalismo transigente bateraino iritsiz. Bai bera, eta bai Engrazio Aranzadi “Kizkitza”, Sabino Aranaren oinordeko teoriko bihurtzen dira, baina sabindar ortodoxia gero eta gehiago moldatuz 1906tik nagusitzen den errealitate paktistara: “Itxura batean EAJren helburu politikoen intransigentziarekiko urrunduz, ingurune legal eta ekonomikora moldatze horren bozeramaile nagusiak, hasieratik beretik, Koldo Eleizalde (“Iturain” eta gero “Azkain”) eta, batez ere, Gipuzkoako Aldundiko funtzionarioa zen Engrazio Aranzadi (“Kizkitza” eta “Mendizorrotz”) izan ziren. Doktrinazko edukien irmotasuna eta prozeduren malgutasuna izango da bien urrezko araua” (Elorza, 1978: 339).

1904an, Eleizalde, “Iturain” izengoitiarekin, Liga Foral Autonomista sortu zutenen aurka kritika bat argitaratzen du *La Patria* aldizkarian (73 zbkia., 1904-XII-17 eta ond.), euskal arazoa arraza eta nazionalitate auzi bat dela adieraziz eta ez dagoela nazionalismorik “Jaun-Goikua eta Lege-Zarra”ren ortodoxiaz kanpo. Horregatik EAJk ezin du egin aliantzarik alderdi laikoekin. Baina gero eta argiago ageri zen helburu nazionalistak lortzeko nolabaiteko transigentzia baten premia zegoela bitartekoetan. Zentzu horretan irizten zaio (Eleizalde, *La Patria*, nº 69, 1903-II-15) nazionalismoaren helburu nagusia ez dela independentzia, eta independentzia hori bitarteko bat dela egiazko helburu bakarra lortzeko: egiazko euskal gizartea berreraikitzea, mendeetako eragin exotikoek endekatua dagoelarik. Berreraikitze politikoa euskararen nagusitasuna lortzeko ezinbestekoa dela irizten zaio. Horrek “halako erlatibismo batera eraman zuen mugimenduaren xede politikoen lehentasunari zegokionez” (Elorza, 1978:342) eta horrek 1906tik aurrera posibilismo nazionalista bultzatu zuen.

Eleizalde bezala, “Kizkitza”k 1907an (Aberri, 91 zbkia., 1908-II-08) euskal arima nazionala berreraikitzeak foru-berrintegrazioaren aldean lehentasuna duela proposatzen du: arraza, hizkuntza, folkorea eta abarren defentsa, “egintza sozial nazionalista”. Bigarren maila ba-

tean uzten ditu gurari independentistak, eta aurre egiten die euskal arimaren ezaugarrien aurkako diren eragin exotiko guztiei.

Nazionalistak jarrera transigenteetara hurbiltzeak monarkikoekin akordioak izatera eram zituen 1907an Gregorio Ibarretxe nazionalista Bilboko alkate izendatua izan zedin eta 1909an Jose Horn, nazionalistak Fernando Maria Ybarra kontserbadoreari Aldundian laguntzearen truk.

Nahiz eta efektiboa izatera ez iritsi, Ramon de la Sota EAJren Lehen Kontseilu Erregionaleko lehendakari hautatzen dute 1908an eta harrezkero euskal egintza sozialak lehentasuna hartzen du politikarekiko.

Autonomismoa-independentismoa dikotomia biguindurik, 1910az geroztik binomio erlijioso-laikoak eztanda egiten du Alderdiaren katolizismo ortodoxoari aurre egiten dion joera nazionalista bat agertzean. Frantzisko Ulaziak P.N. Liberal Vasco izenekoa sortzen du, errepublikarrei lagundu eta "Aberria eta Askatasuna" goiburua jarraitzen duena, euskal gizarte laiko eta demokratiko bat Errepublika federal batean defendatuz. Hala eta guztiz ere, EAJk kontra egingo zion joera berri horri eta tradiziozko katolizismoan errotuko zen, Alderdi izendapena baztertu eta *Comunión Nacional Vasca* (Euskal Komunio Nazionala) hartuz 1913tik Euzkadi egunkarian eta ofizialki 1916tik.

Testuinguru honetan hasten da Eleizalderen lankidetzak Euzkadin.

Lehen unetik Eleizalde leiala izango da nazionalismoaren helburuekin eta eginkizun propagandistarekin, euskal kontzientzia nazionala eratzekeo xedez, argumentu ugariarekin euskal nazionalitatea defendatuz, eta horien artean ez ziren garrantzi txikienekoak Pio X.a Aita Santuaren izaera erlijiosoko ekarpenak.

Eleizalderentzat nazionalitate bat zedarritzen duten ezaugarriak, arraza, hizkuntza, historia, independentzia, instituzioak, ohiturak eta abar dira. Kritikatu egiten ditu euskal nazionalitate bat badagoela aitortu arren, haren ahultasunean oinarriturik, eboluzionismoaren izenean hiltzen utzi behar zaiola dioten euskaldunak. Horien aurrean, nazionalistek, baieztatu ez ezik, iraurarazi eta birsendotu egin nahi dute euskal nazionalitatea.

2. EUSKARAZKO IRAKASKUNTZA

Eleizaldek kritikatu egiten du (Euzkadi, 1914-XII-13) Pere Corominasen *Historia dels moviments nacionalistes* obra, bertan euskara hilik dagoela eta zientzia modernorako ez duela balioko adierazten duelako. Eleizaldek euskararen antzinatasuna eta bere balio linguistikoa aparta baieztatzen ditu, horrek beste edozein hizkuntza aise ikasteko aukera ematen diolarik euskaldunari. Hizkuntzari eusten bazaio, nazionalitateari ere eutsiko zaio, nahiz eta independentziarik ez izan.

Halaber, herri txikia izateagatiko nazionalitatearen aurkako argudioaz ere defenditzen da, eta emigrazioa eteten bada despopulazioa eragozteko aski izango dela baieztatzen du.

Edozein unetan euskal herriaren birnazionalizazio-lanak, eraginkorra izatekotan, hizkuntza iraurarazi eta sustatzean eta kulturaren oinarritu beharko du.

Eleizaldek dio, gainera, nazionalitatea ez datzala ezaugarri fisiologikoetan soilik, intelektuallak ere badituela. Eta garrantzitsuena hizkuntza dela, bere organismoan ideia eta sentimen-

duen ñabardurarik finenak islatzen dituelarik. Hizkuntza da tradizio nazionalik egiazkoena eta benetakoena, arimaren konplexu intelektualaren ispilua da, herriaren ezagueren inbentario leiala, izaera eta zibilizazioaren irudikapen zehatzena... Bere lexikoak, txiro edo oparoak, arranditsu edo gangartuak, adierazpen balioitsuak emango dizkigu herriaren mentalitate, moralitate, ezagueren bilduma eta bilakaera-urratsei buruz. Joskera, juntadura eta esamoldeek arima nazionalaren barne-muinen berri emango digute, metodo psikologikoen bidez alferrik bilatuko liratekeenak; historiako liburuetan ezarrita ez dauden iraganeko gertakariak erakutsiko dizkigute.

Baina hizkuntza batek badu, gainera, beste eragin ziur bat, hitz egiten duen herriari adierazteko era berezi bat erantsiz eta pentsamendua eraikitzeke sistema berezi bat ezarritik, eta, ondorioz, izaera komun bat ematen die hitzaren bidez adierazten ez diren bere agerpen intelektual guztiei: arte plastikoei, musikari eta abar..., eta izakerari berari, hau da, sentimenduak eta borondateak kanpoko edo barneko eszitzazioen aurrean duten erantzuteko erari.

Eta agian gerta liteke, azkenik, arimaren obratzeko era horiek guztiek eragina izatea gizakiaren organismo fisikoaren baitan eta hori eraldatzea, bere pentsamendua adierazteko erara egokituz, halako moldez, non luzarora, gizakiaren alderdi espiritualak materialaren gainean duen erreakzio hori "substratum" fisiologiko izatera iritsi baitaiteke, herentziaz transmititu daitekeen zerbit.

Eta agian, hori zubi bat izan liteke arrazen teoria linguistikoaren eta teoria antropologikoaren artean.

Bizkaiko Aldundian, Kultura Batzordearen eskariz, 1918ko martxoaren 16 eta 17an *La lucha por el idioma propio* izenburupean emandako hitzaldietan, hizkuntza nazionalitatearen zeinu nagusia zela defendatu zuen Eleizalde. Ordurako, *Morfología de la conjugación vasca sintética* argitaratu ondoren, onartua zegoen Eleizalderen lan euskaltzalea, eta Landaburu, Egileor eta Rotaetxe probintziako aldunen eta Cortes Orueta Gorteetako aldunaren aurrean emandako hitzaldi horiek erabakigarriak gertatu ziren kontzientzia nazionala berreskuratzen lagunduko zuten euskal eskolen premiaz kontzientzia har zezaten.

Eleizalde kexu da dauden eskolez, eta antieuskalduntzat dauzka euskal izaeraren aurka-koak direlako, egiazko instrukzioaren ordez irakaskuntza mekanikoa ematen dutelako, euskal hizkuntza eta nazionalitatea ukatzen dituztelako eta euskarazko Bigarren irakaskuntza eragozten dutelako, euskaldun batzuentzat horrek zailtasun handiak eragiten dituelarik; eta hori Eleizalde azterketa epaimahaietan egiaztaturik daukala baieztatzen du, ikusi izan zuelako "mutiko euskaldun gizajoak teorema matematikoak jakin arren, adierazten ez zuela asmatzen". Kritikatuz egiten du neska-mutiko horiei euskaraz hitz egiten uzten ez dien legea. Euskal Herriko Bigarren irakaskuntzako zentro guztietan azterketak euskaraz egin ahal izatea defendatzen du.

Oraindik okerragoa da Lehen irakaskuntzari dagokionez agertzen duen egoera, ikasleen arima bahitu eta maisu gaztelaua eta eraztuna ezartzen baititu.

Egoera horri aurka egiteko auzo-ikastolak sortuko dira, zeren hizkuntza propioa independentzia bera baino ere nazionalitate-zeinu handiagoa baita, baita Estatu propioa izatea baino ere. Zentzu horretan aipatzen ditu suitzar eta norvegiarren ahaleginak beren hizkuntza autoktonoak berpizteko, nahiz eta ordurako independentziaren jabe izan herri horiek.

Eleizalde nazionalitate menperatuetan irakaskuntza ofiziala beti antinazionala dela azaltzen du, eta ikasleak ahalik eta erarik osoenean exotizatzerara jotzen duela. Egoera horri erremedioa jartzeko euskal prentsa eta eskola sustatuko dituen elkarteak eskatzen da.

Heri bakoitzean abertzaleak biltzea eta hileroko kuota baten bidez euskal eskolak sortzeko dirutza bat eratzea proposatzen du (Euzkadi, 1914-V-3). Hori astiro egingo da, literaturgile eta tratatistek obra didaktikoak eta terminologia zientifikoa osatzen duten bitartean. Terminologia zientifiko hori lortzeko herri-hizketara jotzea proposatzen du, ofizioetako teknizismora edota herri-nomenklatura zoofitologiko edo artistikora. Berbarik ez dagoenean hiz berri bat eratuko da. Horrek guztiak, aurrera atera ahal izateko, euskaldun askoren laguntzeko borondatea eskatuko du. Euskarazko eskola eskatzen du ziur dakielako nazionalismo jelkideak bakarrik lor dezakeela Euzkadiren birreraikuntza osoa eta euskal herriaren beherakada “sakonki neurtu ahal izateko, gure hizkuntzak —enigma argitu ezinezkoa, bera bakarrik gauza delarik jakintsuek antropologia eta historiaurreari buruz finka ditzaketen hipotesi ausartenak zentzugabetzeko— oraindik berekin dituen antzinako nortasun eta kultura distiratsuen aztarna zoragarriak ezagutu beharra dagoela” (Euzkadi, 1914-II-15).

Europako gutxiengo nazionalen ezagutzaile ona izanik, poloniar lurraldean eskola erru-siarra ezartzearen aurkako borrokaren berri ematen duen “Prentsako poloniar agentzia”ren foileto bat aipatzen du, eta esaten du gertakari horrek suminez beteko dituela euskaldunak eta, bestalde, “natural eta onargarri” iruditzen zaiela bidegabekeria hori bera Euskal Herriko eskola batean gertatzea.

Polonian instrukzio nazionala berrantolatu zuten Konarski edo Gregorio Pyramowicz bezalako apaizen bertutea azaltzen du. Polonierazko testuak eta arte eta ofizioetako eskuliburuak sortzeko lehiaketak antolatatu zituzten. Hori guztia eskola alemaniarrek ezarri nahi zizkien gainezarpen prusiarraren aurka lehenik, eta, gero, errusiarren aurka, poloniera ezabatu ezinik, hura karaktere zirilikoz idaztea nahi zutenean. Artikuluaren amaieran egoera horren eta Euzkadik nozitzen duenaren arteko parekotasuna erakusten du: “Ba al da ala ez, euskaldunak, zuen herri “euskaldunean”, eskola eta ikastetxerik, baita erlijio-soenak direnak ere, gerra temati, koldar eta doilorrena zuen arrazaren hizkuntzari aitortu dionik, ijito-jargoi bat edo apatxe eta biraolarien argota baillitza? Horrelako eskola eta ikastetxeak baldin badaude, errua haientzat bakarrik da. Eta aski bedi esandakoa; ez dut hisiatu nahi puntu honetan, neure arrazaren oherari zor diodan begirunearengatik”. (Euzkadi 1924-II-15).

Hitzatze hori hitzaurre bati dagokio eta, bertan, Euzkadi nortasun definituena duen Europako herrialdea dela baieztatu ondoren, bere nortasunaz kontzientziarik gutxiena duena ere badela esaten du.

Ideia horiekin, Eleizalde Bermeo bezalako herri batzuetako egoerari amaiera eman nahi zien, bertan biztanleen % 89 ama-hizkuntzaz euskaldunak izan arren irakaskuntza gaztelaniaz egiten baitzen, eta gertakari hori pedagogiari egindako laido nabarmena zen.

Eleizalderen ideiak irakaskuntza-gaietan ez dira Lehen eta Bigarren Irakaskuntzari buruzkoak soilik. Euskal Unibertsitatearen alde ere agertzen da zenbait artikulutan. Unibertsitatearen betebeharrak garaiena diziplina moral eta intelektuala sustatzea izan behar duela dio. Unibertsitateko irakaskuntza irakaskuntza praktikoa edo esperimentaletara ez murriztearen aldeko agertzen da. Aberriak aurrera egin dezan, beste batzuen garapen moral eta mentala sustatuko duten gizonak prestatu ahal izateko, ideien analisisian trebatutako gizakiak behar dira.

Euskal irakasleriaren premia ere aldarrikatzen du, lanean ari diren Herrialdeko kultura mental eta moralarekin bat egiten dutenak, ikasleen idiosinkrasia ezagutzen dutenez haiengandik emaitzik hoberenak lortzeko gai izango direnak.

Proposamenik zehatzena *La Mancomunidad vasca para la Universidad vasca* (1914-II-22) artikuluan egiten du, non aztertzen baititu unibertsitate bat ez izatetik datozen kalteak. Espainiar unibertsitateetan egoteak suposatzen dituen gastu ugarietz gainera, euskal ikasleak bizioak eta ohitura txarrak hartzen dituzten giro batean bizi dira, ez dute behar den bezalako prestakuntza hartzen espainiar unibertsitatea txarra delako, ez irakasleen erruz, baizik espainiar agintariengatik eta espainiar herriaren gobernaezintasunarengatik, gizarte-disoluzioan eta iraultzan bizi delarik, eta horrek hango ikasleen eskola-diziplinaeza eragiten du nasaikerian ibiltzea besterik ez baitute pentsatzen, seme-alaben prestakuntzaren ordeztutua beste-rik nahi ez duten guraso batzuek lagundurik.

Irtenbide gisa euskal unibertsitatea eskaintzen du euskal irakasleekin eta behar den diziplinarekin, Aldundien babespean eta Herrialdeko aberatsen laguntza pribatuarekin, Carnegie edo Rockefellerren antzeko fundazioak sortuz.

3. PROPOSAMEN LINGUISTIKOAK

Eleizaldek euskararen izaera defendatzen du nazionalitatearen oinarritzko zeinu desberdintzaitzat, indoeuroparrekarekin ahaidetasunik gabeko hizkuntza bat dela nabarmenaraziz. Deskalifikatu egiten ditu oraindik bere garaian euskara dialektotzat jotzen zutenak eta tesi euskaliberisten aurkako agertzen da iberiar hizkuntza edo hizkuntzak ezagutzen ez zirelako.

Euskararen batasuna lortu beharra ohartarazten du, eta horretarako teoria aranatiarren hizkuntz balioa desmitifikatu egiten du: "Baldin eta nazionalismoak beharrezko bi batasunak lortu izan balitu (ortografikoa eta fonetikoa), eta, gainera, literatur dialekto bakarria hautatu izan balu, arrazoi guztiarekin esan ahal izango luke berari, eta berari bakarrik, zor zitzazkiola hizkuntzaren salbamena eta literatura nazional bat sortu izana. Egin al da horrelakorik? Ez". (Euzkadi, 1923-II-20).

Konparazio bat ere egiten du hedadura gutxiko euskalkien egoerarekin. Kritikatu egiten du hizkuntza komuna lortzeko dagoen zailtasuna dialektoei eusten bazaie. Gerta litekeena da hainbeste dialektori eustean hizkuntzari desagertzen laguntzea, barreiakuntzaz ahuldurik. Gainera, hizkuntza ikasten dutenak bihotz gabeturik gera daitezke dialektoak ez ulertzean eta idazlerik ez dagoelako hizkuntza berrian ezin irakurri ahal izatean.

Gogor salatzen du, batetik, euskal idazleen arloa oso urria dela eta, bestetik, aldiz, oso ugaria dela "etimologista, neologomano, kintesentzien ateratzaile, eraberritzaile, erro paleolitikoan bilatzaile, metafisikari, okultista eta euskararen mistikariena". Horien aurrean askoz onuragarriagoa litzateke euskal idazle talde batek hizkuntza komun batean idaztea, "auzo edo klan batekoentzat bakarrik" aritu ordeztu (Euzkadi, 1923-I-26). Testuinguru horretan, ez du eragozpenik Aranaren linguistika alde batera uzteko: "Gizon ooren obran, handiena delarik ere, aurkikuntza zuzenak eta hutsegiteak daude; badira onartzeko gauzak eta baztertzekoak; badira baieztapen ezeztazekin eta zuzenketa behar duten aitorpenak; badira ongi frogaturiko teoriak eta kontu handiz hartu beharreko hipotesiak. Giza izaera da!" (Euzkadi, 1923-II-20). Horrela konbentzitu nahi ditu irakurle nazionalistak hizkuntz integrismo aranatiarra bertan behara utzi beharraz.

Azkenik, Eleizaldek toponimia eta antroponimia aztertzeko egindako lana azpimarratu behar da. Konbentziturik dago lan hori beharrezkoa dela euskararen birjaiotze literarioarako

eta aurrerakuntza nazionalistarako, horrek eginkizun politikoetara bakarrik ez mugatzea eta, aitzitik, alor zabalagoetan aritzea eskatzen baitu “alderdi bat baino, bere burua eratzten ari den herri bat areago garela” erakutsiz. Helburu hori Sabino Aranaren autoritatean oinarritzen du, haren *Tratado de los apellidos euzkéricos* lana kontuan izanik berari atxikitzen diolarik azterketa toponimiko eta antroponimikoen hasiera, eta azterketa toponimikoen iturriak azaltzen ditu: erregistro parrokiak eta zibilak, notarioen protokoloak, artxibo publiko eta partikularrak, hauteskunde-zentsuak, erreklutatze-zerrendak, erroldak eta ahozko eta tokiko tradizioa. Gainera, ikerketa hori Errioxara eta Goi-Aragoira hedatzea proposatzen du.

Kanpaina horretan 1915eko apirilaren 26an *Euzkadin* argitaraturiko *A los vascos de buena voluntad manifestua* zuzentzen du, A. Kanpion, Federico Baraibar, eta abarrek sinatua, eta Eleizaldeek igorria. Manifestu horretan jasotzen da euskara bertan behera utzirik egon dela, baina antzinako distira berreskuratzeko gai dela hartaz interesatzen diren jakintsu eta zientzizaguzen atzerritarren laguntzarekin. Hizkuntza aberasteko antzinako literaturara jotzerik ez duenez gero, zeren halakorik izan bada, galdu egin baita, toponimo eta antroponimoak biltzearen baliabidea dago, eta horretarako Eusko Ikaskuntzak orri inprimatu batzuk banatuko ditu herriko toponimoak biltzen lagunduko duten borondate oneko euskaldun guztien artean. Kanpaina horren emaitza Eusko Ikaskuntzako artxiboan bilduta dago eta zati bat argitaraturik dago.

4. NAZIONALISMOAREN DEFENTSA

Karlista, errepublikar, foruzale edo sozialisten erasoan aurrean egiten duen nazionalismoaren defentsa da Euzkadin argitaraturiko Eleizalderen artikuluen ezaugarri iraunkorretako bat.

1913-XI-20an *La Voz de Guipúzcoa*-n argitaratu zen Ulaziak Francisco Gaskueri egindako gutun bat nazionalismoari buruz. Ulazia ezkerreko errepublikar nazionalisten burua zen; aldiz, Gaskue errepublikar euskaltzaleen figura nabariena zen. Eleizaldeek esku hartzen du polemikan nazionalistak eskuin karlista eta integristatik datozela aitortuz eta ezkerreko nazionalismorik izan ote litekeen galdetzen du. Eleizaldeek kritikatu egiten du Ulazia nazionalista-ohiaren goiburua: “Errepublika eta Foruak” eta EAJren jeltismoa defendatzen du. Eleizaldeek dio errepublikarren goiburua “nazionalista izan ezik, foruzale, erregiozale, autonomiazale, federal eta edozerzale izatea” dela, zer Errepublika den azaltzen ez den bitartean, nazionalismoaz kanpo ez du zinezko nazionalismorik ezagutzen eta errefusatuz egiten ditu Ulaziak nazionalismoari alderdi atzerakoi eta vatikanistatzat joz egiten dizkion salakuntzak.

1915ean artikulua bat argitaratu du egunkari berean foruzaletasun nazionalistaren intransigentzia kritikatu eta foruzaletasun erreformista proposatuz, eta horrek nazionalismoaren defentsa egitera bultzatuko du Eleizalde. Aitortzen du nazionalistek ez dutela Foruen ukiezintasuna defendatu Euskal Herriaren existentzia aitortzean izan ezik, zeren gainerako guztiak aldatu egin baitaitezke. Egitaraurik ez edukitzearen salakuntzaren kontra defendatzen du bere burua, egintzan zurbidetzuz, ez “melquiadismo vascongadista”ren hitzontzikerian. “Metafora lausoa”, “sententzia abstraktu eta ebokatzaile” eta “hitzezko wagnerianismoa”ren aurrean liburuak argitaratzen, hizkuntzaren azterketarako elkarteak sustatzen, euskal langileak gremioztzen eta abar egiten duen egintza nazionalista kontrajartzen du.

Eraso karlisten aurrean ere egiten du defentsa, haiek estatuaren ahultzean ikusten baituzten indartze nazionalistaren kausa. Eleizalde baztertu egiten du argumentu hori Irlanda eta Ingalaterraren edo Polonia eta Errusiaren arteko adibidetzat hartuz.

Erljio-desberdintasunak ere ez dira itzarkunde nazionalista eragiten dutenak. Eleizalde baztertu euskal nazionalismoa “euskal nazionalitatearen existentzian datza”, eta horrek, estatuak alde batera utzita ere, bere berezko izatea du.

Eleizalde errespetua die euskal karlistei eta Nazario Oleaga bezalakoegi egina duten lana aitortzen die. Baina arbuiatu egiten ditu karlismoaren printzipioak, zeren liberalismoak bezalaxe ezabatu egin nahi baitute nazionalismoa. Baztertu egiten du karlismoa monarkia bat berrezartzea beste helbururik ez duelako eta bitartean Herriaren birreirikuntzan inolako laguntzarik eskaintzen ez duelako, eta euskarazko liburuak argitaratu, eskolak ireki eta Herria ezagutu ordez hondamendian amaituko duten egintza militarrei ekiten dietelako.

Bere beste artikuluetako batean, *El mito tradicionalista* delakoan, benetako tradizionalismoa —herri baten tradiziozko instituzio politiko-sozialen funtsa berreskuratzea— nazionalismoak daramala erakusten du, eta ez karlismoak, eta ez foruzalatasunak ez daramatela. Karlismoak tradizionalismoa berreskuratu nahi duenean, jatorri borbondarreko 1812az aurreko monarkia absolutu bat erreklamatzeko du. Eta borbondarren aurretik, tradizioa austriarrak ziren. Eleizalde, iraganera begiratuz, Errege Katolikoengana, Birkonkistara, godoengana, hispanoerromatarrengana eta abar jotzen du, eta ez du egiazko espainiar tradizioirik aurkitzen karlistek erreklama dezaketenenik. Aldiz, euskaldunek badituzte berreskuratu beharreko tradiziozko instituzioak (batzarreak, Biltzar Nagusiak, Gorteak), baina tradizio horren berreskuratzea nazionalismoak bakarrik sustatzen du.

Izaera politiko bizienerako artikuluetako bat La bandera patria izenburukoa da, Euzkadi-1916-XII-4an argitaratua.

Aberri astekari nazionalistaren 3. zki. an “Kizkitza”k idatzitako beste artikuluen baten ondorioz idatzirikoa da eta, bertan, ikurrin bigurutzaduna nazionalista bizkaitarrena soilik izan ordez, euskal nazio osoaren ikur izan dadila eskatzen du Eleizalde.

Eleizalde dio Euskal Herriaren barruan nafar monarkiak bakarrik izan zuela bandera propioa, eta Europako herrialde batzuen entseina nazionalak (Frantzia, Ingalaterra, Espainia) aro modernokoak direla ohartarazten du. Ikurriña defendatzen du “gure nazioaren batasuna, integritatea eta osotasuna ordezkatzen duen bandera gisa”.

Ikurriñaren defentsa 25 urteko antzinatasunean oinarritzen du, “Euskal Estatuak” ezagututako bakarra den nafar banderaren atzealde gorria gordetzen du, nazionalismoaren etsaien gorrotoa merezi izan du eta lehen abertzaleen maitasun sutsua, horietako batzuek jazarpena eta kartzela nozitu dituztelarik horregatik, “jazartuen ama, emazte eta arreben, euskal emakumeen malkoez bustia” izan da, Lausanneko Konferentzian euskal delegazioak eraman zuena da, eta bere diseinu eta koloreek sinbolikoki euskal nazioaren funtsari erantzuten diote: “sekulara ez da sinbolo jelista egokiagorik asmatuko, sabindar doktrinaren poz garbiagorik, lehen nazionalistek Bizkaian jasotako bandera hirukoloredun hori baino”.

Azkenik koloreen sinbolismoa azaltzen du, Erdi Aroan Fra Angelicok eta Van der Weydenek ezarriaren arabera: zuria “izate betikoaren poza da, Egia absolutuarena, gauza guztien “alpha” eta “omega”rena, Bataio sakramentuarena da. Berdeak “izaki birsortuaren itxaropena

adierazten du, ideala lortu nahia, indar iturri eta, sakramentuen artean, Eukaristia". Gorriak "maitasuna, sufrimenduko iraupena, karitatea eta agian damua adierazten ditu, eta sakramentalki Penitentzia du kideko".

1917ko hauteskundeetan nazionalistek irabaztean, 1917-VII-16an euskal Aldundiek autonomia eskatu zuten Euskal Herriarentzat "Espainiar Nazioaren batasunaren barruan". Eleizalde eskari horren alde jarri zen (Euzkadi, 1917-IX-23) eta horrekin Komunioak alde batera utzi zituen lehen aroko (1903-6) printzipio independentista intransigenteak. Une horretatik, eta Eusko Gazteditik, hasten da etena ekarriko duen giroa sortzen, Gaztedia eta Komunioa geroz eta elkarren aurrez aurreago jarriko dituen eztabaidekin. Eleizaldek, Euzkadi-tik defendatuko du nazionalismoaren gune ideologikoa ez dela independentismoa, nazionalitatearen baieztapena baizik, zeren Komunioaren barruan nazionalista ez-independentista ugari baitaude. Manuel Egileor "Ikasle", Eusko Gaztediren lehendakari-ohiak erantzungo dio "Jainkoa, Eusko Aberria, Independentzia" goiburua erreklamatzu.

EBB-k Eleizalderen tesien alde egingo zuen, eta 1921ean Aberri astekaria nazionalismotik kanpo jarriko zuen, baita Komuniotik kanporatuak izan ziren haren jarraitzaileetako batzuk ere.

Eleizaldek foruak bihurtzea eskatzen du eta baztertu egiten du horregatik inork separatizatzen hartzea. Ez du separatismoa aintzat hartzen eta 25 urteko autonomia eskatzen du herria berreraikitzeke, hain zuzen ere, hiritar duinak, legearekiko begirunetsuak, gizalegez beteak, Herriaren aurrerakuntza legitimoan eta ongizatean erabat interesatuak izango dituen herri bat. Halaber, berrindartze ekonomikoa, emigrazioa etetea, haurren hilkortasun-tasa gutxitzea, populazioa elikatzea eta abar ere eskatzen ditu.

1918an Jesús de Sarriak *Ideología del nacionalismo vasco* argitaratzean, Aberri kontzeptuaren oinarriko elementu gisara "emozio nazionala" defendatuz, Elizalde bat dator hori dela euskal nazionalista guztien sentimendua, nahiz eta adierazpenean iritzi-desberdinekoak izan daitezkeen. Baina Madrilekiko menpekotasun-mailaren arabera Euskadik independentismo sutsuarekin edo egoerarekiko ulermenarekin erreakzionatuko du. Separatismoa "ez da nazionalitate menpekotuen ondorio soilik, baizik eta baita ere, eta batzuetan oso era nagusian, Estatuko goi-aginteen eta horiek nazionalitateekiko duten jokabidearen ondorio" (Euzkadi, 1918-VII-7).

1920ko apirilean, Euskal Nazionalismoaren Biltzar Nagusian, independentistak iraultzaile bezala aurkezten ditu eta, ondorioz, Madrila idea horiekin ez joatea proposatzen du. Uste du Komunioak ez duela Parlamentu zentralera ideia independentistekin joan behar, porrot egingo duelako.

Baina *La cuestión del día*, *Prosigue el mismo tema*, eta *Para terminar* artikuluetan, Euzkadi aldizkarian, hurrenez hurren, 1921eko uztailaren 12, 13 eta 14an argitaratutako artikuluetan, proposatzen du Eleizaldek Komunioa eta EBBren Aberri astekariaren jarraitzaileak taktika transigentearen aurkako bereiztea. 1921eko uztailan Komuniotik kanporatuek handik gutxira EAJ birsortuko zuten. Horiek beroriek sortuko zuten 1922an Emakume Abertzale Batza ere.

Eten horrek 1930era arte iraungo zuen, Primo de Riveraren diktadura amaitu eta EAJ berriaren printzipio sabindar ortodoxoenen azpian birbateratzea gertatu zen arte, Eleizalde hil eta handik urtebetera. Abagune honetan, iritzi desberdinekoek ANV sortu zuten, izaera laikokoa.

Engrazio eta Manuel Aranzadik erantzuna zion orri bat argitara eman ondoren, EAJn kargurik ez zuela-eta arantiar doktrinarekin bat ez omen zetorrela zabaltzen hasia izanaren ondorioz idatzi zuen Eleizaldek lehen artikulua.

Eleizaldek 1917az geroztik erakusten du disidentzia nazionalista, EAJk abentura parlamentarioan behar bezala prestatu gabe sartzea erabakitzen duenetik. Parlamentarioek, Sabino Aranaren ideia oso eta garbiekin, politika intransigentea eramateagatik Madrilen izandako porrota kritikatzeko du, bere ustez erreialismo eta posibilismoarekin jokatu behar baitzuten, egitarau independentistaren ordean Aldundien egitarau autonomista eramanez. Eleizaldek independentismoa iraultzailea dela aldarrikatzen du eta nazionalismoak ez-separatista izan ezinik ez duela. Jarrera horren aurrean erregionalista, antinazionalista eta landetistatzat salatuko zuten.

Bigarren artikuluan integritate nazionalista arbuiazen du, nazionalismoa independentismo bezala bakarrik ulertu nahi dutenen "koranismo" eta "puritanismo" deitzen dio. Euskal nazionalismoaren bi baldintza ezartzen ditu: euskal nazionalitatearen baieztapena eta nazionalitate horrekiko atxikimendu afektibo eta eraginkorra. Lehen baldintzak "vasquistak" kanporatzen ditu. Bigarrenak euskal nazionalitatea maite ez dutenak eta Unamuno, Sánchez Toca eta Julien Vinson aipatzen ditu.

Eleizalderen ustez doktrina nazionalista jelistak da, nahiz eta goiburuarren lehen parte onartzen ez duten eta beste alderdi nazionalista ez-erlijioso bat sortuko balitz alderdia utziko luketen pertsonak badiren bertan. Eta onartzen du horrelako nazionalistak egotea, eta, bestalde, kritikatu egiten ditu arantiar doktrina hitzez hitz jarraitzeagatik herrien bilakaeraren dinamikara moldatzeko gai ez direnak.

Kritika horrek jarraitu egiten du hirugarren artikuluan, eta bertan "sabinolatria" eta "sabinianismoa" aipatzen ditu, Sabino Aranarengan inolako akatsik eman ezina aldarrikatzen dutenei zuzendurik. JEL diziplinari men egiten ez dioten guztiak bereiztea eskatzen du eta jarrera bezala "Dena edo ezer ez" baino egokiago iruditzen zaio "Ahal dena, beti gehiagora joz".

Beste artikulua batzuetan nazionalismoa hainbat kritikatatik defendatzen saiatzen zen, esaterako, Iberiar Penintsula den batasun geografikotik bereizitako lurralde bat ez izateagatik ukatzen zutenengandik, edota geografikoki txikia delako erasotzen ziotenengandik. Ondasungabeko jende esparruei laguntzeko "Gizarte-egintza"ko planak sortzera bultzatzen zituen nazionalistak eta "egintza politiko"ko plan bat bere instituzioak galdu dituen herria politikoki berezitzeko, hori guztia Euzko-Gaztedi-Batzari zuzenduriko plan batean. Beste abagune batzuetan bere nazionalitatearekiko ezjakintasunean bizitzea aurpegiatzen die euskaldunei, eta horren aurrean "berreraiki" beharra dagoela.

Cuestión vital izeneko beste artikulua ere interesgarria da eta bertan euskal nekazaría defendatzen du. Penintsulako gainerakoak baino hobeki dagoela adierazten du, ez lurra, klima edo minifundismoarengatik, baizik "euskal lurra lantzen duen arrazaren kalitate moralengatik: egia baita herrialde baten oparotasuna, oparotasun materiala bera ere, bertako biztanleen arima-tamainaren ondorio dela nagusiki". Nekazaría defendatzen du arrazaren ordezkari garbiena delako eta substratu nazionala osatzen duen lanbide batean aritzen delako. Deituren jatorria erakusten dute leinuaren enbor diren baserri zaharretan. Hala eta guztiz ere, "ruano parvenu" askok mesprezatu egiten dituzte, eta huts egiten dute

“sarritan euskal independentziaren alde beren odola eman zuten eta gaur egun hauteskondeetako jauntxokeriaren biktima diren “ horiekin. Hala ere, hiri-proletalgoak baino maila moral garaigoari eusten dio.

Amerikarako edo hiri handi usteltzailleetarako emigrazioa tamalgarria dela uste du Eleizaldek. Irtenbide bat aurkitzeko, landalurrak sustatu behar direla iruditzen zaio, horretarako daniar jarraibidea kopiaturaz, hau da, asoziazioan eta lehen mailako instrukzioan oinarrituz.

5. EUROPAKO NAZIONALISMOAK

Eleizaldek Euzkadi egunkariari egiten zion ekarpenik sarriena Europako nazionalismoei buruz egiten duen dibulgazioarena da, kasurik gehienetan euskal nazionalismoarekin alderatuz eta beti gutxiengo nazionalak defendatuz.

Lehen Mundu Gerra lehertzeak eta horren jarraipenak gutxiengoekiko interesa sortzen eta aldi berean horietara hurbiltzen laguntzen du.

Eleizaldek uste du XIX. mendearen azken hamarkadan eta XX.aren lehenean Europan sortutako utopia pazifista juduek zuzendurik zegoela, beraiak aberririk ez izanik ezin zutelako ontzat eman besteez izatea. Eleizalderentzat utopia pazifistak nazionalitateak desagertzea esan nahi zuen, banaketak eta gerrak eragozteko aberri nazional guztiak ezabatu nahi baitzituzten. Horren aurrean, Europako gerrak, muga berriak ezarri, porrot pazifista erakutsiko duela baieztatzen zuen Euzkadin 1915-III-02an. Eta Eleizaldek ziurtatzen du, mugen bidez nazionalitateen printzipioaren araberako estatuak sortu arte ez dela bakerik izango. Herriek beren eskubide nazionalak aitortu zaizkiela eta justizia egin dela ikusten dutenean izango da bakea. Gainera, herrialdeen tamaina txikiak zaildu egingo du gerra, baita estatu desberdinen artean aliantzak eratzeko nekeak ere. Inperio handirik ez izatean, gerra handirik ere ez da izango.

Euskal Herriaren antzeko europar nazionalitateen adibideak eta horien alderdi ezberdinak erakusten ditu Eleizaldek Euzkadin, euskal egoerarekiko parekotasun bat argi eta garbi ezar daitekeela nabarmenduz. 1913an Irlandari buruz idatziko du, herriaren independentzia eta berreraikitze nazionalerako gogoaren adibide hurbilena, jatorrizko hizkuntza erreklamaturaz, eta potentzia kolonizatzailearekin enfrentamendu erlijiosoak sortuz. Aberria, hizkuntza eta erlijioa dira gurari nazionalista definitzen duten elementuak.

Erljiioari dagokionez, klero irlandarraren portaera azaltzen du (Euzkadi, 1913-V-28 eta 1913-VI-1) John Mac Hale gotzainarenganaino.

Gaelikoaren berreskuratzea goretsi egiten du, klase guztiek hori ikasteko agertu duten interesarengatik: “Entzuleen bihotzak inarosten dituen aberri-sentimendurik gabe, sekula ez zatekeen horien burura etorriko ingelesaz, hizkuntza komertzial eta utilitariaz bestelako hizkuntza bat ikasteko asmoa. Baina han, ahalmen afektibo eta mistikoak sentiarazten diren barrarengi misteriosuetan, odola eta arrazaren, nazioaren eta aberriaren ahotsa entzun zen, eta gizaki horiek erabat eraldatu dira, eta dagokien gizarte-egitekoaren garrantziaz jabetu dira, eta pozik sentitzen dira, zeren gaelikoaren birjaiotzeak bizitzarako interes bat, objektu bat, ideal bat eman dielako, eta zoriontsu sentitzen dira interes, ideal eta objekturik gabeko hainbeste dohakaberen aldean”. (Euzkadi, 1913-X-19). Hizkuntza berreskuratze nahi horrek, Elei-

zalderen arabera, Euskal-Esnalea elkartean Liga gaelikoaren baliokidea izan behar du, eus-kara sustatzeko.

Artikulu bat baino gehiago eskaintzen ditu irlandar nazionalismoa moderatu eta erradika-len artean nola banatu zen argitzeko, urte horietan euskal nazionalismoan ere gertatzen dela-rik. Irlandar errealtatea dibulgatzean, Eleizaldek "nazionalismoaren terrorista"tzat definitzen ditu erradikalak, nahiz eta jabeturik dagoen Irlandan lortu dena bortxazko egintzen ondorioa dela. Hala ere ez du metodo hori defendatzen: "Krimena beti krimena da, eta ez da inoiz justifikatzen" (Euzkadi, 1914-I-25). Urteekin, Eleizaldek azkenerako Sinn-Feinonen printzipio nazionalistak defendatuko ditu, zeinek bere independentismoarekin nazionalista moderatueneren erreibindikazioa gaindituko baitu.

Asko dira Lehen Mundu Gerrari eskainitako artikuluak. Hura hasi baino lehen, Brunetière zela-eta, Eleizaldek baieztatzen du nazionalitate kontzeptua aldagarria dela herri baten nazionalitatea baieztatu edo ukatzeko dagoen interes konkretuaren arabera, alemaniarren erreklamazio espansionistak zirela-eta, beretzat erreklamatzeko baitzituzten beren hizkuntza egiten zuten lurralde guztiak. Goretsi egiten du nazio handi bat eratzeko borondate alemaniarra, baina gerra hasi bezain laster, aliatuen taldean kokatzen du bere burua. Eleizaldek aholkatzen du nazionalistak adi egon daitezela nazionalitateen printzipiora zeini lagundu jakiteko. Germaniarrak printzipio hori zanpatzen ari direnez gero, nazionalista euskaldunok antigermaniar izan behar dugu, garai hartan katoliko espainiarrek eta Euskal Herriko ez-nazionalistek predikatzen zutenaren aurka.

Germanofiloek zuten Frantziarenganako gorrotoa kritikatu egiten du, irreljioso eta materialista zeritzolako, herri erlijiosoa eta gobernu ez-konfesionalaren artean bereizketa egin behar delarik. Ustelkeria moralaren salakuntza Frantziari egiten diotenen artean, Eleizaldek uste du Alemania bide berean dagoela eta ez dauka katolizismo historiko frantses sendoaren defentsarik. Alemaniaren porrota nahi du, bestela "parez pare hipokresia protestantearen eta pentsamendu monista librearen aurreratzea" ikusiko baikenuke (Euzkadi, 1914-VIII-16).

Aliatuen defentsa ikuspegi erlijiosotik sustengatzeko," Paul Dudon frantses jesuitaren "*¿Qui a voulu la guerre?*" artikulua glosatzen du, zeinek katoliko germanofiloen errakuntza kritikatu baitzuen Frantzia donge eta iraultzailearen deuseztapena bultzatzen zutelako (Euzkadi, 1915-II-14).

Gerraren amaieran, kazetari lanetara joan zen Eleizalde Parisa, aliatuen bake konferentziara (Euzkadi, 1919-I-06 eta 1919-II-03).

Eleizaldek gehien aldezten duen nazioetako bat Belgika da, batez ere tropa alemaniarrek inbaditu ondoren. Zentzu horretan Ingalaterraren eginkizuna gores ten du, belgikar nazioaren defendatzaile delako eta eraso alemaniarren aurrean belgikarren defentsa heroikoa goratzen du. Eraso egiten dio propaganda pangermanistari, orduan gazte eta neutrala zen Belgikaren inbasioa justifikatu nahi duelako eta nazioak pertsonaren eskubide eta betebeh ar berberak dituela defendatzen du: existentzia, askatasuna eta hobekuntza. Bere tesiarentzat Pio IX.aren Syllabus-en bilatzen du bermea, eta izaera orokorrez baieztatzen du bere ezaugarriei eutsi dien herrialdeak arlo moralean ere bere distira erakutsi duela, ez ordea bertan behera utzi dituztenek, herri bezala ere degradatu egin baitira. (Euzkadi, 1916-V-30).

Eleizaldek irmotasun handiarekin defendaturiko beste nazioetako bat Polonia da. Gerraren aurretik ere defendatzen ditu poloniarrek, zeinen nazioa Austria, Prusia eta Errusiaren

menpean baitzegoen. Ibilpide historiko bat egiten du Polonian barrera Lubor Niederle historialari eslavista txekiarraren datuak jasoz. Sustengatzen du katolizismo poloniarra izan dela beren bertute nazionalak gordetzearen kausa, kleroak herriari lagunduz.

Austria, Prusia eta Errusiak menperaturiko lurraldeetan eskola poloniarren zailtasunak azalduz, eta alemaniera eta errusieraren ezarpenaren aurka egiteko herriak erakutsitako ahalgina ikustaraziz, euskararekin era berean jokatzeko dagoen premia jabetarazi nahi ditu irakurleak, hiritar guztiei dei eginez berreraikitze nazionalari laguntzeko eta horretarako lehen lefroan egon behar dutela prentsak, literaturak eta eskolak. (Euzkadi, 1914-III-29).

Aginte errusiarraren azpian dauden poloniarrek errebolta daitezten germaniarrek egiten dituzten promesak arbuiatzen ditu Eleizaldek beste artikulu batzuetan, zeren eta poloniarrentzat alemaniarrek egindako independentzi promesak faltsuak direlakoan baitago, hala erakusten duelako alemaniarren aginteak Silesiaren gainean duen jokabideak, inperio Austro-Hungariarrak gutxiengo eslaviarrekiko duen borondate hobearekin alderatuz. Eleizaldek juduei kolaborazionismoa egozten die alemaniar aginteak Silesiako poloniarren gain jarrai zezan, hauek katolizismoari eutsiz aurre egin baitzioten Bismarcken luteranismoari. Beraz, poloniarrek kultura sendo bat duten bitartean gainezarpen alemaniarri kontra egiteko gauza izan-go direla eta nortasun nazionalaren biziraupena segurtaturik dagoela ondorioztatzen du.

Eleizaldek goretzi egiten du, halaber, gerra garaiko antolakuntza humanitario poloniarra, Lausanneko Poloniar agentziak nazionalitateen kongresua zela-eta 1916an argitaraturiko *Petite Encyclopédie polonaise* liburua hartu ondoren (Euzkadi, 1916-XII-24).

Finlandiarren kasuan, Eleizaldek txalo jotzen die Errusia ahaltsuaren aurrean, Nikolas II.aren bitartez konstituzioa abolitu zuenean, izan duten erresistentziarengatik. Kasu partikular horretatik abiatuak, Eleizaldek nazionalitateen printzipioa definitzen du: "Gaur eguneko Europa eratzen duten talde nazional hain desberdinetako bakoitzak bizitzeko eta etorkizuna izateko eskubidea du; Europak Probidentziak ezarritako destinoa bete ahal izateko ezinbestekoa da talde horietako bakoitzak irautea eta bere nortasun berezia garatzea; destino hori bete behar da ez herriak desgertaraziz berdinduz, baizik eta bere elementu askotarikoaren sintesiz, talde nazional desberdin eta elkarrosagarrien adiskidetzez, eta gero eta harmonia handiagoan" (Euzkadi, 1915-I-10).

Finlandiar nazionalitatearen berreskuratzea antzinako hizkuntza eta literaturaren bitartez lortu dutela ikusirik, Eleizaldek berretsi egiten du birjaio diren nazionalitate guztiek beren hizkuntza eta literatura berreskuratzearen bitartez lortu dutela hori: "Beraz, zuzen eta bidezkoa da nazionalitate txikiak berpiztea, horietako bakoitzak herri guztien kongregaziora bere izaera bereziaren ekarpena egin dezan, hau da, beren ekimenez legami osasungarria, ore osoa usteltzea eragotziko duen gatzalea" (Euzkadi, 1915-I-10).

1913an, Eleizaldek iradokitzen du Suitzan nazionalitateen kongresu bat egitea zelta eta eslaviar, finlandiar eta euskaldunentzat, eta Estatu propioak ez duten beste nazionalitateen ordezkarietzat, elkar ezagutu eta elkarri laguntzeko bitartekoak ezartzeko.

Orain arte aipatutakoak baino hedadura txikiagoarekin tratatzen ditu beste nazionalitate batzuk. Txekiarrek beren independentzia lortzeko izandako heroikotasunaren gorespenak 1918ko abenduan izan zuen bere une gorena, Vladimir Strimlepl-ek Eleizalde Parisko behin behineko gobernu txekoeslovakiarraren egoitzan hartu zuenean. Beste artikulu batzuetan Jungmann lexikografoari, Schafarik arkeologoari eta Polacky historialariari edo Ladislao Riegerri zor zaien txekiar nazionalismoaren itzarkundea glosatu zuen.

Hungariarren bilakaera historikoa ere azaltzen du eta nola uko egin zieten austriar dominazioari eta alemaniar hizkuntza, katolizismoa eta protestantismoa ezartzeari, Luis Kossuth hungariar abertzalearen bizitza gorabeheratsuaren aipamen luzea eginez; bera izan zen magyar nazioaren eratzaleetako bat eta 1848an Austriako erregeak emandako onarpena lortzen lagundu zuena.

Hain zuzen ere bere artikuluetako batean, "La nacionalidad magyar y el Estado húngaro" izenburukoan (Euzkadi, 1918-IV-28), Eleizaldek estatu eta nazionalitateen arteko konfrontazioaren azterketa historiko bat egiten du eta bertan errenazentista italiarren ideiei egotzen zien politika estatistaren abiapuntua, bereziki Machiavelliren "Printzea"ko ideiei eta Westfaliako tratatuari politika praktikoan.

Ukatu egiten du teoria nazionalistak Frantses Iraultzaren ideietatik sortu izana, zeinek nazioak bereizteko bitarteko gisa muga geografikoak proposatzen baitzituen, nazionalitateen ezaugarri bereizgarriak kontuan hartu gabe: "Mugimendu nazionalista erreakzio naturala da politika materialista eta utilitario horren aurka. Mugimendu nazionalistek estatistek aipatzen duten "Estatu-arrazoia"ri nazionalitate bakoitzak bere bizitza egiteko dituen justizia eta esku-bidearen betiko printzipioak kontrajartzen dizkiote".

Halaber, historikoki azaltzen ditu arraza eslaviarreko herriak ere (Euzkadi, 1913-IV-17 eta 20). Errusiaren kasuan, gogoeta egiten du 1917an Tsarra eta bere gortea zergatik erori ziren, guztien arbuiopean, eta Rasputinen asasinatzearen iruzkina egiten du (Euzkadi, 1917-I-6), zeinen berri baitzuen Eleizaldek 1916an Lausannen izandako nazionalitateen konferentzian, lituaniar, letoniar, erruteniar eta kataluniarrekin izandako afari batean, Vilanko Homan aldizkari literato erruteniar batekin hitz egiteko aukera izan baitzuen, eta berak esan omen zion Rasputin gizon landugabea, eliza ortodoxoko konbertsoa zela, eta sona lortu zuela Moskuko gortean Tsarraren kontseilari gisara sartu eta taumaturgo eta intrigatzaile gisara nabarmenduz.

Lituaniar nazionalitatea defendatzean, poloniar agintea errefusatu egiten du eta printzipio bat ezartzen du, hau da, Poloniak Lituania erraz menperatu zuela erlijio berbera zuelako; herri batentzat askoz errazagoa da atzerritarren okupazioa baztertzea horrek, gainera, beste erlijio bat ezarri nahi dionean. Kroaziari buruz hiru artikuluko ibilbidea egiten du (1913ko ekaineko 8, 16 eta 22an), hungariar agintearen aurrean erakutsitako erresistentzia eta Rackiri esker egindako nazionalitatearen berreskuratzea azpimarratuz, azken hau haien Arana Goiritzat definitzen duelarik. Hizkuntza bateratzearen beharrezanaren kontzientzia eta nazionalismo kroaziarraren zentro intelektual gisara akademia nazional bat izatea ere azpimarratzen ditu. Kasu guztietan kroaziar herri-bulkada euskaldunentzat adibide gisara aipatzen du. Gauza bera egiten du serbiar, moraviar, eslovakiar, esloveniarrak, errumaniar eta albaniarrekin eta horiengan ere aurkitzen ditu halako antzekotasun batzuk euskaldunekiko.

Albaniarren kasuan (Euzkadi, 1914-I-11) independenziara bidean izandako bilakaera azaltzen du historikoki eta, nahiz eta mendietan bizi zelako herri librea izan, soldaduzkaren menpe ez egon eta zergarik ez ordaindu, horrekin konformatzen ez zelako nazionalismoa sortu zela erakusten du, izan ere "nazionalismoa ez baita tarifa, aduana, pribilegio eta exentzio-auzi bat. Nazionalismoak talde nazional bakoitzak bere bizitza bizitzea eta bere modu bereziak garatzea nahi du, gizateriaren aurrerapena talde nazional guztien aurrerapen harmoniazkotik sor dadin".

Rovira y Virgilen liburu bat zela-eta, Eleizalde bere nahigabea azaltzen du euskaldunok kataluniarren literatura bera ez dugulako, ezta batasun nazionalik ere eta miretsi egiten ditu beren herrialdea defendatzeko eta bertako aberastasuna gehitzeko duten zentzu onarengatik.

Europaz kanpo, Indiako adibidera jotzen du, non ingelesak berak nahi nazionalak bultzatzen ari diren indiarrei gobernu-organismoetan esku hartzeko aukera ematean, antzinako gizarte-antolakuntza ezabatu eta gazteria atzerrian prestatuz; horrek konstituzioa eta parlamentu demokratikoak erreklamatzeko ekarriko du.

Japoniar nazionalismoa ere goresen du, nahiz eta Eleizalde uste duen haien nazionalismoa kristautasunaren gidaritzapean ez dagoen heinean, "haien abertzaletasuna Goi-agerpenak bideratzen eta zuzentzen ez duenez egiazko helburura, herri kristauen abertzaletasuna baino askozaz errazago desbidera daiteke eta egin ditzake aberrazioak" (Euzkadi, 1913-VIII-17).

6. LITERATUR KRITIKA

Bere kazetari-bizitzan zehar, Eleizalde garaiko literaturaren ezagutzaile on bezala agertzen da eta horregatik literatur kritikako artikulu batzuk argitaratzen ditu, beti ere ikuspuntu katoliko eta nazionalistatik.

Jacinto Benaventek *La noche de sábado* estreinatzean elkarrizketa erako artikulu bat argitaratzen du Euzkadin (1913-XI-30). Elkarrizketak hiru partaide ditu, Eleizalde bera, obra defendatzen duen ikusle kontserbadore bat eta beste nazionalista bat. Eleizalde naturalismoaren aurkako kritika eta nazionalismoaren defentsa egiten ditu.

Zolak eleberrian egin zuen bezala, "bultzada indartsu batez erromantizismoaren mamu goibelak desagertarazi dituen" Benaventeren teatro naturalista defendatzen duen ikusle kontserbadorearen aurrean, Eleizalde biak kritikatzeko dituen, batetik, Zola: "Pomografiaren bontzo hau demokrata nabarmen bat zen, markesa eta artxidukeen mespreziatzailea jende-mota hori existitu ere egiten dela ez ulertzeko arrandi-punturaino" eta, bestetik, Benavente: "Ingurune erabat printzipezkoan mugitzen da: ikus ezazu hori gaur gauean aurkezten duen ergel konplikatatu, endekatu neurotiko, poeta satanista eta ninfomanen bilduman. Desberdintasun hori kenduta, dena berdina da: Benaventeren generoa Zolarena bezain higuin garri eta nazkagarria".

Arteari buruz zera dio Eleizalde: "artearen arteagatik, beste inolako helbururik gabe, nekez onar daiteke, halako dohain jainkotiar miresgarriaren gutxiespen bat baitirudi; baina artea gaizkiaren zerbitzura jarririk, bere pabilioi arranditsuarekin salgai kirastuna estaliz, bereziki higuin garri gertatzen da, magia beltzeko egintza bat dirudi ia. Eta literatura naturalista hori, den-dena, zilborraren inguruan egindako miaketa "psikologiko"etara mugatzen da".

Naturalismoa ere errefusatu egiten du: "Generoa bera nazkagarria eta erakarmen gutxiakoa da. Artearen egitekoa ez al da ahalik eta modurik gordinenean naturaleza hondatuaren miseriak pintatzea besterik? Uste dut norbaitek esana dela arte naturalista filosofia pesimistatik datorrela, eta arrazoia zuen hori esan zuenak. Gaizkia, eta gaizkia bakarrik, pintatzen atsegina hartzen duten literato naturalista horiek guztiak, Budaren jarraitzaileak dira eta Arturo Schopenhauer, haren Mendebaleko profeta handiarenak". "Egiazko naturalismo artistikoa naturalismo espiritualista izango litzateke, Huysmansek berak hasi zuena bere bigarren aroan, errealismoko dokumentuaren doitasuna, ñabarduraren zehaztasuna, estilo urduri, zalu eta

zaildua gordez; baina misterioa azaltzeko bulkada morbosoak eta zentzuen gaixotasunak baino zerbañ gehiago erabiliz, arima espiritual eta hilezkorra onartuz, gorputzarekiko bere gatazkekin, oldarraldi demoniozkoekin, sorospen supernaturalekin... Genero horrek, artista gaituek landurik, obra bikain eta arranditsuak sortu ahal izango zituen”.

Naturalismoaren kritika horren ondoan, P. Lhanderen *Mirentxu* eleberraren kritikak merzidion zentzu erabat aurkakoa aipa genezake, bertan goretsi egiten baitira “euskal ohituren, mendiko eta itsasoko euskal bizitzaren eszena interesgarrien deskribapen ederrak”, Mirentxuk “fede, lan, sakrifizio-espíritu, buru-ukapen, indar moralen bilduma-sortaren eredia” irudikatzen baitu eta “horietatik, eta ez bestetatik, espero bailiteke zinez Aberria berrezartzea”. Obraren tonu baikorra eta autoreak baseritarrarenganako sentitzen duen atxikimendua ere goresten ditu.

Beste batean Arturo Kanpionek Euskadina-n argitaraturiko “Fantasia y Realidad” II. liburukia (Euzkadi, 1918-XII-8) kritikatzeko du: kasu honetan ere Kanpionen zentzu abertzalea goresten du, zeinen obrek “gure literatura nazionalaren altzorra aberasteko duten”. Liburuki horretako narrazioak honela definitzen ditu: “prosazko poema malenkoniak beteak, sentimendu euskaltzale horretaz blai eginak, zeinen adierazpena Kanpionek indartsu, zuzen eta handitasunez egiten baitu”.

Huysmansen eskolaren barruan Robert Hugo Benson idazle katoliko ingelesaren obra dago, hil zenean Eleizalde goratua, bere katolizismoarengatik goretsia. Eleizalde ongi eza gutzen zuen haren obra, eta hala nabarmentzen du idazle horren *The Lord of the World* obraren gaztelaniarazte eskasari egindako kritikan.

Beste artikulu batzuetan Mickiewicz, Krasinski eta Slowackiren poloniar poesia abertzalea goresten du. Euskadin Arrese Beitia eta Arana Goiriren poesia nabarmentzen du ildo horretatik.

Gorespen nazionalista horien aurrez aurre, gogor kritikatzeko du Pio Baroja *Arlequinadas* barojianas artikuluan (Euzkadi, 1917-X-14). Barojak *Nuevo tablado de arlequin* argitaratu zuen eta bertan nazionalismoari erasotzen zion. Eleizalde Barojaren liburuari erasotzen dio eta hari buruz dio dokumentazioari dagokionez alhondiga-mutil baten pare dagoela eta irizpideari dagokionez Hegel irakurriko lukeen ileapaindegiko morroi baten mailan. Banan-banan errefusatzeko ditu “bost arlekinada barojatarrak, orain arte bizkaitarren aurka irten diren bakarrak, beste hainbeste Minerva gisara, patologiaren Zeus horien buruetatik”. Ez-latindarra bezala agertu baina Aita Santua bere erregetzat erreklamatzeko, Felipe II.a miretsi eta beste erlijio batzuk baimentzea nahi ez duelako, tradizionalistak izan baina historia faltsutu eta ortografia aldatzeko, gaztelania mesprezatu baina hartan idazteko Barojak bizkaitarrari egindako salaketei eratzuten die. Pio Barojak egindako salaketa horiek errefusatu egiten ditu Eleizalde.

La idea de Patria según Brunetièrre (1917-II-5) artikuluan XIX. mendearen bukaeran gertaturiko aldaketan berri ematen du, naturalismoa eta positibismoa baztertu eta individualismoa goratzen delarik. Kritikoki balioesten ditu Schopenhauer, Nietzsche, Huysmans, Tyrrel eta abar bezalako intelektualak.

Baina literato zen aldetik, Eleizalde Landibar eleberriz izango zenaren bi kapitulu argitaratu zituen Euzkadin (1917-X-7 eta 1918-V-30) eta beste artikulu batzuk ere argitaratu zituen hainbat ideia azalduz, gerora, literaturara egokiturik eleberriz horretan agertuko zirelarik.

1913ko abuztuaren 3an bere *Aurrerantz* artikulua argitaratzen du eta bertan elkarrizketa-erara trenbideak nazionalismoarentzat zekartzan abantailak azaltzen ditu, nazionalismoak ga-

rraiobide hau kritikatu egin baitzuen kosmopolitismoaren sarbide izategatik. Hala ere, Eleizaldeek dio Polonia, Hungaria, Bohemia, Kroazia eta abar bezalako nazionalitate berriei buruzko albisteak ekartzeko ere balio izan duela. Halaber, goratu egiten du euskaldunei kanpora bidaiak egiteko eman dien aukeragatik, etxekoa kanpotik hobeto balioestean abertzaleago itzuliz. Madrilen estudiantetan izandako bere esperientzia pertsonala eta hiribururaino trenbidez egin zuen bidaia aipatzen ditu, Landibar-en ere kontatzen duelarik.

Beste artikulu batean, Un día de elecciones (1914-III-22), Charles Nicoullauden *L'Initiation maçonnique* liburuaren azalpen bat egiten du lehenago irakurri omen duen Meurin goztainaren *La Francmaçonnerie, synagogue de Satan* obrarekin erlazionatuz. Antolakuntza masonikoaren ezagutzaila on bezala ageri da.

Beste artikulu batek, *Paz en la guerra* (1914-IX-13), Landibar-en lehen kapitulua gogorazten digu. Oso artikulu literarioa da eta European barrena gerra hedatzen ari dela Aralarko santutegian egindako egonaldi bateko bake-sentsazioak oroitarazten ditu. Paisaia tradizionalaren defentsa egiten du, hiritartu eta industrialdu gabearena: "Non aurkitu, gaurko Gipuzkolan, hedadura pixka bateko paisaia kutsatu gabea -estetikaren aldetik esan nahi dut -, hau da, lantegi bateko tximinia-hodiaz, metalezko zubiaz, tunel-ahoaz, transformadore elektriko baten etxetoz edo telegrafo-zutabeen lineaz kutsatu gabea?"

Gauza bera gertatzen da aldun probintzietarako hauteskundeak izan ziren egun berean argitaratutako *Yabanerías* (1915-III-14) artikuluarekin. Bertan gogor erasotzen da kanpotik etorri eta, dauden tokia eta bertako ohiturak zurikeriaz goretsiz, lehenik oparotasun materiala eta ondoren botere politikoa lortzeko inolako eskrupulurik ez dutenen aurka. Gehiengo katolikoko herri batean instalatzen direnak, katolikoen kofradietan izena eman eta alkate edo zinegotzi izateko apaizaren eskuari mun egiten diotenak nabarmentzen ditu. Beste batzuk, herri "aurrerakoi" batera iritsi eta razionalismoa eta antiklerikalismoa predikatzen dute agintera heldu ahal izateko. Bi yabana-motak gauza batean datoz bat, baserritarrari dioten gorrotoan eta beren antieuskalduntasun amorratuan. Pertsonaia horiek gordin erretrataturik ageri dira Landibar eleberrian.

7. MUSIKA ETA ARTE HERRITARRA

Eleizalde oso musikazalea eta pianojole ona zen. Bere kazetari-karreraren hasieratik musikaren zeregina azpimarratzen du, euskal nazionalitatea iratzartzen laguntzen duen elementu gisa. *Nacionalidad y Arte* (1913-IX-28) musikaren planteamendu nazionalista markatzen duen artikulua da. Arteak helburu abertzale bat izan ote dezakeen edo, mugaz inguratu gabe, arrazatarra murriztu gabe, unibertsala izan behar ote duen jakitearen komenigarritasunaren aurrean, arte erabat aberritarra landu behar dela esaten du, zeren arte unibertsala ez baita sortzen arte nazionala suntsizetik, baizik eta haien guztien multzotik, gizateriaren aurrerakuntza ere nazionalitateen deuseztapenetik ordez haien guztien harmoniazko garapenetik sortzen den era berean.

Ondorio horretara iristen da musika-beilaldi baten ondoren, bertan beste nazionalista batzuen ondoan Mozart, Beethoven, Chopin, Mendelssohn, Txaikovski eta Schumannen obrak interpretatzen dituelarik. Chopinen polonesak eta mazurkak, artistikoki ederrak ez ezik, egiazki abertzaleak direla esatera iristen da. Beste adibide batzuk Grieg, Txaikovski edota Azkuegan aurkitzen dira.

De música nacional (1914-VI-7) artikuluan A. Donostiaren Euskal preludioen bigarren koadernoaren argitalpenari buruzko iruzkina egiten du.

Azkueren bidez 1901etik aurrera ematen den euskal musika-berpizkundearen hasiera nabarmentzeko euskal melodien harmonizazioan italiar kutsadura kritikatu ondoren, A. Donostiaren Preludioak Grieg norvegiarraren *Lyrische Stücke* eta R. Schumannen *Noveletten*-ekin alderatzen ditu. Gaingiroki aztertzen ditu eta obra sinfonikoak konposa ditzan nahiko lukeela adieraziz amaitzen du, baina "izurritetik ihes egiten den bezalaxe, wagnerismotik ihes egiten jakingo duela espero dugu, horixe baita musika garaikidearen beherakadaren hasiera eta oinarria, gaurko arte gaixoa galarazten duen umekeria negargarrien eta bizantinismo bihurrien erro eta jatorria... eta, gainera, itxaropenik hoberenak eskaintzen zituzten autore on ugari galbidera eraman dituen arrail txit hondagarria". "Inork ez du Wagnerren talentua eztabaidatzen, eta jeinu bat izan zela ere onar daiteke; baina kasu isolatu bat da eta hala izan behar du (Nietzschekek zioen "Wagner kasu"tzat hartzeraino iritsi gabe), inolako muntarik gabea artearen esparruan; zeren Wagner, kontzeptu guztien arabera, imitaezina baita".

De arte patrio (1914-VIII-9) artikuluan A. Donostiaren *Euzkel-Eresiak* aipatzen ditu eta Bilboko Eusko Gastediren *Euzkel-Abestijak*. Sarrera bat egiten du sinfonia handietan sortutako musika handiaren balioa aitortuz, "arrandiatsuak" diruditelarik herri-artearen "soiltasuna"rekin alderatuta. Baina "anonimoki, herriaren arimari darion" musikaren aldeko agertzen da, Schumann eredu eta autoritatetzat harturik. Zentzu horretan A. Donostiaren *Euzkel-Eresiak* gorai-patzen ditu, nafar, lapurtar eta zuberotar jatorriko zortzi kanta A. Donostiak melodiari bere izaera tipikoa, "euskal kutsua", kendu gabe harmonizatuak, eta Mendelssohnen liederrekin alderatzen ditu. Halaber, melodia horiei, lehenagoko beste pobreago batzuen orde, literatur testu berriak ezarri izana goresen du.

Azkenik Bilboko Euzko Gaztedik argitaratutako *Euzkel-Abestijak* aipatzen du, 23 euskal kantaz osatutako bilduma.

A. Donostiaren *Euskal Preludioen* hirugarren koadernoaren argitalpena zela-eta beste artikulua bat idazten du, *De arte patrio* (1915-IV-18), eta bertan "gure Grieg nazionala" goresen du "bere arte dotore eta finaren emaitza bat gehiago eskaini digu"la adieraziz. Eleizaldeko espero du Preludioek "modu erabakigarrian lagunduko dutela, herri kultoen aurrean, gure musika-nazionalitatea argitzen".

Eleizaldeko eraso egiten die alemaniarrei, haien "hiper-Germania bateratuak, musikan, Wagnerren ondoko neurosiaren lotsagarrikeriak bakarrik ekoiztu ditu"ela azalduz, eta, aldiz, "europar nazionalitateen lehen fruituaren birjaiotze integrala"ren zantzua ikusten du euskal musika-itzarkundean.

Bost konposizioetako bakoitza deskribatzen du, horietako lehena autoreak berari eskaini ziolarik. Melodietako bakoitzaren argumentuzko edukiaren deskribapen literario bat da, jorratutako gaien erlazioa eta euskal ohituretan duten txertaketa goratzen duena: "Hitz batean, Aita Jose Antoniok doitasun gaindiezinez barnebildu ditu eta bere trebetasun tekniko liluragarriaz jarri ditu agerian euskal "barnealde" eta "kanpoalde" horiek".

Azkenik, 1916ko apirilaren 30ean eta maiatzaren 1ean, Bilboko Euzko Gaztedik antolatutarik, Bilboko Filarmonikoan A. Donostiak emandako hitzaldien erreseina egiten du.

Nazionalitatea definitzeko garaian, hizkuntzaren ondoren, musika nazional herritarrak funtsezko laguntza eskaintzen duela baieztatzen du, hala nola A. Donostia guztiz oinarritzko

elementuetako bat dela, Euskal Herri osoko zokorik urrundenetan bildu dituen kanta herritar eta tradizionalak kontuan izanik. Hortik datoz bere Euskal Preludioak eta Eresiak koadernoak.

Oñazez konposizioa ere goستن du, euskal maite-kantaren eredu bikaintzat hartuz, eta sehaska-kantak ere bai, besteak beste Seask'aldean izenburukoa, Nafarroako melodia batean inspiratua. Azkenik A. Donostiaren "Eguberri-Abestiak" koadernoaren iruzkina egiten du.

8. BESTE GAI BATZUK

Erreseinaturikoez gain, Eleizaldek beste gai asko landu zituen Euzkadi egunkariko bere artikuluetan.

Artikulu bat baino gehiago sinatu zituen erlijio-gaiez, horietan, beti, erlijio ortodoxoaren il-dotik, sarritan euskal izaerari loturik agertzen zena. Elizari eta, ondorioz, nazionalismoari atzerabide salakuntza egiten ziotenen aurka, Elizak gizarte-aurrerapenaren bermea suposatzen duela defendatzen du Eleizaldek, hala nola erlijiotasun gutxieneko guneak direla euskalduntasun gutxienekoak eta atzeratuenak.

1913-VII-13an errepublikarrak kritikatzin ditu Gorbeiaiko gurutzeari eraso ziotelako. Dioenez Askatasunaren, Berdintasunaren eta Anaitasunaren kontzeptuek kristautasunaren barruan bakarrik dute zentzia.

Testuinguru horretan Euskal Herriak sorginkeria-kontuetan izan duen izen txarra argitu beharrean aurkitzen da. Tonu ironiazko batean, iradokitzen du ideia heretikoak eta horien protagonistak berak ere Euskal Herriak kanpoko pertsonaiak izan direla, eta egiazko erruduna izan gabe izan dela zigortua (1913-VIII-10).

Eleizalderen garaian egungotasun handiko beste gai bat alkoholismoarena zen. Eta, imigrazioarekin batera, euskal nazioaren berrezarpena eragozten duen izurrite bat bezala aipatzen du. Arazo sozial, moral eta erlijiozko bezala erasotzea proposatzen du, eta Amerikako Lege Lehorra txalotzen du (Euzkadi, 1919-IV-3).

Urriak dira dibulgazio zientifikoko artikulua, ia beti gai astronomikoak edo matematikoak aztertuz (1923-III-22). Eleizaldek uste du bere egiazko eginbeharra euskal nazionalismoaren zentzu moral positiboa nabarmentzeko lanean aritzea dela eta ez zientziaren dibulgazioan: "Gizarte-balioak -azken batean balio moralak direnak- nagusiki intelektualak direnen aurretik jarri behar dira inolako eztabaidarik gabe" (1916-III-19).

Askozaz ugariagoak dira unean uneko alderdi-borrokako arazo politikoei buruz eztabaidatzeko artikulua, betiere nazionalismoaren babesle bezala agertuz karlista, sozialista eta kontserbadoreen erasoan aurrean.

Labur esateko, haren kazetari-lanak gerraurreko euskal nazionalismoaren intelektual organiko garrantzitsuenetako bihurtzen du Eleizalde eta, nazionalismoaren etorkizun taktikoari buruzko polemika eta eztabaidetan esku hartzeaz gainera, arrakasta handiz ezagutarazi zuen Euskal Herrikoaren antzeko europar nazionalitate guztien egoera, Lehen Mundu Gerrateko une tragikoetan.

Koldo Eleizalderen literatur obra eta Eusko Ikaskuntzaren bere harremana



José Javier **G**ranja **P**ascual

1. AURREKARIAK

1.1. BIOGRAFIKOAK

Koldo Eleizalde Breñosa (“Azkain”, “Iturraín”, “Aitzerreka”, “Axe”) gizonik jantzienetako bat izan zen mende honen hasieran euskal nortasuna berreskuratzen lagundu zuten artean, alderdi linguistiko, politiko, literario, hezkuntzako eta euskalduntzailean. Azken teoria matematiko, astronomiko eta zientifikoak oro har ezagutzen zituen, pianojole bikaina izan zen, filosofo klasikoan (Aristoteles, Platon) eta modernoan (Kant, Marx, Hegel...) irakurlea, poliglota, izaera zuzen eta ez oso umore onekoa, guztiz erlijiozalea eta aldi berean euskararen maitalea; guztiarekin ere, gehiago idatzi zuen gaztelaniaz bere jaiotzatiko hizkuntzan baino, ez hainbeste Bilbok –miretsi eta Euskadiren buru ezartzen zuen hiriak– berarengan izan zuen eraginarengatik, Mitxelenak esan ohi zuenez, baizik eta propaganda euskaratzaile eta nazionalista jendetza zabalagoarengana hel zedin.

Bergaran (Gipuzkoa) jaio zen 1878ko ekainaren 9an. Jaioterrian egin zituen lehen ikasketak eta Bigarren hezkuntza (1887-1891), Zaragozan bukatu zuena, hango institutuan ikasi baitzuen 1891tik 1894ra bitartean.

Euskal Herrian unibertsitate-fakultaterik ez izateak behartu zuen, garai hartako beste hainbeste bezala, bere unibertsitate-ikasketak lehenik Zaragozako Zientzia Fakultatean egitera (1895-1898) eta gero Madrilekoan, harik eta 1899an Zientzietan lizentziatu zen arte, besteak beste, Astronomia eta Fisika matematikako ikasgaiak hartuz. 1899ko ekainaren 27an, Madrileko Unibertsitatean, Zientzia Fisiko-matematikoetako Lizentziatura titulua lortu zuen.

Madrilen Eleizalde, beste ikasle euskaldun batzuekin batera, Zarzuelako antzerki-estrenaldietara joaten zen; han, entzuleen portaerak behatu eta “progresistada gangar eta zalapartatsu bete-betean” ari zirenen erreakzioak kritikatzeko zituen. Novedades-era ere joaten ziren eta bertan ezagutu zuten Kleto Zabala zuzendari eta konpositorea, Eleizaldekin adiskide izan zuena. Hain zuzen ere, garai hartan sortu zuen Kleto Zabalak Euzko Abendaren Ereserkia, Bizkaiko ezpatadantzaren gai bat harmonizatuz. Madrilen zeuden euskal ikasleak izan ziren himnoaren lehen kantariak, urteak lehenago San Luis Kafetegian Gernikako Arbolarekin gertatu zen bezala. Euzko Abendaren Ereserkia garai hartan Cruz kalean zegoen Euskal Etxean kantatu zen.

Musika nazionalistaren eragin handia zeukan, eta Grieg edo Chopin bihurtu ziren bere autore gogokoena, baita Wagner edota Beethovenen sinfoniak ere. Ildo horretatik Resurrección María Azkue euskal musika-berpizkunderen autoretzat hartu zuten. Adiskidetasun handia zeukan A. Jose Antonio Donostiarekin -“gure Grieg nazionala”- eta hark pianorako bere Euskal Preludioetako (1915) batzuk eskaini zizkion.

Madrilero Industri Ingeniarren Eskolan ere egin zituen ikasketak 1902 eta 1905 bitartean. Idazle gisa aritu zen lehen aldi horretan, interes zientifikoak nagusitu zitzaizkion besteen gainetik. Horrela, 1904an *Apuntes para una teoría de las figuras circulares* izaera matematikoko idazlana argitaratu zuen eta *Elementos de Astronomía descriptiva* (eskuizkribua) idatzi zuen eguzki-sistemari, izarrei, planeten mugimenduari eta abarri buruzko artikulua sail baten ondoan.

Madrilero ikasketaldia “Nuestros veinte años” (Hermes, 1917) delakoan gogoratuko zuen gerora eta honela zioen: “Gure hogeit hamar urteak jadanik nazionalistak ziren, irribarrea eragiten digun nazionalismo xalo eta sentimentalekoak -baina horrek ez gaitu lotsagorritzen- beste hogeit hamar urte hauek pasa eta gero”.

Julio Urkixoren arabera (RIEV, 1923) lehen gaztaroan karlista suharra izan zen, eta geroago Sabino Aranaren ideiei atxiki zitzaian; horregatik, interes handiagoa agertu zuen euskararen arazo praktikokoekiko euskal hizkuntzalaritzarekiko baino. Horrela, adibidez, 1913an *Morfología de la conjugación vasca sintética* argitaratu zuenean, ikerketa linguistikoa baino areago euskararen erabilera bultzatu nahi izan zuen, euskarari bizirauten laguntzeko asmoz.

Berak aitortzen zuenez, nazionalista sentimentala izan zen gaztarotik, batez ere gerrillari karlista zaharrei entzundako kontaerek haurtzaroan eragin zioten zirraren oroitzapenarengatik, eta Walter Scotten irakurgaien oroitzapenarengatik; izan ere, haren kontaerek “gure nazionalismo hasiberria halako tonu erromantiko batzuetan biltzen laguntzen baitzuten, hogeit hamar urte genituela xarmaz eta poesiaz beterik iruditzen zitzaizkigunak”. Horrela, amets egiten zuen “partidario”aren bizimodu asaldatu, gorabeheratsu, gozatsu eta epikoarekin, zeina karabina bizkarrean zeharretara hartu eta harkaitzetan oreinarean zalutasunarekin saltoka baitabil, etsaiaren zaindaritzari amarruz ihes eginez, herritxoetara ustekabean sartu, apaizaren ardoa edan eta alkatearen alabarekin dantza eginez, hertsaturik leihotik ihes eginez, Gobernuaren konboiak arpilatuz, destakamendu txikiak errendarazi eta armagabetuz, traidoreak zigortuz, menperatuei barkatuz, bere orrialde pertsonalak folklorean ezarri eta herri-poesian betiko biziz” (Nuestros veinte años).

1905eko maiatzaren 30ean institutuko katedradun izendatzen dute. 1906an Gasteizko institutuan sartzen da Matematiketako katedradun gisara, bere jardura nazionalistengatik kartzelatik irten bezain laster. Pedro Garate zen, hura ere bergararra, institutuko bigarren matematika-irakaslea. Urte horretan bertan ezagutu zuen Mundakan bere emaztea izango zena, Leona Urrutia, eta hiru hilabete geroago, 1906ko urrian, berarekin ezkondu zen. Handik gutxira, 1909an, Armadatik lizentziatu zuten, dirutan kopuru bat ordaindu eta eginbehar horretatik libre geratu baitzen.

Ortodoxia nazionalistara erakarritako Euzkadi aldzkariaren zuzendari izan zen, eta baita RIEVen lankide ere: hala eta guztiz, “Uchin de Mendaur” (Arturo Kanpion) izengoitiz sinaturiko “Un bautizo” (RIEV, 1910) izeneko artikulua agertu zenean atsekabe handia hartu zuen, hartan Aranaren sistema irizpide etimologiko eta neologismoei erasotzen baitzieten, eta Julio Urkixorekiko harremanak eten zituen. Koldo Eleizalde aipatua sentitzen zuen bere burua artiku-

lu horretan eta handik gutxira kontu hori eztabaidagai bihurtu zen bi hizkuntzalarien artean. Urkixok "eliza" erabiltzea defendatu zuen Eleizaldek proposaturiko "txadon" neologismoaren orde. Urkixok honela esan zion: "Zuk 'Txadonalde'tar Koldobika" sinatutakoan nik onartuko dut "txadon". Oso gaizki hartu zion hori Eleizaldek eta eten egin zituzten harremanak (E.G.I.P.V., Literatura, II. libkia.).

1912ko abuztuaren 12 eta 13 bitartean galerna batek zenbait arrantzale bermeotar hil zituen. Eleizaldek, zirrarapean, naufrago bizirauleen kontaearak jaso zituen, eta geroago Landibar eleberrian azaldu zituen.

1912ko urriaren 24an Baionako Cercle d'Etudes euskariennes-era jotzen du eta adorea ematen die lanean jarrai dezaten; aldi berean, bertako urgazle gisara sartzen da.

Eusko Alderdi Jeltzaleari loturik jarraitzen du, eta 1910etik 1920ra bitarteko hamarkadan jarduera handiagoa du eta bere argitalpenak ere garrantzi handienekoak gertatzen dira, bai kazetaritza-kanpainetan, bai hizkuntzalaritza-azterketetan edota sorkuntza literarioan: *Raza, lengua y Nación Vasca* (1911), *Morfología de la conjugación vasca sintética* (1913); *Países y Razas* (1914), *Landibar* (1918); *Metodología para la restauración del euzkera*; *El problema de la Enseñanza en el País Vasco*; *Hermes, Euzkadi* (aldizkaria eta egunkaria), *La Baskonia, RIEV, Bizkaitarra*, eta abarrek artikulua.

1912an *El Correo del Norte* egunkari karlistak eraso egin zion, Eleizaldek amaren aldetik jatorri arrotza zuelako; berak Bizkaitarra-n erantzun zuen esanez amaren aldeko aitona don Karlosen armadarekin heldu zela Euskal Herrira foruak defendatzera, eta lelokeria horiei begira ibili orde, karlistek ikerketa filologiko eta linguistikoko egin behar zituztela, berak bezala.

Bergarako udalak berehala aitortu zituen Eleizalderen merituak: 1915eko ekainaren 28an honela erabaki zuen: "Koldo Eleizalde jauna, jaiotzez Bergarakoa, bertan guztiak ezagutzen dutena, euzkeraren alde argitaratutako idatzi baliotsuengatik eta bere herria hainbeste goratzeagatik omentzea, eta bereziki, aipaturiko manifestuarengatik zorianak ematea". Eleizaldek hasitako berreraikuntza patronimiko eta toponimikozko obrak ari zen udala eta 100 pezetako kopuruarekin laguntzea erabaki zuen.

1918an Oñatiko Kongresuan, Eusko Ikaskuntzaren Lehen Kongresuan eskuhartze garrantzitsua izan zuen, eta burubelarri aritu zen Eusko Ikaskuntza eta geroago Euskaltzaindia sortzen. Izan ere, bera izan genuen Euskaltzaindiaren sortzaileetako bat Arturo Kanpion, Julio Urkixo eta Resurrección María Azkuerekin batera; berehalaxe ekin zion euskara batzearen aldeko lanari eta Euskaltzaindiaren egoitza Bilbon finkatzea proposatu zuen.

Euskal Komunio Tradizionalistari lotua, haren defendatzaile gartsua izan baitzen joera aberrianoen aurka, lanbidez Matematika-katedran jarraitu zuen Gasteizko institutuan, eta Bizkaiko Aldundiak sortutako Instrukzio Publikoko Batzordearekiko lankidetzan garrantzi handikoa egin zuen Auzo-ikastolen bultzatzaile gisa, horien ikuskatzaile izendatu baitzuten 1919ko maiatzean. Bilboko Iralabarriko Gainzuri txaletera aldatu zuen bere bizilekua. 1920ko urtarrilaren 9an borondatezko eszedentzia eskatu eta Gasteizko katedra utzi egin zuen.

Eskoletarako euskal testuak sortzen lan egiten du: Euskal Zenbakistia (Aritmetika) eta Euzkeraz irakurtzeko irakaspidea (Silabategia).

Osasun makalekoa izanik, 1920ko ekainaren 12an Bilbotik Angel Apraizi idazten dio eta lehen aldiz ezagutzen du heriotzara arte aldegingo ez dion gaitza. Eusko Ikaskuntzaren bilerara jo-

aterik ez duelako desenkusatzean, “bronkoneumonia hesteetako gaizkoatze batez apaindua” duela aitortzen du. Senideen testigantzen arabera, Bizkaiko Aldundiak Koldo Eleizalde Madrilera bidali zuen, Instrukzio Publiko eta Arte Ederretako Ministerioan Bilborako Nautika Eskola moderno baten antolakuntza lor zezan, eta eginkizun horrekin Madrilan egon zen hilabeteaz azaldu zitzaion gaixotasuna. Nahiz eta D. Miguel Vegas, Geometria Analitikoko katedradunak, zeinen irakasle laguntzailea Eleizalde izan baitzen, aldeko iritzia eman Irakaskuntzako Kontseilu Nagusiari, Alfontso XIII.ak egitasmoari emandako ezezkoa erabakigarria izan zen; antza denez, haren buruzagitzan Koldo Eleizalde agertzeak bazuen zerikusirik ezezko horrekin.

Ezezkoak zirrara sakona eragin zion Eleizalderi, eta hori guztia gestioek sortutako unadurarekin batzean, geroago gaixotasunaren eragile izango zen bronkoneumonia sortarazi zion.

1921ean euskal antzerkiaren epaimahaikide izan zen eta Europako Iparraldeko literatura-aren aldeko agertzen da, batez ere Ibsenen Gerrariak bezalako obren aldeko. Jadanik ez du Euskal Herriarentzat jatorrizko hizkuntzan idatzitako obra handirik eskatzen, baizik obra atzeritarren moldaera hutsak, euskarak antzerki-hizkuntza bezala ere indarra har dezan.

1920 eta 1921 bitartean Jesús Arrese medikuak hiru ebakuntza egiten dizkio. 1921eko apirilean egindako ebakuntzaren ondoren nabari duen hobekuntzari esker toponimiako lanak jarraitzeko asmoa azaltzen du berriro, baina beste makalaldi batek atzera erietxera eramango du eta bertatik ekainaren 24an irtegar da “sarraski gisako bat jasan ondoren. Dena ongi egindakotzat emango da erabat sendatzea lortzen badut eta ohiko lanei berrekiteko gai baldin banaiz”. Ez du horrelakorik lortuko, nahiz eta oraindik ere Eusko Ikaskuntzari laguntza eskatu dion euskarazko ikasliburuak argitaratzen jarraitzeko auzo-ikastoletan erabiltzeko. 1921ean ebakuntza egin zioten Hamburgan eta “radium” bidez tratatu zuten, minbiziaren aurkako lehen tratamenduetako bat erabiliz.

Medikuek etsipena eman eta beste behin bere fede katoliko errotua erakutsiz, 1922an Lourdesera joan zen. Azkenik Bilbon hil zen 1923ko uztailaren 24an.

1.2. POLITIKOAK

Luis Maria Inazio Jose Ramon Eleizalde, hori baitzen autorearen izen osoa, Goenkaleko 3. zenbakian jaio zen, eguerdiko hamabietan. Luis Maria Eleizalde, Errezilgo Elizatean (Gipuzkoa) jaiotako filosofiako katedradunaren, eta María Belén Breñosa, Leintz bailarako Aretxabaletan (Gipuzkoa) jaiotakoaren semea zen. Amaren aldetiko aitona-amonak Rafael Breñosa, Cordobakoa, eta Emilia Tejada Meauxekoa (Frantzia) ziren, nahiz eta beste jaiotza-agiri batzuetan Toursen (Frantzia) dagoen Presle departamentukoa zela ageri. Sabino Aranaren ideiak ezagutu zituenetik nazionalista izan zen, nahiz eta bere aurreneko urteetan karlisten aldeko agertu, beste asko bezala, foruak defendatzeko don Karlosen armadarekin Euskal Herri-ara etorritako amaren aldeko aitona-aren eraginez, noski.

1903ko bere aukera nazionalistaren erradikalismotik, Eleizalde pixkanaka jarrera moderatuago batzuetarantz lerratu zen, sabindar ortodoxiaren lerroetan militante gisa parte hartu izanak ematen zion prestigioarekin.

1907an Gasteizko lehen Euskal Zentroaren buru hautatu zuten, nahiz eta gero karguari uko egin zion. EBBaren lehendakari izatera ere iritsi zen 1912an, nahiz eta postua hartzera ez iritsi.

Gasteizen bizi izan zen urteetan behin baino gehiagotan aurkeztu zuen bere burua hauteskundeetara. Horrela, 1911ko azaroaren 12ko udal-hauteskundeetan aurkeztu eta hamar hautagai nazionalisten artean boto-kopuru handiena lortu zuen: 103 boto, nahiz eta zinegotzigorik ez eskuratu. Hauteskundeen ostean lehendabiziko Araba-Buru-Batzarra eratu zen eta Eleizaldek bertan esku hartu zuen (1911-XII-17).

1913ko martxoko diputatutzarako hauteskundeetan berriz ere CNVren hautagai izan zen. Hauteskunde-kanpainan, hona zer argitaratu zuen El Jaimista-k: "Ziurtzat jotzen da erregional gisara aurkeztera doan hautagai batek ekainean datozen hauteskundeetan botoa ukatzen diotenen seme-alabei suspentsoa jartzeko mehatxua egiten ari dela". Hilabete batzuk geroago, Claudio Gregorio García, egunkariaren zuzendaria, hiru hilabeteko arrestora eta 125 pta.ko isunera kondenatu zuten, demandatu zuen Koldo Eleizalderen aurkako irain-delituaren-egatik. Hauteskunde horietan Eleizaldek 898 boto lortu zituen, eta hautagai garaitzaileek, berriz, lau bat mila boto.

1914an, Gasteizko Euskal Zentroak hitzaldi-ziklo bat antolatu zuen euskal kulturari buruz eta Eleizaldek "Nazionalismoa Europako herrialde desberdinetan" gaiaz hitz egin zuen eta Alemanian, Austrian, Belgikan eta Irlandan zegoen egoeraren berri eman zuen. Ordurako nabaria zen bere moderazioa irlandar nazionalisten gehiegikeriak kritikatzean, eta 1913az geroztik Euzkadin defendatzen zuen sistema autonomikoaren aldeko agertu zen; geroago, 1917an, Estatutuaren aldeko kanpainan esku hartu zuen.

1915ean ABBko buruzagitza berritu beharra gertatu zen. Luis Arana bere aldeko bat sartzen ahalegindu zen, baina Eleizalderen joera moderatua nagusitu zen eta Belaustegigoi-tia jarri zuten karguan.

1918ko otsailean, Datoren aro betean, hautagai horren aurkako alderdiak (jaimistak, integristak, mauristak, Defensa Social eta CNV) hauteskundeetan kontra egingo zion hautagai bat aldarrikatzeko bildu ziren. Eleizalde hautatu zuten eta integristek, mauristek, Defensa Social-ek eta Jaimista gehientsuenek onartu zuten, autonomismoaren gorakada betean. Hala ere, jaimisten parte batek erabaki horretan atzera egin eta beste hautagai bat aldarrikatu zuten; horregatik, Eleizaldek atzera egin behar izan zuen.

Aitzitik, Bizkaian, 1918ko legegintzako hauteskundeek nazionalismo moderatuaren garai-pena berretsi zuten, eta diputatu eta senadore nazionalistek berenganatu zituzten bizkaitarren botoak; Indalecio Prieto sozialista izan zen salbuespen bakarra. Ahots independentistek isildu beharra izan zuten, harik eta 1920az geroztik behin eta berriz gertatutako hauteskunde-porrotek etenaldi aberriano separatistaren sorrera bultzatu zuten arte.

Hermesen (1917ko ekaina) "Nuestros veinte años" argitaratu zuenetik, Koldo Eleizaldek argi eta garbi baztertu zuen nazionalismo separatista: "Uste zuen nazionalismoaren eginkizuna euskal gizartea prestatzea zela, kultura-mailan batik bat, bere izaera politiko propioa berreskura zezan. Aurretik erreibindikazio politikoa jartzea, are gehiago hori independentzia baldin bazen, arriskutsu eta kontraeragingarri gertatzen zen" (371 orr.).

1918ko martxoaren 10ean Gasteizko Eusko Gaztedi sortu zen eta ohorezko lehendakari izendatu zuten.

1919ko ekainaren 1ean azkeneko aldiz aurkeztu zen Gorteetako diputatu izateko hauteskundeetara, Bilbora tokiz aldatzea jadanik erabakita zeukanean. Gasteiztik aurkeztu zen, baina oso urrun gelditu zen bere 1.205 botoekin betiko Datoren 3.922 botoetatik.

Bilbora joanik, enfrontamendua izan zuen Manuel Egileor "Ikasle" aberrianoarekin, hark erantzun egin baitzion 1920ko apirilaren 12an Euzkadin argitaraturiko "Nacionalismo vasco e independencia vasca" artikuluari. Eleizalderen ustez, salatu beharra zegoen Komunio Nazionalistan independentziaren aldeko gutxiengo-sektore bat izatea, eta ziurtatzen zuen aukera independentista ez zela ideologia nazionalista oinarritzkoaren parte ere, norberaren aukera baizik; aldi berean, nazionalismoa Euskadiren existentzia nazionalarekiko borondatezko atxikimendu-egintza zela defendatzen zuen, Egileorrek bultzatzen zituen ideiei, JEL goiburu sabin-darrean laburbildutakoei men egin beharrik izan gabe. Egileor EBBren partaide zenez gero, organismo horrek eztabaida bertan behera uztea eta Eleizalderen jarrera berrestea erabaki zuen, Komunioaren helburua 1839ko urriaren 25eko legea indargabetzea baitzen, eta ez independentzia (1920-V-8). Engrazio Aranzadiren antzeko artikulua bat zela-eta hurrengo urtean errepikaturiko formulazio horixe izan zen, hain zuzen, 1921ean haustura aberrianoa sortarazi zuena, Eleizaldek Komunioaren lerro ofizialek bultzatu zuelarik.

Euzkadi egunkarian bere sorreratik maiztasunez argitara eman zituen artikuluetan, XX. mendearen bigarren hamarkadan nazionalismoak izandako bilakaera politikoaren interpretazioa azaldu zuen. Aktiboki esku hartu zuen alderdiko eztabaida guztietan, eta artikulua ugari idatzi zituen Iturain, Azkain, Axe eta Aitzerreka izengoitiak erabiliz.

Eleizalde, Engrazio Aranzadi "Kizkitza"rekin batera, sabin-dar pentsamenduaren oinordekoetako bat zen; hala ere, Jose Arriandiaga "Joala" edo Frai Ebangelista Iberoren lerro ortodoxoari atxiki gabe, 1903tik aurrera ideario independentista intransigentea gainditu zuen, printzipio nazionalistak arbuiatu gabe. Irnatasuna doktrinazko edukietan eta malgutasuna jardunbideetan; horra Eleizalderen doktrina politikoa gidatuko duen urrezko araua.

Arraza eta hizkuntza independentismoaren aurretik jarri beharreko elementuak ziren. 1893ko urriaren 25eko Legea ezabatzea eskatzen zuen autogobernu-erreibindikazioak ordezkatu zuen, pixkanaka, independentismo hori. Aldi berean, printzipio katolikoekiko lotura estuagotuz zihoan, hariak eta, euskal liberalismoari eta estatu-mailako alderdiei kontra eginez, Euskal Komunio Nazionalistara iritsi arte.

Eleizalde, gaztaroko erradikalismotik abiatu eta euskararen eta euskal kulturaren berreskurapena lortzeaz arduratutako nazionalismo autonomista baten defentsara iritsi zen: "Hizkuntza propioa naziotasun-zeinu handiagoa da independentzia bera baino, Estatu propioa edukitzea bera baino" ("*Las Nacionalidades*" in *Países y Razas*, 1914).

Koldo Eleizaldek *Países y Razas* (1914) liburuan azaltzen duen pentsamendu politikoak Estatu bakar batean eraturiko Euskal nazioaren defentsa bultzatzen du, eta horri dagokion batasuna, antropologiatik, etnografiatik, hizkuntzalaritazatik, zuzenbide naturalek eta historiatik sortzen da.

Nazio independente bat eratzeke eskubidea erreklamatzeko du, bere kabuz monarkia edo errepublika propio bat ezartzea erabakiko duena. Euskadiren bateratze politikoaren araubidea izango da euskal nazioari bizirauteko berme handienak emango dizkiona. Euskal Konstituzio nazionala edo Euzko-Legea aldarrikatu beharko da, euskal lurralde bakoitzeko forismoak gaindituko dituena. Bere ustez, bateratze-prozesuak Euzkadi bateratu bat eskatzen du, merindadeen federazioekin eta ermandadeekin hasi zen prozesuaren azken puntu gisa.

Eraso egiten die espainiar eskuindarrei nazionalitateak onartzearen garrantzia ulertzen jakin izan ez dutelako eta nazionalistak ezkertiarzat salatu dituztelako. Akusazio horren kontra

bere burua defendatzen du alegatuz bere berrezarpen-lan sozial eta ezaugarri propioen sustapena kontuan harturik, eta lan horrek Euskadin duen eragin nabarmenki moralizatzailea ere kontuan izanik, baieztatu beharra dagoela Nazionalismoak izaera sakonki kontserbadorea eta tradizionalista izan duela.

*Países y razas*ekin independente bihurtzea lortu duten europar nazionalitateen hainbat adibide ezagutarazi nahi ditu eta berpizkunderako erabili dituzten metodoak esplikatzen ditu, autonomien aurrekaria zen horretan metodo ez-iraultzaileak azpimarratuz.

Liburu hori egiteko Eleizaldek oinarri dokumental oso zabala erabili zuen. Lanaren nondik-norakoa aztertzeko, bertan aipaturiko liburuak eta agenda batean ageri direnak ere ikus ditzakegu; honako hauek dira nagusiak:

- *Histoire de la Libre Belgique clandestine*, par Istoricos (P. Goemaere).
- *Le droit de langues et la liberté des peuples*, par le marquis de l'Estourbeillon (Prud'homme).
- *Les cannes de l'effondrement de l'Autriche-Hongrie*, R. Kmansky.
- *Séparation de la Transcaucasie et de la Russie*, Tserchelli.
- *Le développement linguistique en Norvège depuis 1814*.

Mendearen bigarren hamarkadan Eleizaldek aldi berean nazionalismo posibilista eta ortodoxoa defendatuz jokaten du, Euskal Komunio Nazionalistak 1916az geroztik defendatuko duenaren eta 1917ko hauteskunde-arrakastak bultzatuko duenaren ildotik, horren ondoren Madrili Euskal Herriaren autonomia eskatzea erabakiko baita. Gertakari horrek gero eta urruntze handiagoa sortuko du Komunioaren eta erradikalagoa zen Eusko Gaztediaren artean. Horren ondorioz, 1921ean aberrianoak kanporatu egin zituzten, (Eleizalde haien aurka agertzen zen) eta Eusko Alderdi Jeltzale berria sortu zen.

Bere bizitzako azken urteetan, Eleizaldek nazionalismo ez-separatista, ez-dogmatikoa eta espainiar marko politikoan eraginkorra izan zitekeena defendatu zuen. Nazionalismoaren funtzioak euskal gizartea maila kulturean prestatzea izan behar zuen, bere nortasun propioa lortzeko.

1.3. ERLIJIOZKOAK

Euskal nortasunaren funtsezko atala osatzen duten elementuetako bat, Eleizalderen ikuspuntutik, erlijiozkoa da. Oso gizon erlijiozalea zen. 1917an Gurutza deunaren bidea argitaratu zuen. Euzkadi aldzikarian pixkanaka Kenpisa euskaratuz joan zen, eta "Imitazioa" edo "Imitazioa"ren ordez "Antz-bidea" hitza erabili zuen lehen euskaratzailea izan zen; bere "Kristoren Antz-bidea" liburuaren jatorrizko eskuizkribua gordetzen da. Bilboko Eusko Gaztediaren aurrean bi hitzaldi eman ere egin zituen "Gure fedearen oinarri razionalak" eta "Eliza eta gizartiaren aurrerakuntza" izenburuekin, 1915eko otsailaren 14 eta 15ean.

Lehen hitzaldian, ahaleginak egin zituen erakusten euskaldunek zergatik izan behar zuen teista, kristau eta katoliko eta zergatik oinarritu behar zuten doktrina politiko-soziala doktrina erlijiozkoan. Berrezarpen nazionalera iristeko alde zuzenetik gizarte-auzia ebatzi behar zen, funtsean auzi moral bat besterik ez baitzen hura, auzi erlijiozko batean ebatzen zena.

Eleizaldek bere buruari gizakiaren sorreraz eta munduaren jatorriaz galdetzean, erantzunak filosofian, astronomian, zientzia zehatzetan eta abarretan bilatzen ditu, baina azkenean baztertu egiten ditu teoria panteista, materialista eta positibista guztiak, lehenengo kausa bat eta gauza guztiak taxutzen dituen adimen goren bat badagoela frogatzeko. Kristau-doktrinak, giza arrazoien irispidean ez dauden zenbait alderdiri dagokionez zailtasunak baditu ere, beste edozein erlijio baina askoz erantzun gehiago ematen omen dizkio gizakiari.

Kristautasunaren nagusitasuna azaldu nahi duenean giza aurrerakuntzaren bitartez, azken horrek Jainkoarengana gidatzen duela uste du. Irizpide razionalistak baztertu eta kristautasuna goستن du, huraxe baita gizartearen oinarria, familia, eraiki duena eta lukro-irrika murriztuz herrien aurrerakuntza materialean laguntzen duena, lanaren duintasuna aldarrikatuz eta famili bizitza bultzatuz.

Lege santua, ikuspen mistikoa eta doktrina intelektuala dira kristautasunak herriaren zerbitzuan jarritako hiru osagaiak, gizarte-kristauaren benetako eragilea den familiaren bitartez.

Nazionalismoa eta erlijioa bat eginez, arrazaren garbitasuna eta integritate katolikoa defendatzeraino iritsiko da, euskal naziotasunaren osagai eratzaile eta identifikatzaile diren heinean: "Guk leialki zerbitzatu nahi ditugu Jainkoa eta geure Aberria, katoliko erromatar eta euskaldun abertzale baikara. Era berean baztertu egiten ditugu kristautasun espainola eta exotismo antieuskalduna. Ez Eliza nazionalik, ez Aberri elizazkorik. Eliza Katolikoa eta Euskal Aberria nahi ditugu" (Las Nacionalidades, 1914).

Euskal independentzia politikoa defendatzen duenez, erlijiozkoa ere defendatzen du agintari katoliko espainiarrekiko, zeren espainiar apezpikuak euskal nazioaren etsaitzat baitauka, eta zuzenean Erromara hurbiltzearen aldeko agertzen da.

Bertako kleroa zapalkuntza eta morrontza-egoeran aurkitzen zen estatuko agintariekiko, eta adibide gisa esaten du Gasteizko apezpikugoaren jabe izateko baldintzetako bat euskara ez jakitea izan dela luzaroan.

Erljioa eta nazionalismoa elkarrekiko egintza eta erreakzio ugarien menpean daude, zeren Eleizalderentzat, emozio erlijiosoak lantzen diren tokian, hantxe inkubatzen baitira nazionalak ere. Ondorioz, Euskal Aberriaren eta Erljio katolikoaren defentsa txanpon beraren alde desberdinak dira Eleizalderentzat.

1.4. LITERARIOAK

Ezagutzen dugun Koldo Eleizalderen lehen argitalpen literarioa Euskal-Eria-n argitaraturiko Uda Berriaren Agertzean poema (1894) da.

Garrantzi gutxiagoko eta izaera erlijiosoko beste idazlan batzuen ondoan, 1918an gaztelaniaz argitaraturiko Landibar eleberriak eman zion Eleizalderi literato-baliorik handiena; horixe izan zen bere eleberri bakarra.

P. Lhanderentzat, Eleizalderen eleberriak P. Colomaren *Pequeñeces* gogorarazten du eta mota erregionalistako nobelaren barruan sartzen da, xehetasunetan oparoa eta deskribatzaileegia izaki. Obrak ongi deskribatzen ditu paisaiak eta euskal tipo autoktonoak, izaera psikologiko desberdinak aurkezten ditu eta nazionalismoarentzat jarraitzaileak lortzeko asmoz egina da, espainiar ohitura eta tipoei eraso eginez eta euskalduna den guztia goratuz. Alderdi askotan autobiografikoa da, Eleizaldek berak aitortzen zuenez, eta irudimena baino areago, zehaztasuna erakusten du, egilearen buru matematikoari zegokionez.

Eleizalderen eta Euskal Komunikazio Nazionalistaren artean erabateko sintonia zegoen garaian argitaratua, tipo euskaldun eta espainiarren aurkezpena demagogikoa gertatzen da sarritan; izan ere, intelektual organiko batek nazionalismoari egiten dion ekarpen gisa hartu behar baita eleberria. Hogei urte lehenago Arturo Kanpionek egin behar hori berori bete zuen *Blancos y Negros* (1898) eleberrian, gai eta trataera oso antzekoak erabiliz.

Gai batzuei zegokienez funtsean baserri-giroa nagusitzen zen lehen aro nazionalistan ez bezala, Sabino Arana hil ondoren nazionalismoan baserriaren eta industriaren artean gertatzen ari zen integrazioa ageri da; hainbestera, non eleberriaren protagonista, Miguel Gaztanbide, ingeniari gazte bat baita, euskal paisaia eta beira-lantegi batean daukan lana berdin maite dituen, lanbide-prestakuntza atzerrian jaso eta gero.

Eleberriaren atalik adierazgarrietako batean, hirugarrenean hain zuzen, xehetasunez azaltzen ditu euskaldunen eta espainiarren arteko desberdintasunak, Madrilan ikasle zen garaian, Aste Santua ospatzeko moduz egindako oharren bitartez. Euskal ohitura aszetikoen aurrean madrildarren erlijio-eza aurkezten du, auzoetako dantzak kritikatzeko, mitin libertarioak, prentsa; hitz batean, espainiar inmoralitatearen deskribapen gartsuak eta euskal guriaren amets erromantikoak kontrajartzeko.

Ontasun berekotzat jotzen ditu baserriaren babesle gisa ageri den lurjabea eta kapitalista, nahiz eta azken horren joera espainolista gisa kritikatzeko duen, alderdi kontserbadorekoa izaki.

Gorantz doan bizkaitarismoa, zenbait gertakirien ondoren, nagusitu egiten da hauteskundeetan, nahiz eta klero ez-nazionalista eta jauntxo gisara maniobratzen duten botere ekonomiko kontserbadoreak kontra jarri; horiek, azkenik, Ramon Goigaztelu agure euskalduna, antzinako ohituren babeslearen eredu, erailtzen dute; bere heriotzaren bitartez nazionalistak agintera iristen dira jauntxoaren beren idealek aldazki ondoren; jauntxoak, herriaz ahazturik dauden euskal lurjabeen portaera gaitzesten duen bakarrizketa baten ondoren, euskal nazionaltasuna berrezartzeari ekiten dio.

Bi osagaiak, baserria eta kapitalista industrialak bateratuz, don Cesarren, beira-lantegiaren jabearen alabarekin ezkonduko da protagonista; alaba militante gisa azaltzen zaigu, geroa Emakume Abertzale Batza elkartearen izango zen horretan.

Eleizalde hain gazterik hil izanak autore adierazgarri bat gabe utzi zuen mugimendu nazionalista, gaztelaniako letrei zegokienez. Hala eta guztiz ere, nazionalismoaren zerbitzuan zegoen intelektual organiko gisa, lan aipagarria egin zuen bai kazetaritzan eta bai literaturgintzan.

1.5. AKADEMIKOAK

1918an Oñatin egindako Eusko Ikaskuntzaren Kongresua izan zen eztabaidagunerik egokiena berehala sortuko zen Euskaltzaindiarentzat, guztiek horren premia ikusten baitzuten. Eztabaida nagusia, Eusko Ikaskuntzaren barruan Koldo Eleizalde buru zuen Hizkuntza sailean egin zen.

Kosme Elgezabal aldun bizkaitarrak irailaren 3an eskaria egin zuen, berak Bizkaiko Aldundiari eskatutako eta hark onartutako eran, Euskararen Akademia sor zedila, eta gainerako aldundiei ideia proposa zekiela. Bitartean "Euzkera Ikertu eta Jagoteko Erakunde" bat sortzea erabaki zen, bi sailekin:

a) Iker saila, zeinen helburua euskarazko hizkuntzalaritzaren arazo guztiak bere alor guztietan aztertzea baitzen.

b) Lan praktikoa, zeinen helburua gizarte-maila guztietan euskara jagon eta berrezartzea baitzen: argitalpenak, euskarazko irakaskuntza ezartzen ari ziren ikastetxeei laguntzea, itzul-tzaile-bulegoak, korporazioen kontsultategia, eta abar.

Proposamena eztabaidapean jarri zelarik, irailaren 5ean Eleizalde arduratu zen erakustez ez zuela izan behar desadostasunik Kongresuaren proposamenaren eta ordurako aldundiek egindakoen artean eta bai Kongresuak proposaturiko organismoa Aldundiek onartua izan zedin. Aho batez onartu zen erakunde bat sortzea, artean izen behin betikorik proposatu ez bazen ere.

Hasieratik nabarmendu zen Hizkuntzaren azterketa teoriko bat egitearen zailtasuna, eta baita haren erabilera sustatzearena ere, eginbeharraren zabalarengatik. Kosme Elgezabalek proposatu zuen Eusko Ikaskuntzaren Hizkuntza sailak egin zezala azterketa teorikoa, eta lan praktikoa, berriz, Akademiaren egitekoa izan zedila. Eleizalde bi alderdiak batean biltzearen aldeko agertu zen. Bera teoriko baino praktikoago agertzen zen eta, ondorioz, b) lerroaz arduratuago.

Bere erakuntzan, jadanik ezagunak ziren Madril edo Parisko hizkuntz akademiak imitatze proposamenen aurrean, Eleizaldek adierazi zuen etorkizuneko erakundeak ez zuela Akademia izena hartu behar “zeren eta ezin baitezakegu inondik ere nahas sortu dugun erakunde horren izaera eta jarduera, antolakuntza eta jitea Espainia eta Frantziako Akademieta dituzten antzeko gauzekin”; izan ere, horiek alde praktikora zuzentzen baitziren, literatur obren bilduma zabala eta hizkuntzaren erabilera handia oinarritzat harturik, eta euskaraz, al-diz, ez zegoen horrelakorik.

Etorkizuneko Akademiaren antolakuntzaz akordio batera iristeko zailtasuna zegoenez, horretaz arduratuko zen batzorde bat egitea erabaki zen, honako aldunekin: Migel Urreta Gipuzkoatik, Kosme Elgezabal Bizkaitik, eta horiekin batera Resurrección Maria Azkue, Raimundo Olabide, Koldo Eleizalde, J. L. Biziola eta Domingo Agirre.

Oñatiko Kongresuko Hizkuntza sailak Euskaltzaindiaren sorreraz landutako egitasmoa al-dundiei aurkezteko asmoz, Eleizaldek zirkular bat idatzi zuen. Idatzi horretan euskara “iraunarazi, sustatu, araztu eta hedatzeaz” hitz egiten zen, itxura batean horixe baitzen “gure herriak bere gain dituen arazoen artean lehena eta nagusia”. “Ia batere literaturarik gabe, oraindik herri-irakaskuntzan erabat sartu gabe, alde batetik ia era eskusiboan herri-erabilera idatzigabera mugatua eta bestetik kabineteko espekulaziozko ikerketetara baztertua, euskarak gaingitu beharra dauka espekulazio hutsaren eta erabilera herritar soilaren arteko tartea, bi ezagutza-mota hain desberdin horien artean dagoen amildegia bete beharra dauka, hizkuntz gertakari bitxi izateari utzi beharra dauka, eta gens euskaldunaren gizarte-lokarri nagusi eta garrantzitsuen bezala da-gokion maila berreskuratu beharra dauka, haren hizketa tradiziozkoa eta propioa baita”.

Azkenik, oinarritzko egitasmo bezala Olabide jesuitak aurkeztutakoa onartzea erabaki zen, Federiko Belaustegigoitiarena eta “Aran-Mendi”k sinatua baztertuz. Onartutako egitasmoari Eleizaldek ohar-sorta bat egin zion, Azkue, Kanpion eta Urkixo filologi sailerako pro-posatuz. Akademia bi sailetan banaturik zegoen: iker eta jagon sailetan. Lehena hizkuntzaren azterketa zientifikoaz arduratzen zen eta bigarrena hizkuntza iraunarazi, hedatu eta arazteaz, eta baita literatura sustatzeaz ere.

Akademia berriaren araudia 1918aren amaieran bukatu bazegoen ere, haatik, batzorde sortzailea ez zen eratu 1919ko irailaren 21era arte. Azkue, Kanpion, Eleizalde eta Urkixo bildurik, RIEven ordezkari gisa ari zen Karmelo Etxegararekin batera, gainerako euskaltzain osoak izendatu zituzten: Pierre Broussain, *Eskualdunakoa*; Domingo Agirre, *Euskal-Esnaletakoa*; Damaso Intza, *Irugarren Prantziskotarrakoa*; Zirilo Artzubiaga, *Jaungoiko-Zale eta Jesusen Biotzaren Deyakoa*; Toribio Alzaga, *Euskal-Erriakoa* eta Gregorio Mujika, *Euskal-erriaren Aldekakoa*.

Araudiak eta ordurako lau aldundiek Akademiaz egina zuten onarpen-agiria irakurri ondoren, zortzi euskaltzain oso hautatu ziren: Domingo Agirre, Juan Bautista Eguskiza, Pierre Broussain, Abbé Adema, Ramon Intzagarai, Jose Agerre, Raimundo Olabide eta Pierre Lhande.

1919ko urriaren 5ean hamabi euskaltzainak bildu ziren, Adema Abatea izan ezik, hark uko egin baitzion izendapenari; haren ordeze Ezpeletako Landerretxe Abatea etorri zen. Azkue izendatu zuten euskaltzainburu, Agerre diruzain, Julio Urkixo liburuzain eta Eleizalde idazkari. Azken horren eskariz, Euskaltzaindiaren egoitza Bilbon finkatu zen.

Eleizaldek oso denbora laburra eman ahal izan zuen euskaltzain-lanetan, gaztetan gaixotu baitzen; baina euskal ortografiari buruzko eztabaidetan esku hartu eta gai horri buruz Euskaltzaindiak onartutako erabakien ondoren, berak proposatu zion Eusko Ikaskuntzari idatzi guztiak arau horien arabera idatziak izan zitezela aurrerantz. Euskaltzaindiaren idazkari eta Eusko Ikaskuntzako Hizkuntza Sailaren buru zen aldetik, bi erakundeen arteko lankidetzari etsi zion Eleizaldek, pixkanaka aldentuz joan baziren ere.

1.6. EUSKARA

Koldo Eleizalderen euskal nortasuna definitzen duen ezaugarriarik aipagarriena euskararekiko maitasuna da, eta baita hura berpizteko lanean izan zuen eskuzabaltasuna ere.

Bere ustez eskolak hizkuntza iraunarazteko berme izan behar zuten, horretan agertzen ziren zailtasun politiko guztiak gorabehera; hala ere, Eleizaldek argi eta garbi ikusten zuen hizkuntza galtuz gero arraza iraunarazten zuen tresna galtzen zuela herriak. Arraza eta hizkuntza estuki loturik ageri ziren Eleizalderengan, ideia nazionalista ortodoxoen ildotik.

Ikuspegi moraletik, Eleizalderentzat, hizkuntzaren galerak herriaren endekatzea esan nahi zuen, herria gizarte industrialaren utilitarismo eta materialismora eta hirien eragin disolbatzaileera kondentatzea, bere ustez hizkuntza berriak ezarritako ohiturarik txarrenak kopiatzeko joera nagusitzen baitzen giro horretan. Hizkuntza propioan biraorik ez izatea ere azpimarratzen zuen, gaztelaniaren aurrez aurre, eta baita gune erdaldunduetan zegoen kriminalitate-tasa handiagoa ere, morala materialaren arautzaile zelako.

Arturo Kanpioni bezala, Euskal Herriaren hegoaldeko paisaia idor hori hizkuntza propioak atzera egin izanaren ondorio iruditzen zitzaion, alegia horretxek eragin zuela paisaiaren irredentismoa.

Horiek eta beste ideia batzuk azaltzen ditu Raza, Lengua y Nación Vasca (1911) liburuan, alderdi arrazakoa hizkuntzaren gainetik jartzen zuten tesi arantiarrei atxikirik eta Arturo Kanpion bezalako beste euskaltzale batzuen tesien aurka, haien kezka nagusia hizkuntza baitzen. Hala eta guztiz ere, bilakaera nazionalistarekin batera aldaketa bat ere nabari dugu

Eleizalderen tesietan, pixkana-pixkana hizkuntza propioa naziotasunaren zeinu nagusi gisa nagusituz baitzihoan. "Baldin eta hizkuntza baten nortasun-maila eta horren jabe den nazionalitatearena hizkuntzak ageri duen desberdintze-mailaz neurtu behar bada, auzoko hizkuntza guztiekiko erlazioan, zalantzarik gabe esan dezakegu ez dagoela Europa osoan euskal nazionalitatea bezain agiri definituriko nazionalitatearik" (1916).

Goratu egiten ditu euskara ikasten saiatzen diren erdaldunak, eta euskara ahaztu eta mesprezatzan duten euskaldunak gaitzetsi egiten ditu. Euskara salbatzeko irtenbide bezala, uste du bultzada abertzale nazionalista bakarrik izango dela gai hizkuntza erderakadetatik garbitzeko eta pixkanaka benetako hizkuntza literario bat sortzeko. Egitasmo horretan euskal eskolak zeregin nagusia izango luke eta euskaltzaleek honako aginduok bete beharko lituzkete:

EUZKELTZALE ZINTSUBAREN AGINTZAK

Lenbizikoa.- Euzkera, beste edozein ele edo izkera baño geyago maite-izan.

Bigarraena.- Euzkeraz beti egiteko berazko asmo bizkorra artu.

Irugarrena.- Euzkerari dagokoten egipen eta eginkizunak aldeztu, al-dan bezela.

Laugarrena.- Gure enda edo erriyaren ele edo izkera bakarra Euzkera dala gogaldu (goguan erabili.)

Boskarrena.- Euzkera erailtzen inor ez utzi.

Seigarrena.- Euzkera ez nastu.

Zazpigarrena.- Euzkerarentzat errdel-itzik ez lapurtu.

Zortzigarrena.- Errdaldunen aitziañan, aldiya danian, Euzkera aldeztu, edo Euzkeraren alde-egin.

Bederatzigarrena.- Esakun naiz itz loikorrik Euzkerara ez ekarri. Euzkeraren garbitasun orbangabea irauñ-erazo.

Amarrigarrena.- Euzkeraren ondoan, beste eleren bekaitzik ez izan: guzirik maitagarriyena gure auxe da-ta.

Darrain eran laburtu dagizkike onek agintzok:

Euzkeraz egin, Euzkera irauñ-erazo, garbitu eta zabaldu.

(Euskal Esnalea, 1908, I, 170 or.)

Etengabe oharatrazten du Eleizaldek bertako klase nagusikoiak izan direla lehenik euskara bertan behera utzi dutenak, hizkuntza behe-klasearekin identifikatu eta zeinu elitista legez erabiltzeari utzi baitiote. Horrela euskara herri landugabeenak bakarrik erabiltzen zuen, haur eta morroi-neskameei hitz egiteko hizkuntza legez.

Egoera horren aurrean Eleizaldek lanbide liberaletako gizonengana jotzen du, ama-hizkuntzat euskara dutenengana, beren ikasketetan gaztelania erabiltzera beharturik egon diren baina orain euskarara bihurtu behar duten horiengana. Halaber, haur euskaldunentzat maila guztietan irakaskuntza ama-hizkuntzaz egitea ere eskatzen du.

Bestalde, kleroak elementu euskalduntzaile erabakigarria izan behar du, oso kontuan eduki beharrekoa, euskaldunen bihotzetara iritsi beharra baitauka, eta horretarako bere hizkuntzaz hitz egin behar baitie.

Euskara abandonatu dutenak goi-klaseak izan direnez gero, euskararen gizarte-berreskurapenean dena itxaron behar da kleroa eta klase horietatik, batez ere lanbide liberaletan ari direnengandik. Sinetsirik dago goi-klaseek hizkuntza erabiltzen badute euskararen birgaitzea lortu ahal izango dela, behe-klaseak harro egongo direlako hura hitz egiteaz.

1.6.1. Bateratzea

1918an Oñatin egindako Eusko Ikaskuntzaren I. Kongresuan Koldo Eleizaldek “Metodología para la restauración del euskera” izeneko ponentzia batekin esku hartu zuen, eta bertan hizkuntza bateratzearen aldeko apustu zalantzagabea egin zuen.

Sabino Aranak bere *Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkaino* obran zioenez “politikan hainbeste eta hain aldeko sutsuak dituen formula hori, alegia batasunean aniztasuna bultzatzearena, hizkuntza-mailan ere erabil daiteke, Euskera Gipuzkoar bakar bat, Euskera Nafar bakar bat, Euskera Bizkaitar bakar bat, eta abar bultzatuz”.

Horren aurrean, Koldo Eleizaldek uste du euskal literatura euskara bateratu baten bitartez bakarrik izango dela posible.

Eleizalde konturatzen da euskalkiak sortu badira literatura tradizional idatzi baten gabeziarengatik eta euskal nazioak bere historia guztian izan duen zatiketa politikoarengatik izan dela. Ezinbestekoa da alderdi dialektal, fonetiko eta ortografikoak bateratzea, eta horretarako beharrezkoa litzateke kroaziarrena bezalako Akademia bat sortzea eta Liga gaeliko irlandarra hizkuntza zabaltzearen alde egiten ari den lan ereduari jarraitzea.

Eleizaldek uste du fonetika bateratzea lortzen bada erraza izango dela lexikoa bateratzea. Horretarako fonetika orokor bat ezarri behar zaie euskalki guztiei, transkripzio dialektalen ugaritasuna murriztuz. Adibidez, sabaikaritzeez esanahi semantiko desberdina dutenean bakarrik izango dute zentzua, eta ez inolako edukirik gabeko eragin foniko hutsak direnean. Eleizaldek zintzoki jarraitu zion Aranaren sistema foniko eta ortografikoari.

Batasun ortografikoa ez da euskarak dituen hots desberdin guztientzat grafemak bilatuz egingo, erradikalenek proposatzen zutenez, baizik eta tarteko bidea erabiliz, ezinezkoa baita hots bat zeinu beraz transkribatzea kasu guztietan.

Euskalkiak bateratzea behar-beharrezkoa zen hizkuntza idatziaren erabilerarako. Euskalkirik jasoena eta haren literatur obrarik onenak besteei nagusitu arte itxaron behar zela uste zutenen aurka, Eleizaldek bateratze bizkor bat proposatzen zuen, ez baitzegoen Dante bat, Shakespeare bat edo Homero bat noiz jaioko zen itxaroten egoterik dialekto literario bat ezartzeko.

Euskal idazleek izan behar zuten euskalki literario baten hautatzaileak, ongi jabeturik betiere euskarak, bizirik iraun ahal izateko, ezinbesteko baldintza zela, nahiz eta nahikoa ez izan, hizkuntza literarioaren maila lortzea. Hizkuntza literarioak jatorriz artifizial samarrak izan arren, denbora iragan ahala gizarteko klase kultoetan ohiko bihurtzen zirela ohartu zen. Idazleen esku zegoen, beraz, euskalki guztietako hitz eta esamoldeak erabiltzea eta nor bere euskalkiko moldeetara soilik atxikirik ez gelditzea.

Behar izanez gero hitz-erakuntza eratorpenaren bitartez egingo zen, horretarako euskarak atzizki ugari baitu. Nolanahi ere, neologismoak, gauza berriak edota testu zaharretan ageri ez ziren errealitate zientifikoak adierazteko soilik erabiliiko ziren. Herri testuetan agertzen ziren hitzak erabiltzeak izango zuen lehenetsua, neologismoak sortzea jo gabe.

1.6.2. Aditz morfologia

Koldo Eleizalderen ahalegin handiena, hizkuntzari zegokionez, horren bilakaeran galduak ziruditen adizki bakunak berreskuratzeko joran etengabea izan zen.

Bere matematikari-lanbideak eraginik, adizkien berreraikuntza burutu zuen; izan ere, antzinako denboretan horrelako adizkiak bazirela-eta, sabindar gramatika-garbitasunezko irizpidearen arabera berriro erabili behar zirela uste baitzuen. Horri dagokionez, 1913an Bilbon argitaratuko *Morfología de la conjugación vasca sintética* (“La conjugación sintética guipuzkoana en el tratamiento cortés”) eskola aranatiarraren barruan idatziriko libururik hoberena zen. Jadanik Isaak López-Mendizabalek, obraren aipamena egitean, esaten zuen Eleizaldek aditz sintetikoa osatzen duten ezin konta ahala atal berrosatzeko ikerketa egonarritsu eta aditua burutu zuela. López-Mendizabalentzat aditz-jokaera iragankor eta iragangaitzaren azterketa “oso maisukiro” egina zegoen eta obraren argitasunak Arana-Goiri maisua gogorarazten zuen “haren ikasle distiratsua baita Eleizalde jauna”.

Julio Urkixok ere Arana-Goiriren ikasleengandik irtendako lanik hoberentzat zeukan Morfologia, eta haren azterketak baino ere garaiagotzat jotzen zuen. Hala ere, iturri dokumentalak behar adina ez aztertu izana eta hipotesi modernoak ez ezagutzea kritikatzan zion. Aditza aztertu zuten autore atzerritarren aipurik ez egitea eta Etxepare, Leizarraga eta Axularren obrak ez ezagutzea leporatzen zion, autore horiek aditz-jokaera sintetikoa landu baitzuten.

Aditz sintetikoa gramatika-arau estuetan sartzea eta horiek berresteko antzinako autoreen adibide urriak erabiltzea, horixe zen Julio Urkixok ikusten zion akats nagusia.

Eleizaldek bi helburu lortu nahi zituen bere liburua argitaratzean:

1) Aditz-jokaera bakuna edo sintetikoa metodo erraz baten arabera azaltzea, hasiberriek aise ikas zezaten.

2) Oso eroria zegoen aditz sintetikoa suspertu eta berrezartzea.

Funtsezko helburua, aditz iragankorrei ematen zitzaizkien 18 aditz-jokaeren aldi, forma eta adizkien kopuru konplexua murriztea zen, aditz-deklinabidea arautzen zuten lege orokor banaka batzuez jabetuz.

Horrela, aditz-jokaera sintetiko iragankorra 5 erataria murrizten zen (Indikatibo-era, Aginte-era, Subjuntibo-era, Baldintza-era eta Ahal-era) eta 12 aditz-alditara, eta horietan oinarrizko bi zeuden, gainerako guztiak horietatik eratortzen zirela: indikatiboko orainaldia eta aldi hipotetikoa edo X aldia. Gainerako guztiak bi horien aldaera afixuzkoak baizik ez ziren.

Hitz batean, aditz iragankor sintetiko baten osagai nagusiak (subjektua, erroa eta araubide zuzen edo zeharkakoak) eta bigarren mailakoak (eratorpen-atzizkiak) izan zitezkeen.

Eleizaldek aditz sintetikoaren erabilera berreskuratzeko proposaturiko sistema hori, ordea, testuen bidez ezagaturiko antzinako erabilerak susmaraz zezakeenetik askoz haratago zihonan. Aditz sintetikoa oso aditz gutxitara mugatzen zen, baina ezagutzen ziren testu zaharretatik ondorioztatzen zenez, iraganean baziren sintetikoki jokaturiko aditz batzuk aro modernoan jokaera konposatua besterik onartzen ez zutenak. Hala eta guztiz ere, horretatik ez zegoen ateratzerik testu horietan berorietan ere jokaera bakuna konposatuari nagusitzen zitzaionik eta garbizaletasun lexiko aranatiarraren zaletasunak bakarrik esplikatzan du, Villasantek dioenez, sinets daitekeela “hizkuntza ez dela nolnani manipula eta goberna daitekeen zerbait. Hizkuntzak alor horretan izan duen bilakaera berezko eta inkontzienteak, bistan dago kausa sakonei

erantzuten diela, eta argi eta garbi dago bilakaera hori nagusitu egiten dela eta bere bideari jarraitzen zaiola banakakoen nahiek ezer egin ezin dezaketelarik hori eragozteko, eta are gutxiago hizkuntza iraganeko estadioetara itzularazteko” (Villasante, 1977, 333 orr.).

Aditz-jokaera sintetikoaren berreraikuntzak zuen erakarmen matematikoak liluraturik, Eleizalde ez zen ohartu, geroago René Lafonek erakutsiko zuenez, euskal aditza antzinatek eraldatu dela hizkuntza erromantzeen aditz-jokaerara hurbilduz, adizki konposatuak bakunen aldean erabilerrazagoak direlako, neurri batean.

Eleizalde gogotik saiatu zen adizkiei paradigma batzuetan eutsiko zien metodo bat bilatu nahian, euskaltzale eta euskal literatoentzat baliagarria izan zedin, eta aditz-jokaera sintetikoaren parametro batzuk hedatzeko ere lan eskerga egin zuen, eta hasieratik beretik arantziaren gorespenak eta aurkakoen kritikak jaso zituen. 1908an Eleizalde “Notas acerca de las flexiones verbales del grupo G” RIEVen argitaratzean, Julien Vinsonek aurpegiratzen dio Luis Luziano Bonapartek, Schuhardtek eta berak euskal aditzari buruz egindako idatziak ez dituela ezagutzen. Erantzunean Eleizalde aitortzen dio bere maisuak Lardizabal, Arana-Goiri, Arturo Kanpion eta Van Eys izan direla.

1.6.3. Toponimiako azterketak

1915ean, Bilboko “Eusko Ikaskuntza”ren ekimenez, Koldo Eleizalde dei egiten die udalei eta partikularrei euskal hitz toponimiko eta patronimikoak bildu eta aztertzeke, erakunde hura prest baitzegoen jadanik kanpaina aurrera eramateko, eta zegozkion jarraipideak eman eta lana burutzeko txartelak banatu zituen.

Bergarako idazleak zuzenduriko hitz toponimikoen bilketa Euskal Herrian hainbesteko hedadurarekin egiten den lehena da. Lankideek, bildu nahi ziren hitzak sailkatzeko orri-boletinak betetzerakoan, oinarriko jarraipide batzuk izan behar zituzten kontuan. Berbari buruzko azalpen argigarriak eskatzen ziren, eta ahal zen neurrian etimologia, lekuaren deskribapena, jasotako herria eta abar azaltzea. Hitzak eremu semantikoka sailkatzen ziren: mendiak, base-riak, ibaiak, zubiak, bideak eta abar.

Azkenik, Eleizalde *Indicaciones elementales sobre la formación y los usuales componentes de las voces toponímicas* izeneko lana idatzi zuen lankideei erraztasunak eskaini eta toponimiako oinarri-nozioen berri emateko.

Julio Urkixok kritikatu egin zuen sistema hori, inolako prestakuntzarik gabeko pertsonen egindako bilketak akats asko izango zituelako, toponimoen bilketa eta horien azterketa etimologikoa adituak ez zirenen eskuetan uzten baldin bazen, batez ere.

Ekimen horren emaitza gisa *Revista Internacional de los Estudios Vascos*-en 1922tik 1936ra bitartean “*Listas alfabéticas de voces toponomásticas vascas*” argitaratu zen.

1.6.4. Euskaliberismoa

Eleizalde beti defendatu izan zuen euskarak bilakaera txikia izan zuela, eta horregatik Hubnerrek Berlinen 1893an bere *Monumenta Linguae Ibericae* obran transkribaturiko iberiar dokumentuak aztertzean, ohartu zen ez zutela euskararekin inolako antzik eta ondorioztatu zuen iberiera eta euskara hizkuntza desberdinak zirela.

Wilhelm Humboldten eta Astarloaren teoria euskaliberistak kritikatu ondoren, honako ondorio hauetara iristen da:

1. Iberiarren garaian, Penintsulan, ez zen hizkuntza bakarra hitz egiten, baizik eta hiru hizkuntz kategoria, beren karaktere grafikoetan ere desberdinak zirenak.

2. Hizkuntzen aniztasun hori arraza-aniztasunaren testigantza fede-emailea da, eta horregatik ibero izenaren balio geografiko soila berretsirik gelditzen da.

3. Ez dago, gaur gaurkoz, inolako oinarri zientifikorik ezekin garaitan euskara penintsulan hitz egin dela adierazteko, ezta ondorioz Penintsulako lurralde guztian euskal arrazako biztanleak izan direla esateko ere.

4. Azkenik, euskaldunak eta iberoak sinonimoak direla esatea, zentzurik gabeko zerbait esatea da, zeren eta iberoak, arraza gisa, ez baitira inoiz existitu.

Euskaliberismoaren frogapen antropologikoa oinarritzen zuen indize zefalikoen teoriaren kontsistentzia-eza eta halaber argudio historiko eta linguistikoen trinkotasun-eza kontuan izanik, Eleizaldek ondorioztatu zuen euskaliberismoak ez zeukala hipotesi gisa beste edozein fabulaziok baino funts gehiago.

1.6.5. Eskola euskalduna

Irakaskuntzarekiko izan zuen loturarengatik, eskolarekiko ere interes iraunkorra izan zuen Eleizaldek. "Irakaskuntzaren arazoa Euskal Herrian" da 1918an Eusko Ikaskuntzaren Lehen Kongresuan eman zuen hitzaldiaren izenburua.

Beren herriaren hezkuntza eta prestakuntzari buruz oso interes gutxi izatea leporatzen die euskaldunei, Euskal herriaren beherakada politiko eta soziala eragin duten axolagabeberria eta zabarkeria salatuz. Hala eta guztiz ere, irtenbideak sustatzeko unea iritsi delakoan dago, eta horretarako, eredu txekiarraren ildotik eskola euskaldunak sortzeaz arduratuko diren elkarteetan antolatzearen aldeko agertzen da. Gerraosteko ikastolen aldeko mugimenduari aurrea hartuz, baieztatzen du "horixe dela, gaur gaurkoz, ikusten dudana bide bakarra, bide neketsua, zaila, sakrifizioz bete; baina guztiarekin ere, bide ibilgarri bakarra. Ezinbesteko deritzot ausarki horri heltzeari".

Ama-hizkuntzazko irakaskuntza da Eleizalderentzat bide posible bakarra, horretan adimena eta sentimenduari zuzenean hitz egiten dien tresna bat ikusten baitu, nekerik gabe oroi-menean grabatzen dena.

Irlandar, poloniar eta txekiarren adibideek gidari izan behar dute euskal eskola-mugimenduerentzat. Kleroa bere lankidetzara eskaini behar du baseritar-haurren taldetxoak bilduz eta eskolatzearen lehen hasi-masiak emanez, euskaraz irakurtzen eta idazten irakatsiz, zenbaitzuntan eta lau eragiketetan has daitezten.

Estatu-eskolak pedagogiari egindako erasoak etengabeak dira. Tokian tokiko hizkuntzari mesprezua izatea leporatzen zaio, gaztelania menperatzea lortzen ez dutenei zigorrek sortarazten dieten gorrotoa, horregatik "ez da arraroa izango, oso naturala baizik, gorrotoa eta errebolta instrukzio horretara ere hedatzea, prozedura guztiz anker eta pedagogiaren kontra batez ezarri nahi baitzaie".

La lucha por el idioma propio obran, 1918ko martxoaren 16 eta 17an, antieuskalduntzat zeukan irakaskuntza-sistemari eraso zion. Bigarren Irakaskuntzan euskara erabiltzea debekatzen zuen legeaz kexatzen zen, euskaldunak baldintza okerragoetan jartzen baitzuten, erantzunak hizkuntza ezezagunean eman behar zituztelako. Lehen irakaskuntzari zego-kionez kexu berak adierazten zituen, herri askotan, euskaraz ez zekien biztanle bakarra mai-sua zela ohartu baitzen: “hortik analfabetoen kopuru handia, hortik irakurketari dioten gorro-toa, hortik ogi intelektuala eskatzen duten eta harrikoskor pedagogikoa besterik hartzen ez duten gure haur euskaldunen egoera tamalgarria”. Hitz batean, ez historia propioa, ez euska-ra, ez herri-kantak irakasten ez dituen eskola bati erasotzen zaio, eta hori gutxi bailitzan, eraz-tunaren praktika higuingarria ezartzen dute; Euskal Herrian horrelako pedagogia zentzugabe, irrazional eta despotikoa egiten diharduen eskola ofizialaren aurrean, haurrak sen hutsezko ki-kiltze bat sentitzen du.

Lehen irakaskuntzak euskalduna izan behar duela defendatzen du, horrela bakarrik izan-go baita etekintsu eta baliagarri, eta herri euskaldunak bere hizkuntza propioan eskolatua izateko duen eskubidea aginte publikoarengandik lortzea proposatzen du, zeren eta eskola-tik abiatzen ez den egintza euskalduntzaile oro alferrikakoa baita.

Euskarak euskaldunentzat irakasbide bakar eta erdaldunentzat ikasgai izan behar duela adierazten du, eta bere esperientzia propioz komentzituri dago euskarazko irakaskuntza ba-liagarria dela ikaslearen ahalmen analitikoak garatzeko bitarteko gisa, matematikek berek du-ten maila berean ere bai.

1.6.5.1 Eskola testuak

Auzo-ikastolen lehen araudiak euskaraz irakurtzen eta idazten irakastea eskatzen zuen oinarritzko mailari zego-kionez, eta euskal gramatika irakastea goiko mailan, Euskal Herriko Historia eta Geografia irakasteaz gainera. Euskalduntze-nahiak gai horietarako eskola-testuak egitea eskatzen zuen.

1918ko martxoaren 16 eta 17an emandako “La lucha por el idioma propio” izeneko hi-tzaldian, Eleizaldek ohartarazten du zeinen premiazkoa den euskaraz idatziriko liburuak izatea lehen irakaskuntzan erabiltzeko. Idazle euskaldun guztiei dei egiten die testuak prestatu, metodo-ak egokitu eta irakasleak presta ditzaten. Behar-beharrezkoa jotzen du silabategiak, Aritmetikako oinarritzko testuak, euskaraz gai desberdinei buruzko tratatuak argitaratzea, hitz batean, euskarak hizkuntza kultoaren maila har dezan beharrezkoak diren literatur obrak argitaratzea.

Auzo-ikastolek erabiltzeko egindako lehen euskal ikasliburuak 1921ean argitaratu ziren eta berehala Instrukzio Batzordearen eta prentsa ez-nazionalistaren erasoia izan zuten; horren ondoren, kontzeptu politiko nazionalistak zeuzkatelako salakuntzapean, baztertuak izan ziren. Historia, geografia, aritmetika, irakurketa, heziera eta baserri-higieneari buruzko testuak ziren, eta horiez gainera doktrina eta silabategi bat.

Eleizaldek Aritmetikako liburuak idatzi zuen: Euskal-Zenbakiztia, Lenengo ikaste mallara-ko, bizkaieraz. Zalantzazkoagoa da Euzkeraz irakurtzeko irakaspidea silabategiaren egilea bera izatea.

Eusko Ikaskuntzak liburuak argitaratzeari jarraitu zion Lehen Irakaskuntzako bere Batzor-dean eta Eleizalde bertan izan zen lankide; horri esker, Bizkaiko Aldundian sortu zitzaizkion

zailtasunak gainditzea lortu zuen: Txomin-ikasle, Umearen laguna, Martin Txilibitu, Xabierto, eta abar.

Auzo-ikastoletarako liburuak originalak eta euskal errealitatera egokituak izan behar zuten. Nahiz eta jatorrizkoak edozein euskalkitan idatzirikoak izan zitezkeen, gero bizkaiera itzuliko ziren Sabino Aranaren ortografiarekin.

1922an, euskarazko testuak erabiltzea debekatu zenean, Eleizalde ikusi behar izan zuen nola liburu haiek erre eta gaztelaniazko beste batzuek ordezkatzeko zituzten.

1.6.5.2. Auzo ikastolak

1919ko abenduaren 9an Bizkaiko Foru Aldundiak Juan Gallanok azaroaren 26an proposaturiko mozioa onartu zuen; mozio horretan, kultur sustapeneko beste jardura batzuen artean, 50 auzo-ikastola sortzea eskatzen zen. Akordioaren ondoren, Koldo Eleizalde lanean hasi zen berehala, Eduardo Landeta Gallano eta Aransolo aldunekin batera, baserri-eskolarekiko utzikeriari aurre egiteko eta eskola elebakarrak eta baserriguneen isolamenduak sortarazten zuen analfabetismo-indize altuari amaiera emateko asmoz. Aurreko urteetako mugimendu autonomikoaren zuzeneko eraginez gertatu zen hori, eskola berri eta euskaldun bat sortzeko helburuz. 1917ko hauteskunde probintzialetan izandako garaitzapen nazionalistak bultzada handia eman zien hezkuntzalaneari, eta analfabetismoa ezabatzeke eskola euskaldunaren erreibindikazio ofiziala eragin zuen: "Guztiok badakizue Bizkaiko baserri-gunean gazte-multzotz garrantzitsu bat dagoela gaztelania ez dakiena, euskara bakarrik hitz egiten duena; gazteria horri gaztelaniaz irakasten zaizkio lehen letrak. Eta kontua da, irakasten zaiona ulertzen ez duenez gero, irakurtzen eta idazten ikasi gabe ateratzen dela eskolatik, hau da, denbora alferrik galtzen duela. Beharrezko da gure biztanleriaren parte horri euskaraz irakastea" (Ramón de la Sota, 1917-V-4).

Urte horretan Aldundiaren Kultura Batzordea eta Instrukzio Batzordea sortu ziren. Instrukzio Batzordeak lehen irakaskuntzarako irtenbiderik onena zein izango zen aztertu eta honako ondorio hau atera zuen: euskara nagusi zen guneetan euskarazko heziketa zabal eman behar zela eta gaztelania nagusi zen guneetan euskara irakatsi egin behar zela, irakurketa, idazketa eta kantak euskaraz landuz. 1918ko Oñatiako Kongresuak eman zuen bultzada berriaren ondoren, 1920an eskolak sortzeari ekin zitzaion eta horien ikuskatzaile Koldo Eleizalde izendatu zuten. Eleizalde, Eduardo Landetak eta Juan Gallanok hautatu zituzten beharrezko maisuak, euskara menperatzea eskatuz, postuetara aurkezteko ezinbestekotzat jotzen baitzen hori.

1919tik hasita ikuskatzaile bakar bezala jardun behar izan zuenez, eta 1919an Liga Monarkikoaren garaipenaren ondoren auzo-ikastoletako euskararekiko orientazioa erabat aldatu zenez, Koldo Eleizalde biurteko nazionalistan proposaturikoaren aldean zeharo desberdina zen eskola-antolakuntza kontrolatu beharra izan zuen.

Eduardo Landetak, urte batzuk geroago, aitortuko zuen Eleizalde oso lan garrantzitsua egin zuela izaera nazionalista eta euskalduneko eskola batzuen antolakuntzaren sortzaile gisa, Ligaren aldetik erasoak jasan behar izan bazituen ere: "Irakaskuntza-negoziatuaren edo hobeto esanda, eskoletako propaganda bizkaitarreko negoziatuaren zuzendaria fanatiko arriskutsu bat da, alderdiari egindako zerbitzuak saritzeko hantxe jarri dutena" (El Pueblo Vasco, 1922-IX-15).

Horren guztiaren ondorioz, 1921eko urriaren 11n ikasketa-plana aldatu zen, eta euskarenean irakaskuntza eta euskal gramatikaren ikasketa baztertu.

Eskola guztietan gaztelaniazko Hizkuntza eta Gramatikaren derrigorrezko irakaskuntza ezartzean, Koldo Eleizalderi egokitu zitzaion, ikuskatzaile gisa, irakasleei plan berria jakinaraztea. 1919ko maiatzean hautatu zuten Aldundiaren auzo-ikastolen ikuskatzaile. Instrukzio Publikoko Batzordearen aholkulari izendaturik, bere egitekoa batzorde horri informazioa eta aholku ematea zen, baita eskolak ikuskatu eta irakasleak orientatzea ere. Batzordeak hasieratik beretik hartu zituen kontuan Eleizalderen txostenak; izan ere, bere irakaskuntza-planak zuzentzeko eta maisuak teknika pedagogiko berrietan orientatzeko pertsona egokia aurkitu zuela uste baitzuen. Aldi berean, Eleizaldek bere hitzaldietan, prentsa-artikuluetan eta Oñatiko Kongresuan irakaskuntzari buruz azalduetako ideiak praktikan jartzeko aukera izango zuen. Era horretan, irakaskuntza elebiduna bultzatu eta euskal herriarentzat euskal eskola bat sortzen lagunduko zuen, estatu-eskolaren ereduak sustatzen zuen uniformizaziotik kanpo, zeren eta haren arabera udalek ez baitzuten jada eskubiderik, ama-hizkuntza euskara zeukaten haurren irakaskuntza egokirako komeni ziren maisuak izendatzeko.

2. KOLDO ELEIZALDEREN LITERATUR OBRA

Harrigarri gertatzen zaio Landibar-en irakurleari hain ongi eraikitako eleberri hori egilearen literatur idazlan bakarra izatea eta haren helduaroan, 1918an, argitaratua izatea, ordurako 40 urte beteak baitzituen. Agian, eleberriaren helburu utilitaristara jotzen badugu, aurkituko dugu horren arrazoa, artearengatik artea kontzepziotik urrundu eta ideologia nazionalista oso konkretu baten zerbitzuan baitzegoen. Seguraski egileari ez zitzaion bururatu ordura arte literatur helburu handien atzetik ibiltzea, eta horregatik geroztik ere ez zuen beste jardunik izan literatur alorrean, nahiz eta, beharbada, hain gazterik gaixotu eta hil izanak ere bere literatur ahalegin berriak oztopatu zituen; izan ere, lehenengo liburuarekin lortutako arrakasta ikusita, pentsatzekoa da beste ahalegin batzuk ere egingo zituela.

Hala eta guztiz ere, Koldo Eleizalderen literatur obraren azterketa egiterakoan Landibar-en zentratu beharra daukagu, zeren aldez aurretik argitara emandako izaera politiko edo erlijiosoko poesiak interesgabeak baitira. Horrela, adibidez, Euzkadin agertuak (1912, IX, 286-287 or.) "Arantzazu'ko Ama garbijari abestiak", "Agure eroa" (Euzkadi, 1915, XII, 352) edo "CXXXVI Eresija. Erri oratubaren negarra" (Euzkadi, 1910, VII, 389-390 or.).

Askoz goiztiarrago eta harrigarriagoa da Koldo Eleizalderen lehen argitalpena Euskal-Errian (1894) agertzea: euskarazko poesia bat da, hizkuntza horretan egina izateaz aparte beste meriturik ez duena.

UDA BERRIYAREN AGERTZEAN

(Oyarbide-ko, A., nere lengusu maitear-ri)

Choriyak asi dira
chit alai kantatzen;
Basoa ta zelaiyak
Berriro loratzen.
Edurra mendiyetan
asi da urtutzen...
¡ A zer alaitasuna
Onek dun ematen!

Euzkiya da laster
Asiko berotzen
Eta mendi illunak
Osoro argitzen.
Baso-loreen usaiya
Asi da somatzen
¡Zer poza uda-berriyak
Duben beti ekartzen!
¡Bedeinkatu dezagun
Jainkoaren izena!
Berak beti egiten du
Guretzat onena.
Egin dezagun beti
Esaten diguna
T'artuko degu sari
Eskeintzen dubena.

2.1. LANDIBAR-I BURUZKO IRITZIAK

Landibar, “*Cuadros novelescos del País Vasco*” azpituluduna, Fuertes y Marquínezen Tipografian argitaratua da 1918an, eta autoreak 1917ko otsaila eta urria bitartean dataturiko eskuizkribuari dagokio.

Eleberri horrek aldez aurretiko tesi bati erantzuten dio, nazionalismoaren eta kontra jar-tzen zaizkion etsaien berpizteari dagokiona hain zuzen ere, eta osagai horiek eleberriaren azalean biltzen dira marrazki batean:

Lehen plano; euskal dorretxe bat eta zuhaitza

Bigarren plano; lantegien tximinia eta pabilioi modernoak

Hirugarren plano; atzealdean mendiak dituena.

Plano horien oinaldean armari bat ageri da, euskal probintzia batzuenak jasota dauz-kana.

Lehen orrialdeak aurkezten duen izenburuak ez du inolako zalantzarik uzten, JAGI TA ABIL. Eleizalderen beste argitalpen batzuetan bezala -Paises y Razas- Jesukristok egindako Lazaroren miraria irudikatzen duen grabatu baten ondoan ageri da. Iradokitzen duen sinbologia begibistakoa da: Jesukristok gaixoak sendatu eta hildakoak berpiztu zituen bezala, nazio-nalismoak euskal nazioa berpiztu behar du.

Ez da harritzekoa gako-segida horrekin, eta kontaera bezala duen balio ohargarriaz aparte, eleberri gisa oihartzun zabala izatea, P. Colomaren Pequeñeces-en ildoari jarraituz, baina nazionalismoaren zerbitzuan dauden tesi eta helburu politikoak bultzatuz. Horrela, ez da harritzekoa “Kizkitza”k eleberriaren agerpena Euzkadin (1918-VI-01) honela agurtzea: “Landibar ez da eleberri bat, euskal Nazionalismoaren historia bizia da”, estilo “bizi, txinparta-jario eta urduriz” idatzia bere pertsonaia, deskribapen, eszena, elkarrizketa eta abarretan”.

Iritzi horren aurrean La Gaceta del Norte-ko I. Solaurek eleberriko alderdirik negatiboena azaltzen du: "nazionalismoaren apologia da koadro horien giltzarria, eta dena asmo horren pean agertzen denez gero, hori Landibar-en orrialdeetan handitzen eta tamaina erraldoiko bihurtzen den bitartean, gainerakoa bigarren mailan eta axaleko zerbeit bezala gelditzen da". Bere koadroetan "psikologo handi bat eta behatzaile xehe bat" ageri da. Maitasunaz baliatu da euskal arrazaren ontasuna goratzeko eta gorrotoaz antieuskaldunen gaitakeria agerian jartzeko. Baina, hori egiterakoan, arriskua dauka on eta gaitoen tratamendua gehiegi azpimarratzeko eta bere tesiei sinesgarritasuna kentzeko, edo proposatuen aurkako ondorioak lortzeko.

Eleberria argitaratu ondoren egindako kritikarik hedatuena Euzkadi egunkarian JONEk sinatua da, hurrenez hurren hiru zenbakitan agertua. Kritika horretan, gutxi aztertzen da eleberria, eta asko deskribatzen da, erabateko baieztapenak falta ez badira ere. Horrela, deskribapenen indarra eta maitasunaren tratamenduarekiko errespetua goratu ondoren, honela dio autoreaz: "errealitateari loturiko gizona da, adimen argikoa: hortik bere hizkuntza zehatz, indartsu eta trinkoa". "Arrazoiak irudimenari nagusitzen zaio: logikaria da artista bainoago". Eleberrian nagusi den osagai arrazazko bat ere hautematen du: "Espainiarrenganako aiherrak, zeinen gutxiagotasuna, Eleizalderen arabera, judu-odolari, beren semitismoari zor zaion".

Eleberria "erasokor eta zakar, egiazko eta sakon" bezala definitu ondoren, goratu egiten du, Euskadik jasandako desnazionalizazio-faktore guztiak aurkezten dituelako: hiriarren eragina, politika exotikoak, jauntxokeria, presio ofiziala, Gaztelako jende-oldeak, kleroa, deserrotzea, nazio-inkontsistentzia, eta abar... Faktore horien guztien kontra ari izan eta garaile atera daitekeen elementua nazionalismoa da.

Nazionalismoaren goraldiko une batean, ideologia Literaturarekin indartzen ari zen garaian hain zuzen -Kirikiñoren ipuinak, Aizkibelen poesia, A. Donostiaren hitzaldiak, "Pizkundia"ren berehalako agerpena, eta abar...- Eleizalderen obra erro politikoko kultur ofentsiba horren parte da eta horregatik ez da harriztekoa halako abegia izatea nazionalisten aldetik.

Liburuan "badira armak euskotar asko nazionalismora bihurtu daitezkeen", idazten dio Tomasek 1918ko ekainaren 2an. Raimundo Olabide jesuitak uste du eleberria "sutarako ala biotzerako" dela. Manuel Irujok 1918ko ekainaren 4ko gutunean dio "nazionalismoa eleberriaren birtutez zabaltzea ideia on bat dela, eta horrela arinkeriak horretan pentsatzeko gai ez direnengana helaraziko duela".

Bat baino gehiago dira *Landibar* eleberrian, hogei urte lehenago Arturo Kanpionek *Blancos y Negros*-en argitaratu eman zuen eleberriarekiko parekotasuna aurkitu dutenak, horrek ere Eleizalderenaren oso antzeko gai eta helburuak baititu. Hala ere, Kanpionen gaitasun narraizalea handiagoa da, nahiz eta azken eleberriak gairitu egiten duen idazle nafarra bere helburuaren intentsitatean eta bere konbikzioen indarrean.

Euzkadi egunkarian agertzen diren kritiketako batean, "El solitario de Mendizorrotz" sinadurapean, *Landibar*-en egilea Kanpion eta Sienkiewicz-ekin konpara daitekeela, eta une batzuetan Huysmans bera ere gogorarazten duela adierazten da: "Badira atal eta trazu hain errealistak, non argazkiak baitira". Kritikari horrek bereziki gorensten du Eleizalderen satira, balio autoktonoen kaltean exotikoa bultzatzen duten predikari eta onegintza-erakundeetara zuzendua.

A. Donostiak gutun bat idazten du 1918ko maiatzaren 31n Lekarotzetik. Eleberriak Kanpion gogorarazten duela, baina desberdintasun batekin: Kanpionengan "batzuetan, abertza-

leaz gainera, idazlea ikusten da, bere obran gozamina hartzen duena. Zuk ezkutatu egiten duzu, ahaleginak egiten dituzu idazleak sekula abertzalea menpera ez dezan". Azkenik, gazteak nazionalismora erakartzeko eleberriko-koadro gehiago argitaratzera bultzatzen du, Landibar-en argitalpena A. Colomaren *Pequeñeces*-ena bezain txundigarri gertatuko delakoan. Miguel eta Dorkaitz pertsonaia nazionalistak, "guztiok ezagutzen ditugunak", aurkeztean Eleizaldeak azaltzen duen errealismoa gorensten du.

Eleizaldeak Kanpion, Manuel Aranzadi eta Irujorekin duen parekotasuna ere gogorarazten du; azken horrek 1918ko ekainaren 4an sinaturiko gutunean dioenez "nire iritziz, Kanpionen eleberriek nazionalista gehiago egin dute bere hitzaldi politiko eta konferentziek baino. Uste dut Landibar-ek atsekaberen bat emango dizula". "Landibar-ek hunkitu eta sentitu egiten du eta bizitasunez hunkiarazi eta sentiaraziko du. Nik ez dakit nire obrak nazionalista berriak egingo duen ala ez, baina sinetsirik nago dagoeneko nazionalista badirenei zizelez grabatuko dizkiela beren ideia eta sentimenduak".

Arturo Kanpionek, 1918ko ekainaren 11ko gutunean, honako hau aurkitzen du Landibar-en: "literatur forma ederra, euskal izaeraren barne-sentimendua, abertzaletasun suharra, karaktereen azterketa zehatza, interes handia, nahiz eta argumentua soila izan -hori maisuek bakarrik lortzen dute- samurtasun eta sentiberatasun ukituak, euskal gizartearen akats eta hutsegiteen zuzenketa gogor eta gupidagabea, zinezkotasun heroikoa, nork bere burua arriskuan jarri konbentzionalismoaren sare itsua urratzen duen hori, norbere buruarentzat edo banderarentzat etekinen bat ateratzen dutenek hain babestua..."

Koldo Eleizaldeak eleberria bidali eta erantzun murriztagoak eman zituzten beste batzuek: Gerhard Baehr (Legazpi 1920ko ekainaren 27a), Ixaka López Mendizabal (1918ko ekainaren 4a) Emiliano Arriaga (1918ko ekainaren 28a) edo Julio Urkixo (d/g).

Pierre Lhanderentzat (RIEV, 1919, X, 190-193 or.) Eleizalderen lehen eleberria apaindurazko xehetasunez beterik dago eta deskribatzaileegitza jo daiteke. Nazionalismoarentzat aldekoak irabazteko egindako obra dela ikusten du, ohitura espainiarrei eraso eta euskal autoktonoak gorensten dituen. Ongi deskribatzen ditu paisaiak eta pertsonak eta karaktere psikologiko desberdinak aurkezten ditu. A. Lhanderen arabera, arte deskribatzailea kementsu eta delikatu da, dokumentazio askotariko, zehatz eta doitik ateratakoa. Zehaztasunezko obra areago da irudimenezkoa baino, eta horren bitartez, buru matematikoa aurkitzen dugu eleberrigile berriengan.

2.2. BILBEA

Ia erabat ziur nagoenez artikulua hau irakurriko duenak ez duela obra irakurrita edukiko, beharturik aurkitzen naiz eleberraren bilbearen laburpentxo bat egitera, aztertuko diren alderdiak behar bezala ulertarazteko. Obrak 20 kapitulu ditu eta elkarren artean erlaziozkoak daude, XIII.a izan ezik, egiazko itsas-estampa tragikoa baita, obraren eleberribilbearekin zuzeneko erlaziorik ez duena.

Lehen kapituluak Miguel Gaztanbide protagonista agertzen da, ingeniari gazte bat, Olatz-errekako urjauzira bisita egin eta euskal paisaia begiesten duena: erreka ur-emaria kalkulatzeko du helburua, Landibarren kokaturiko beira-konpainia euskal-eskoziar baten eskariz. Beharrezkoan, egurketan dabilen Ramon agure beneragarriarekin topo egiten du; aberri-ideialak haragitzen dituen euskaldunaren arrazazko prototipoa da agurea. Bidean doazela, hiriaren

minetan bizi den neska endekatu batekin ezkondurik dagoen bere seme Ferminen famili gorabeherak kontatzen dizkio. Ez da ulertzekoa Erdoiztabereako Julik taberna bat jarri nahi izatea sukar semitikoak kutsaturik egon ezik. Eta Iñaki txikia izan eta handik 15 egunera Madrileren doa inude, eta bertan bi urte emango ditu.

Bigarren kapituluak Miguel de Gaztanbide y Esterenalde, jatorri nafarra duen baztandarren haurtzaroa eta gaztaroa aurkezten ditu. José Gil de Gaztanbide, farmazialari goiz alar-gunduaren semea da. Kontua da gure protagonistak 7 urterekin galtzen duela ama eta 13 urterekin aita. Une horretan 18 urteko arreba Aurelia, Joakin Elo izeneko nafar dirudun batek begiz jota dauka ezkontzeko. Aureliak bazterturik dauzka beste senargai batzuk euskaldunak ez direlako, jokalaria, arranditsuak eta abar direlako, eta berehala Joakinekin ezkontzen da, Miguelen babesle bihurtuko denarekin hain zuzen.

Miguel, bere jaiotzako ibarrean dagoen erlijioso-ikastetxe batean ikasketak egin ondoren, Madrila doa hiru ikasturte egitera Zientzietako Fakultatean, ingeniari-espezialitatea lortzeko asmoz.

Hirugarren kapituluak xehetasunez azaltzen ditu euskaldun eta madrildarren (edo, hedaduraz, espainiarren) artean ikusten dituen desberdintasun handienei buruzko oharak. Madrillgo Aste Santuaren berri ematen du, herriaren erlijiorik-eza erakusten duten elementuz betea, garai horretan bertan zeuden euskal ohitura aszetikoei kontrajarririk. Auzoetako dantzak kritikatzeko, mitin libertarioak, herriaren zerbitzuko prentsa, zirkuaren miseriak, La Bombilaren dantza, deskribapen sutsu eta moralistekin, zeinek kontraste nabarmena egiten baitute etorkizunean bere emaztea izatera irits daitekeenaren amets erromantikoarekin.

Ekainaren 4an karrera amaiturik, 24 urte betetzeko gutxi falta zaiola, Landibarrera itzultzen da, eta César de Aldagan enpresario eta kapitalistak dei egiten dio etorkizunean beira-lantegi berri bat zuzentzeaz arduratu dadin. Horretarako bi urtez Frantzian eta Alemanian prestatzea eskaintzen dio eta mutilak onartu egiten du.

IV. kapituluak xeheki deskribatzen dira Landibarko auzoak eta herriaren banaketa, baita Patxi Mendiaren kafetegiko tertulia ere, non esku hartzen baitute Miguel Gaztanbidek, Eugenio de Azkue medikuak, Indalezio de Legorburu arkitektoak eta Teodoro de Zumeldi abokatuak, baita tarteka Don Panchito kubatarrek ere.

Enrique de Agerre-Murua, Dorkaitzeko jaun, bidaiari eta bere baserritar maizterren babesle denaren bizitza azaltzeko erabiltzen du V. kapituluak; aldiz, seigarrenean kasinoko bile-rak deskribatzen dira, Katekesi Astekoak; aurrera doan nazionalismoaren eta alderdi espainolisten arteko enfrontamendu-giroa prestatzen da.

VII. kapituluak hasten dira alderdien prestakuntzak martxoko hauteskundeetarako. Alderdi liberal-kontserbadorea bizkaitarren mehatxupean aurkitzen da; hori dela-eta, Miguel de Gaztanbide proposatzen dute zerranda-buru, goraka doan bizkaitarrismoari erasotzeko.

VIII. kapituluak batzokian gertatzen da; bertan, don Césarren asmoen berri ematen diote Miguel de Gaztanbideri, eta horrek egoera zailean jartzen du, zeren ia gauza ziurra baita eskariari uko eginez gero lanetik bidaliko dutela eta etorkizunean Miguelen eta Emilia de Aldaganen arteko ezkontza galarazi dezaketela.

Apaiz batek Guztiz Garbiaren bederatziurrenean azaltzen dituen sermoiei egindako kritikaren bitartez, klero espainolistari egiten dio kritika, nazionalismoari erasotzeko kontraturiko-

en interesei zerbitzaten baitie kleroak. Landibarren logia masoniko bat nola zegoen eta zeremonia masoien alderdi desberdinak ere ageri dira. Hori bederatzigarren kapituluan gertatzen da. Hamargarrenean, berriz, Ruygómez epailea ageri da, bizkaitarren jazarle eta antinazionalista porrokatua; izan ere, horretarakoxe bidali baitute Landibarrera. César de Aldagan jauntxoaren arbuioa gorabehera, zentzugabeko arrazoiengatik ezartzen ditu prozesuak. Iztaurreko mutil batzuka auzitara eramaten ditu espainiar nazioari irainak egiteagatik, Errioxako piperren pota bat hankapean erabiltzeagatik. 2 urte, 4 hilabete eta egun batera kondenatzen ditu. XI. kapituluan areagotu egiten da tirabira bizkaitar katolikoek eta kleroak doktrina espainoliz egiten duen defentsaren artean. "Chavito" Kasinoko kideek laizismoaren eredutzat jarri nahi duten baratillero baten heriotza eta ehorzketa aurkezten da, azken orduan damutu eta aitortza egin duena.

XII. kapituluan, Césarrek lehen postua eskaintzen dio Migueli zerranda liberal-kontserbadorean. Horrek uko egiten dio eta bien artean oso elkarriketa interesgarria sortzen da, Gaztanbidek bere ideia nazionalistak azaltzen dizkiolarik.

Bilbearen hariarekin lotura handirik ez badu ere, XIII. kapituluak itsas estanpa bat aurkezten digu. Iztaurren, arrantzale-herrian, zenbait marineli bizia kentzen dien galerna esker-gak eragindako tragedia azaltzen da. Kapitulu horretan Sabino Aranari buruzko iritziak ere jasotzen dira. 1912ko abuztuaren 12 eta 13an, astelehen eta asteartean hain zuzen, Bizkaiko kostaldean arrantzale bermeotarak bizi izandako gertakari tragikoak azaltzen dira; hilaren 10ean, larunbat goizaldera irten ziren eta galerna izugarri batek menpean hartu zituen, eta arrantzale asko galdu ziren. Eleizaldek kazetari gisa jasotzen du tragedia hartatik bizirik atera ziren batzuen testigantza.

XIV. kapituluan, hauteskundeetan botoak lortzeko borroka hasten da. Era guztietako prebiobideak erabiltzen dira, Elizan bertan ere bai, nazionalismoaren hurbileko apaizak lekuz aldatuz. Nazionalisten alde agertzen ziren alkateak ere suspenditzen zituzten. Bien bitartean Azterketa Sozialen Ateneoak antolaturiko Izarzelairako txangoaren pasadizoak gertatzen da, baserritarrekin gatazka sortuko duena, eta geroago prentsak nazionalistei erasotzeko erabiliko duena. Gerora etorriko zen indarkeriaren lehen zeinuak dira.

XV. kapituluan botoak eskuratzeko borroka jarraitzen du eta Enrique de Agerre-Muruak bere botoa eta bere maizterrena kausa nazionalistari ematen dizkio. Hauteskunde-kanpainako pasadizoak kontatzen dira; esaterako, herri karlista batek, Oriamendi kantatuz eta mitinak egiteko lokalak utzi nahi ezta, eskaini zuen kontrako abegiarena. Eleberriarren irakurle batzuek herri hori Durangorekin identifikatzen dute, nahiz eta beste batzuentzat Gernika den.

XVI. kapituluan aurrera darrai botoak eskuratzeko borroka. Tentsio giroa areagotuz doa, eta azkenik, Miguelek fabrikako lana utzi eta Emiliak maitemindurik dagoela aitortzen du, krisialdi latzak jota; horixe izango da, agian, nobela guztian pertsonaia baten psikologia aztertzen den pasarte bakarra, uneoro gertakariak deskribatzen baitira, baina pertsonaien baitan sartu gabe.

XVII. kapituluan hauteskunde-eguna azaltzen da. Boto-ematea kontrolatzeko hiritik bidalitako jauntxoek agenteak aurkezten dira eta "bolillo" kasuak ere agertzen dira, hau da, pertsona batzuk beste batzuen nortasuna ordezkatuz botoa ematera aurkeztu eta haien txartela onartzea. Gertakari nagusia Izarzelaiako hautesguneko hautestontzi bat haustearena da; izan ere, bertako botoak jauntxo liberal-kontserbadorearen kontrakoak baitziren. Ramon Goigaztelu, hautes-mahaiburua, erail eta hautestontzia hautsi egiten dute.

XVIII. kapituluan Miguel atxilotu egiten dute, eta Izarzelaian berriro egiten da bozketa. Garaipena nazionalistentzat da Dorkaitzeko jaunaren laguntza ausartari esker; zeinak, bakarrizketa luze batean, herriaz ahaztuta egon direla eta bere portaera propioa eta euskal handiki lurjabeena gaitzetsi ondoren, nazionalisten taldean sartu eta euskal naziotasuna berrezartzeari ekiten baitio.

Eleberriaren bukaerako bi kapituluetan, Emilia de Aldaganek Maria de Solaureri egiten dizkion hiru gutunak azaltzen dira, Miguelenganako maitasuna eta laster ezkontzeko duen asmoaren berri emanez. Kanpo-egintza nazionalistek hauteskundeetan lortutako garaipenarekin amaiturik, Emiliaren eta Miguelen arteko harremanari barne-soluzioa emanez amaitzen da eleberria. Lehen gutuna ekainaren 9an dataturik dago. Emiliak ingeles ikastetxe batean, zortzi urte lehenago, 14 urte zituela jasotako hezkuntza gogoratzen du, maitale batzuei emandako ezezkoak eta Miguelenganako hurbiltze-prozesua.

Bigarren gutuna ekainaren 10ekoa da eta bertan Emiliak Miguelekin dituen harremanen berri ematen dio aitari.

Azken gutunak ekainaren 18ko data darama. Emilia eta Miguelen arteko harremanen azken fasearen berri ematen du, mutila lantegitik irten eta azkeneko maitasun-konpromezura arte.

2.3. OBRAKO DENBORA

Eleberriak abuztuaren amaieratik ekainaren 18ko gutuna arte doan epea hartzen du, nahiz eta oroitzapenean eta denboran atzera-itzultze asko izan, batez ere II. eta III. kapituluetan. II. kapituluak Miguelek jaiotzatik izan duen bizitza kontatzen du, baina III. kapituluan Madrilen ekainaren 4ra arte ikasle gisa izandako esperientziak kontatzen ditu, 24 urte betetzear zegoen garaikoak hain zuzen. Atzerrian bi urte ematen ditu eta lantegian beste hiru hura zuzentzen ikasiz, kontaera hasten denera arte. Protagonistak 29 edo 30 urte ditu, antza. Kapitulu horietan (II eta III.ean) izan ezik, eleberriaren garapen guztia kronologikoa da.

2.4. DESKRIBAPENAK

2.4.1. Mendiak eta itsasoa

Eleizaldek ondoen menperatzen duen baliabide literarioa deskribapena da. Beti tonu tradizionalari loturik, atzealdean mendiak dituen paisaia baten kokapenak markatzen du eleberriaren hasiera; mendiak funtzio ideologiko batekin loturik daude beti eta Euskal Herriko mendia sentimendu nazionalistaren funtsarekin identifikatzen da, antzinako istorio edo elezaharrekiko erlazioan: “mendebalean, Urrozkainen harkaitz iluna, eta bertan arpe eta lurpeko zingirik-amialamien bizilekuak, herri-ipuinen arabera- mendi abailduaren itxurari kutsu tragiko eta goibela ematen diotenak. Haren atzean, argiago, Oyanetako mendia eratzen zuten gailur konikoen segida nabari zen, gure Erdi Aro irakineko borroka odoltsu eta errepikatuen antzoki izan zena” (5. orr).

“Eskuinetara Goierriko mendien labirinto guztia hedatzen zen, inolako bortxarik gabe ekaitz paleontologiko baten uhindura ero batekin konpara zitekeena, bat-batean harri bihurtua, eldarniotan zebilen taumaturgo baten keinu ahaltsuak une batean gatzatua” (7. orr).

Etengabe egozten zaizkio mendi-paisaiari euskal herriaren funtsezko ezaugarriak: “konbizio intuitibo oso sakona zeukan: mendi populatu eta hostatsurik gabe, euskaldunak ezin bizi zitezkeela” (12 orr.). Beraz, Ramon zaharra konbentzurik dago bere herria laster galduko dela mendi horien desagertze edo eraldatze exotikoaren ondorioz, eta honela esaten dio Migueli: “Hi gaztea haiz eta nik zorionez ikusterik izango ez dudana eta ezingo nukeena ikusi ahal izango duk. Mendi hauek zuhaizgabetuak, zeharo soildu eta eremu bihurturik. Etorriko duk egun hori eta Euskal Herri zaharraren azkena izango duk” (11 orr.). Aldi berean bilakaera hori Gaztelaren egoerarekin konparatzen da, han lekoak eta lekoak zuhaitzik gabe baitaude: “Berandu baino lehen ikusiko duk hemen egoera bera” (12 orr.).

Madriren bizi diren ikasleek mendi horiek gogora ekarri nahi dituztenean hiritik kanpora jotzen dute, atzealdea ikustera “Guadarramako mendi-paisaiak, nahiz eta mendi horrek, beste erakuntza geologiko bat duelarik, euskal mendiekin zerikusirik ez izan. Baina batzuetan elurra eduki ohi zuen, eta ez Madriren ikusten zen zikin, lohi eta beltza -sats-elurra esaten zutena bere-, baizik zuri-zuria eta lohigabea, Gorbeia, Aizkorri edo Aralarkoa bezalakoa” (47 orr.).

Barnealdeko eleberri bat da, ez kostaldekoa. Horregatik, XIII. kapituluan izan ezik, Eleizaldeak doi-doi erabiltzen ditu itsas elementu deskribatzaileak. Portura hurbiltzen ari den trenetik ikusten duenaren arabera soilik egiten du itsasoaren deskribapen bat: “Goialde haietatik urek erabat geldiak ziruditen, arbel gris urdinskazko estrato handiak bezala, han-hemenka zerrenda fantastikoez, pitzadura apatetsuz zeharkatuak; baina kostaldeko ertz guztia aparrezko troxa zuri-zuri zabal batez hornitua ageri zen, kosta zafrazten ari zen uhinketa erotuaren zantzu argia” (232 orr.).

Agian eleberri osoko deskribapenik borobilena abuztuko arrats bati buruzkoa da, kolore desberdinen pertzepzio finarekin: “Zeruak, Mendebal aldera, gasa txit ikustetsuak agertzen zituen, hain gorri argitsukoak non urrezkoa baitzirudien, ezinezko karminez, purpura fantastikoz urtua. Tonu gorri horiek pixkanaka degradatuz zihoazen, ilunduz, zinabriotuz, odol gori bihurtuz, okre distiratsu bilakatuz, eta hodei arin batzuen urdin hausgara jarri zuten burutakotzat, zeinen ertzek soilik gordetzen baitzuten minutu batzuk lehenago masa osoan miresten zen distira apur bat. Hodei horiek zeru-atzealde txit argi batean zihoazen igerian, urdin oso diluituz tindaturiko berde lauso batez bezala” (20 orr.).

Aitzitik, egintza berandutzen duten deskribapen batzuk agertzen dira, eleberriaren bilbe-ari ezer gehitzen ez badiote ere. Hala gertatzen da Miguelek César de Aldaganengandik jasotzen dituen gutunei buruz egiten duen deskribapen dohakabe eta aspergarriarekin. “Tamaina guztietakoak zeuden; itxura guztietakoak: handiak, erliebedun menbrete urdinekoak, estafeta ofizialen zigiluekikoak, Kongresu, Senatu edo Ministerioetakoak; beste batzuek garbanzu-koloreko azalak zituzten, lakre gorri edo gris perlazko seiluekin, enblema heraldikoak ageri zituztela; beste batzuk tamaina komertzialekoak ziren, azal urdinska edo horikoak, industri eta merkataritza etxeen menbrete inprimatua edo litografiatua zutenak; beste batzuk, azkenik, izaera pertsonalagokoak, kanpo-zeinurik gabeak, azal erabat zuri edo luturen batengatik ertz beltzekoak, tamaina desberdinetakoak. Gutun horien hartzaileak eta jasotako erantzunak ere oso desberdinak ziren. Horietako batzuk, ireki ere egin gabe, azalari begiratu bakar bat eman eta zatitu eta don Césarrek ezkerretara zeukan saski zilindrikora jaurtikiak izaten ziren; beste batzuek ohartxo bat hartzen zuten sinaduraren oinean eta bi paper-tinkagailutan banatzen ziren, seguraski bi zerbitzu desberdinetara, administrazioa eta sail teknikora bideratzeko,…” eta aurrera darrai deskribapenak.

2.4.2. Historia, elezaharra eta paisajea

Magma nahasian elkarturik, elementu historiko, legendario eta paisaiatzeko aurkezten dira, beti ere historia, tradizioa eta euskal herriaren barne-muinen gordailu den paisaiaren ebokazioa lortzeko elkarturik.

2.4.2.1. Historia

Finkatu zituen Miguel de Gaztanbidek begiak “laino grisaskan, haren itxura hartzen baitzuten, ordu hartan, Urdulegiko mendi garai eta urrunduek, jadanik Bizkaiko lurretan. Hemen ere Miguelek zain zeuzkan oroitzapen historiko higuigarriak, duela gutxi gertatutakoak. Zeren Urdulegiko mendi haiek alfonsotar armadaren soldadu-talde baten eta armada karlistaren bizkaitar dibisioaren arteko borroka lehiatsu eta odoltsu baten lekuko eta gertaleku izan baitziren, gerraren azken uneetan, barreiatze orokorra baino pixka bat lehenago, orduantxe utzi baitzuen Euskal herria etsaiaren mende, defentsa eta baldintzarik gabe, Madrileko gobernua-
ren eskuetan” (6 orr.).

2.4.2.2. Elezaharrak

a) Gerrakoak

Herri-kanta bat entzutearen ondorioz sortzen da:

“Oyaneta´n bai, bai!
Izan genduan yai”

“Historiak argi-sorta bat isurtzen zuen euskal folkloreaken zoko ilun horretara. Garaipen kantu bat besterik ez zen, kemen erdi-basatikoa. Gebarenek XIV. mendean sortu zuten, beren betiko etsaiei, Igor-Areztitarrei Oyanetan ezarri zieten enboskada sonatua ospatzeko; enboskada horretan irauki ziren betiko leinuburua, bere sei seme-alabak eta laurogei-laurogeita hamar jarraitzaile” (6 orr.).

b) Mitologikoak

Txandon ikazkin zaharrak, ekaitz-arratsalde batean, bere etxolan kontaturiko elezaharra edesten digu Miguelek, ekaitzaren babesean daudela: “Maiteder neskatila oso ederra zen, elurra bezain zuria, eguzkia bezain horaila, “jentilen garaietan” inguru hartan bizi izan zena (...) Garden eta Urden, bi anaia bikiek maite zuten, nahiz eta elkar ez tristetzearren maitasun hori ezkutatu (...). Azkenik, aukera egitearen ardura zoriaren baitan uztea erabaki zuen neskatilak. “Jasotzen nauenarena izango naiz” garrasi egin zuen harkaitzaren erpinetik behera amilduz. Bi anaiak, lasterka joan zitzaizkion, besoak zabalik, hartzera. Salto egitean, Maiteder urjauzi bihurtu zen; bi bikiak bi harkaitz ia berdin bihurtu ziren; erorikoan neskatilari laguntzeko; semeen zoria deitoratuz bertaratu zen ama dohakabea goroldio lodi biguin itxuraldaturik gelditu zen, zilarrez ziprztindua, seme-harkaitzak amultsuki bilduz” (8-9 orr.).

c) Akelarreak

“Han jaisten dira amialamiak ilargi beteko gauetan, hantxe bertan jaiotzen diren iturrietara basa-loreak jaurtiz; hantxe entzuten da basajaunaren txistua eta artzainek, lainoa den goizetan, haren isla hauteman ere egiten dute batzuetan” (8 orr.).

Hitz batean, paisaiak osagai fantastikoak biltzen ditu, baserri-giroko interpretazio benetako batek bakarrik adieraz ditzakeenak, horrela paisaia eta elezaharra esentzia nazionalen osagai bihurtzen direla.

2.4.3. Ruralismoa

XIX. mendearen erdi aldetik hasita baserri-giroko estereotipo bat eratuz doa, eta horren arabera baserria eta baserritarrak laster ideologia nazionalistaren osagai izango diren bertute batzuen adierazle dira. Sarritan ahazten ditugu, hala ere, lanaren banaketa sozialaren eta ekonomia merkantil baten gorakadaren ondorioz eta sarritan jabegoa galtzearen eraginez baserri-munduak XVIII. mendean jasan behar izan zituen biziraute-arazoak: "XIX. mendearen bukaerako euskal ideologia politikoetan egiten diren sinplifikazioen jokoan, familiak baserrian duen egiteko nagusia moralitate-sinbolo bihurtzen da, eta mende oso batez -azken gerraostera arte, Caroren estimazioen arabera- hiri eta industri bizimoduei loturik irauteko gauza izan diren nekazaritza-giroko kultur formen koherenziak, berriz, estrapolazio ideologikoko prozesu berri bati oinarria emateko balio du, aipaturiko baserri-giroko bizimodua ordena natural, iraunkor, gatazkagabe bezala aurkezten baita enfrentamenduen eta iraultza industrialak berekin dakarren maila guztietako (ekonomia, politika, moral, kultura mailako) degradazioaren aurrean, erreferente kritiko gisa har daitekeelarik (Elorza, 1978:169).

Errealitate historiko horren aurrez aurre, Eleizaldek gorde egin nahi du euskal Arkadia: "Gero eta garbiago ikusten dut, Mary, kosmopolitismoak gutxien zigorturiko herrialdea, Mendebaleko Europa guztian naturalena, jatorrena eta egiazkoena, oraindik gure Euskal Herria dela" (364 or.).

Ikuspen horrek argitzen du Juli de Erdoiztabereari egiten zaion kritika; izan ere, Elik bere seme Iñaki bertan utzi eta Madrilera inude joatea erabaki du, bere nahiak zirikatutik eta Epifania de Lubaigain izeneko beste neskame batek, Atanagildo, Lanbibarreko mediku maketoak eta don Ceferinok, Izarzelaiako Santikurutzeko apaizak hara deiturik. Miguelek apaiz horren jorkaera kritikatzan du, hirian erremediorik gabe galbidean sartzen diren neska euskaldunen emigrazioa bultzatzen duelako.

Koldo Eleizaldek euskal baserri-giroaz egiten duen lanketa literarioa hiritik egina da, Arturo Kanpionek ere egin zuen bezala, eta horrenbestez, benetako egoerari nekez lotzen zaion ikuspegi idealizatua dauka ingurune horri buruz; hala ere, nazionalismoaren jatorri hiritarrean aurkitzen du azalpena, zeren "Euskal Herriko bizitzan baserri-giroak izan duen esanahi nagusiak pixkanaka haren ikuspegi sublimatu bati egin baitio leku, bitariko eginkizun ideologikoa betez: batetik nazionalitatearen erreserba morala, eta baita sinbolikoa ere, izatea, eta bestetik ardatzaren polo positibo izatea, zeinaren alde negatibo, industria eta demografia aldetik eraldatzen ari diren guneetan sorturiko harreman gatazkatsu berriei baitagokie. Arazoaren ingurune errealeak azkenerako lausotu egiten dira baserriko biztanlearen irudi idealizatuaren aurrean" (Elorza, 1978: 172).

Horrela, bada, ruralismoa, ideologia nazionalistaren oinarria, atze-ohal bat da, eta horren gainean islatzen dira gizarte industrial berriaren eta baserri-giroko gizarte zaharraren artean dauden gatazkak. Sarritan azaltzen dira etorkinak ere, eta aurreko euskal errealitatearen distortsioa leporatzen zaie.

2.4.3.1. Landibar hiria

Landibarrek, berez, eleberriaren denbora guztian ageri den dualismoa adierazten du. IV. kapituluan, Kaleberri "ikusgarri eta kurtsi" batetik sarrera daukan hiri bat bezala ageri da deskribatua, non zerbitzu ofizialak eta egoitza hoberenak aurkitzen baitira, gaur egun herria bitan banatzen duen Landibar zaharreko Kalenagusia darraikiolarik: Goialde nekazari eta dendarien auzunea da, baita Landibarren tradizio luzekoak diren familia leinargiena ere; eta alderdi berria, Bekalde deitua, Legarda ibairantz jaisten dena, langile, tailer eta industrializazioarekin heldu diren etorkin-familien auzunea da.

Goialde da Landibarreko auzune zaharra eta bertan aurkitzen da batzokia. Bertako jendea serioa, tradizionalista, begiratu, berriketa gutxikoa, elizkoia, modernoa den guztiari destaina egiten diona da. Benetako landibartarrak dira eta kale horietan barrena paseatzen zen Miguel bezpera-orduan, giro bakarti, arkaiko, klerikal, tristean, atarian eserita errosarioa errezatzen ari zen amonaren bat aurkituz, zeinek Erdi Aroko garaiak gogorarazten baitzizkion, Erdi Aroko euskaraz galderaren bat noiz egingo ote zion zain.

Bekalde auzune behetarra da, iskanbilatsua, fabrikak eta armarririk gabeko etxeak dituen, eta bertako kaleetan animazio handia izaten da beti: haurrak, balkoitik balkoira hitz egiten duten emakumeak, gaztelaniaz mintzatzen diren nafarrak, erriberatarrak, eta langileak ibiltzen diren kafetegiak; langile-elkarteen Zentro sozialista bat ere badute bertan.

Landibarreko langile euskaldunak nazionalistak dira eta gehienak Goialdeko batzokira joaten dira. Langile etorkin edo yabanak Zirkulu katolikora joaten dira nagusien atsegineko izan nahi dutenean, edo langile-elkarteen Zentrora, eta elizbarrutiko Gotzainak debekaturiko "*Páginas libertarias*" izeneko paper bat argitaratzen duten akraten taldetxo batekin biltzen dira.

Bikoiztasun horretan ageri den enfrontamenduaren haziak bizia ematen dio eleberriaren bilbeari, eta gertakariez berretsi nahi du protagonistak defendaturiko tesia: "Arlo guztietan gara ez bakarrik desberdinak, baita kontraerriak ere, ez kontraerriak soilik, baita bateraezina ere (...) Gure Herrialdean herritxoak hiriak baino hobeak dira, eta horiek hiriburuak baino hobeak" (46 orr.).

Aurreiritzi horien arabera "gure nazionalitatearen azken gotorlekua den baserria desagertu egingo da orduan, industrialismo zorabiarazle baten uholdepean, denbora gutxian zeharo aberasteko egarriak etengabe zirikatuz" (12 orr.).

2.4.3.2. Madril hiria

Eleberriaren III. kapituluak autobiografikoa da zalantzarik gabe, autorearen beste artikulua batek, "Nuestros veinte años" izenekoak argi erakusten baitigu bien arteko parekotasuna; kapitulu horretan kritikarik garratzenak egiten ditu Madril hiriak eta madrildarrek, eta hedaduraz, Espainiak eta espainiarrek eratzen duten antieuskalduntasunaren paradigmati buruz.

Euskal ikasleak, euskal unibertsitatek ez dagoelako Madrilera joatera beharturik, bidaiari bertan erakusten du bere izaera desberdina: "Miguel ohartzen zen ikasle horiek eta euskaldunak ez zirenak, oro har, pozez txoratzen joaten zirela Madrilera, atsegintoki gorena bailitzan, beren atzean ezer utziko ez balute bezala(-...) Euskaldunak, ez. Madrilek eskaintzen dituen atsegin errazenetarako sarbidea zutenek berek ere (...) ezin zuten aberri-lurra utzi tristurazko sentimendurik gabe, ahal zen bezala disimulatzen zuten nahigabe sakona sentitu gabe" (39-40 orr.).

Horrela, ikasleek Madrilen egiten zuten bizitza etsaitasunezko giroan gertatzen zen, eta bertan ez zen falta izaten hiria, biztanleak eta haien ohiturekiko kritika ere.

a) Hiriaren kritika

“Espainiar gortean guztiari higuigarri zeritzon: kaleetako zola sukarriz laztua; udaltzainak nabarmenkiro ausente; giroa gozakaitz eta hilgarria, glazial eta sahariarra; elikadura osasungaitz eta guztiz garestia; eraikuntza, arazeriatsua edo hondatua; politikakeria, haurkeriaz eta kiratsez betea; flamenkomania, bihurritu eta ergela; gordinkeria gainezka eta letrinarioa; irudimenen perbertsioa halako punturaino eramana, non ez baitzegoen espainierazko berbarik, esanahi zuzen eta errugabeenekoa bera ere, zentzu esoteriko lizunaren jabe ez zenik” (41 orr.).

b) Madrildarren kritika

“Gauzarik oinarritzkoenen ezjakintasun sakona, edozertaz eztabaidatzeko eta iritzi merke-
ra jotzeko askitasun barregarriarekiko kontraste eginez; ez Jainkoagan eta ez deabruagan sines-
ten ez duen, baina sugearen eta euritako irekiaren malefizioan eta muskerra eta konkordua-
naren araoan fedea onartzen duen herri zaharkituaren eszeptizismoa; beren materialismo
erradikala, “bost axola niri!” utilitarismo lehorra; “doala eta izorra dadila!” esamoldeak erakus-
ten duen makurkeria sakona, hain sarri eta aukera desberdinetan entzuna, non Miguel sines-
ten hasi baitzen esalditxo makur eta lizuna leit-motiv derrigorrezko baten gisakoa zela, maxi-
ma nazional moduko bat, jende haien aforismo eztabaidea ezin bat, zeinentzat sakrifizio esku-
zabal oro “leloarena egitea” baita eta bere burua nekarazten duen idealista oro, panoli
bat”(41-42 orr.).

c) Madrilgo Aste Santuaren kritika

Landibarko protagonistak arbuioz kritikatzten eta deskribatzen du Madrildarren Aste San-
tua, “buruan mantila zuriak eta teilazko orrazi handiak erabiltzen dituzten neskati-
len erakusketak gisagabea” edo Ostiral santuko “Cara de Dios” erromeria, “txistu, oihu, maldizio eta biraoe-
kin” non “txulak litsekiko mantoietan beren burua nabarmenkiro bilduta eta bizimodu eskase-
ko emakumexkek, aurpegia pintaturik eta lore zimelduak buruan dituztela, gizonekiko harre-
man lohia bilatzen duten eta mila eratarata probokatzen dituzten”, “elkarrizketa lizun, biraoz zir-
tatu eta iseka sakrilegoz apaindurikoen attergabeko zurrumurru bat eta abar”.

2.4.3.3. Dantza

Sabino Aranak bere obran etengabe eraso zien autoktonoaren eta kanpokoaren arteko
nahasketa ziren ohiturei eta bereziki dantzei, eta eraso horiek luzaroan iraun zuten ideologia
nazionalistan; izan ere, euskal balioen galera ikusten baitzuen horietan, etorkinekin nahastu
eta aldi berean gaztelania nagusitzen zelarik hizkuntza gailen gisara hiri-jai mota horretan.
Eleizaldeek ez zuen eleberriak eskaintzen zion aukerarik galdu nola Landibarren hala Madrilen
kritikatzen duen elementu hori sartzeko.

Landibar: “Errosarioaren hasiera adierazten zuten kanpaiak jo zituzten hiru aldiz, eta aldi
berean, musika-banda batek pasodoble baxu bat, generoko espainolenetako bat markatze-
ari ekin zion. Osteguna zen, eta Udal “aurrerakoi” batek erabakita zeukan aste-
ko egun horretan Zumardiko pasealekuan udal-musikazko saioa, eta zegokion dantzaldia egitea. Pasodoble
txuleskoaren lehen txin-txina entzun bezain laster, neskati-
len lerro luzeak eratzen zituzten be-

sozko kateak desegin egin ziren, eta horiek lasterka joan ziren, pozezko garrasiak eginez, musika kanalleskoak dei egiten zien tokira (...). Eta pixkanaka agertu ziren, hornei oso itsatsirik, gizonetako-itzalak, eta mamuak bezala lerritzen ziren Zumardira zeramaten kaleetan barrera, zeinen puntu estrategikoak, bai ilunpearengatik eta bai beste inguruabarrengatik, giza-banako horiek hartzen baitzituzten jakintsuki, zeren Landibarko herri-dantzatik askok uste zutena baino atsegin handiagoa ateratzen baitzuten grina doilor jakin batzuetarako”(22-23 or.).

Beste batzuetan dantza kritikatzan badu plaza elizatik hurbil dagoelako izaten da eta Goialdeko auzoek horren aurrean sortzen duten eskandalu eta protestarengatik.

Ez da txikiagoa Madrilgo “La Bombilla” lokaletan egiten den dantzaren aurkako hitzaldi zorrotza, batez ere hartan esku hartzen zuten emakumeen aurkakoa.

“La Bombillako emakumezkoen partaidetza ugaria bezain ñabarra izaten zen: bazter-auzategietako txulatzoez, beren aurpegi zurbil, sudur luze eta begi eta ile beltz-beltzarekin, jatorri judutarrekoen zeinu guztiak ageri zituzten, horixe baita berena; nerabazarora doi-doi heldutako neskatoak, ordurako tuberkulosia, epilepsia edo neuropatietarako bidea irekitzen duten bizioen estigma fisikoak zituztenak; gerruntzegile eta jostuntxoak, zeinen begi likitsak, distira nakarezkoz beteak, ezin gizonetako-begiradaren aurrean beheratzen ez baitziren, zeinen esku lohiek ordurako bilduak baitzituzten perbertsioaren lore guztiak, bizioaren uzta guztiak; hogeita hamarretik berrogeirako histerika eta ninfomanak, sentimentalismo jeltinatuko batez konplikatuak, estrabismo eta konbulzioak izaten zituztenak eta zizpuruka bihurritzen zirenak gizon batek bere besoen artean estutu orduko” (50 or.).

2.5. ERRETRATUAK

Deskribapenengatik baino areago, Landibar ugaria da pertsonaietan tipo lortuen galeria oso bat eratzen baita; guztiek esaten eta egiten dutenarengatik nabariagoa da Eleizalderen zorrotzasun psikologikoarengatik baino; azken ezaugarri hori areagotu egiten da emakumeengan. Esan genezake Eleizalderen estiloa, pertsonaien erretratuari dagokienez, Pio Barojaren antz handi samarrekoa dela.

Egintzako protagonistak mugaturik aurkitzen dira, elkarren kontra ari diren taldeetako batekoak baitira, eta beren ezaugarriak taldeetako bakoitzarengandik espero denari dagozkie. Esan dezakegu egintzaren hasieratik pertsonaien portaera aurreikusgarria dela, hainbestearinokoa baita autoreak bilbearen garapenarekiko duen kontrola.

2.5.1. Miguel de Gaztanbide

Eleberriko heroia Miguel de Gaztanbide y Esterenalde da, jatorriz Baztangoa farmazialari baten semea. Miguelek 7 urte besterik ez zituela hil zen ama eta 13 urterekin galdu zuen aita. Bere arrebaren ezkontza onari esker, Miguelek ez du baliabiderik izango ikasten jarraitzeko, aurrena jaiotzako ibarrean dagoen erlijioso-ikastetxe batean eta 17 urterekin Madrilgo Zientzia Fakultatean, zeinean industri ingeniari titulua eskuratuko baitu ekainaren 4an, 24 urte betetzeko gutxi falta zaiola. Komun izeneko hiru urteak Fakultatean egin ondoren, industri ingeniari-tzaren aldeko apostua egiten du, bere nazionalismoaren eraginez, “Estatuarekiko independentzia”rekin lana egin ahal izateko eta bere jaioterriko hiri industrialetako batean kokatu ahal izateko.

Miguel gaztearen gaitasunek berehala definitzen dute abertzale zintzo eta azkartzat: "Fraideen disziplina bigunak mesede egin zion Migueli, zeinen izpiritua borondatetsu eta artega baitzen, nahiz eta sentibera eta bihotzabala izan. Erlijioso bikainak txundituta uzten zituen bere adimen argiz eta orotarako gaitasunez. Latinak biziki erakarri zuen, gero Matematikak, ondoren natur zientziek; espainiar literaturarekiko bakarrik erakutsi zuen halako aiher bat, klasikoa ere barne hartzen zuela" (31 orr.).

III. kapitulu autobiografikoaren ondoren, zeinean Madrilgo ikastaldian bizi izandako esperientziak kontatzen baititu, Koldo Eleizalderen elementu autobiografikoak nabarmentzen dira, bera ere Madrilan ikasketak egitera beharturik aurkitu baitzen. Eleberriko protagonista, Eleizalderen modura, jadanik abertzale irmoa zen bere ikasle-garaietatik: "Zeren, kontuan izan beharra dago Miguel Gaztanbide jadanik abertzale irmoa zela. Ordurako eginak zeuzkan erromesaldi bakarti eta sentimentalak Amaiur gazteluaren hondakin beneratuetera, espainiar tropen menpean erori zen azken nafar gotorlekura, eta begiak malkoz bustirik zituela, otoitz egina zen Aberriaren independentziaren alde hildako nafarren betiko atsedenen alde. Ikastetxeko garaian, halabeharrez eskuratu zituen Bizkaia eta Gipuzkoako egunkari nazionalisten ale banaka batzuk irakurri izanak inondik ere disimulatu nahi izaten ez zuen suharrez betetzen zuten"(37 orr.).

Erreserba moral eta politiko horrekin bere zintzotasuna zaintzea lortu zuen, nahiz eta Madrilan egon: "Bere zintzotasun moralari eustea lortu zuen, bere burua arreta handiarekin zainduduz, lanari gogotik ekinez -obsesio batzuentzat arao ona baita hori- eta jaio zen ibarreko, aitararen, anai-arreben, don Feliperen aholkuen oroitzapenez arima indarberrituz" (51 orr.).

Pentsatu bezala lan bat lortu ondoren, Miguel talde nazionalistako bizitza politikoan sartzen da buru-belarri, eta jarrera horrek arriskuan jartzen dio enpresan duen lanpostua, baina azkenean etorkizunean emazte izango duen enpresarioaren alabaren eskua izango du saritzat, politika nazionalista bertan behera uzteko jauntxoak egiten dion eskaintzaren froga gainditu ondoren:

"- Gorteetarako alduntzak, Madrilako bizitza politikoak, Estatuko goi-postuek ez al dute erakarmenik zuretzat?"

- Ez, jauna. Nik nahi dudan guztia hemen dago, Herrialde honetan, baita niretzat bizitzari esanahia ematen dion guztia, baita izpiritua jasotzen duena ere. Han ez daukat ezer, ez dut ezer eduki nahi.

- Hori antiespainolismo erradikala da (220 orr.).

Eleizalde Miguelen izaera judu-kontrakoa bera ere positibotzat aurkezteraino iristen da, zeren ideologia nazionalistarentzat espainolaren aurreko bat besterik ez baitzen eta gainera Jesukristoren gurutziltzatzaile izan baitzen:

- "Zuk esan zenidan behin, ugazaba, bazela munduan zehar barreiaturiko arraza bat eta lurrari eta lurreko lanei zien gorrotoarengatik bereizten zela besteetatik.

- Bai, egia duk, Ramón: Beni-Israelak, gure antitesi bizia diren horiek... euskaldunok egiazko euskaldun ginenean. Arraza horrek hazi ugari utzi dik espainolen artean. (13-14 orr.).

Egintzan nagusituz, eleberriko heroiairen gainetik, euskaldun-antieuskaldun etengabeko dikotomia aurkitzen da, tipo eta egintza ugaritan irudikatua.

2.5.2. Pertsonaien taldekatzeak

Eleizaldek sortutako pertsonaien ugaritasuna hiru tertuliaren inguruan biltzen da:

a) Patxiren kafetegia, nazionalisten tertulia-gunea; bertan biltzen dira Eugenio Azkue medikua, Indalezio Legorburu arkitektoa eta Teodoro Zumeldi abokatua, Miguel Gaztanbide ingeniaria eta batzuetan Enrique de Agerre-Muruia nagusia. Aise nabarmentzen da pertsonaia-tipologia bat, aurreiritzi nazionalista ruralistetatik oso urrundu den maila intelektual eta ekonomikokoa, nahiz eta beren ideologiarekin teorikoki hura defendatu.

b) “Armonía y Unión Landibarreas” Kasinoko kideak, logia masondar bateko kide ere badirenak; logia horretan Lesmes Etxaran Beneragarri da eta Pancho Ipiñaga Anaia Oradore, lehena 30. graduarekin eta bigarrenak Arrosagurutzea duela. Logia horretatik planteatzen dira bizkaitarismoaren aurkako erasoak; tertulia hori herrialdera kanpotik etorritako pertsonaia batzuek osatzen dute, hala nola, medikuak, indianoak eta maisuak, exotismo atzerritarra sartzen duten agenteek. Kasino horretan biltzen ziren Don Lesmes, don Alejandro, don Pancho, don Trifón eta abar...” eztabaida “zientifiko” eta gramatikaletarako plaza bat baino zerbait gehiago zen, siesta indianoetarako logela baino zerbait gehiago; han laguntza estua eskaintzen zitzaion jauntxokeriari alderdi nazionalistaren aurka ezarritako borroka zitalean ”(77 or.). Handik abiatzen ziren, halaber, euskaldunen aurkako salakuntzak, Espainiaren aurkako delituengatikoak, zeinak beti 2 urte, 4 hilabete eta egun batekin zigortzen baitziren.

c) Gizarte-egintzen inguruan eraturiko emakumeen tertulia, zeinean esku hartzen baitzuten aurreko bi taldeetako emakumeek. Horrela, Atanagildo Suárez Pelón mediku leondarraren emazte den Teotisteren ondoan Maritxu Solare de Legorburu aurkitzen da, arkitektoaren emaztea eta Emilia de Aldagan, Miguel de Gaztanbideren emaztegaiarekin Corkeko ikastetxe irlandarrean ikaskide izana. Emakumeek beren “tertulia biziak sortzen dituzte, kongresu txikien erara, gizonezkoenak baino askozaz balio gutxiagokoak ez direnak” (232 or.).

Emakumeen taldeak enfrentamendu politikoa agertzen du bere baitan, nahiz eta beren oinarritzko egitekoak gizarte-obrak izan. Horrela César de Aldaganez adierazten du “ez dela emakumeentzako hizketagaita, politika-gauzak direlako” (224 or.) edo “Emakumeok inkoherentiaren logika daukazu” (226 or.).

2.5.2.1. Pertsonaia euskaltzaleak

Ordezkarri garrantzitsuenak, protagonistaz gainera, bi dira: Ramon agure beneragarria eta Enrique nagusia. Ramón Goigaztelu arraza-bertuteen eredia da, Miguelek deskribatzen digunez: “agure baserritar baten isla irmoa eta aurpegi kementsua hauteman zituen; abar-txozko bilduma bat egiten ari zen bitartean atsegin handienarekin irribare egiten zion, hortz osasuntsu eta sendoak erakutsiz ezpain mehe eta finekiko ahoan. Sudurra luze, zuzen, zulo estuekikoak, eta begi gris eta zoliek, baina onezko gizontasunez beteek, ematen zuten, V erako aurpegiari, euskal arrazaren ezaugarri den horretan, gizon argi, irmo eta leialaren inpresioa”.

Miguelen eta Ramónen arteko topaketan, azken horrek esaten dio laster 500 urte beteko direla Iturrietako baserrian bizi direla eta egun batzuk lehenago, huntz-abar batzuk kentzean familiaren armarria aurkitu zuela. Horregatik Migueli iruditzen zaio “baserritarren fisonomia bereziki argitzen zela, Iturrietako lur haiek beren izerdiaz busti zituzten asaben, aurrekoen

ezin konta ahala belaunaldien izpiritualitate noble, sotil eta garaia haietan islatuko balu bezala” (14 orr.). Eleizaldeek Ramonen izaera euskalduna azpimarratzen du, arraza-ezaugarri jakin batzuk inplikatzeko dituen hizkuntza baita euskaldunarena: “Euskaldunak beti begiratuki hitz egiten du, antza denez darabilen hizkuntzak berekin daraman berezko gizalegearekin; zeren birao letrinarioa eta mintzaira lizun eta gordina gaztelaniarekin sartzen baitira. Horregatik, bere hizkuntza propioa galtzen duen euskaldunak ia beti degradazio moralaren, izpirituaren zartzaren kasu bat da”(46 orr.). Ez da lehen aldia Eleizaldeek kontrajartzen dituen euskaldunen esan egokiak eta “mica salis”a eta espainiar entzulearen gozamina izan ohi den oratoria puztua eta hitz-jario hanpatua.

Joaquin Elo, Miguelen arrebaren senar nafarra, beste bertute-eredu bat da: “Joaquin ona urrezko bihotz horietako baten jabe zen, Nabara zahar eta txit noblean aurkitzen zaila ez dena, zeren haren ametsa, borborka gainezka egiteko lehian dabiltzan onginahizko uhinak hartzeko objektu duinarekin topo egitea baita” (29 orr.).

Baserriari atxikiriko gizonaren ereduak Ramonengan mamitzen da; Enrique Dorkaitz, berri, jadanik desagertu den antzinako euskal nobleteria ruralaren ordezkaria dugu.

Enrique de Agerre-Murua, Dorkaitzeko jauna, bertako nobleteria zaharraren ordezkaria da, ezkongabea, bidaiaria, nazionalista bihurtzen den gizon zentzuzkoa, bere maizterren premiez kezkatua, Ingalaterrako jesuiten ikastetxe batean hezia, Eskozian ehizaldietara gonbidatzen dutena, bere egoitzan printzesa egiptoar baten momia ezartzeko bezain bitxia, maizter behartsuei baserriaren errenta behar bezala beharazten diona eta haur baten bizia salbatzeko medikurik onenaren gastuak ordaintzen dituen.

Hainbestearino nabarmentzen du Eleizaldeek euskal noblezasuna, non euskal nobleziak familia noble britainiar bat sortaraztearen bitxikeria irudikatzen baitu. Enriqueren dio Ingalaterran ezagutu zuela Highcastle izeneko familia bat, eta haren sortzailea XVI. mendeko Goigaztelutar bat izan zela, espainiarren kontrako borroketan Sir Francis Drakeren laguna izana eta britainiar nobleteriaren barruan Highcastle deituraz onartua; eta hori garbi asko frogatua zegoen, haren armarrian otsoa haritzaren oinean zelatan agertzen baitzen, Goigaztelutarren armarrietan bezalaxe (96-97 orr.).

Dorkaitzeko dorreak “zail” edo “iristezina” esan nahi du. Goialdeko partean zegoen eta Agerre-Muruatarren ohiko egoitza zen. Enriqueren aitak biziki esku hartu zuen 1872ko jaikialdi karlistan. Kanpainaren porrotaz konbentziturik alde batera utzi zuen karlismoa: “Alderdi euskaltzale edo nazionalista euskaldunaren erroldatzea beste nahirik ez dut jadanik”, “berak aurreikusten zuen” eran. Baina urteak aurrera zihoazen, 1876ko laidoak iraun egiten zuen eta hainbeste itxarondako berpizkunde nazionala ez zen gertatzen. Dorkaitzeko nagusia, gero eta adone gutxiago eta tristura handiagoarekin, bere dorrean itxi zen, Literatura eta Historiako bere liburu gogokoekin.

Enrique semea Stonyhursteko jesuita ingelesaren ikastetxean hezia zen. Mundu osoan baren baren bidaiari egina zen eta “biziki esku hartu zuen Dublingo sinn-feinerren errebolta odoltsu-errotako batean (89 orr.), eta horregatik debekaturik zeukan Ingalaterran egotea.

Txomin Kirtenek nazionalismoaren etsai ziren yabanek bultzaturik Ramon, Dorkaitzekoaren ahaide eta maizterra erailtean, Dorkaitzeko nagusia bere jatorria aitortu eta nazionalista bezala agertzen da: “ez zenuten ahaztu behar Agerre-Murua bat naizela, euskaldun leinargia eta Landibarkoa jaiotzez. Nola jasango nuen, mailarik eskasenero etorkin-tropel bat, arraza

guztietako esklaboen seme-alaba eta bilobak, atzo bertan askatuak, geure etxean bertan gu zapaltzera etortzea, gizon txit libreen ehun belaunaldi baino gehiagoren ondorengook, zeinen artean ez baita inoiz morrontzarik ezagutu? (329-330 orr.).

Eleizaldek Enrique pertsonariari ematen dion garrantzia honako printzipio hauetan oinarritzen da:

a) Nobleteria eta kleroa, nazionalitate ororen oinarrizko bi euskarriak!" (335 orr.). Ulertzen du noblezia eredu dela bertan bere buruari begiratzen diotenentzat eta pertsona horiek kredo nazionalistara bihurtzea lortzen bada, gainerako herritarrentzat jarraibide izango dira.

b) Egin dezakeen lan garrantzitsua aitortzearekin batera, euskal nazioaren arazoan aurrean ageri duen pasibitatea kritikatzeko zaio, izan ere horrek herriak ahazmendura botatzea ekar baitezake: "Merezi duguna daukagu. Ez dugu ezertxo ere egin euskal nazioaren alde: bizidunak da euskal nazioak erabateko ahazmendu horrekin ordaintzea" (334 orr.).

c) Euskal lurjabeak bere burua kritikatzeko du herria ahaztu eta bere erroetatik urrutizten duten ohiturak hartu dituelako: "tennis-erraketa, jockey-zartailu, dantza-maisuaren pochette bihurtu da"(335 orr.).

Euskal noble ruralari garrantzia ez datorik bere klasetik baizik eta herriaren tradizioaren eta bertute jatorrenen esentzia izatetik. Horrela ulertzen da euskal neskatilekin ezkondu nahi duten noble espainiarrak gogor kritikatzeko: "gulen zelaiko inozo hirukoitz hori, haur polit eta deusez hori, Torreverdeko kondetxoa" (333 orr.). Egotez ez dago inolako desberdintasunik espainiar noblearen aisiazko jardueren eta Dorkaitzeko jaunak egiten dituen artean, baina tratamendua zeharo desberdina da, zeren azken horrek bere baitan herriaren askatasuna aitortzen baitu: "ni, euskalduna naiz, ez naiz ezerein erregeren mendeko; ni, Dorkaitzeko nagusia, ez naiz inoren zerbitzari. Ni Borbondarrak historian agertzea amets egin baino lehenago Europan aspaldiko zen herri batekoa eta arraza batekoa naiz" (333 orr.). Beste jaun euskaldun batzuk espainiar nobleziara bihurtu izana kritikatzeko da "gero eta gehiago nahastuz hamabi tribuekin, semiten lakra guztiez kutsatuz"(334 orr.).

Begibistakoa da Eleizaldek euskal lurjabeak kausa nazionalistara erakartzeko duen interesa, eta industrian izandako arrakastagatik noblezasun-tituluak lortu zituzten enpresarioak mesprezatu egiten ditu. Beste behin, hemen ere ruralismoaren eta aurrerapen industrialaren arteko enfrentamendua agertzen da, nazionalismo kontserbadoreak lehenaren aldeko apostua egiten baitu, nahiz eta une horretan gidari nazionalistak baserri-giroko burgesiatik ez etorri, hirikotik baizik.

Dorkaitz-tarren familia leinargia desagertzean sortzen den nostalgiarako joera areagotu egiten da Enriqueren arreba espainiar noble guztiei uko egin eta habituak janztea erabakitzen duenean: "Margarita neskatila pinpirina zen, garaia, zuria, begi urdin ederrekikoa eta elezaharretako printzesak gogorarazten zituen airea zeukana, maitagarriek sehaskatik era guztietako dohainez hornitua" (84 orr.).

2.5.2.2. Pertsonaia antieuskaldunak

Beste muturra eratzen dute. Orain arte deskribaturiko pertsonaien aurrez aurre jartzean, biziki kontra egin beharreko elementu deseuskalduntzaile gisa azaltzen dira, bizitza propioa hartzen dutela. Eleizalderen manikeismoak era guztietako bertutez hornituriko pertsonaiak eraikitzen ditu -euskaltzaleak-, eta hauen erreferente kontrajarria jatorri bikoitzeko, espainiar edo euskalduneko, pertsonaiak izango dira.

2.5.2.2.1. Jatorri espainiarrekoak

Erretratu lortuener artean, nahiz eta ezaugarrietan esajeratuegiak, Artemio Pérez-Cigüeña gobernadore probintziala aipatu behar dugu:

“Lotsagabe porrokatua, edozertaz barre egiten zuena “higiene”aren jokotik, diru-sarrera aitorrezinezkoenetatik sorta mardulak metatzen zituena, bere hazienda xahutu zuena “madrildar mintegi paregabeak sortzen dituen bizioen flora konplikatuan”(126 orr.). Erabateko etika politikorik eza, bere hizketa esajeratuki dialektal andaluziarra, emakumeenganako bere ahulezia, herrialdearen mesprezua, eta abar... dira figura negargarri bat apaintzen duten kualitateak.

Aginte betearazlearen ordezkari kritika gogorra egiten badio, ez da bigunagoa aginte judizialari, Landibar-en Fabriciano Ruygómez de la Encinak ordezkatuari egiten diona. Eleberriaren X. kapitulua epaile horri eskainia dago, gizon higuin garri eta herrialdearekiko arrotzaren eredu baita, errukarri eta ahaltsuaren zerbitzari, nazionalistekiko gupidagabea eta aldi berean katoliko faltsua. Bere gizarte-jatorria kontatzen da, oso apala eta nekazari-etorkikoa, bere ikasketak eta karreran aurrera egitea lortzeko morrontza, nahiz eta bidegabekeria handiak egin. Euskalduntasunari gero eta gorroto handiagoa dio, herriak ez ezik César Aldagan jauntxoak berak ere arbuatzen dutela sentitzen du, harentzat funtzionario soil bat besterik ez baita eta, azken finean, berak eta bere emazteak euskalduna den guztiari dioten gorrotoa piper-potoaren zapalkuntzaren eta Agaka haurrentzako propaganda nazionalistako liburuskaren gertakarian mamitzen da; horren egilea atxilotarazi egiten du, negu minean eta gaixotasuna gorabehera, indar publikoko ofizialaren aholku humanitarioen aurka, eta abertzalea biriketako tuberkulosiaz hiltzen da.

Landibarko epaileak, bizkaitarren aurka saiatu eta kriminalez ahazten denak, esaten du ez dagoela fidatzerik “Charrigurri edo Carriberri edo euskarazko beste izen horietako bat daukan inortaz: beren odol txarraren separatismoa eta errebolta daramate. Ah, probintzia honetako epaile guztiak ni bezalakoak balira!...” (176-177 orr.). Morroi-izaera du, eta bere karre-
ra guztia agintariekiko menpekotasunean oinarritzen du.

Berak dioenez, Landibarrera bidali bazuten bizkaitarren aurkako burdinazko beso izateko zen eta prozesurik aldrebesenetako batean, Iztaurreko mutiko batzuk auzitaratu zituen Errioxako piperren pota bat hankapean erabiliz Espainiari irainak egiteagatik. Gertakari horrengatik 2 urte, 4 hilabete eta egun bateko kondena ezarri zuen.

Beste prozesu batean Iztaurreko bi arrantzale akusatu zituen zarramaltza batean “Muera España!” oihu egiteagatik, izatez oihu horiek agente probokatzaileek egin zituzten arren, arrantzale errugabeak atxilotzeko.

Hitz batean, Euskal Herriaren berezko ontasunen gainean agintearen esku zapaltzailea ordezkatzeko du epaileak.

Bereziki higuin garria gertatzen da Macario aktuarioa: “Aktuarioak zaldi-tratulari aberastuaren itxura batere garbitasunik gabea zeukan: bufandatxo koipetsu batean bildurik ibiltzen zen beti, usain konplexuak zerizkiola, eta ez zuen jateko ere erantzen. Jantzki ziztrin horren artetik bisaia sokratiko baten goi-erdigunea agertzen zen, higuin hedakorra sortarazten zuena, aiher ziur eta menperaezina. Herpetiko-burusoil mate eta zahitsu baten azpian, ile-motots luze grisak, latz eta zikinak, pasatzen ziren bufandaren gainetik, zamarrote baten idunarekiko ukipena bilatzera, zeinen jatorrizko usaina ezin izan baitzen inoiz igarri: zikinkerriaren palinpesto deszifraezina zen” (178 orr.).

Ez dago hain ongi lortua maisuaren, agente deseuskalduntzaile nagusiaren erretratua: Glicerio Pedrajas, antiklerikala eta El Imparcial egunkariaren aldizkako korrespontsala da; egunkari hori gertakariak nahasteaz arduratzen da, euskaldunen aurkako propagandaren zerbitzuan. Apaizgai izandakoa zen. Palenciako probintzian jaioa, bere sinesteek bi printzipio bakar hartzen zituzten: metenpsikosia eta biderkaketarako taula. Eleizaldek ez du salatzen eskoletan bultzatzen den euskararen aurkako jarrera, urte batzuk lehenago Arturo Kanpionek Blancos y Negros eleberrian egin zuen bezala.

Euskalduna zen guztiaren aurkako borrokan nabarmenduriko beste pertsonaietako bat Bernabé (“Txikerdi”) da, Dorkaitzen finken administratzailea. Gizon amarrutsua da, baserritarrei lapurreta egin eta Enrique de Agerre-Muruak beragan ezartzen duen konfiantzaz baliatzen dena. César de Aldaganen eta jauntxoaren hauteskundeetako “factotuma” da. Ongi baino hobeki ezagutzen zuen hauteskunde-barruti guztia eta instrukzioak eta ordenak eramaten eta ekartzeko ibiltzen zen jauntxoaren direktorio gorenaren eta berehalako ekintzako zirkulu subalternoen artean, indianoen kasinoaren artean, adibidez. Maisua zen “aho batez onartutako gaitasuna zuen erosketa, mehatxu, edo engainuaren bidez botoak harrapatzeko artean (252 orr.). Administratzailearen handigura elementu antisemitikoez gaitzesten da “Ziniko utilitario horrentzat, Israelgo tribu guztiakin ahaideturik dagoen horrekin, giza bizitzaren helburu bakarra ahal zen bezala dirua egitea zen, ahalik eta kopururik handiena, dibinitate bakar horri zuzentzen baitzizkion bere sugar guztiak, bere adorazio eta kultuaren postulazio guztiak” (252 orr.).

2.5.2.2.2. Euskaldun jatorrizkoak

Eleizalderen eleberriak gogor kritikatzeko dituzten pertsonaia euskaldun endekatuak. Nagusia Juli de Erdoiztaberea da, Ramon beneragarriaren erraina; honek familia hondatu egin du Madril hiriarekiko ukipenean ustelduta, bertara inude joan eta gero. Langile etorkin batekin ihes egin du familiaren baserritik, jadanik ezin baitu euskal baserri-giroa jasan: “Ramonen errainaren itxura hori oso urrun dago baserritar emakume batena izatetik. Etorriberritari Miguelek zuzendu zion begiratu bizkorrak ikusarazi zion emakume eder bat, garai eta ongi eraturia, buruhas, eskotetxo lauki batekin, hiriko jostun baten gisara jantzia, emakume baserritarrek oraindik etxe-lanetarako erabili ohi duten burutako soilaren arrastorik gabea. Aurpegia piztu samarra zekarren. Gizonengana hurbildu zeneko aireak oso gutxi edo batere ez zeukan emakume euskaldunak, baserrikoak zein kalekoak, gizon ezezagun edo gutxi tratatuaren aurrean ageri ohi duen modestia uzketatik. Aitzitik, exhibizio handi samarra zegoen eta askatasun pixka bat ere bai Julik une hartan zerbitzatu behar zuen señorito gazte eta finaren aurrean agertzeko hartzen zuen jarreran”. (19 orr.).

Beste pertsonaia nabarmena Txomin Kirten “kaikua” da, “mozkor, nagi, liskarzale eta litxarrerok” soldaduskara joan aurretik, eta geroago ere “bekatu nagusietan nabarmen landua, aurreko bizio guztietan ongi abantailatua eta beste berri batzuetan nahi beste aritua” (76 orr.). Ramon zaharraren hiltzaile ordaindua bihurtzen da Txomin eta guztien mesprezioa beregatzeko du.

2.5.2.2.3. Kapitalista

Kapitulu berezia merezi du herriko enpresa garrantzitsuenaren jabe eta aginte zentral kontserbadorearen ordezkari politiko den César de Aldagan jauntxo kapitalistaren aurkezpenak. Hala ere, Eleizaldek ez du mesprezuz tratatzen, tentuz baizik, azkenean Miguelen aitagi-

narreba bihurtu behar duelako eta nazionalisten garaitzapena ontzat ematen duelako, bere alderdikideen amarrukeria politikoetan esku ez hartzean. Gainera, bere kabuz moldatzen denaren eta herriari eta bere buruari mesede egiten dieten interesen alde borrokatzen denaren eredia da: "Berrogeita hamar eta hirurogei urte bitarteko gizon batekin topo egin zuen; kairu onekoa zen, oso beltzarana, bizarra aski urdindua zuena, sotiltasun handiarekin jantzia, edozein bulegari bezala. Bekokia tente eta are arranditsua zeraman, zimurrez ildaskatua, eta begi bizi-bizi eta arakatzailleek, bekain lodien azpitan, erliebe pertsonal handia ematen zioten, bi indar horiek, hots, adimena eta borondatea, argiro irakurtzen ziren fisionomia bati. Orokorrean ez zen arbuigarria, ezta gutxiago ere, eta Miguel hasita zegoen pentsatzen aurrean zeukan burdinazko jauntxoa, azken batean, gizonik tratagarriena izan zitekeela une batzuetan" (56 orr.).

Fabrika-jabe aberats hori, alderdi liberal-kontserbadorearen jauntxoa eta bere komite probintzialaren burua, erlijiozale praktikatzailea eta bere obren semea, urrundu egiten da bere alderdiaren lerro ofizialetik, gehiago arduratzen delako Kontzertu ekonomikoa defendatzeaz, eta horrenbestez, deszentralizazio administratiboaz. Azkarra izan zen. Miguelek alderdi liberal-kontserbadorearen zerrendetan agertzeari uko egin zionean, ez zuen lantegitik bota, horrek martiri-irudi bat sortzen lagun zezakeelako, eta hori, epe luzera, bere interesetarako kaltegarri izan zitekeen.

Jauntxoaren aita-irudia gehituz doa eleberririk aurrera egin ahala, eta azkenik alabaren eta mutil euskaldunaren arteko maitasuna onesten du, zeinak uste baitu "suharra baina leiala, setatsua baina jatorra dela. Horrelako gizon leial eta jator bati, gauza asko barkatzen dizkio horrexegatik, zeren ez baitu inolako itxurarik fraka eta txamarraz edo lebitaz edo kapelu luzeaz jantzirik alderdi guztietatik hertsatzen gaituzten gorila pretentsiodunen samalda horienik"(360 orr.).

2.5.2.2.4. Predikaria

Elizgizonen euskararen zapalkuntzan izandako partaidetzaz Eleizalde egiten duen sala-kuntzak osatuko luke Eleberraren IX. kapitulua. Horretarako Landibarko elementu antieuskaldunek Sortzez Garbiaren bederatziruenean sermoia egiteko kontraturiko predikari baten figuraz baliatzen da: "predikari sutsua zen, prosopopeikoa, burrunbari eta hutsala. Bere zientziaren laburtasuna eta bere doktrinaren urritasuna apostrofe sutsuekin estaltzen zuen, haizea bezain fantasia oratorio korrokariekin, imajina arinezko borborrekin, irizpide pixka bat zuten pertsonen penazko irribarrea eragiten zien hitz-jariozko melopearekin. Bere espezialitatea estilo semitikoan inprekazioak egitea zen"(158 orr.). Hori Malaquíás Menéndez-Grillo zen, Eleizaldek gogor erasotutako predikari espainiarra, zeinek bere erlijiozotasuna gorabehera, predikaria bere izaera antieuskaldunarekin identifikatzen baitu eta ez du kritikatzeko bere egitekoaren aspektu erlijiozkoa. Izan ere, kontratupeko apaiz horrek nazionalismoari erasotzen dio kontzientziarik gabeko gizonen hedatutako doktrina makur eta deabruzko hitz eginez; exekrazioa eta betiko laidoa eskatzen du joera horientzat, "adimenak iluntzen eta bihotzak pozoitzen dituzten pipi intelektual eta morala" baitira. Logia masonikoetatik datozela salatzen du, bere oinaz infernuko sugea zapaltzen duen Sortzez Garbiaren eta ideia separatisten artean konparaketa bat eginez.

Eleizalderi Predikariaren kritika ongi datorkio gurari nazionalistekiko sorgortua ageri den espainiar katolizismoari kritika egiteko, izan ere, askapen nazionalerako borroka babesten

duen irlandar kleroarekiko hain da desberdina, Dorkaitzeko jaunak emandako argibideen arabera. Euskadik Erromarekiko izan behar duen batasun katolikoaren tesia babesten da, Espainiako elizaren ulermenik eza alde batera utzita. Aulki Santuaren eta Espainiar Estatuaren arteko eztabaidak islatzen dira aurretik, azken horrek presio egiten baitu harengandik nazionalismoaren kondena lortzeko.

Hierarkia katolikoa gaitzesteak ez dakar inoiz sineste erlijioso irmoak alde batera utzi beharrik: "Eta nork pentsatu du inoiz alderdi nazionalistak herria mesprezitzen duela esatea, Jainkoaren ondoren bera bakarrik daukanean euskal Aberria eraikitzeko? (310 orr.). Horrek ez dio eragozten eleberriari esatea "lotsagarria, asaldagarria dela klero sekular eta erregularreko euskaldunak ikustea, berdin dio sobrepelliza, erroketea edo eskapularioa janzten duten, gerrian fajina, kordioa edo uhala erabiltzen duten, pulpitutik Kilkirrena egiten, jende xehearen kontzientzia ondoetzuz, nazionalistoi ia pertsonalki irain eginez, garrazkeria sulfuriko eta amorratuz" (167 orr.).

Kleroaren aurkako akusazioak, horren baitan nagusi den lukurreriaren aurka ere zuzentzen dira eta "tristuraz adierazten du sekular sinestunek duten etsipena, apaiz negoziolariekin topo egitean duten desilusio izugarria, horiek ez baitakite Río de la Platako Banku Espainiarraz, ontziolen dibidendoez edo bost duroko meategiez baizik hitz egiten, langosta edo domoqarekin egindako orritsez ez denean" (335 orr.).

Nazionalismoari kalte egiteko asmoz hierarkiak agintearekin bat eginik darabiltzan mañobra politikoetara zabaltzen da kritika. Zaletasun nazionalistak dituzten apaizak lekuz aldatzen direla eta horien hutsuneak karlismoaren jarraitzaile eta ondorioz euskal nazionalitatearen etsai diren beste abade batzuek betetzen dituztela salatzen da hauteskondeak baino zertxobait lehenago. Aitorrentzuleek zioten absuluzioa ukatuko zietela nazionalistei; beste batzuk baserri baserri ibiltzen ziren jauntxoentzat botoak biltzen, euskal kanten letrak debekatu egiten ziren eta espainiar nazioaren aldeko beste ahapaldi batzuek ordeztzen ziren, sermoiak gaztelaniaz egiten zirelarik.

Ez da oharkabean gelditzen parrokiatiko erregistroetan euskal izenak inskribatzeari Elizak emandako ezezkoaren kritika ere, "euskal lurrean haurtxoei Bataioaren sakramentua ukatuz, euskal misiolariak Txinara, Indietara, munduaren azken bazterrera bataiatzeko haurren bila doazenean!" (254 orr.).

2.6. BORROKA POLITIKO ALDERDITARRA

Obra guztian nabari dugun etengabeko dualismoak nazionalisten eta liberal-kontserbadoreen arteko borroka politiko alderditarrean dauka islarik argienetako bat.

Liberaletz gehiengoaren zuten Landibar-Iztaurreko barrutian, Aldundira 3 ordezkari bidali zituztelako, baina gehiengoaren gaitzeko arriskua zuten bizkaitarren gorakadaren aurrean, berekin baitzituzten horiek baserriar lurjabeak, arrantzaleak eta Landibarko langileak, baita kleroaren parte baten laguntza sekretua ere.

Nazionalismoa indarra hartzen hasia zegoen Iztaurreko baserriarren, langile batzuen eta arrantzaleen artean. Horrek, neurriak hartzerako daramatza kasinoko tertuliakideak: "Guztiok dakigu minbizi bizkaitarra gero eta gehiago ari dela zabaltzen, batez ere herri-mailan, eta premiazkoa dela abertzale guztiok eta aurrerakoi guztiok elkar hartzea, gainera datorkigun basatikeria obskurantista eta atzerakoizko uholdea errefusatzeko" (106 orr.).

2.6.1. Hauteskundeetako ustelkeria

Hauteskunde-kanpainari eta bozketari eleberrian ematen zaien tratamendu zabalak agerian jartzen du hauteskunde-sisteman hedatua zegoen ustelkeria, Eleizaldek salatu nahi duena. XVII. kapituluan hauteskunde-eguna kontatzen da; aukera politiko desberdinetako alderdien artean zeuden tirabirak, hirietako jauntxoek bidalitako hauteskunde-agentek, bozketetako iruzurrak (adibidez, bolilleoa, bozketan beste pertsona bat ordeztuz izen faltua ematean zetzan metodoa), hautesgune batean porrota susmatzen zenean urnak haustea, botoak erostea eta abar. Hitz batean, nekez eragotz daiteke ustelkeria hori, zeren euskal langile batek dioenez “guk ez baitugu ezertarako eskubiderik. Jornalarengatik lana eta izerdia eskatzen dizkigute: ongi dago; aitzakiarik gabe ematen ditugu. Gero geure ideien kontrako botoa eskatzen digute, eta horri nik neuk gehiegizko deritzot; baina horretan ere amore ematen diegu, zeren etxean emazte bat eta haurrak baitaude ogia eman behar zaienak” (290 orr.).

Beste maila batzuetan era desberdinean aplikatzen da ustelkeria. Esate baterako, erdiko eta goiko klaseko gazteen artean “ideia-aldaketak, kasaka politikoaren aldaketak gertatzen ziren, eta hain sarriak zirenez, ez zuten inoren arreta erakartzen. Behialako bizkaitarrak bat-batean liberal-aurrerakoi bihurtzen ziren, urliaren edo sandiaren frakziokoak; karlista eta errepublikarrak supituki liberal-kontserbadore bilakatzen ziren hemengo edo hango taldetxokoak, eta beti zegoen eragingarriren bat, batere aitorgarri ez zen zerbait, jarrera-aldaketa horiek erabakitzen zituena: ernamuinetan zegoen alkatego bat, begien aurrean zegoen enplegu bat, aldun-akta bat, emaztegai oinordeko aberats hau edo hura gorteiatzea... (130 orr.).

Nazionalistak egoera horren aurka borrokan ari diren alderdi bezala aurkezten dira eta horregatik hazi egiten da Miguelen figura talde liberal espainiarrean esku hartzeari uko egitean. Adiskideek espainiar politikaren eskaskeriak azpimarratzen dituzte eta ohartarazten diote “kontzientziarekiko nolako abdikazio eta transakzio saila kostako zaijan etorkizun distiratsu hori lortzeko. Ezagutzen haut, eta uste diat espainiar politikako giroa ez dela hiretzat. Bertan, edo leher egiten duk nazkaz bi hilabetera, edo... (144 orr.).

2.6.2. Liberal-kontserbadoreak

Eleizaldek arbuioz aurkezten ditu: “katarro kronikoen aeropago bat, bilera-denborarik gehiena beren ajeez, erreumez, diabetez, beren gaixotasunez elkarri kontsulta eginez, espeziakoak eta erregimen higienikoak bata besteari gomendatuz, senda-uren bertuteak eztabaiatuz, gomazko pastilatxoak elkarri oparitzuz, diskurtso zozoak, zahar-maximak eta antzinako esaldiak jaurtiz” (125 orr.).

Liberal-kontserbadore-zentralismo-espainolismo arteko identifikazioa zuzena da, eta behin baino gehiagotan aurkezten da gobernu zentrala injustizia-iturri gisara, nondik herrialdeak ezin duen ezer positiborik espero: “Agintarien egintza, batez ere hemendik bidaltzen ditutenena, ia beti suntsizaillea da, okerrera bultzatzen duena” (46 orr.).

Ez dira falta Espainiako politikako pertsonaia errealei buruzko zuzeneko erreferentziak, adibidez, Pello Konkoren figura identifikatzen denean “jaiotzatiko eragabeziarengatik horrela deitua, gizarajo erdi-ergel bat, eta ziotenez, espainiar politikako goi-pertsonaia jakin baten pantaila nabaria” (10 orr.).

Eleizaldek eleberrian ironia darabilen abagune urrietako bat Landibarko Kale Nagusia deskribatzean gertatzen da. “Ponpezia plebeiu, luxu hanpatu eta garestizko etxe-sail hori argien eta errotulu luzeen zalea den Udalak “Don Wenceslao Hernangonzález de la Chamarasca jaun Txit Goren eta Argiaren Kale Nagusi” izenarekin bataiatu du, espainiar politikako suhi abantailatuenetako baten, alderdi liberal-baldomerista frakzio melgaristaren, talde zuri-markestistaren gizon gailena, azpitalde chamarasquistaren sortzaile eta buruzagi eztabaidaiezinenaren omenez” (62 orr.), zeina Landibar-Iztaurre barrutitik Gorteetako aldun izan baitzen.

Nazionalismoa sartu arte gobernadorea karlistak xaxatzeaz arduratu izan zen errepublikarrak gehiegi mugitzen zirenean, eta horien bridak lasatzeaz, haiek ahotsa altxatzean.

2.6.3. Nazionalistak

Jadanik eleberriko heroiak bezala aurkezten dira, duintasun eta bertutez beteak, etsai espainolistek ordezkaturiko beste muturreko poloaren aurrez aurre: “Halako moldez eraiki nahi dugu guk Euskal Herria, haren aberastasuna sustatu, haren izpiritua landu, haren arima duindu eta hitz batean, herri duin eta kultoenen parera jaso, non Estatu espainiarreko herrialde guztiek guk geurearentzat egiten ahalegindu nahi duguna egitea lortuko balute, estatu hori supituki oparoenen parera igoko bailitzateke. Baina ez da ezer egingo. Penintsulako bi herri, estatuko bi nazionalitate, Katalunia eta Euzkadi daude bide horretan” (221 orr.).

Eleberrian ezin zitekeen falta eleberritasun ahuleko osagai baten sarrera, Sabino Aranaren irudia gorespenez nabarmentzeko asmoz:

“Hura egiazko gizona zen, don Sabino zena. Hara, —gehitu zuen batez ere Zumeldigana zuzenduz— baporean dut, ganbaran, haren erretratua, Santo Kristoaren azpian.

Egunero errezatzen diot Aitagure bat berari, berari, ez beragatik. Beragatik!... A, zeru goyenetan yagok, arrayu gorrija!”(244 orr.).

Kurtzioren, patroii eta marinelaren hitzak dira, bere baporea Unai-Deuna izenaz bataiatu zuen Sabino Aranaren adiskidearenak. “Sarritan etorri ohi zen hura Iztaurrera, udan batik bat. Batzokian egon ohi zen eserita ordu luzetan gure artean, guztiekin hitz egiten. Gainera uste dut atseginago zuela arrantzaleekin hitz egitea señoitoekin baino. Gauza handiak esan ohi zizkigun, bihotza irakiten jarri ohi dutenetakoak” (245 orr.).

Ondoren, Unai-Deuna baporearen bataioa kontatzen du: “baporea egun haietan eraikia zen, eta igande batean bedeinkatzekoak ginen. Don Sabino Batzokira etorri zen guztiok kafea hartzen ari ginela, bedeinkapenera joateko. Gurekin etortzera gonbidatu nuen eta baietz esan zuen, atsegin handiarekin. “Euskarazko izena ezarriko al diozu, Kurtzio?” galdetu zidan. Nik orduan esan nion: “Don Sabino, zuk itsasontziaren aitabitxi izan nahi baduzu, zuk esandako izena ezarriko zaio, eta ez besterik”. Berak orduan esan zuen: “gaur Artzain Onaren igandea da, eta hauxe da ezarri behar zaion izena: Unai-Deuna”. Halaxe ezarri zitzaion, eta halaxe deituko zaio Kurtzio popan lema gobernatzen dagoen bitartean”(245 orr.).

2.6.4. Karlismoa

Eleberriak jasotzen du nola joan zen pixkanaka nazionalismoa errotuz karlismoaren lepotik. Bilakaera horrek indarra hartzen du Fernando de Agerre-Murua Enriqueren aitaren desen-

gainuaren bitartez, zeinak 1872an bere armak eta ondasunak karlisten kausari laga baitzizkion. Azkenean ikusten du komedia hutsa izan zela, alderdi liberal-kontserbadore espainiarren eta alfonsinismoaren alde.

Karlismoa alde batera utzi eta areagotu egin zuen bere euskaltzaletasuna, euskal Aberriari egindako kalteak konpontzeko. Alderdi euskaltzalean edo euskal nazionalistan erroldatzeko zain egon zen, zeinen erakuntza aurreikusten baitzuen, nahiz eta artean ez agertu.

Nazionalismoa sortu zenean, bere botoak aurreko karlisten artean bildu behar ditu, gauro nazionalistarik hoberenak atzo karlista zirenak direla jabeturik. Zur beretik egiten dena baino ziri okerragorik ez dagoela esaten denez, "ez dago euskal nazionalismoarentzat karlismoa baino etsai okerragorik. Guretzat, juduek lehen kristautentzat egiten zuten ofizio berbera egiten dute karlistek, zeinak haiengandik baitzetozen" (285 orr.).

Hala eta guztiz ere, nazionalisten aspirazioa karlistekin bateratzea da: "Yabaneriak gure anai-arreba banatuei gure aurkako gorrotoa sartu die, euskaltzaletasunarekiko aiherra, jauntxokeria kontserbadorearekiko morroi-menpekotasuna, erreketen matoikeria eragabea eta beste gauza higuigarri batzuk (...) Euskal karlismoak, bizirauten badu, zapalkuntza yabandar hori astintzean, zaude ziur horiek eta gu garrantzizko puntu askotan bat etorriko garela" (285-286 orr.).

2.6.5. Etorkinak

Kasu guztietan euskaldunen antzinako ohiturak hondatzen dituen lan-indar exotikoa dira, eta pertsona bati egotz lekizkiokeen ezaugarri negatibo guztiak dituzte: "Migueli iruditu zitzaion gizon horrek, langile maketo baten itxura zeukala...(...). Joan diren egunetan hemendik sartu zaigun langile madrildar edo andaluziarra da, nonbait Katekesi Asteko andereek eta Katolikoen Elkarteko jaunek biziki gomendatua (...) Nork utzi ote dio eskopeta? Seguraski ez du berea. jende horrek ez du kirolgairik ekartzen. Manta bat, zartagi bat, aldean dakarrena eta...milesker" (20-21 orr.).

XIV. kapituluko pasartean, Azterketa Sozialeko Ateneoak Izarzelaira antolaturiko txango batek baserriarrekin iskanbila sortu zuen, txangolari etorkinen taldeak Euskal Herrikoa den guztiari egiten dion mesprezuak iraindurik, eta horixe da gerora eztanda egingo duen indarkeriaren aurrerapena.

Beste batzuetan soldaduzka egin beharra da gazte euskaldunak deseuskalduntzen dituen elementua. Horrela gertatzen da Ferminekin, Ramon beneragarriaren semearekin: "Hondatu samarturik itzuli zidaten bai ditxosozko koartel horretatik. Badirudi bertan nagitzar bihurtzen zirela. Bizpahiru aldiz hitz itsusiekin ere zabartu zen, espainolez, barkilerook kalean esan ohi dituzten era horretakoekin, baita pasiegoek ere, bizkarrean otarrea dutela baserrietara etortzen direnean. Baina Mañazik, bere amak, aurpegia goibel jarri zion, eta nik esan nion Iturrietako gure etxean sekula ez zela hizkuntza hori entzun, ezta hitz horiek ere"(12 orr.).

Horrela, euskal gazteak bere izaera galtzeko bitarteko bihurtzen da soldaduzka, eta eraldaturik itzultzen da etxera, etorkinen pareko agente deseuskalduntzaile bihurtzen delarik.

2.7. BESTE LITERATUR BALIABIDE BATZUK

Ez dira asko, ezta bariatuak ere, Eleizaldek bere eleberrian darabiltzan literatur baliabideak. Nahiz eta bere egiturari dagokionez Bergarako autorearen literatura trinkoa izan, ez ditu baliabide modernoak ezagutzen eta tradiziozko estiloari datxekio, deskribapen, erretratu, pertsonai talde, egintza eta abarretan ikusi dugunez.

a) Autore orojakilea

Sarri samar agertzen da autore orojakilea, pertsonaien menperatzailea. Adibidez, bere unibertsitate-ikasketei ekiteko Madrilera doala Santander eta Asturiasko estudianteak Venta de Bañosen trenera igotzean, harro dabilta gurasoei ziria sartu eta beren bihurrikerietarako diru gehiago atera dietelako. Hala dio orduan autoreak: “baldin eta Miguelek beste hogeitau urte gehiago izan balitu, tristuraz pentsatuko zukeen ehundaka pezeta haiek familiei kostatuko zitzaizkien sakrifizio mingarrietan, era guztietako nekeetan, zeren umeen bizioen ondorioz, Madrilgo golferietako urdangak sustengatzeko baitziren” (39 orr.).

Autorea da Miguelek 20 urte gehiago balitu zer pentsatuko lukeen dakiena. Hala eta guztiz ere, pertsonaien pentsamenduak zuzeneko estiloan aurkezteak erakusten du autoreak ez zuela zehar-estilo askea ezagutzen:

“Don César-ek, zeini ez baitzioten ihes egin epaile jaunaren aurrerapenek, bere golkora-ko pentsatzen zuen:

- Zer nahi ote du epaile horrek? Berdinen antzera tratatzea, neure etxean harrera egitea eta neure alabarekin berera bisita egitea?... Kontxo, gizona! Zure ezpaleko jendea ezagutuko ez bagenu bezala eta aitzakiarik txikienarekin zer nolako konfiantzak hartzen dituen ez bage-neki bezala! (187 orr.).

Eleizaldek, autore orojakileak, Don Césarrek zer pentsatzen duen badakielarik, hala ere ezin du islatu zehar-estilo askean.

b) Gutunak

Eleberriarren amaiera eta obra osoan zehar bigarren mailan dagoen maitasun-bilbea azaltzeko egiten duen gutunen erabilera hori, nahiz eta literatur baliabide gisara ezaguna izan, originalagoa da. Eleberriarren erdi aldera arte ez dira Emilia de Aldagan eta Miguelen arteko maitasunezko historiari buruzko erreferentziak agertzen. Praktikoki garrantzi txikia dute amodio-historia horretako gertakariak, Miguelek lantegitik alde egiten duenean izan ezik, zeina gogoeta baten ondoren konturatzen baita bere egintzaren egiazko zioaz: Emiliaren arreta erakarri. Eleberria beste bide dramatiko batzuetatik doa eta horren bukaeran bakarrik agertzen da Emiliak Maria Solaure bere adiskideari egindako gutuna, Londresetik Miguelenganako bere sentimenduen aurkikuntza eta aitaren adostasuna jakinaraziz. Horrela, eleberriarren gorputzean gertatutakoaren parez pareko jazoerak kontatzen dira, Emiliaren atzera-begirape-nezko ikuspegiarekin, Miguelenganako bere sentimenduak zein fasetatik igaro diren eta pixkanaka nola maiteminduz joan den azalduz.

c) Literatur erreferentziak

Ugariak dira Eleizalderen obran. Batez ere, Shakespeareri buruzkoak. Zalantzarik gabe, ezagutu eta miretsi egiten zuen autore anglosaxoia, *Ekaitzako* aipuekin edo *Hamleteko* erreferentziekin erakusten duenez: “Lurperatzailea, gizon serio eta hileta-girokoa ere bazena —horrela

aitortu beharrean gaude, egia esan nahi badugu, nahiz eta puntu honetan shakespearetar tradizio errotuaren haustura sentitzen dugun—...”, Ofeliaren ehorzketa sonatuaren aipua eginez. Emilia Aldaganeke berak, Landibarko jauntxo liberal-kontserbadorearen alabak berak ere, irakurtzen du Shakespeare ingelesez, eta hala dio Eleizalde XII. kapituluaren amaieran *Much ado about nothing* komediaz hitz egitean: “Egun hura guztia Emiliak Shakespeareren bertsoetan begiak josita zituela eman zuen, eta pentsamendua haietatik oso urrun zuela” (228 orr.).

d) Hizkuntz erreferentziak

Koldo Eleizalde ez du ahazten gramatikalari eta hizkuntzalari gisa duen egitekoa eta eleberrian kostaldeko hizkeraren ezaugarriak deskribatzen ditu: “kostaldean eztarriko inflexioak nagusi dira, bokalismoa lausoagoa da, ez da lur barrukoaren artean bezain gardena, eta kontrakzioak, herri-mailan, azken muturreraino eramaten dira, euskal berben egitura erabat desitxuratuz horiek hautematera ohiturik ez dagoen belarriarentzat” (231 orr.).

e) Izen adierazgarriak

Izen adierazgarrien erabilpena da eleberria irakurtzean arreta gehien erakartzen duten aspektuetako bat. Nola herrien izenak hala pertsonenak dira, berenez esanahia dutenak, eta autorearen aldetik halako ironia-gaitasun bat erakusten dutenak.

Herri-izenak: Valdecigarras, Sotillo del Fraile, Enramadarrecia, Villacolinchas, Majadaparda.

Pertsona-izenak: Atanagildo Suárez Pelón, jaiotzez leondarra, arrazaz moriskoa; Ramiro Segundo Agiluchos y Fuentelajara; Wenceslao Hernangonzález de la Chamarasca; Artemio Pérez-Cigueña; Glicerio Pedrajales; Malaquíás Menéndez-Grillo; Fabriciano Ruygómez de la Encina; Macario Giménez Sarmiento, Trifilino Tordajos, jatorriz burgostarra eta udaleko idazkaria. Tiburcio Villarejos, “Vasco-Escocesa”ko listaria, Conde del Real Estornudo; Marqués de las Siete Plumas eta abar.

f) Elezaharren sarrera

Zenbait kasutan elezaharrak eta gertatzera doanaren ikuspen fantastiko aurre-adierazleak sartzen dira, naufragioaren pasartean bezala: “Arizpe auzuneko emakume baserritar batek kontatu dit gaur goizean agertuen talde bat ikusi dela, zortzi edo bederatz, Gurutzearen ermitarako galtzadan gora poliki-poliki igoz. Bat gidatuz bezala zihohan, eta ahots oso urrunduenez zurrumurru bat entzuten zen, errosarioa errezatzen balebiltza bezala” (240 orr.).

g) Kontakizun tartekatuak

Nahiz eta eleberriak batasuna duen egintzan, XIII. kapitulua bere baitan batasuna duen kontakizun bat bezala ageri da, eta izatez horrela agertu zen Hermes aldizkarian eleberria argitaratu baino lehen. Ia ez du zerikusirik argumentuaren bilbearekin, izan ere dena lur barruko herri batean gertatzen baita, eta horrela, itsasoko gertakari horrek adierazten du Eleizalde nola interesatzen zuten 1912ko abuztuaren 12a eta 13a bitartean euskal kostaldean gertaturiko benetako gauzak kontatzeko, zeinean Bermeoko ontziteria ustekabean harrapatu baitzuen galerna zakar batek. Eleizalderen artxihoan zuzeneko testigantzak daude autoreak berak jazoera haiei buruz bilduak, bizirik atera ziren marinel batzuei egindako galdeketen bidez. Eleizalderen literatur senak sortutako emaitzarik lortuenetako bat da, oso egoki deskribatzen baitu ontzien itzuleraren zain kaian daudenen larritasuna.

h) Kazetaritza-testuak

Etorkinen txangoan jazotako gertakariei buruz "El Imparcial"en azaldutako albisteak kazetaritza-estiloan islatzen dira, albiste hori egunkariak eman zuen terminoetan transkribatuz.

i) Beste testu batzuk

Bilbearen barruan Landibarko epaileak Enrique de Agerre-Muruari bidaliriko "Agur-txartel" bat ere sartzen du.

Hitz batean, esan genezake baliabide ugari erabili dituela eleberri luze eta estilo narratiibo eta deskribatzaile tradizionalen baten monotonia hausteko; horrek erakusten du egileak ongi menperatzen zuela literatur gertakaria, nahiz eta eleberriaren asmo politikoak karaktereen sinesgarritasunari erasaten dion.

Landibar, 1917an Bizkaiko Aldundira nazionalistak sartu ondorengo gertakari bezala ulertu behar da, I. Mundu Gerrak laboraturiko gorakada ekonomikoaren ondorio gisa. Baserrigiroko biztanleriak diru-sarrera handiak ditu bere emaitzen eskaeraren ondorioz. Hala eta guztiz ere, oparotasun horrek baserritar asko lurren jabetza lortzera bultzatu arren, asmo hori gauzatu gabe gelditu zen, lurraren prezioak gora egin zuelako eta 20. hamarraldian krisialdia hasi zelako. Urte gutxiren buruan, jabetgo bat edukitzera irits daitekeen baserritararen sublimaziotik, urteroko errentak ordaintzeko ere ez duenaren hondamendira igarotzen gara. Horrekin batera, Arkadia zoriotsu hori, Eleizaldek bere eleberriaren erakusten duen nekazaritza-mundu arazotsu bihurtzen da. Harik eta 1932an, Engrazio Aranzadiren *La casa solar vasca* argitaratzean, euskal arketipo rural idealizatua sublimaturik gelditzen den arte.

3. KOLDO ELEIZALDE ETA EUSKO IKASKUNTZA

Koldo Eleizalde Eusko Ikaskuntzaren sorreratik bertatik izan zen erakunde horren partaide. Eusko Ikaskuntzaren Lehen Kongresuan delegatu izendatu zuten Elkartearen Batzorde Iraunkorren esku hartzeko. Karguak izendatzeaz arduratzen zen batzordean esku hartzen du eta Batzorde Iraunkorrek kide eta Hizkuntzako Hirugarren Saileko ordezkari hautatzen dute. Harrezkero kide sortzaile gisa eta Eusko Ikaskuntzaren Lehen Kongresuko partaide bezala agertzen da, eta babesle bezala, 250 pta.ko zenbatekoarekin.

1919ko urtarrilaren 4an telegrama bat bidali zuen Gasteiztik, Batzorde Iraunkorrek Donostian egingo zuen bilerara ezin zitekeela etorri adieraziz.

1919ko martxoaren 2 eta 3an egindako Bileran partehartze handia izan zuen. Eusko Ikaskuntzaren helburuak hedatzeko zirkularra bizkaierara itzultzeaz arduratu zen, zirkular horren itzulpenaz Gregorio Mujikak aurkeztu zituen zalantzak ebatzi ondoren, aldagai dialektal bat baino gehiago baitzeuden.

Bizkaiko Aldundiaren Euskal Kulturako batzordea izendatzea ere erabaki zen Eusko Ikaskuntzaren komisio delegatu gisara. Oñatiko Kongresuan Hizkuntza Sailak Euskaltzaindiaren sorreraz landutako egitasmoa aurkezteko asmoz aldundiei bidali beharreko zirkularra idaztearen ardura Eleizaldek hartu zuen bere gain.

Idatzi horretan euskararen "iraunarazpen, sustapen, arazketa eta hedapena"ren alde agertzen da; arazo hori "iehena eta gure herriak bere gain dauzkanen artean hobetsi beharre-

koa da”. “la batere literaturarik gabe, oraindik herri-irakaskuntzan erabat murgildu gabe, alde batetik ia era eskusiboan herri-erabilpen idatzigabera eta bestetik kabineteko espekulaziozko ikerketetara baztertua, euskarak gainditu beharra dauka espekulazio hutsaren eta erabilpen herritar soilaren arteko tartea, bi ezagutza-mota hain desberdin horien artean dagoen amildegia bete beharra dauka, hizkuntz fenomeno bitxi izateari utzi beharra dauka, eta gens euskaldunaren gizarte-lokarri lehena eta garrantzitsuena bezala behar den kategorian bere burua berreskuratu beharra dauka, izan ere horren mintzaera tradiziozkoa eta propioa baita”.

Euskara defendatzearekin zuzenean loturik, Eleizaldek zenbait lan burutu zituen euskarazko irakurgai-liburuak sor zitezela sustatzeko. 1919ko ekaineko 27 eta 28ko Batzorde Iraunkorrean, haur euskaldunentzat kartilla edo silabategi bat prestatzen ari dela azaldu zuen, eta berehala amaitzeko asmoa zuela. Beste kide batzuekin batera (Klaudio Armendariz, Enrike Eguren eta A. Apraiz), etorkizuneko euskal unibertsitatearen araudia idazteko eskatzen zaio. “Estudios Vacos” erakundea zenak eman eta une hartan Eusko Ikaskuntzaren eskuetan zegoen material toponimikoaren argitalpena prestatzea erabaki zuten. *Indices Toponímicos* argitaratzea erabakitzen da, lan horretarako bere burua eskaintzen duen Koldo Eleizalderen zuzendaritzapean.

Eusko Ikaskuntzaren material toponimikoak Euskaltzaindia sortuberriari utzi zitzaizkion. Koldo Eleizalde Euskaltzaindia osatu zuen lauho hartako kide izan zen, Arturo Kanpion, R.M. Azkue eta Julio Urkixorekin batera. Eleizalde idazkari izendatu zuten eta Akademiaren errege-lamendua lantzeko arduradun. Hori 1919ko irailaren 21ean gertatu zen. Euskal ortografiari buruzko eztabaidetan esku hartu zuen eta gai horri buruzko akordioak Euskaltzaindiak onartu ondoren, Koldo Eleizaldek Eusko Ikaskuntzari proposatu zion bere idatzi guztiak arau ortografiko berrien arabera izan zitezela, eta proposamen hori aho batez onartu zen.

1920ko apirilaren 29an, Bizkaiko Aldundiaren Instrukzio Publikoko Batzordeak argitaraturiko euskarazko silabategiaren sei ale bidali zizkion Eleizaldek Angel Apraizi:

Euskeraz irakurtzeko irakaspidea, Eusko Ikaskuntzaren eskariz egina.

1920ko ekainaren 12an Angel Apraizi Bilbotik idazten dio. Aitortzen du 11 egun daramatzala ohean eta medikuek ez diotela oraindik jaikitzeorik inola ere esaten. Horregatik ez doa bilerara eta 1920ko ekainaren 19ko bilerara ezinetorriaren desenkusak aurkezten ditu. Medikuen hitzetan bronkoneumonia daukala dio “hesteetako gaizkoatze batez apaindua”. Heriotza goiztiarrera eramango zuten arazoak jadanik agertzen hasiak zitzaizkion.

Eusko Ikaskuntzaren 2. Kongresua ari ziren prestatzen Iruñean 1920ko udarako, eta kongresu horretan izandako Hizkuntza Sailaren bileran, Eleizalde berriro hautatu zuten sail horren ordezkari Batzorde Iraunkorraren aurrean. Gaixotasunak ez zion utzi aurreikusitako gaiarekin II. Kongresuan esku hartzen: “Euskara bakarrik ezagutzen duten Herrialdeko erregioetan lehen irakaskuntzak duen arazoa. Soluzioak. Zein gradutan hasi behar da gaztelaniaren irakaskuntza?”, baita “Institutuak. Bere irakaskuntzak Euskal Herrian antolatu ahal izatea”.

Ordurako auzo-ikastolen sorrerak premia berriak sortu zituen, adibidez, ikasliburuaren premia. 1920ko irailean erabaki zen Eleizaldek kudeatzea, Eduardo Landetarekin batera, “euskal erregio” bakoitzeko Historia-liburuaren sorrera. Beste eskari batzuk Jose Madinabeitiarekin egin zituen, hala nola, Arantzazuko Udalarri (Bizkaia) mediku-postu bat hornitzeko euskararen ezagutza eskatzea baimentzen ez zitzaielako protesta egitea, edo Eusko Ikaskuntzaren dibulgazio-hitzaldien egintza hedatzearen eskaria, horiek birsortzeko prozedura mekanikoen bidez.

Toponimiarekiko interesak, 1920aren bukaeran zegoen dokumentazio guztia Eusko Ikaskuntzari eskatzera eraman zuen, Aurkibide Toponimikoetan lan egiteari begira. Eusko Ikaskuntzarentzat beharrezko jotzen zen, halaber, aldizkari zientifiko itxurapean adierazpen-organo bat edukitzea. Ideia horri forma emateko, Eleizaldek, Julian Elorzak eta Angel Apraizek batzorde bat eratu zuten, Julio Urkixorekin ados jar zedin, eta jakina denez, 1922tik aurrera R.I.E.V. aldizkaria Elkartearen hedapen zientifikoko organo izan zedila lortu zuen: izan ere, Julio Urkixok 1921eko otsailaren 1ean erantzun zion Portugaldik, urtarrilaren 21ean Gallanok, Landetak eta Eleizaldek Eusko Ikaskuntzaren izenean egindako eskaintzari, R.I.E.V. aldizkari zientifiko bihur zedin, era guztietako erraztasunak emanez, baita R.I.E.V. baztertzea bera ere Eusko Ikaskuntzak bere aldizkari propio bat argitaratu nahi bazuen, nahiz eta aldizkariaren zuzendaritzari eustearen aldeko agertu zen, eta Eusko Ikaskuntzako lankideei atek irekitzeko prest ere bai. Eleizaldek gutun-truke sarria izan zuen Aldizkariaren zuzendari eta jabearekin, eta bertako lankide izan zen, harik eta Julio Urkixorekin enfrontamendua izan zuen arte.

